

NAIZ NAUTE

Xabier Amuriza

*Aittitte, aitxitxe, aitxitxa,
aitita, aitite, aitexe, aittajaun,
aitona, aitatxi, aitaso, aitantxi...
egin nauen EURI bilobatxoari,
egunen batean lerro hauek
irakurriko dituen pozean.*

AURKIBIDEA

1. Sotana naufragoa	5
2. Hitzordu lorrin bat.....	20
3. Zinkunegiko morroia	26
4. Gure amamaren esnea	76
5. Erletxen	82
6. Gazta baten amodioa.....	92
7. Eneperi	99
8. Tiro egin zidatek.....	102
9. Eskargako txakurrak	103
10. Zenonen paradoxa	108
11. Txakurra eta behiak.....	112
12. Geriza	118
13. Händel.....	119
14. Bach eta.....	121
15. Mozart.....	124
16. Brahms	126
17. Bozkarioaren oda	128
18. Berlioz	131
19. Padre.....	135
20. Alon eta Agate	137
21. Txilinerrota	146
22. Oteiza eta.....	151
23. Frantziska.....	153

24. Ama Birjina agertu	156
25. Patxi	159
26. Oiloak eta txerriak	167
27. Txakurrei danba.....	168
28. Barea	172
29. Haurra ala bizikleta.....	175
30. Gure amaren joko.....	183
31. Predikatzen nuenean	197
32. Hasierako okerrak.....	200
33. Monagilloekin Igeldora.....	211
34. Moja joan ez zen bat	213
35. Lekaimen hilekoa	215
36. Gari jotzeko makinak.....	220
37. Pikatxoiaz eta palaz	225
38. Barietateak	233
39. Itsasoari men	237
40. Oletako animaliak.....	243
41. Aitona, Jainkoa non?	254
42. Lehen porrota, betiko	256
43. Amorotoko sermoi bat.....	263
44. Saraseta hilzorian	276
45. Oizko zaldi gorri hark.....	283
46. Andoaingo Arrate.....	284
47. Misterioaren miraria	300

SOTANA NAUFRAGOA

Intimitate gordeak haurtzaro samurreko edo nerabezaro zaurgarriko ahultasunak zirelakoan, adinak ez dituela gutxitzen ikusi dut, arabera ugaltzen eta anizkoitzen baizik, halako eran nola, goizalde ilargitsu batean, Mendexatik Gizaburuagara bidean, Karraspioko hondartzara baztertu nintzenean. Uda amaierako gau zoragarri eta zorarazle horietako batean, ilargia ezteietara andan zeramatemala zirudien. Mendexako apaiz lagunaren sukaldean, mundua biharamunean konkistatzen hasteko moduan utzi ondoren, Lambretta gorri esanginak aldatsean behera ninderaman, planeatzen bezala, hain garbi bereizten ziren olatu zurien eraginez, edo argitasun baporoso baten gainean. Astiro-astiro hartutako bihurgune bakoitzak Lekeitio ikuspegi ezberdinerabiratzten zuen.

Aldapa barrenean, «Mendexako zubia» izeneko bidegurutzean, zalantzari aurrea hartuta zetorren erabakiak Ondarroarantz bidali ninduen. Kurlutxuko bihurgunearen oinetan, arrapala luze eta erdian boluptuoski okertuak

nerabetasun lotsorrera bazterturiko hondartza adonis-tarraren aurrean jarri ninduen. Soldadutza guztia Ebro baino handiagorik ez zitekeela izan tematzen igarorik, itsasoa lehen aldiz ikusi zuen lehortarrak onartu zuenaren aurrean: «Hau zabalago izan daiteke, baina luzeago ez». Beste erdi desesperatu batek, hura hain brabo aurkitzean, hots egin zionaren aurrean: «Bahabil? Bahabil? Mantsotuko haiz hi ere, ezkontzen haizenean!». Inor ez dagoenean, bazter guztiak apurtzen eta, jendez inguratuturik aurkitzean, mantso-mantso egoten den itsaso koldarraren aurrean. Seminariotik urteko txangoan joanda, Sopelan lehen aldiz ikusi nuenean, egun osoa, haitzean josita, berari begira egin nuenaren eta, harrezkero, miresteke baizik begiratu ezin diodanaren aurrean.

Garraitz uhartea, itsas-lehorren adiskidetasunaren kontza egiten. Itsasoa, bere ongizate mugagabearen adurra pausatzen edo haitzei «geldi hor» agintzen. Hondartza fin-fina eta leun-leuna, oinetatik gorputz osora gozotasuna igortzen. Hodei mehatz eta xume batzuk, altueraren domeinuan desplazatzen. Ilargia ere horra, begirale baino gozatzaile, inork ez duela zelatatzen baliatuz. Hortxe agertu naiz ni, harmonia gaindiezinean sartzera noala sentitzeak giza distortsioa leunduko didan bihozkanan.

Sotana erantzi eta haitz oste batean multzoturik utzi nuen, ez bakartasun totalean nengoela ondo ziurtatzeak eskaini zidan asaskuagatik bakarrik, baizik, ilargian islaturiko uhin suzesiboen marra gainean, ez nintzelako

eusteko gauza izan nire belztasun ibiltari arean koni-koaren kontrastez irudikatzen nuen edertasunari. Pisua arindu behar nuen. Sotana erantztean, figura barregarria bistaratu zen, nintzen, gauez gauzak hobeto ikusten baitira, inork begiratzen ez dizunean, edo inori begiratze-ko irrikatik libre zaudenean. Apaizon benetako «txorimalo» itxura zen, sotanarekin esleitzen zigutena baino, hain gabe nabarmentzen zena: prakak berna erdiraino moztuak edo doblatuak, alkandora lepo gabea, eta bo- toirik ezberdinenak, erdiak falta. Berdin jertsea ere, zei- nak bizkarra eta paparra itxuraz babesten bazituen, aisa jasaten baitzuen besape eta ukondo zulatuak eramatea. Sotanak dena estal zezakeen, gizatasun urria barne.

Sotanaren aurrekari horiek guztiak kontuan izanik, hondartzan alderik aldeko ibilaldi batzuk eginez, Karras- pioko bakartasun osoaren jabe sentitu nintzenean, bi- luzteko aukera probidentzialak tentatu ninduen. Zaila baitzen, gau argiegi hartan ere, Lekeitioko portutik be- gizta zitekeen larrugorri bakarti hura Gizaburuaga eta Amorotoko abadearekin identifikatzea.

Tentazioa aise gailendu zen ekintza sublimeki apar- teko bat bezala, ez grina erreprimi-tuen edo erreprimi- tu beharrekoen askatze mendekatiagatik, baizik ilargiari entzun niolako, bere ezpainen zirkin eta guzti:

–Zelan ausartzen haiz, nire biluztasunaren liluraz, zarpailtasun horrekin profanatzen adur zuridun itsasoa eta aldare gaina bezain hondar-zoru leuna?

Ilargia umontzi gardena zen, barruan ia bera beteko fetua erakutsiz. Artean inoiz planteatu ez zitzaidan haren sexua egun hartan eme agertu zen. Behin soineko ministerialez gabetzera menturaturik, eme baten desioak agindu sakramentalak ziren. Karraspioko hondartzara, berezko haitz-ahur altu batetik, Ama Birjina txiki bategi begiratzen zuela banekien, baina, ilargiaren laguntza inkondizional eta guzti ere, ur ertzetik ezin nuen hauteman haren harkaitz-oin handiaz beste xehetasunik. Gainera, hondarrean zeutzan soineko eta sotana multzotik urrundu ahala, neure gorputzaren agerpen bistosoan zentratu nenginen.

Hondartzan, ikus gaitzaten ari ez garenean, denok gauza berdintsuak egiten ditugu. Olatu xumeei iheska-jarraika, alderik alde ari nintzen, hankak geroz barrurago, jauzi gangarrak eginez eta ostikada zentzugabeak jaurtiz. Askatasunaren sententzia zentzu eta norabide faltan biltzen zen, azkenean haitzen eremuan ostendu arte.

Bakardadean ezinezko dirudien ezkutatzek nire golkoan bazuen justifikazioa, zeren, hondartza irekian inork ez ninduela ikusten eta, ikusita ere, ezin ninduela ezagutu jakin arren, ezin bainuen ekidin sentitzea Lekeitioren ikuspegi materiala, pertsonalizaturik, neuri begira zegoela. Banekien hori teorikoki, praktikoki, metafisikoki, ezinezkoa zela, baina zertarako galdu behar nituen denbora eta aukera neure irudikerien aurkako borrokan, haitzetatik haranzko itsasbeheran nahi beste hondar eta zokondo liluragarri bazegoen? Zoriona une bat bada,

badakit definizioa: Karraspio, gau epel ilargitsuan, apaiz biluz baten larruan.

Zorionaren akats bakarra da, niretzat, denboratik ateratzen nauela, eta hastea eta amaitzea une beraren ikuspegiak direla. Ez dakit bitartean zenbat denbora arautu igaro den, niri orduan gertatu izango zitzaidan bezala. Ilargiaren desplazamenduak ohartarazi ninduen denbora arruntera itzultzea komeni zela. Zirudienez bestera, ez zen itzulera erraza izango.

Soineko multzoa eta sotana ez zeuden utzi nituen hondar tontortxoan. Perpendikularrak eta diagonalak korritzen hasi nintzen, geroz luzeagoan, eta lorratzik ere ez. «Put! Put! Barka! Ene Ama! Oraintxe nagok ona! Iruntzieta-
ra maite nauen norbaitek apropos egin zidak hau». Geroz joan-etorri bizkorragoak eta urrunagoak egiteak emergentziaren dimentsioak handitzea besterik ez zeragien, ohartu nintzen arte itsasoa bera izan zela lapurra. Itsasgora nagian inguratu eta arropa-multzoa eramana zuen.

–Gorago utziko zian –pentsatu nuen lehenik, baikortasuna ezkortasuna baino fidagarriago delako jarrera maiz predikatu, gutxitan sinetsi eta gehienetan alferreko horretan.

Uretan sartu nintzen, gerriraino, paparreraino, kokotseraino, nire salbamen-multzoa non agertuko, eta halako batean, urgain motelki islatsuan, orban bat, belztasun bat hauteman nuen, neure sotana izateko itxura guztia zeukana. Itsasgorak eramana itsasbeherak itzultzea itxaron behar al nuen?

–Hau alukeria! Nondik zeharkatu behar diat orain Lekeitio, Oletan zehar Gizaburuagako abadetxeraino? Mendexara itzul nintekek, hor elizalde arriskutsua ez balego. Puta, puta, puta! Barka, barka, barka! Ene Ama Birjina Oibarko, Antiguako, Begoñako, Arrateko, Arantzazuko, Urduñako... ezarri dizuten izenik polite-neko, guztieneko! Baita Pilareko ere, trantzetik libratua izatekotan! Lehendik daukagun famarekin, honelakoxe errematea behar genian!

Pentsatzeak ere hezurak urtzen zizkidan, episodio zuntzun hura jakitera, nolako bertsioak zabalduko ziren gure indar bizi eta biziginen hortzetan. Ez nuen konfiantzako aterik non jo aurkitzen, haietara salbu iristea baitzen gakoa. Telefono kabinak ere zabaltzeko zeuden oraindik, gure Franco bedeinkatua (Pio XII.a) kuartelak eta katedralak inauguratzen lanpeturik zebilelako.

–Itsaso traidore! Gehiago ez diat predikatuko Moises pasatzeko erdibitu hintzela, bizioaren bizioz zabaldu hintzela baizik.

Bazirudien amorruak, lur ostikadek, buruaren kontrako ukabilkadek, abadearen biraoek eurek ere, egiten zuten bakarra zela konponbidea denboraren esku uztea, zeinaren joateak emergentzia larriagotzea besterik ez baitzuen lortzen. Bat-batean, itxaropen sinesgarri batek jo ninduen.

–Hondartzako zerbitzugunean derrigor egon behar dik zerbait. Beharbada, ateren bat zabalik, non estalgarriren bat topatu ahalko dudan.

Dutxak, komunak, kafetegia, otartekotegia, izozki-denda, «Parrape» izeneko tabernatxoa, kioskoa, Gurutze Gorria... guztiak nituen irritsez pasatzen, sakatzen, ostikatzen, ukabilkatzen, eta deskuiduz ere ez zegoen pertsiana muskil bat zabalik. Sonbrilla puta bat ez zegoen kanpoan, ezta ahaztutako bandera zikin bat ere, bere oihal puskatuekin zerbait probatzeko. Aldagelen inguruan setio antsiosean nenbilen, bere umeak edo bere gosea barruan geratu zaizkion txakalaren antzera. Ez dakit zergatik gogoratu nintzen ezagutzen ere ez nuen animalia horretaz, zeren zer axola zidan niri orduan txakalak bere umeak jan nahi bazituen ere, edo Afrikari su eman eta misiolari guztiak Urkiolan konfinatzen bazituzten ere?

–San Antonio, San Antonio! –belaunikatzen naiz esku goran erreguka—. Ez niri zerrikeria hau egin!

Larrialdi estremoetan aurrenen egiteko gomen-datzen zena egiterik ere ez neukan: zigarrotxo bat piztu eta lasai-lasai erre. Hau ere sotanaren naufragioan baitzebilen!

– Baina nor duk hemen naufragoa? Bera ala ni?

Olatu errukiorren batek nire salbamen-multzoa atzera hegalerantz hurbilduko zuen itxaropen zirritutik, hondartzan zehar berriro itsasorantz nindoala, ilargiari begiratu nion eta deskojonatzen iruditu zitzaidan. Horretantxe ari zen madarikatua, lehenago fetu samur bat zirudien deabru egurketaria barruan kabitzen ez zitzaiola.

–Barre egiten dun? Jaitsi eta egidan aurrez aurre, kapaz bahaiz! Horretarako inspiratu al hitunan Evak eta Birjinak eta inon diren tentazioak?

Uretara oldartu nintzen, estali ninduen, aurreratzen tematu nintzen. Inor ikaratu ez zuen dozenagarren purrustadan, ur gainean igel tripagora nintzen, sotana noiz hurbilduko, astiro, pal-pal, beharbada berak bakarrik maita zezakeen edukiaren, gorpuaren bila.

Gorpu hori txalupa batek aurkituko zuen egunsentian. Gero azokan, baxurako arrain oraindik bizien prezio barruan, mundu guztira zabalduko zen fidelitasunaren kasu erdiragarria, Gizaburuaga eta Amoro-toko abadearena, zeinak, «irristada» askotariko baina ia probidentzial baten ondoren, bere salbagailu eternoa berreskuratzeko lehia apokaliptikoan, arima entregatu baitzuen.

Horixe pentsatu nuen une batean, horrexen polit eta efektiboa baita, izan ere, norbere buruaz beste edo beste-ari egitea. Baina hara orain, benetako motiboa iritsi zenean, atzerabideak azaltzen zirela: igeri ez nekiela, «buruaz beste» horri bertigoa niola, armen erabilera gaitzesten nuela, sokaren laztasunak hozkia zemaidala, trena berandu zettorrela. Kostalde hartatik pasatzen ere ez!

–Horretarako adorerik ez badaukak –diotsot neure buruari–, hemen egonda gutxiago aurreratzen duk. Handaze, heldu motorrari eta aire!

Ba, Mendexara igo behar diat nahitaez. Bide horretan ez zegok arrisku handirik. Izatekotan ere, plaza-
ra sarreran. Dozena erdi kale-bizitza, lotan. Taberna
itxita zegoan nik handik alde egite rako ere. Orduotan
nork egon behar dik leihoan, motor zaratara ikusmi-
ran jaikitzeke zain dagokeen insomneren bat ez bada?
Berrogeita hamar bat metro honago, motorra eskola
ostean utziko diat eta oinez hurreratuko nauk isil-isi-
lik, oinutsik hori ere errazago. Abade-lagunaren atea
kos-kos joko diat, eta amenean jaikiko duk, oleazio
eske datorrenen bat delakoan. Atea desgiltzatzen has
dadinean, bi eskuekin ahoan isilgailua eginez, shhh,
bis-biska esango zioat:

–Roman! Neu nauk. Ez piztu argirik. Modu xe-
brean natorrek, baina laster jakingo duk guztia.

Hartuko duen sustoa ez dateke handiagoa, txapeloke-
rrak ez direla ikusteak emango dion nasaitasuna baino.

Mendexako aldasgora erdian, Santa Luziaren ermita
paretik pasaeran, aurreko bere egunean sermolari deitua
izanik, gizon batekin meza ondoren belarritik belarrira
izan nuen elkarrizketa laburra gogoratu zitzaidan.

–Horrela berba egiten badu, beste sermoi askorik ez
du egingo berorrek.

–Egia ez al da, ba?

–Egia antzina gurutzifikatu zuten. Gero bera piztu
zen, baina egia badirudi bertan geratu zela.

–Ene Luziatxo! –hots egiten nion pentsamenaren be-
roenetik—. Begiak atera zizkizutelako bazara ikusmenaren

zaindari, horixe eskatzen dizut orain: atera begiak guztiei, ni nonbait salbu ikusi arte.

Motorra eskola ostean itzali nuenean, txakur-aldra baten zaunkak geratu ziren martxan. Horrek ez nindukeen bereziki kezkatuko, baldin abadearen atera irteten, ama ez zela, arreba imajinatu ez banu. Eta abadea lo, «aita-amak eta etxeakoak uzten ez dituen ez da nire duin» delako pasarte ebanjelikoan etzana.

–Buf! Hori ezin diat egin. Ba al dakizue zer egingo dudan? Batean zein bestean suerteak erabakiko baitu, noan neure etxerantz zuzen. Han, behintzat, atea zabalik egongo duk.

Berriro motorra abiarazi eta ahalik suabeen aldentzen nintzen Mendexako herrigunetik. Santa Luzia pareko bihurgunean, motorrak manilar azpian itsatsita zeraman poltsa handiak zapla ernarazi ninduen. Dokumentazio eta erreminten zorroz gainera, kremaile radun atal nasai bat zeukan, non jenerorik ezberdinenak gordetzen baitziren, batzuetan denak batera: Gabonetan etxera eramateko opatu zizkidaten barraskiloak; eliz liburuak eta ez hain elizakoak; Txit Santuaren urrezko ontzitxoak, hila-ren lehen ostiraletan, baserrietan sakabanaturiko gaixoak zerbitzatu behar zirenerako; ostia gaiak eta meza-ardoa; umeekiko mendi irteeran, hantxe sartu eta ateratzea ahaztu zitzaizkigun arropa izerdituak eta otartekoen hondakinak; bateko eta besteko fotokopiak, tartean ilegalen bat ez ote zegoen inoiz seguru ez nengoenak.

Poltsaren hondoa bihurkinez zulaturik (ez kosta gabe, barrabana!), bainujantzi gogorra eta latza atera zen. Hanka bakoitzarentzat zulo banatarako tarterik ematen ez zuenez gero, minigona gisan egokitu nuen gerrian, ondo kostata hori ere, estu-estu, lakar-lakar. Motorrean esertzeko okertzen nintzenean, kremaierak giltzurrunak zerratu nahi zizkidan. Hankartea-eta (eta zer?) airean geratu ziren.

–Zoritxarreko enkontruren bat gertatzen bada –
pentsatu nuen– zintzotasun aszetiko bat aitortu behar-
ko didate, behintzat.

Lekeitio erdi-erditik zeharkatu beharrak ez ninduen hainbeste beldurtzen. Nork ezagutu behar ninduen biluzik, burua parabrisean itsatsita, badaezpada kentzea erabaki nuen betaurreko gabe? Gehienik ere pentsatuko zuten:

–Makarraren batek Gizaburuaga eta Amоротoko apaizari motorra ostu zio.

Nire beldurra bestea zen: guardia zibilaren kuartel aurretik pasatu beharra. Han ezagutzen zuten ondo ere Gizaburuaga eta Amоротoko abadearen Lambretta gorria, nahiz eta egun hartan ez zuten izango sota-na-barren solterik, hanka artean ahalik gehien batzen ahaleginduta ere, haizeak ez zabaltzea ia ezinezkoa izaten zenik. Angula gutxitxo harrapatu zuenetan, bidaiari «kakote» ederrez konpentsatzen zuen Milloiko «Kalabria» nintzela pentsatuko zuten, zeinari alto ematea arriskutsua baitzen, ez baitzen segurua, geratzen bazen,

berriro motorrean esertzeko gauza izango zen. Edo beneméritoen borondatea onartuko ote zuen, behin esan zienean bezala:

–Ez, ez! Zuek eroatea baino nahiago dut kuartelean lo egin.

Bazeramaten derrigorrean, eta Oletako bidegurutzean, haren parajerantz hartu zutenean, Kalabriak esan zuen:

–Utzi ni erreka barrenean. Hortik aurrera oinez joango naiz.

–«Fardelen bat» al daukake etxean? –kabuak.

–Ez, jauna, baina ezin dut etxera eroan honelako susto bat.

Lekeitio erdiko bidegurutze perpendikularki ebakian, norabide fatidikoki obligaturantz okertu nintzenean, liskarrean ziharduen txakur-aldra batek atzetik jarraitu zidan, ezagutu nindutelako baino gehiago, alga usaina neramalako. Berrogeita hamar metrora, kuarteleko piperpotoa bistaratu zenean, atean inor ez hautemateak ez zidan larritasuna bigundu, ia parean zoazenean, zapla irteten baitira bidera. Argiak itzalita pasatzea ere bururatu zitzaidan, aurrerik hartu ezin zaion ikarak iradoki ohi dituen zentzuezik dibertsoenen artean.

Azkenean (beti izaten da azkenean), Lambretta gorria, kuartel berdexkatik hiru metrora, ez hotz, ez bero pasatu zen, hilkutxa bat zenduaren betiko taberna aurretik elizarantz doan bezain zuzen, nire kasuan itzultzeko itxaropenez.

Berrehun metro harago Arrapaingo bihurgunean ezkutatu nintzenez, Lekeitio osoa atzean utzi izanaren euforian lehertu nintzen. Neure hanka kikilduak haizeari zabalduak ehun eta hogeita zazpi gradu urkuluan (gero etxean exaktoki neurtu nuenez), esku ezkerak esatera nindoanari lagunduz eta eskuinak azeleragailua topera estutuz, orro egin nuen:

– Har ezazue poparen popatik! Orain berdin zidak aberiatuta ere. Errekatik iritsiko nauk abadetxearen azpiraino, bide batez butroi furtiboei kordelak ebaki eta haiek ere popara bidaliz.

Oletan, konpromiso-gunea. Hiru jatetxeko bideturtean ez zegoen ezusterako ordu txarrik, kontrol in-tenpestiboak barne. Hura ere aurreko pozaldiaren jarrai-penean igaro nuen. Behin Gizaburuagako elizalde txikian, neure eremuan, bat-bateko abade-premiarekin etorritako norbait atean zain aurkitzeko beldurretik libratzearen azken lasaituan, elizako bizilagunari pasaeran esan nion:

–Eskerrik asko Herodesengandiko ihesak nire es-tualdia ulertzen lagundu dizun horri!

Eta ohiki giltza gabe zegoen atea motor gaintetik martxan zabalduak, harrapariaren jazarpenetik uretara doi-doi iritsi den urtxakurra bezala murgildu nintzen abadetxeko ilunean. Urtxakurra? Bai dela seta bitxia norbere sentipen direktoak azaldu nahi izatea ezagutzen ere ez diren analogiekin! Berdin dio. Ihesbide segururik ezak hainbeste aldiz ito ninduen bakartasunean gorde-leku babeslea aurkitu nuen.

Non eta nola agertuko ote zen kezkatu-rik nengoen sotana, azkenean, pentsa nezakeen eskurik xarmagarri-
netan erori zen. Lekeitio aztoraturik zebilen, itsasotik
harako ahalmenen batek burua sorginduta. Aparteko
jaramonik ez niokeen egingo, itsas herrietan horrelako
aldikadak bizilege direla ikasia bainintzen, baldin tala
muturreko faroaren oinetan sirena bat agertu izan ez
balitz, sotana zabal baten gainean. Gogorik sineskorre-
nei ere ez zitzaien bururatu Ama Birjina izan behar zue-
nik. Hau beti lehorrean agertzen baitzen, artzainei eta
horrelakoei. Kresala lasziboa izan daiteke.

Konturik handienez, urrats bat bestearekin ezku-
tatuz, ur bareko algak bezala hurreratu zirenean, izaki
miragarri hark ez zeukan uretara eskapatzeko asmorik.
Harritu ziren, esergarritzat sotana bat zeukala ikustean.
Sirenak sotana haren jabea nor zen galdetu zuen. Le-
keitiarrek erantzun zuten hura ez zitekeela izan herri-
ko ezein abaderena, sotanari hala galtzen uzteko baino
atxikiago omen baitzeuden.

Alberrietan ere zaila zen halako kasurik, susmagarria
izan zitekeen bakarra, Gizaburuaga eta Amorotoko aba-
dea, aspalditik baitzebilen trajez eta lepagoraz. Hau ez
zen oraindik egia. Sirenak Lekeitioko portutik eta kalerik
luzeenetatik pasatzeko gogoia azaldu zuen, sotana miste-
riotsu haren jabea, bere edertasunak ez bazen, bere lurri-
nak erakar zezan. Eta eskatu zuen ea pasearaziko zuten
kaxarranka gainean, ez hainbeste bere gerriz beherako
arrain gorputza lurrean tatarrez ez maluskatzeko, baizik

halako goieratik, interesatuak bera barik, berak hura identifikatu ahal zezan jendetzan.

Lekeitiarrek, dirua aurrezteko baino kaxarrankarako beti prestago, laster antolatu zuten taldea, dantzariak eta arraunlari mordoa. Hala, denak oinutsik eta bi arraun-lekroren erdian, sotanaz estalitako kaxarrankaren gainean erabili zuten «Isuntza» izeneko sirena, honako melodiarren azpian:



Prozesioak herriaren erdi-erdiko bidegurutzean behertantz hartu zuenean, neu ere aurreko espaloietako jendetzan sartu nintzen, Lekeition zer misterio berri ote zen jakin guran. Burua makurtu nuen, kaxarranka gaineko izaki liluragarriak irribarre pertsonala egin zidala iruditurik. Denak kaxarranka gainera begi zirela, neu ere, buru makurra salagarri gerta zitekeela pentsaturik, bururik tenteenez eta behatz puntetan nindoan. Kalean behera jarraitu genuen, melodia honen azpian:



Azkenean –nork esango!–, nire sotana naufragoa neuretzat amesten ausartu ez nintzen kanonizazio mitologikora iritsi zen.

HITZORDU LORRIN BAT

Hau kontatzeko, distantzia bat hartu behar dut, ton-
to usainetik urruntzeko. 1977. urte inguruan izango
zen, bertsolaritzara eta bertsozaleen gizartera zabaldu
nintzenean. Bigarren hori, bertsozaleen gizartea, oso
garrantzitsuaz gainera, oso sensiblea izan zen niretzat.
Bertsoaren inguruan, ezagutza eta harreman ugari sortzen
zen, eta izan ziren batzuk dohatsuki garatuak ere.

Tolosaldea erdian zela, Beterri eta Goierri nire bertso
ibileraren eremu maizkoena izango zen Gipuzkoan. Ma-
rra bat trazatuz gero, diogun Hernanitik Zumarragara
bitartea, ezker-eskuin. Saioen ondoren gertatzen ziren
lagunarteak izugarri gozatzen nituen, batzuk bereziki.

Tolosaldean eta aipatu marraren luzera guztian, ba-
zen neska-talde bertsozale bat, bost edo sei lagunekoa,
saio askotara etortzen zena. Eta saio ondoren, nire
pozerako, bertsolariengana hurbiltzen zena. Hitz egi-
ten genuen bertsoaz, kulturaz, politikaz eta, oro har, bi-
zitzaz, beti ere umore eta alaitasun giroan. Neska-talde
harekin konfiantza hartuz joan nintzen, telefonoak na-
turalki trukatzeraino. Inguru haietako saioren batean ez

zeudela ikusten banuen, dezepzio txiki bat izaten nuen. Alegia, dezepzio handia.

Egun batez, barruak eman zidan neska haietako bati hots egitea eta hitzordu bat proposatzea, bere ingurutik pasatuko nintzena baliatuz, bide batez. «Bide batezkoa» egia zen, zeren orduan, bertsoetik aparte, maiz joaten bainintzen Hernaniko Egin egunkarira. Hitzordua Izaskun auzoko jatetxean iradoki nuen. Niretzat Izaskun izenak bazuen oihartzun gozo bat. Neskak aitzakia gabe onartu zituen hitzordua eta tokia.

Mahaian eseri eta hizketa alai eta jareinean ari ginen. Hastetik minutu gutxira, neskak galdetzen dit:

–Zergatik gonbidatu nauk hitzordu batera?

Bizitzan egin zaidan galdera zailena! Blokeaturik gelditu nintzen. Blokeaturik baino, gordiar korapiloa bezain lotua. Eta itxaropen gabe –ezta gogo zerririk ere!– Alexander bat etor zedin askatzera. Bertsolaritzan –eta aurrerago, sermolaritzan– garatutako erretorikak lagundu zidan atakatik itxura batean libratzen. Libratzen edo!

–Zergatik? Ba, hainbeste aldiz zuen taldearekin gus-tura egona nintzenez, eta hire telefono zenbakia ere banuenez, eta hire ingurutik pasatu behar nuenez, eta ez zekinat, ba, hirekin hizketa bat atsegina izango zela pentsatzea otu zitzaidanez, ba, horixe, oraintxe hementxe ari garena. Nire aldetik ez dun izan halako, nola esan zezakenat, ba, halako asmo... bereziki espezialik...

Buf! Hitzetan itotzen ari nintzen, gero eta flotantea-go. Gordiar korapiloa esan dut, baina areago litzateke

Rubiken kubo trastornatua, zenbat eta gehiago eragin, hainbat gehiago nahasten. Eskerrak neskak berak lagundu zidan zulotik irteten, gehiegi urratu gabe. Solasa aire atseginean joan zen, baina nik tentsio ergel bat nabari nuen. Amaitzeko gogoia. Nola eskatu, ordea, amaitzea neuk abiatutako elkartze bat?

Amaitu zen, agurtu ginen, arnasa normal hartzen hasi nintzen, eta autoa bazetorren Goierrin zehar, ia bere kontura. Tupustean, Ormaiztegi parean, frenazo bat bezala, ohartu nintzen zer lotsagarri geratu izango nintzen neskaren gogoan. Kaiku kapital bat. Pentsatzen nuen pentsatuko zuela:

–Nola gonbidatu nain gizon honek hitzordu batera, Zornotzatik Izaskunera, «inolako asmo bereziki espezialik» gabe?

Edo okerrago:

–Hau harrapari etorri dun eta harrapaturik sentitu.

Edo era onberagoan:

–Bazirudin hauek ohituta daudela gaizki inprobisatzen.

Auskalo zenbat burutapen pasatu ziren nire burutik, haren burutik pasako zirela pentsatzen nuenak! Beharbada, ilusio zerbaitekin etorria izango zen, eta nik mindurik bidali. Bai itsuskeria! Beharbada, seguruenik, ez zuen inolako usterik ekarri izango, eta eraman zuen bakarria izango zen hamar urteko mutiko batekin egon zela.

Deskargako mendatetik Antzuolarantz jaisten ari girela –autoa eta biok–, argi zegoen gertaeraren zentzua,

eta aldi berean, zentzueza. Neskak arrazoiz galdetu zuen zergatik, banekielako zergatik. Argi neukan zergatik. Nola pretendituko nuen halako hitzordu bat zerbaiteen interes gabe? «Bide batez» pasatze hura egia izan zitekeen, baina gezurra zen. Nahitasun garrantzitsuetara ez naiz «bide batez» joaten. Beren-beregi joan nintzen, kostaldetik bueltan, noizean toki esanguratsu batean geldituz, ilusioaren bidea luzatzeko. Beste gabe hutsean joateko bezain ergela ezin nintzen izan. Ez nintzen.

Itxaroten nuen, ez premeditazio argi batean, bai sentipen zehazgabe baina indartsu batean, hitzordu hark hurrengo aukera bat ekar zezakeela. Nolabaiteko segida bat izango zuela. Argi zegoen, sen hutsez bazen ere, zerbait probatu nahi nuela, batez ere neskak hain naturalki eman zuenean baietza. Gero berak hain zuzenean «zergatik» galdetzean, pentsatuko nuen, kikilduko nintzen, sentituko nuen, zer dakit nik zer, halako zerbait nola:

–Honek igarri egin zidak!

Edo:

–Honek neuk baino hobeto zekik zertara etorri naitzen!

Ez baitzen zaila ere. Nire barruko iratxo kontrakoren batek bertan ainguratu zuen bidaia. Koldarkeria? Urgui-lua? Lorrin bat! Ainguratu zuen eta han geratu zen flotatzen nire bizitzako ridikulurik handienetako bat.

Gerora, pertzepzioak aldatuz joan ziren, halako jakin gozo bat edo oroitzapen dohatsu bat gelditzeraino. Neskak jarraitu zuen saioetara etortzen. Jarraitu nuen

hura ikusten, bertsoez beste okasio batzuetan ere. Ez nion ezer aipatu Izaskungo hitzorduaz, lotsaz gehienbat, baina gozaten nuen pentsatuz:

–Deitu behar zioat. «Barka, Miren! Nola ez ninan, ba, asmo ‘bereziki espezial’ bat eramango? Hire presentziak eta hire izaerak beti xarmatu nain. Nahi badun, beste hitzordu bat para genezaken. Zer iruditzen?».

Eta, jakina, pentsatzen nuen berriz ere baietz esango zuela. Eta handik aurrera, nork jakin zer bilakaera ekarriko zuen bizitzak. Nire gogoan pentsakizun pozkor guztiak mugitzen ziren, haize-kolpe batean altxatzen diren orbelak bezala. Orbelak berriz erortzen dira, baina nire pentsakizunek goraka eta zabaltzen jarraitu zuten. Eta jarraitzen dute handik urteetara. Zenbat eta oroimena kargatuago, hainbat indartsuago. Pentsatzen dut haren buruan ere iraungo dutela arrastoren batzuek. Guztia da posible eta guztia gertatzen da nire baitan, nire intimitatea samurtuz. Eta gozaten dut geroz gehiago, hortxe bizi bainaiz gehien. Neure intimitatean.

Komunioa neuk emana nion neskatxo bat izan nuen gero emazte, eta bilakaera alderantziz gertatu zen. Ez zitzaidan pasatzen ere burutik harekin ezer pretenditu nezakeenik, harik eta, denboraren joanean, zantzu ustez pentsagarri batzuk hauteman nituen arte. Deitu eta hitzordu bat proposatzen ausartu nintzen, Bilboko kafetegi batean. Baietz! Eta hala eta hola, gaur arte. Behin galdetu nion:

– Ni aurrerratu ez banintz, zeuk ez al zenuen asmorik ezer aditzera emateko?

– Ez! Nik banekien etorriko zinela.

Oskua! Kontatzen ari naizena bezalakoak beharko ziren, presentimendu hori beteko bazen, gero bete zen moduan.

Izaskungo hitzordu hartako neskak lerro hauek irakurriko balitu –poztuko nintzateke!–, nahi nuke gozotasun bat senti lezan bere buruaren alde, zeren egia baita, nire atzerakada infantil haren azpitik edo gaineratik, Xalbadorren bertso baten amaiera sentitu nuela: «Zutan kusi nuena ez baitzen gezurra».

ZINKUNEGIKO MORROIA

Zinkunegiko Batisenean morroi bat agertu zen, inork nondik ez nola ez zekiela. Alex zeritzola bakarrik, eta hamalau urte zituela. Horrek gure adinen txundidura areagotu zuen, eta harekiko misterioa sentipen epikora-ino jaso. Pare bat hilabetean oso irregularki asistitu ondoren, eskolara etortzeari guztiz utzi zion. Seguruenik, ugazabak, haren guraso urrunen ezaxolaz edo ezin-axolaz baliaturik, mutilaren «gizontasun» gogoa onartzetik etekin hobea ikusi izango zuen. «Mantenua eta, ahal baltz, eskola apur bat» izango zen tratua.

Ugazabak ikusi zuen mutilak ez zekarrela eskola-gri-narik eta ez zuela bere borondatea inon izentxartuko. Ikusi zuen eskolatze obligatuari taket egiten ziola ahal zuen guztian. Oso ondo! Lanerako nahi zuen morroia, eta hartarako bakarrik gelditu bide zitzaion. Gerraoste luzeegiak bazuen begiramendu hezigarriez aurreragoko eskakizunik.

Eskolako beirateria eskergetan mapak kalkatuz, posturarik ezinezkoenei eskertzen genien gelako seberitatea era onesgarrian hautsi ahal izatea. Mundu inexistenteen,

hots, noizbait munduaren jabe izan bide ziren Espainia etengabe dekadenteen mapak kalkatzen ari ginen. Irla mordoa galtzen nuen beti, ez apropos, maisuak gairi susmatzen zuen bezala, baizik ezin nuelako ulertu zergatik ez zituzten konkistatu elkarren ondorago zaudenak. Zeregin hartan ginela, gure guraririk handiena Alex plazara agertzea izango zen, herriko askan behiak eradatera, batez ere zaldi zuriaren gainean zetorrenean. Kalkatzaileon zeinura, beste guztiak ere leihoratuko ziren, harik eta maisuak hots egin arte:

– Zeri begira zaudete, moko-motzok?

Halaxe itsasten baikinena kristalen kontra. Disuasio nahiko inefikaza berez, harik eta beti mahai gainean zeukan metalezko erregela luzea astindu eta hienak sai-multzoa bezalatsu uxatzen gintuen arte.

– Behizain ezjakinak izan nahi al duzue? Hobe luke zuen aukera balu morroi errukarri horrek!

Desira onbera bezain akusatzaile horrek Alexenganako gure ederra gehitu besterik ez zuen egingo, pentsatzen baikenuen ugazabak moztu ziola eskolaratzea, geuri ere gurasoek debeku bera ezartzeko berraitzez. Alex egiten ikusten genuen bezalako «gizon-lanak» balentriatzat gozatu izango genituzkeen. Halako lanen nekeak ere atseginaren osagaitzat eta benetasunaren bermetzat harrotuko gintuen, zeren, gure buruan, nekea gizon-lanen dohain bat gehiago baitzen.

Alexek bazekien, plazara heltzen edo pasatzen zenean, eskolako begi guztiak gainean zituela. Bere «mutil libre»

eta goiz-gizonaren ostentazioan, behi edaleei errape-igurtzi magistralak egiten zizkien, zigarro bat muturrean zuela, heldu gabe. Eta batez ere, guregana ahalik gehien hurbiltzeko eta txolarteak luzatzeko aukerarik ez zuen galduko, harik eta, egun sargori eta geroztik gupidagabe batez, Batiseneko morroia kanalean ito zela entzun genuen arte.

Eskolatik irteeran, arratsaldeetan batez ere, han egongo zen eskolanteekin nahasteko zain, edo ezina madarikatzen, ugazabandrea saiatzen baitzen ordu haietan gure bistatik urrungo lanak agintzen. Orduantxe ere atondua zuen lagun batzuk beragana iristea nola egin, beste batzuek, Batiseneko atartean, inozentzia-planta aingeruzkoan galdetzen zuten bitartean:

–Gaur Alex zigortuta al dago?

–Utzi hari bakean, entzun? –erantzuten ugazabandregizonki samarrak–. Jolaserako ez diagu morroirik mantentzen!

Alexengana bere pandakideak bakarrik joan ahal ziren, eta behin edo behin, txandan sartzeko zortea zeukatenak. Neu ere bai, inoiz. Gainerakoak haiek han zer egingo ote zuten aieru morbosoan geratuko ziren, bueltan entzuteko:

–Ez dakizue Alexek zertzuk egiten dakien! Ez dakizue zertzuk irakatsi dizkigun!

Harik eta, egun sargori eta huts batez, Batiseneko morroia kanalean ito zela entzun genuen arte.

Igandeetako eguerdiak eta arratsaldeak, elizkizun saihetsezinen aurre-osteak, irrikatsuago ziren mutil

misteriotsu hura Batisenera agertu zenetik, bera ere gurekin nahasten baitzen. Nik hori beragandiko esku-zabaltasun handitzat jotzen nuen, miresten denarengandik haren egoismo soila ere norberaganako maitasuntzat ulertzeko xalotasunaren arabera. Ez nintzen konturatzen morrontzaren lege zekenetik ez zeukala beste ihesbiderik. Batez ere, elizaldetik urrun, elizkizunetik ere salbuesten gintuzten txangoak antolatzen zituenean: ezkailutan, txori-habiatan, marrubitan, kamamalatan, karramarrotan. Marrubiak, adibidez, gero berak, ausardiaz adinako trebetasunez, ugazabandrea-ren zuhurkeria proberbiala baitzen, Batisenean lapurtuta ekartzen zuen ardotan beraturik jaten genituen. Ezkailuak eta karramarroak geuk maneiatzten genituen nola hala, batek zartagina eta beste batek olioia ekarriz. Kamamilak, saldu.

Herrian mutil fin eta sinpatiko fama zeukanez gero, elizatik urrun bizi ginenen gurasoek ez ziguten harekiko ibileren kargurik hartzen, beharbada etxe-bistatik urrundutako mendi-zidorretan nahita ere ezinezkoa zelako kontrola. Edo kasik seguruago, txolarte bakarra zuten igande arratsaldea ez zutelako galdu nahi lana bera baino ardura zailagoetan. Harik eta, bestela ezeren marka gabe ilunduko zuen egun sargori batez, Batiseneko morroia kanaletik itota atera zuten arte.

Konturatzen nintzen neskek beste mutilengana ez bezalako jorana agertzen zutela Alexengana, beharbada haren hanka mehe eta suabeki kakotuak besteonak baino

lehenago ezkutatu zirelako praka luzeetan. Seguruenik, ugazabandrearen ezarpenez, ugazabaren praka-hondakin ez gehiegi egokituekin konplitzearren morroia janzteko obligazioa. Honek ez zuen asko saiatu beharrik izan beste lagun guztiek halako ikurtzat bekaitz zezaten berari derrigorrean sentiarazi zioten «gizontasun» goiztiarra.

Kontua da, inoiz, harenganako espedizio mugatu eta zeiharretan, ezkutuetan ez esatearren, neskaren bat ere sartu ohi zela, dena askoz misterioitsuago bilakaturik. «Bihar Abade-bason ibiliko naun iratan», edo «eguerdi ostean behia idiskoagana eroan behar dinat Damukortara», eta halakoak. Berehala diseinatuko zuen plana bere oilarkeriak exhibitzeko moduan. Eta baita, dudarik gabe, bere bakartasun elkorretik libratu nahiak eraginik ere. Beharbada, nesken inplikazio harexek bihurtuko zuen Alex nire gogoan demiurgo txiki bat bezalako.

Inoiz eskaintzen zidan harrera elizan gurtzen genuenaz beste jainko atsegina baten oparitzat hartzen nuen, batez ere behin, dozena erdi ahizpa zeuden «Dukienera» behorra eramaten laguntzeko eskatu zidanean. Bai askaria Dukieneko Felisak prestatu ziguna, anis kopa eta guzti! Hain gabe ere, zortzitik hamasei urtera bitarteko ahizpa ilara inguruan ibiltzeak sobera xarmatzen zuen unea. Harik eta, sargorian ere dohakabe etortzeko motiborik ez zeukan egun batez, mutil ubeldua, surflariak lera bezala andan ekarria, Batiseneko atarteko gurdi gainean hilotz utzi zuten arte.

Igande iluntzean gertatu zen. Hil-kanpaiak herri guztira zabaldu zuen berria, gure etxe urrunean guztiz zehaztu ezin izan zena. «Larrabeko Timoteo izango da». «Uribeko Engrazi ere azkenetan ez al zegoen?». Lagundu nahi nuen, baina artean jakin behar ei nuena berriro azaldu zidaten, hots, hil-kanpaiak sexua bereizten zuela. Eta adina ere (aingeru, ume, gazte, heldu) kanpai ezberdinez iragartzen zela, edo kanpai beretik bazen, erritmo ezberdinez. Eskolako hizkidun ekuazio hasiberriei bezain esoteriko irizten nien kanpai-joko haiei, berez zeukaten baino bidean batuz zetozen misterioengatik. Eta berriz ere kanpaien mezua ikasteke jarraituko nuen, oraindik ez bainintzen hilen jakintzan barnatze-ko bezain bizitzaren jabe. Zendua mutil ezkongea zela bai, baina kanpaiak ez baitzuen zein etxetako zehazten, amak agindu zidan:

–Hoa elizaldera eta jakik noren hil-kanpaiak izan diren.

–Bihar goizean jakingo dut, meza laguntzarakoan
–uzkurtu nintzen, hainbeste aldasgoren aurretiazko herraz.

–Bihar ez! Gaur! –garrastu zen amaren tonua–. Beharbada, gaubeila zor diogunen bat izango duk.

Haserrezko marmarra gordetzen ahalegindu ez bainintzen ere, ez nuen gehiago tematu. Funtsean, gaubeila esentzialago zen orduan niretzat heriotza baino. Hau gabe, noski, gaubeilak ez zukeen indarrik, baina gaubeila gabe, heriotza ez zen imintzio bat besterik, gorpuaren presentziak bizien elkarteari trinkotasun aparteko bat

ezarriko balio lez. Horixe izan zitekeen daturik bitale-
na, eta ez urliak edo sandiak «bakea eman» zuela. Inoiz
pentsatu izan nuen halako gaubeila batean:

–Orain hilotza ostuko balute, guk zer egin?

Askoz geroago zehaztuko ziren pentsakizun hauen
magma lanbroa, etxetik elizalderako bide luzean golkoa
jaten neramana, azkonar-zepoaren kolpe bihurtu zen
nire baitan, entzun nuenean Batiseneko morroi gaz-
tea itota «salbatu» zutela. Durditze brutaleraino zartatu
nintzen, ezin imajinatuz hain irentsezin egiten zitzaidan
Alexen zorigaitza, urragarria, kontudentea, nolako izu-
garrikeriatik izan zitekeen «salbatua». Ez daukat gogoan
etxera nola itzuli nintzen, ezta itzuli nintzen ere. Amak
gaubeilara ezin nuela joan hainbat aldiz errepikatu be-
har izan zidan, haserre tonuan:

–Gu ez gaituk Batisenekoen beilakide!

–Neuri joaten ez uzteagatik! –pentsatu nuen zakarki.

Artean blokeaturik nekarren negarrak amorruan aur-
kitu zuen leherbidea, mutilaren ezbeharra malkoen erre-
sumatik harago sentitzen bainuen. Uztaila opor-hila iza-
nik, bai joan nintzen hileta-mezara, heriotzaren inguruko
eta urrungo jakingarri guztien irrikaz. Nolako senitartea
eta nongoak izango ote ziren eta abar. Abadeak ez zidan
ezertarako astirik eman, herriko plaza zapaldu nueneko,
akolito egitera deitu baitzidan. «Martzelen ordeztu».

Bigarren abadeak aldare oinetan utzitako hilotza
erretoreak mezako jantzita errezibitu zuen. Honen ezke-
rretik, luto-bankuak ia hutsik zeuden. Gizonezkoenak

lehen lerroan eta andrezkoenak elizaren herenetik atzerantz, maila bat beherago, hobi argiztatuen aurreneko ilaran. Ni, neure ziriola tente, ezer identifikatu ezineko begirada josian nengoen hilkutzara. Gizonezkoen luto-bankuan pare bat gizon eta hamasei bat urteko mutil ezezagun bat baizik ez ziren ageri. Laugarrena, Batisneko ugazaba. Hots, Batis bera.

Lehen gizona elizkizun hartako gorbatadun bakarrazen. Bere lutoan ere, gorrixkatasuna ezin zuen guztiz estali. Okasiorako halaxe jantzita bidali zuten zenduaren aita ez bazen, patronaturen bateko ordezkaria behar zuen. Bibote ernegatu bat erantsiz gero, herriko idazkaria ere izan zitekeen, luze samarra eta argala, aurpegian, elizako argiontzi ez biziagian azpian, labankaden lorratzak ziruditen zimurrekin. Gehiegi hunkitzeko itxura gabe.

Andrezkoen luto-bankuan, Alexen ama izan zitekeenaren bila jo nuen azkar, une batetik bestera, ofiziantearekin batera, akolitook ere aldarerantz biratu beharko baikin. Elizkizunak herriari atzea emanaz ospatzeko gizalege estrainioak agintzen zuen oraindik. Begiaren eskapada bihurri batez, beste aldeko lehen bankuan, umeak aurretik atzerantz sakaka pilatzen ziren multzoan, erdiko pasabidetik lehenen, aibala!, ordezeko egiten ari nintzen Martzel hauteman nuen, traje grisean burumakur, barne ibairen bat ikuskatu guran lez, ez jakin formaltasunaren ala seriotasun bortitzen baten mende.

Neure jakin-min amaigabeen ezinegonak eternizatzen zuen mezan, akolitook, erdian genuflexio bate-

ratua eginik, aldika elkarrekin gurutzatu behar genuen uneetariko lehenengoan, ahopetu nion lagunari:

–Martzel zergatik ez duk akolito etorri?

–Zer?

Horixe esateko astia besterik ez zuen izan. Esan nahi ez, ez-ulertu plantan, pentsatu nuen geroz irrituago. Ezin izan nion berriro galdetu, binajeretan aldare bazterretik erdirako eraman-ekarriak elkarrekin egiteko unera arte, non ahopean baina zuzenki eraso bainion:

–Martzeli zer gertatzen zaiok?

–Ez al dakik?

–Zer jakin?

–Alex ito zenean, elkarrekin zeudean. Bera etorri zuan sokorru eske garrasi batean.

Abadearen gezur-eztulak tardatzen ari ginela ohartarazi nahi zigun. Une horretatik aurrera, elizkizun hartako nire pentsagai bakarra Martzel Zabaleko zen, hamabi urtekoa, Alexen lagun ohikoena izateagatik bekaitz geniona. Alde batetik, nire harenganako bekaitza lilurarraino handitu zen orain, Alexen azken tragikoaren gordailu bakar bainekusan. Bestetik, harekiko lagun-gura bizia sortu zitzaidan, onguratik baino areago basa-errukitik, neu ere sentipen bortitzegietan nahasirik bainenbilen, harro eta pozik kasik, neure barrua ere gertaera apartekoan gurutzune aurkitzen nuelako.

Denek Martzeli begiratzen zioten, haren ondoan nahi zuten, zerbait entzun, zerbait jakin Alexen azkenaz. Umeen gogoan arretagai indartsuenak azkar indargetzeko

lege dohatsuak niregan ez zuen bete nahi izan. Bai bete zen beste lege baten salbuespen bat, zeinaren araberaren inoiz gertatzen baita koldarkeriak ematea taktika kontzienteak eta psikologia subtilenak bakarrik ematekoa uste zena.

Martzelekiko neukan portaeran, txakur lagungin baten antzera inguratzen nintzela esango nuke, nahiz eta ez hurtasun hain mutuan. «Nekatu naiz beti toki berean egoten» esanez, harengandik metro batera eseriko nintzen, bera jokora sartzeko gogorik gabe zegoela sumatzen nuen hormaren gainean. Gero ez nion hitzik egingo, berak esanari jarraitu baizik, pentsatzen bainuen nahigabeak eragozten ziola bestean jolasetan nahastea. «Sagar erdi bat nahi?» itaunduz hurreratuko nintzen hurrengoan, edo «ikusi al duzu alkatearenean zelako txakurra ekarri duten?». Edo ezer esan gabe egon, txakur mazal bat bezala.

Ni baino pare bat urte zaharragoa izanik, eta batez ere, halako itzal inkontziente bat niolarik, Martzeli beti «zuka» egiten nion. Ezin nion «hika» egin.

Aldi batera, alde egingo nuen, pentsatuz «nora hoa?» hots egingo zuela. Orduan nik, galdera horretan bere ondoan segi nezan desioa suposatzeak zemaidan konfiantzarekin, «iturrira» erantzungo nion, «egarri naiz» gehituz, ea berak «lagunduko diat» esaten zuen. Taktikari kostatu zitzaion funtzionatzen, baina behin halaxe gertatu zen, eta hurrengoetan banekien, hitzen esana-hi immediatoa gora-behera, iturrira lagunduko zidala.

Ez nintzen sarriegi saiatuko, ohartzen bainintzen urak, eta Alexen ezbeharra gertatu zen kanalaren miniatura zirudien uhaska luzeak, asoziazio negargarriak zekarzkiola. Erremedioa askoz okerragoa izan zen, inozenteki proposatu nionean:

–Joango al gara hilerriari itzuli bat ematera?

Hilerria guretzat ez baitzen jolas ezkutuetarako aukera paregabeak opatzen zituen hormazko itxitura bat besterik. Alexi aurpegia immobilizatu zitzaion, barne kizki batek gorgoiletik heldu bailion. Laster ohartu nintzen izuaren espresioa zela, hilerri osteko harizti umelean Alex agertuko ote zitzaion. Ez hilerritik kanpora saltatuz, orduan pentsatu nuen moduan, baizik era izugarriagoan, handik urteetara jakinaraziko zidanez destinoak. Destinoak edo, berez gertatzeko baino ustekabe zartagarriagoak iristean, gure hutsaltasuna mirari bihurtzeko balio duen asmakari ahalguztidun horrek.

Baziren iturriaz eta hilerriaz beste bazter eta ibilbide batzuk, Martzelek kezka gabe onartzeko modukoak, batez ere ilunkera batez eskatu nionean, gauak beldurra ematen zidalako aitzakia ez guztiz egiazko baina beti sinesgarrian, ea etxera lagunduko zidan. «Bide erdi bakarrik. Munozelairaino. Handik aurrera, nahikoa laguntza dut etxeko argia ikustea». Txikiagoei laguntzea obligazio moraltzat hartu zuela pentsa zitekeena gero bidean balentria bilakatu zen, eta etxeko ateraino lagundu nahi izan zidan, nik ezezka ekin arren. Banekien harentzat mendia eta gaua, biak batera, niretzat baino arrotzago zirela. Eta beldurgarriago.

–Ordua duk etxeratzeko! –agiraka egin zidan amak, sukaldean sartzean.

–Lagun batekin etorri naiz.

–Nongo laguna?

–Sasietako Martzel.

–Zelan ez diok barrura sartzeko esan, zeozer eskaintzeko?

–Esan diot, baina ez du nahi izan.

–Eta heu zer? Gaez beldurtzen hasita? Badaezpada, ez zaik gogoratu egunez etortzea!

–Abadeak tabakorritan bidali gaitu.

–Arratsalde osoan? Kubaraino bidali al zaituztete?

Amaren agirakak baino aitaren isiltasunak gehiago kezkatu ninduen, baina okerkeria hura fortunagarri gertatu zen nire Martzelengana hurbilketan. Neuk azken elaboratu izango nukeen taktika bati esker, hots, abordatze zuzenerako ez-ausardiaren ondorio nahi gabeko gisan, haren lagun-min izate desiatuaren jabe sentitu nintzen. Biharamunean, «atzo ez al zenuen biderik erratu bueltan?» nik galdetzean, erantzun zuen: «Ez nian erratu, ez. Baina gau osoan galduta ibiltzeko bada ere, lagunduko diat heuk gura duanean. Eta neuk ahal dudanean». Limitazio eskulpagarri horri erantsi zion tonuak garbi adierazten zuen haren ahalgina moldatuko zela, halako zein bestelako laguntzetan, beti ahal izaten. «Ibaira joango al gaituk?». «Harrobietara lagunduko al didak?». Bera arduratzen zen nik jarraitu ahal izateko baino plan gehiago proposatzen.

Ibaira joateari helburu garbiaren izaera suposatzen zaion moduan, harrobien kasuan jendea ezbaian geratzen zen, han ezer onik pentsatu ezin balitz bezala. Guretzat harrobiak eremu fantastikoak ziren, non elementu guztiz errealek eta liluragarriek era guztietara elkar hartzen edo ukatzen zuten: hondar mota guztiak, garbiak, nahasiak, dunetan pilatuak, hedatuak; tamaina eta forma guztietako harriak, nahi adinako kopuruan; orgak, errailak, bagoiak; arrapalak, suabeak eta malkarrak; hormak, zuloak, gordelekuak; etxean ezagutzen ez genituen erreminta ikusgarriak; barrura erraz sartzeko moduko etxolak, non iltze okerretatik esekitzen baitziren harrobiko langileen arropa higatuak; mahai trauskila, aluminiozko edontziak eta txoletak; ardo-garrafoiak ere bai bazterrean, ez beti hutsik, bai sarritan hondakin mingostuan, ajjrrr!; hitz batez, lurrak, bere azal milionarioa erretiratzen hasten zaizkionean, ager ditzakeen dekorazio amorratuak.

Erreka txiki bat ere harrobitik pasatzen zen, udako mehe aldian hareak hertsaturiko meandro txikietan. Eta tarteka urlo epela, banan, binan zein multzoan palasatzeko moduko putzuak sortuz, bera ere dudan, aurrera jarraitu ala bertan geratu. Guri, suabe baina ez geldoegi ere, jarrai zezan interesatzen zitzaigun, eta azkenean horixe egiten zuen beti, batzuetan geuk lagundurik, beste batzuetan geuk oztopaturik.

Martzel urtxakurra bezalakoa zen, beti urondo guran, baina Alexena gertatu zenetik, ohartzen nintzen

(beharbada, neuk pentsatu), ibaia zeharkatzean, pausoa bizkortu egiten zuela, uraren edo uretako aurpegien bel-durrez bezala. Orduan pentsatu nuen gure umezaroko ekintza zoragarrienetako bat proposatzea, nola zen mutikoontzat txori-habia bila irtetea, neskatoentzat izan zitekeen bezala... zera... Pentsa nolako elkargoan heziko ginen orduko neska-mutilak, jakin ere ez baitakit haien jardun kutuna zein izan zitekeen.

–Bihar biligarro habia bat erakutsiko dizut –nik.

–Heuk bakarrik dakiana? –Martzelek.

–Orain bai.

–Orain? Zelan duk hori?

–Lehen Alexek eta biok genekielako.

Txori-habiak amodioen antzekoak ziren gure mutiko aroan. Batek neska-laguna eduki zezakeen, batzuetan banan gordetzekoa, beste batzuetan biren artean txandatzekoa. Informazio mailan, taldean ere parteka zitekeen, baina zirkulu jakinean beti.

Biligarro-habia zela eta, Alexen aipua entzutean, Martzeli durduza nabaria sumatu nion, eta nik barne talka bortitza nabaritu nuen, esan zidanean:

–Habia hori badakidala uste diat.

–Zelan, Alexek eta biok bakarrik bagenekien?

–Neuk ere horixe uste nian: berak eta biok bakarrik genekiela.

–Ez da izango! –hots egin nuen, benetako harriduran pentsatzen nuela: –Joño! Hemen biziak eta hilak, denok gaituk tranposoak!

Niretzat, orduan, «tranposo» gogorragoa zen «traidore» baino, eta oraintxe ere ez dakit, bat beharrean, zein nahiko nukeen azken entzun.

–Goazen orduan! Honezkero, umeak lumatzen hasita daude –presatu nintzen, abiatzeko plantan.

Gauzak ondoegi irtengo diren unearen zain beti egon ohi den jeinu bekaiztia hauteman nuen Martzelen aurpegi penatuan.

–Tira, Martzel! Zeri begira zaude? Txorikumeek alde egin eta gero ailegatzea ez da ganora izango!

Ezbai une luze baten ondoren, kanalerantz abiatu ginen, harexen gainaldeko basoan baitzegoen biligarro-habia. Biok isilik eta Martzel atzean, neuk tiraka bezala. Ur-zentralaren parera zetorren kanal luzea herrigunetik hiru bat kilometrora zegoen, Oiz mendikatearen apalgune batetik zeharretara. Zentral gaineko hodi ia bertikaletik abiapuntuko urtegi biribil handira, beste pare bat kilometroan igotzen zen, goranzko suabeen, mendiaren zokonganbil guztiak eginez. Kanalerantz igotzen gindoazela, bide bazterrean txizaginan geratu nintzen, ea atzetik geroz bitarte luzeagora zerraidan Martzel aurrera pasatzen zen. Ipurdia paparra baino gorputz erdi aurrerago, zarrastadan hesi-alanbre bat gainditzeko indarka nembilela, jaulki nion:

–Berbarik ez al dugu egin behar?

–Zer esango diagu, ba? –aitzakia eman zuen Martzelek, neu beldur nintzena ez ote zen izango susmarazteko moduan.

Biok bakarrik genekien biligarro-habia ikusi ondoren –lau ume gorri oraindik–, eserialdi bat egin genuen, inguruko sagarrondo bati kendutako ale bana janez. Zutitu, sagar-muskila jaurti eta, haren parabola luzeak lurra jo zuenean, esan nion:

–Bueltan kanaletik joango gara.

Esan banion, esan nion! Belarriak, txikitzen-txikitzen, sartu egin zitzaizkiola ikusi nuen, gero irten, naturalaren hiru halakoraino handituz. Beldurturik, neureei heldu nien. Haluzinazio labur hartatik itzuli nintzenean, ez dut esango gorrotoz begiratu, baina haren senetik irtenda bezalako espresioak adierazten zuen ezin zuela «kanala» baino hitz beldurgarriagorik entzun.

–Zer gura duk? –orro egin zidan, lepotik heldu behar zidala pentsatzeko adina hurreratuz. –Burua txikitu eta kanalera jaurti hazadala?

–Martzel!! –txilio egin nuen, ikaraz atzeraka.

Eurt eginda, gurdibidean behera abiatu zen, kanalaz beste aldeko isurirantz, pausakera irmoan, bat-batean nor eta non akabatu aurkitu balu bezala. Lehen bihurgunean ezkutatu zenean, zutitu eta jarraitzen hasi nintzen, distantzia laburtzen ahalegindu gabe, zeina bitarteko pauso-hotsak bakarrik betetzen baitzuen, nire aldetik ez baitzegoen ezeri begiratzeko ahalmenik.

Trokaz beste aldetik, kanal mendia atzean utzita, elizaldea bistaratu zenean, eta laguna inor akabatzeko itxuratik at iruditu zitzaidanean, atzerik hara harrapatzen

ausartu nintzen. Arnasaren eta turbazioaren estugune-
tik apur bat nasaiturik, esan nion:

–Martzel! Ez zaitez haserretu. Nik pentsatzen nuen
ze...

Izatez, nire pentsakizun bakarra, biligarro-kumeen
pozean bidaia guztia antola arazi zuena, Alexen heriotza
zen, Martzelen bitartez berregina. Baina hori nola es-
ango nion, ba, berari? Ibilaldi luze samarra parean isilik
eginik, ekin nion:

–Beraz, gehiago inoiz ez zara kanalera joango?

Erantzuten apur bat tardaturik, «ez zekiat!» esan
zuen idorki, eta hori ezetza baino gogorrago begitandu
zitzaidan. Ezetz? Ba, ondo. Ez! Badakigu zertan garen.
«Ez zekiat» bortxatu bat esan duenak, ostera, ezetzaz
beste halako ulerbide bat uzten du airean nola: «Ez ze-
kiat biziko naizen ere!». Edo: «Munduari su eman eta
Frantziara alde egingo diat». Jarraipenaren zain iruditu
nintzaiolarik, burua amorrus astinduz eta haginak ilaran
erakutsiz, jauki zuen: «Ez zekiat, entzun? Ez zekiat!».

Ikaraturik egon ez banintz (Martzel ni baino zaharra-
go eta indartsuagoa zen), eta gaur adina jakin izan banu,
esan izango nion, adibidez, hain ulergarri eta bidezko
zen shock hartatik tokian bertan bakarrik aska zitekeela.
Edo kanalera joan eta bertan beti bezala jolasten jarraitu
behar zuela. Baina orduan esan nion:

–Ni joateagatik ez zara haserretuko, ezta?

–Ez zekiat! –berriz ere.

Isilik berriro, luze. Denbora batera esan nion:

–Kanala kanala da. Hark ez dauka Alexenaren errurik. Martzelengan ere lekutik urruntzeak zerbait askatu zuen, antza, eta esan zuen:

–Ez duk beragatik.

–Zergatik da, ba?

Beharbada ni izorratzeko intentzio premeditatuan, ez zuen ezer erantzun, neuk berriro ekin arte:

–Zer da, Martzel?

– Eskua!!! –oihu baino birao egin zuen.

–Noren eskua?

–Alexena!

Geratu, biratu, itxaron nion, eta parera heltzean, esku bata haren sorbaldan ipini nuen, esateko:

–Martzel! Ez ni zoratu! Ez aipatu gauza arrarorik, esplikatzeko ez bada.

Ez zuen erantzun. Berriro bera aurretik eta ni atzetik, laster banatu behar genuen Abeletzako ibairantz gindoazen, non nik «gau on! datorren igandera arte» esanik, eta hark «txirrindola ahaztu barik ekarri» erantzunik, hura elizalderantz eta ni mendirantz ezkutatuko baikin.

Hurrengo domekan, txirrindola eta guzti joango nintzen hamarretako meza nagusira, askoz goizago, Martzel ikusteko premia irrituan. Herritarrak bazetozen, beste eskola-lagunak ere bai, eta Martzel ez zen ageri. Goizeko mezara etorria ote? Meza hastera zihoan eta elizara sartu beharra zegoen. Umeen bankuetan, azkeneko ilaran sartu nintzen, etortzen bazen, atzera begiratu gabe ikusi ahal nezan. Meza hasia zen, eta hara non

oinots bizkor batek aste guztian burutik kendu ezinik nenbilen Martzel ekarri zuen. Aurreneko bankuan jarri zen. Nire pentsamendua Martzelek noiz atzera begiratu tuko zain zegoen, aho-zeinu markatuekin esankizun garrantzitsu bat neukala adierazteko. Ez zuen begiratzen.

Jaunartzea heldu zen. Ez nuen asmorik, baina Martzel abiatzen ikusiz batera, neu ere zart irten nintzen erdiko pasillora. Lerroan bere atzean jarri eta bizkarrezurra hatz koskor batekin marruskatuz, belarri osterera xuxurlatu nion:

–Gauza bat esan behar dizut.

–Orain hago isilik.

–Oso inportantea da.

–Gero esango didak.

–Gero noiz?

–Egoteko isilik!

Kanporantzean, elizako atean sortzen zen motroi-loan, aurretik irtendakoen berbaro ozenaren babesean, esan baino aginduago nion:

–Goazen hilerri osterera.

–Zer duk gauza inportante hori?

Galdetu baino mehatxatu ninduen Martzelek, nitaz higuindurik bezala. Hilerri osteko bakardadean buruz buru aurkitu ginenean, hasi nintzen:

–Martzel! Lagundu egin behar didazu! Esku bat agertzen zait, besaurrearen erdia baino zerbait beheragotik ebakia, airean haztamuka. Zerbaiti heldu guran ari ondoren, ikusi nauela ematen du eta hurreratzen hasten

zait, hatzak borazki zabalik. Gero besamotz baten metalezko esku-kizki bihurtzen da, lepotik heltzera datorrena, ni itotzeko asmoz duda barik, bertan itzartuko ez banintz. Lokartzeko beldurrez, denbora luzea joaten zait, harik eta, nekeak errenditurik, berriro esku madarikatu bera agertu arte. Azkenean, txatarra jasotzeko balio duen burruntzali bostortz horietako bat bihurtzen da, nire burua erauzi eta eroatera datorrena, bertan itzartuko ez banintz.

–Horrelako burruntzalirik ez duk.

–Nire logelan bai. Eskua beti horixe bihurtzen da: esku-kizki edo txatar-burruntzali.

«Edo Picassoren Gernikatik eskapaturiko esku bat», esan ahal izango nukeen, ordurako aspaldi sortua zen koadroa ezagutzerik izan banu. Handik urte askotara ikustea lortu nuen «Gernika»-k konportako eskuaren pasarte horrexegatik hainbeste zauskatu ninduela atera izango nukeen, koadroko bi eskuen arteko leihoxka absurdoak gehiago deprimitu ez banindu.

–Martzel! Zer da joan zen igandean izendatu zenuen eskuarena?

–Horretan ezin diat lagundu.

–Eskuaren misterioa argitzen badidazu, nire amesgaitzak aldenduko dira.

–Ez dituk aldenduko.

–Zelan dakizu hori?

–Neuk ere amesgaitz berdinak izaten ditudalako.

–Nireen berdinak?

–Berdin-berdinak!

–Ba, orduan... –Ez nekien zer ondorio zegokion, Martzelek galdetu arte:

–Hire lehenengo amesgaitza noiz izan zuan?

–Astelehenean.

–Nire azkenengoa, igandean.

–Orduan ez dago dudarik! –hots nuen, zertarako dudarik ez zegoen jakin gabe.

–Esan egingo diat. Hor konpon gero amesgaitz bel-durgarriagoak izaten badituk! Alex urpean ezkutatu zenean...

Martzel konporta jaisten hasi zen, tornuari galdu-gordean biraka. Guztiz ixtea eragozten zion oztopo bat aurkitu zuen. Zer izango eta Alexen esku bat ukondotik kanporantz ageri zen, hatzak uraren presio biziaren kontra itxi guran, edo zerbaiti heldu guran. Konporta zabaltzen bazuen, Alex osoa amilduko zen urarekin. Ixten ez bazuen, gorputza ezingo zen urgaineratu. Baina nola itxi, esku hura moztu ezik? Kanalaren kanpoaldera ahal bezala itsatsita, uraren indarrak amilarazteko arrisku osoan, eskuari barrurantz sakatu eta konportaren kontra barrualdetik tente uzten saiatu zen. Lortu zuen! Kanal gainera igo eta konporta guztiz itxi zuen.

Uraren kanporantzko tira amaiturik, Alex flotatzen azaldu zen, metro batzuk harago. Bazihoan astiro-astiro

kanalean behera. Hilotz! Martzelen ahalegin izutuek ezin izan zioten denborari aurrerik hartu. Orduantxe abiatu zen garrasika, laguntza bila baino ez gutxiago, geroztik begietan itsatsita geratu zitzaion esku harengandik ihesi.

Eguerdi ondoko bigarren ordu erdiak daun jotzean, neskato-mutikoak, putz egindako inurri multzoaren antzera, norabide guztietarantz ezabatzen hasi direnean; nesken korrotxoak, ireki nahi ezta dauden ekiloreak bezala, elkarri azken barreak eskaintzen ari direnean; eta gizonak eta mutilek, tabernako ateetan, amaiera nekezeko agur-hitzak esaten dihardutenean, Martzelek geldetu dit:

–Arratsaldean etorriko haiz, eztuk?

–Ez dakit –nik erantzun–. Gure aitak ganadu jiraren bat daukala uste dut eta, seguruenik, berarekin joanaraziko dit.

Arratsaldean banekien ondo ere zer egin. Amari txoritan nindoala esanik, kanalera joango nintzen, neu bakar-bakarrik, txakur abenturazalea etxean erdi negarrez utzita. «Ez, Ruby! Gaur bakarrik joan behar diat. Bueltan prakak apurtzen utziko diat». Biligarro-kumeen azpitik pasatuko nintzen, haiek euren bizi-legean uzteko erabakia berriturik. «Agur, biligarrotxoak! Alde egizue arin habiatik, hanka biko sugeen kontzientzia traidorea baita». Kanala goienetik hartuko nuen, ur mehean plisti plasta, unada lodietan horma gainetik, kilometro eta erdi beherantz eginez. Ordurako ikasia nuen urak ito bai, baina ez duela engainatzen. Kanalean beherantz, konporta fatalera iritsi nintzen.

Kasu hartan, «fatala» materialki exaktoa zen, harexen irritsak baininderaman. Ez nindoan hainbeste Alex dohakabearen bila, ez haren esku amesgaiztiaren tiran, ez Martzelen esperientzia erreproduzitu guran, ez gertara tragiko batean partaidetu guran. Tragediaren beraren bila nindoan zuzen. Herio deritzon horren larrua, aurpegia, besarkada sentitzera. Banuen bihozkada bat hantxe harrapatuko nuela.

Lekura heldutakoan, denari eta egintzaren osagai bakoitzari banan-banan begirada orokor astitsua emanik, konporta jasotzen hasi nintzen, tornuaren birakera nekezean, ura arriskugarri ez izateko uneraino hustu zedin. Kontua ez zen Heriok ni harrapatzea, neuk bera baizik. Uztaileko eguzki prepotenteak ere erauzi ezin zuen freskuran etzan nintzen, biluz-biluzik, Alex aurkitu zuten bezala. Esku bata konportapetik atera nuen, eta neure baitako dobleari horma gainera igotzeko aginduko nion, nik barrutik harako bitartetik ezin nuena berak kanpotik ikus zezan.

Han ikusten zuen nire eskua, errazegi errenditzen zen ur turrusta uher baina berehala garbituaren erdian, itxi-irekika. Batzuetan hatzak erreskadan ixten ziren, sokorru eske baino areago, paretik pasatzen ziren tximeletei «etor-etor!» esanez. Edo oihan gaintetik, egunean pare bat bider Londrestik Bilborantz pasatzen zen hegazkinari, golde handia hegan bezalakoari, agur-agur eginez. Hurrengo puntuan, ahurra mazal-mazal laxatuko zen, turrusta indargetuaren igurtziaz nabariki plazertuz,

kordegabetzen ari ez bazen. Halaxe aldi batean, nire doubleak bere barne egoitzara itzuli eta abertitu zidan arte:

–To! Jaiki hadi hortik, kanala total hustu aurretik.

Eskua konportapetik barruratu eta, Alexen azken larritasun alferrekoaren dardaratik Martzelen kokapen inpotentearen izura zutiturik, tornu buru uhartua biratuen eskuinerantz. Kanalak berriz betetzen gau osoa eta beharbada biharamun osoa beharko zuen

Hondoko lupetz-harri traketsen, egur zati eta orbel ustelen nahasketaren gainetik, zapatarien hanka handien mugimendu ezin koordinatuek ohartarazi ninduten Herioren altzora jaitsi nahiak nolako dispartearen eragin zuen. Erlabioei iheska bezala alde egin nuen ingurutik, eta oraindik gautzeko falta zen ordu mordoa amamarenean pasatuko nuen, goizegi etxeatzearen susmotik libratzeko. Halabeharrak gutxigatik ez ninduen kanalean txizaginan harrapatu.

Herria ur-salto koxkorren argi sarritan balizkoen mende aurkitu zen. Eskualdeko fabrikarik handiena hornitzen zuen zentrala gai gabe gelditu zen. Kanalera aberia bila arrapaladan oldartu ziren. Zentraleko garda bat, lehenago ez ohartu izanagatik, lanetik bidali zuten. Agintariak herriko mutiko aldra guztiak interrogatzen hasi ziren. Abadea ere, fabrikako kapilau edo kapilauaren lagun, kolaboratzaile ekinkor zebilen. Inori ez zion buruak eman Torreburuko mutikoak halako okerkeriarik egin zezakeenik.

Egia esan, Torreburuko mutikoak hori guztia egin nahi izan zuen. Baina Torreburuko mutikoak ez zuen ezer egin, heriotza baten oroitzapenari leialki jarraitzen saiatu besterik. Hain leialki ezen aurreko bertsio originala literalki errepikatzeko ziurtasun osoan iritsi baitzen kanalera. Zorionez, lekura heldu zenean, gutxien pentsatua zuena zen konporta eta tornua segurantzarik totalenez itxita aurkituko zituela, tentazioa ere zapuzteko moduko giltzarrapo eta kate sendo batekin. Pentsatzekoa zen Alexen zorigaitzak kanaleko istripu-leku posibleak berrikustea eragingo zuela. Baina umeeek tragediari ondoriorik ikusi gabe begiratzeko daukaten gaitasun dohatsuan, hantxe gelditu nintzen taket, dezepzio handiegirik gabe, bestalde.

Halako ur piloari bakarrean aurre egiteko arrisku-tik, koldarkeriara jo beharrik gabe libratu ninduen derrihorrak. Eta umeeek, huskerietan temoso bezala, handikerietan ordezkapenerako daukaten gaitasun berriro ere dohatsuan, gorputza hankartetik gerriraino tornura atxikirik, pareko urbildu zabalago eta sakonagora adi-adi nengoen, bestela ere hartarako inarrote handirik behar ez nuen lilura-puntuan. Itsasoan, aparrezko zurrunbi-loaren ertzetik, ur handiko gorritasun distiratsura egon nintekeen moduan. Harik eta orka aldra feroza eta erdiko itsas elefante etsi-hurrana azaleratu den arte, non instant bat aurreko edertasun ikusgarria krudeltasunaren izaera berezkora berritzultzen baita.

Ur nahiko gardenaren hondoan, konporta barrenaren kontra, Alexen gorputz etzana nekusan, ahotik zerizkion burbuila terminalen azpian, Grekotik Boterora aldatuz. Ondoren, hankarteko tornuan bira erdi emanda, trokara begira jarri nintzen, konportapetik kanpora besaurre bat ikusteko. Hain esku izutuarekin bera ezen sei hatz kontatu bainizkion. Hainbeste urez inguraturik, larri gabe ere arauzko zen txiza zarrastada bat eginik, sen basatiak bat-batean abertitu zidan konportan halako segurantza-lanak egin zituztenek bigilantzian ere zorrotz ibiltzeko agindua izan zezaketela. Eta Martzelen lekukotza larriaren konposizioan nahi adina pausatzeko sosegu gabe, orbeltzan dza-dza ostendu nintzen hariztian gora, geziak bukatu zaizkion indioa imitatuz.

Hamabost urte geroago, Gizaburuagako abadetxeko sukaldean, larunbat ilundu berria da. Gazteak Lekeitiora eta umeak etxera ezabatu ondorengo une kritikoa esaldi baikorrekin gantzutu guran nabilela, kanpoko atea krin-kran dihardu, indartsu, aurreko joa edo joak entzun ez banitu bezala. Pasilloan zehar trin-traun, gaixoren bat hilzoritu izanaz beste albisteren bat izatea desiatuz noa, bere antzeko egoera partekatzera datorren sakristau ilunzalea ez bada. Atea ireki dudanean, hor erreparatzen diot palmondopeko argitasun motelean giza bulto bati. Atariko bonbilla piztean, ezustea erabat izugarritu da.

–Martzel! Zelan hi hemendik?

–Etortzea pentsatu eta etorri.

Neure hurreratze airosoan, nire besarkada-asmoa susmaturik edo, bostekoa eskaini dit. Nik, adeian beti besteari nagusitu nahi izateko joera neofitoan, bi eskuekin hartu diot, eskuan muin emateko haren intentzio posiblea deseginez. Martzelen esku laztuaren zurrunean nabari dut bera ez dela efusioan kidetzen, seguruenik nigan ez duelako ikusi sotana batetik irten zaion esku bat besterik. Nire eskola-lagun mina izanak ere ezin du errespetutik libratu, antza.

–Gure Martzel! –hots egiten nik bigarren esaldian.

–Baina zertan gaudek hemen erdi ilunetan? Hator barrura, mutil!

Urrats bat aurrera eginik, bigarrenaren erdian, oinak ez dio aurrerantz lagundu. Ate barreneko harmaila azkarregi zapaldu ote duen erreparoa (neuri iruditu) abadetxea ia jotzen dagoen eraikin puskari begira disimulatzen du.

–Eliza galanta!

–Elizak, denak dituk galantak.

–Zinkunegikoa baino handiago ematen dik honek.

–Ez diat uste. Gertatzen dena gu haren inguruan jolasten ginela. Jolasak bolumenak aldatzen ditik. Tirok! Sar gaitezen barrura. Hau ustekabea!

–Beharbada, zer egina izango...

–Ez, mutil!

Nago esaldia airean geratu zaiola, hika egiten ez auzartuz.

–Mesedez, hi! Umetako lagunak betiko ez al dituk?

–Hala ei da –onartzen du.

–Duk! Goazen barrura.

Sarrerako harmailatik pasillo estuko oholean taun-taun natorrela, atzeko bere oinots behartuekin batera, nortasun-nahasmen bat abiatu zait gogoan. Hi, zu, be-rori... nor naiz ni? Neure buruaren hirukoiztasun hone-tan, zeinekin identifikatu behar dudan ez jakiteak apur bat zorabiatzen nau, ez baita neure sentieran erabakitze-koa, sarbiderik ez daukadan bestearen baitan baizik. Har benaza berak nahi duen hiruretako edozeintzat.

–Hementxe bizi nauk ni –esan diot sukaldera sartzean.

–Etxe galanta –dio buru-keinu eta guzti, gizalegez edo arrotz-senez denera begiratzen duela.

–Zahar samarra esan nahiko duk.

–Ez, ez! Etxe handia esan nahi nuen.

–Etxe guztiak dituk handi, bakarrik bizi izateko. Ese-ri! Ate hori komuna duk, sukaldetik arraro samarra izan arren. Varsoviako printzesaren gerria zurean imitatzen duela dirudien horma-erloju hori ere ez duk edonor. Zutik hiltzen dakitenetakoa.

–Ez al du jotzen?

–Norberak eraginda.

–Kapritxosa samarra orduan.

–Entzun leihotik zelako ur hotsa datorren. Ibai han-dia eta garbi-garbia. Eta bai izen polita! Lea.

–Neska izena dirudi.

–Ni abadea nauk! Ez duk pentsatuko ibaira begira egoten naizela...

–Hm, hm!

–Ekonomika oso zaharra duk, baina ederto tiratzen dik. Butanozko sukaldetxo hau ere hementxe zegok, uharrari kontra egiteko adore barik. Formikazko armairu ertzak piorreak jaten hasita lez zeudek, baina barruan egongo ahal duk zeozer, ardoa, garagardoa...

–Baso bete ardo estimatuko dizut.

–Zelan etorri haiz bakarrik, behin gogoratuko eta?

–Bakarrik etorri beharra neukan.

–Beharra?

–Konfesatu egin nahi dut.

–O! Estimutzen diat. Herriko abadeen beldur ala?

Nire banitate oraindik ez lar aukeratsiak edo nire gaztetasun edergurak «nik zeu nahi zaitut» entzun nahi-ko zuen, baina erarik intriganteenean erantzun du:

–Nik daukadana zeurekin bakarrik konfesa nezake.

Orain neu naiz beldurtu naizena. Umetako lagun min izan nuen Martzel honek harrezkero nolako biziera eta batez ere nolako sentiera morala garatu duen guztiz ezezagun zaidanez gero, ofizioaren prudentzia guztia behar dut.

–Elizan konfesatu nahi bahu, bertara joan gaitezkek, ez duk ordu ohikoa baina.

–Zeuk dakizu gauzak non eta zelan egin behar diren.

–Ni han bezain abade nauk hemen, eta Jainkoa leku guztietan dagoela sinesten badugu, sukalde honetan ezin dik falta izan.

–Sukaldean berdin balio dezakeela uste baduzu, ni kasik berton lasaiago.

–Ederto! Horrela solasean bezala egingo diagu. Esan heuk nahi duana, heuk nahi duan lekutik.

–Oso urrundik hasi beharko dugu.

Isilik geratu da, burua okerkera makurturik, posizio zentzugabea geratutako estatua erdi bat lez. Buruz buruko isilune hauek, sakramentalak izanik ere, ezin ditut tripalak baino hobeto jasan. Leihora altxatu eta burua inspekzio plantan luzaturik, «izarratu zegok» esan dut, «izarrak atzoko lekuan zeudek gaur ere» esan nezakeen moduan.

–Alex gogoan al daukazu? –galdetzen dit.

–Nork ez, gure eskolan eta herri osoan? Haren ez-behar dohakabea, penarik handiena heuk eman hidan. Oraintxe ere hotzikaran sartzen nauk, hire tokitik hura konportapera erortzen ikusiz.

–Ez zen erori.

–Zer orduan?

–Neuk bota nuen!

Isilik geratu da. Ez datorkit hitzik. Halako batean nik:

–Heuk bota?

–Horixe da nire bekatua!

–Deskuidua esan nahiko duk.

–Premeditazio osoz eta amorrurik totalenez bota nuen.

–Martzel!

–Urteetan daroat barruan lupua handitzen-handitzen, gibela jan eta buruaren bila. Konortea haustu aurretik, libratu egin nahi dut, Jainkoak barkatzekoa bada.

–Hilketa bat konfesatzera hatorrela diostak?

–Berton hiltzeko!

–Baina orduan umea hintzen.

–Baina gero ume izateari utzi nion.

–Baina ekintza umetan egin huen.

–Baina ondorioa nagusitan daroat.

–Baina ondorioa ez duk bekatuaren osagai.

–Baina nik ezin ditut bereizi.

–Martzel! Nik ezin diat lagundu ez daukaanetik bar-
katuta gelditzen, daukaan korapilotik askatzen baizik.

–Neskekin «medikuka» jolastea bekatu mortala zen
eta lagun bat akabatzea korapiloa?

–Ez nazak moral klase horiekin nahastu. Jainkoaren
bitartekotzat nigana jo duanez gero, neure irizpidea
onartu behar duk.

–Estimatzen dut zure ongura, baina Jainkoaren bitar-
tekotzat zeugana jo dudanez gero, emadazu barkamena
eta erabaki dezala Jainkoak nirekin zer egin.

–Horrekin baketuko bahaiz, niretzat errazena duk.
Ego te absolvo ex omnibus peccatis tuis, in nomine pa-
tris et filii et spiritus sancti. Amen.

–Penitentziarik ez al didazu ezarri behar?

–Aitaren zintzo bat, eta bakea.

Solas arinean darraigu, haren barrua nasaitu eta argitu
dudalako pozari neure ofizioaren harrotasuna eransten
diodala. Horretan nago, ofizioarena baino gehiago neure
pertonarena izan daitekeela pentsatuz, harik eta eskari bai-
no mehatxuago dirudiena begi-begietara jaulki didan arte:

–Hori baino penitentzia astunagoa behar dut nik.

–To! Penitentiaren agentea neuk nauk gero!

–Orduan, barka berri duzun bekatua publikatu egin behar duzu.

–Alexen hiltzailea haizela?

–Horixe bera.

–Baina, Martzel! Hori zelan egingo diat, ba? Nik ezin diat konfesioan entzundakorik zabaldu.

–Dagokionak eskatuta ere ez?

–Ezin didak eskatu konfesioaren gauza eder ia bakarra den sekretua haustea.

–Ni ezin naiz barkaturik sentitu araberako penitentzia bat bete gabe, eta horrek izan behar du herritarrek jakitea Martzelek hil zuela Alex, eta ez halabeharrak.

Berbak harri zatiak bezala jaulkitzen ditu. Une batez neure golkoan ere zauskadak jo nau bortizki, haitzuloe-tan izerdia bezala zokoraturik egon ohi den beldurrak abertitu didanean: «Hau benetako hiltzailea duk gero!». Sotana barrena aulkiaren hankapetik destrabatzeko plantan, burua haren begiradatik makurtzen dut, Arki-medesen palankari heltzera banindoa lez. Burua altxatu dudanerako, nire barruko beldur-kolpea erruki-jariora lerratu da, non gizaki bat dakusadan krimen baten zama publikoa behar izateraino deuseztua.

–Gauza bat egingo diagu. Kontaidak gertaera do-hakabea eta gero hitz egingo diagu.

Alex. Batiseneko morroia. Ezagutu zenuten, ezta? Hamalau urteko mutil gorrixka, pekazto hura, ontziren baten atrakaldian sortua izanaren itxura guztikoa, eskola-lagun guztion bekaitza. Sasi-eskola egin beharrik ez zeukana, guk ikasi ezin genituen gauza guztiak jakiteko. Zabalaundiko kanalean, okerkeria fatal baten ondorioz, azkenik merezi gabeena aurkitu zuena. Alex «Matxino» gurea.

Gaitzizen hori egiazko izenek mihia erretzen bide zioten Batiseneko aititagandik hasi zen, zeinak Alexi «Matxin» deitzen baitzion. «Ez dela Matxin, ba, Alex baizik!», agiraka egiten zion amamak, inertziatik gehiago, konfiantzatik baino. «Orduan, Matxino!», zuzendu zuen aititak. Inork ez zion tematu, eta aurrerantzean, beti «Matxino» esango zuen edonon, bataioko aitabitxia bera izan bailitzan.

Alexi apenas ardura zion, aititak lantzean eskupeko bati jareiten zion bitartean. Azken triste hura Alexena berea izan zela uste duzue denok, pozik, destinoari bere gizagaintasun etsenplarra beste behin aitortzeko okasioagatik. Ez dago, ba, hainbesteko edertasunik. Alex neuk erail nuen, Nonbaibeko Nordan honek. (Uler bedi, Martzelek). Biktimari berari baino erruki handiagoa hartu zenidaten, ezbeharraren lekukotzak betiko sakailaturik utziko ninduelakoan. Berriro erratu zineten, hala izanik baino askoz larriagoa izango baitzen ondorena, nola edo hala publikatu gabe ezin uzteraino estutu nauena.

—Nork txiza urrunago egin! —desafiatu ninduen Alexek, Abeletza errekan.

Egunean hainbat bider bezala, pare bat lagun txizaginan hasten baginen, zarrastadak berez-berez ahaleginduko ziren bestearna baino aurrerago iristen. Hatzek geisertxoak ahalik ondoen manciatuko zuten, estutze-askatze teknikoki txit landuan, parabolarik efektiboena lortzeko. Halaxe ikasi genuen distantzia indarraren eta altueraren konbinapen optimoan zegoela. Ipurdiak aurreratu beharraren beharrez, belaunak okertuko ziren, hauek ere zarrastadari jarraituz bezala. Nahikoa zen tanta batek, Zizeroni behatz nagusiaren azkazalera erortzen zitzaionak, bestearen sestra gainditzea. Bera nagusi.

Bakarrean ere berdin jardungo genuen, beti zarrastada gidatzen. Ezin genuen alanbre bat ikusi gainetik edo bitartetik pasatzen saiatu gabe. Beti posizioaren egonkortasun tentsoari eusteko ahalmena lantzen, edo prezisio-kolpeak entseatzen, tximeleta bat hiru metrotik behera pausaturik hautematen bagenuen. Ahotik higuinez jaurtitako txiklea bezala jausten zen lepidoptero gaizoa.

–Hm! Ni baino gehiago zara –diotsot behin Alexi.

–Ez dakik eta! Hator hona, txepel hori! –diost berak.

Hasi ginen eta Alexen hankartetik erregadio turrustak bezalakoak disparatzen hasi ziren, geroz handiagoak, nire parabola ez hain lotsagarriei alde apalgarria ateraz.

–Larririk ere ez nuen handi-handirik eta –salbatu nahi izan nuen ohorea.

–Ez duk horrena! –moztu zuen biribil, ni beldurtzea lortuz.

–Zerena da, ba? –aurre egin nion, kemena fingituz.

–Begira!

Gutxien itxarongo nuena egin zuen: pitilinetik helduta nindeukan. Hain ezustean harrapatu ninduen ezen ez bainintzen gauza egintzari bere kabuz jarraitzen uzteko baizik. Horrek beldur identifikatu gabe bat sentiarazi zidan. Baita bigarren beldur bat ere, hartaraino ausartu zen lagunari erabakia mozten banion, ondorio okerragoren bat ez ote nuen eragingo. Hori guztia barneratzeko astirik eman aurretik, min egiteko beste tiratuz, gaineratu zuen:

–Zelan jaurtiko duk txiza urrun, azala besterik ez daukak eta?

–Zer egingo dut, ba? Ebaki?

–Ez, ez! Hori guztia beharko duk, barruko beldarra behar adina hazten bazaik. Hau, hau! Hauxe duk txatxarra! –beste eskuarekin hondoragotik haztatuz–. Jokatuko nik honetaz ez duela sekula argirik hartu. Ikusten nirea?

Nasaitu nintzen, nireari jarein eta bereari heldu zionean. Prepuzioa atzeratzean, berakatz atal zuritua bezalako burutxo bat agertu zen aurrerantz, «nor da?» esanez bezala.

–Horrenbeste neuk ere egiten dut –demostratu nion.

–Hori txitxina duk! –hots egin zuen mespretxuz–. Handitzen laguntzen ez badiok, usteldu egingo zaik azalpean. Harrak egingo zaizkiok.

–Handitzen lagundu, zelan?

–Honelaxe. Azala aurrera eta atzera, aurrera eta atzera. Erakutsi egin behar zaiok kanpoa. Horrela, horrela! –baitetsi zuen, neu ere bera imitatzen ikustean.

Bestela berak egingo zidala pentsatu bainuen. Alexen aurrean zemaian lotsa eta guzti ere, ariketa polita begitandu zitzaidan, etxera bidean eta etxean errepikatuko nuena. Edozein bazterretan, brageta gabeko praka motzen alde batari ahalik goren tiratuko nion, pitilina ondo libratu arte. Ariketa ondo ikusteko, apur bat bizkar-makur eta hanka-zabal geratuko nintzen, hurrengo Alexekin bil nendinean, aurrerapen bizkorrak eroan guran.

–Ganba zurituaren tamainakoa daukak oraindik, –esan zidan handik hiru egunera–. Gutxienez, otarrainxka bestekoa behar duk, neskatan hasten haizenean, otarrain baten modukoa izan dadin.

–Zer dira horiek?

–Mariskoak. Ez al dakik?

–Mariskoa zer da?

–Ona hago hi!

–Zeuk ere nonon ikasita jakingo dituzu gauzak.

–Itsas mutil hasi ninduan, baina hanka egin nian. «Ur gainean gura ez baduk, lur gainean beharko duk» esanez, aitak Zinkunegira ekarri nindian. Ez nagok hain txarto. Ugazabandrea frankoa duk, apur bat mamalatxoa, eta ugazaba ez duk hain zitala. Egingo al diagu txiza nork urrunago?

Hortik hasten ginen beti.

–Ganba hori batere hazi al duk?

–Baietz nik uste.

–Ea hona! –nire pitilin-azalari atzera-aurrera eraginez–. Ño! Oraindik txatxar zegok hau, baina hazi guran ematen dik. Suabe-suabe ukitzea gustatzen zaiok, puntatxoa zirikatuz. Inoiz ez al duk kilkerrik zulotik atera, belar luze batekin?

–Baita zulora txiza eginda ere.

–Hau ere horrelaxe irtengo zaik, minik egiten ez badiok.

Sentitzen dudan kili-kilia benetakoa eta diferentea dela esango nuke, baina, tamaina handitu beharrean, txikituz doala uste dut. Artegatzen ari naizela oharturik, Alexek lasaitu gura nau:

–Normala duk. Apur bat lotsatuta zegok. Neureari ere kostatu zitzaioan mugitzen, ontziko marinel gorri batek iniziatu ninduenean. Orain desiatzen egoten duk, ukituren bat noiz iritsiko. Gauza bat egingo diagu. Pitilin punta biak elkar kilikatzen ipini. Honelaxe! Zer sentitzen duk?

–Kili-kilia.

–Kili-kilia bakarrik?

–Zer sentitu behar da, ba?

–Ikusten nirea zelan datorren handituz-handituz? Beste gauza bat egingo diagu. Heldu hik nireari eta nik hireari. Eragin honelaxe, puntak elkar laztan araziz. Gozo-gozo, presa barik. Nirea bazetorrek. Hirea oraindik koldartxo zegok.

Orain ez dut kili-kilirik ere sentitzen, neure hatzetan zentratu bainago, zeinak harrituta baitaude, Alexen pitilina miragarriri loditzen, gogortzen, luzatzen nabarrituz. Inoiz neureari ere tenteago erreparatu izan diot, ohean erdi lotan batez ere, baina zimeletik gogorrerako iragaitzaz sekula ez naiz konturatu. Zimel-gogorren artean jarraitasunik egon zitekeenik ez nuen inoiz pentsatu, orain, ikusten ez ezik, sentitzen ari naizen bezala. «Estutu beldur barik, hori ere gustatzen zaiok eta».

«Presa barik» esan du lehentxoago, baina niretzat denbora laburrean gertatu da transformazioa. Apur bat biolento aurkitzen naizen arren, Alexi kontrarik ez egitera naroa «usteldu egingo zaik!» iragarpen hark. Eta baita, jakina, sekretu zoragarrien atarian ote nagoen irudipen kitzikagarriak ere. Koska bakarra da bakarrean hartara aise iristen naizela: batean ziri, bestean heldu, eskua bete-bete nabari dudanean, mundua baino zerbait garrantzitsuagoren jabe sentitzen naiz. Alexen aurrean ezin dut inondik ere lortu. Behin diost:

–Gaur beste gauza bat egin behar diagu. Hirea oraindik berdetxo zegok, eta neurearekin egingo diagu.

Puntekiko ohiko ferekak zutik eginik, Alexen pitilina (zakila ere esan dakioke horri) probeta arinki bigunaren haztaraino hanpatu denean, «etzan egingo gaituk» esan du, eta horixe egin du, ibai bazterreko hondar gune lehorrean.

–Neu ere etzan?

–Bai, gura baduk, baina eserita hobeto ikusiko duk.

Nire eskua bere mastatxoari helduta ipini arazi dit eta, berearekin gainetik apur bat estutuz, dio: «Holaxe, holaxe, gorantz eta beherantz, eskukada osoan, azala atzeratuz, aurreratuz. Gehiegi tiratu barik, atzerantz batez ere. Holaxe!». Bere eskua erretiratu da eta neurea bakarrik gelditu da lanean, osinetik ura ateratzen ari bailitzan. «Ondo habil, astiro, suabe, ondo!». Begiak itxi ditu. Orain lasaiago nago, ez dominatzaile sentitzen naizelako, baizik berak ez dakusalako zer dominaturik naukan.

Besoak zabal, hankak luze, gorputza mugitzen hasi zaio, nagiak atera guran bezala, behin ziraunaren okerkeran, behin bizkarrean ukitutako barearen arku eran, tiratu beharrean sast egin banio bezala. Orain burua ezker-eskuin okertzen hasi zaio, mistikoa ametsetan bezala, aurrean daukan tentazioari ezezka, edo jeneral bat amesgaitzean, berak agindutako izutik burua lurperatu guran. Alex ez dakit izutzen ala zorutzen ari den. Ziraun eta arku mugimenduak azkartuz doaz.

Oraintxe begiak irekiko balitu, uste dut ihesari eman-go niokeela, bihar, eskolarantz edo eskolatik etxerantz, aise harrapatuko nauela ez baneki. Orain aingira baten lepo ingurua estutzen ari naizela ematen dit, irenste edo irentsi gurako kolpeak sentituz. Kolpeoi, dzuk-dzuk-dzuk, ezin diet igarri goranzkoak ala beheranzkoak diren. Agitatzen hasi da, «heldu, heldu!» aginduz. Konbultsioa dirudi, agonian ikustea gertatu zitzaidan Don Samalio parrokoaren azken ostikaden antzekoa. Orain ezin diot

eskuari jarein, bere bi eskuekin gaintik estutzen bainau. Aingirak ez du ito nahi, bira guztirantz desesperatuki nasaitu nahi du, hiru eskuek gehiago estutuko ez balute. Urrumaka hasi da. Dzip, sugeari eskapatu zaion miztoa bezalakoa.

Esku ikaratua bortxaz erretiratu dut, atzerantz jausiz, baina ez dirudi konturatu denik. Auhenska ari da. Lehenago jakin izan banu! Bi eskuak zakilean itsatsirik, bihurkaturik dauzka. Dzip-dzip berriro. Zirriztada etenak, zurixkak, barrutik norbait txistu jaurtika ari bailitzan, aurreranzko inklinazioan disparatzen dira, metro bat altuerako arkuetan, paparrera eta edonora jausiz, aurpegira barne. Orain orroak dira, mortalak benetan. Geroago pentsatuko nuen ez zela harritzekoa haurrak negarrez jaiotzea.

–Alex! Zer darabilzu?

Dzip-dzip, makaltxoago eurok. Orain esango nuke plazerak aurpegi horribilea daukala, torturak bezalakoa. Badirudi orroak berriro irensten diharduela, mm, mm, «zer gertatzen zaizu?», eskuak askatzen, zabaltzen, laxatzen zaizkio. Apur bat albora eginean datza, hasperenka, arnasa sakonagotik, osinetik hartu guran, masaila lurrari emanda, mm, mm, bandiduek hilzoriraino jipoi-turik utzi duten asaltatua bezala.

Pare bat metroko distantziara isilik eta geldi nago, begiradarik erretiratzen edo urratsik atzeratzen ausartzeke, zaratarik txikiena Alexen gorputzaren eztandara konektaturik legokeen beldurrez. Aratinik gelditu da, noizik noiz hagin-ilarak elkar betiko despeditzen bezalako

aharrausian, birika topera nasaituak, berriro itxi ezinik geratu balira bezalako begi zuri hil-hurrenak erakutsiz. Noizbait begiak normal samar ireki ditu, ni existitzen ere ez naizen eremu espazialerantz, non ezer ez baitago, begiradaren beraren sentrazio abiarazlea besterik. Hurreratu naiz, eta gainerantz makurtu natzaionik ere ez da konturatzen.

–Alex! Ondo al zaude?

–Utz nazak apur batean. Habil hortik.

Ez zaio hitza tonu lar konbintzentean itzuli, faringe-hormetatik bare-kumeak igotzen bezala baizik, baina obedituko dut.

–Hau probatu behar duk –dio halako batean—. Bestela, usteldu egingo haiz.

Usteltzea hiltzea baino beldurgarriago zen batentzat, abisu lazgarria zen, baina lasai hartzea erabaki nuen, Alexen enajenazio baten ondorengo zentzugabetzea izango zelakoan. Hala ere, galdetu nion:

–Usteldu zergatik?

–Ez al duk ikusi nire zakilak zer jaurti duen, eta zelako amorruz? Hori guztia barruan geratzen bazaik, bera eta dena ustelduko hau.

–Kolore hori samarra zeukan.

–Edukiko ez zian, ba, zornea baitzen?

–Zeren zornea?

–Barrabilena! Hauek barruan odol espezial bat zeukatek, bertan luzaroegi edukiz gero, zorne bihurtzen dena. Lantzean-lantzean hustu ezik, potroak usteltzen

hasten dituk, eta astiro-astiro hireak egina dik. Inoiz ez al duk potro-zorririk eduki?

–Entzun izan dut, baina ez naiz gogoratzen inoiz eduki dudarik.

–Eduki ere ez duk egingo. Hori guztia ez duk potroak usteltzen ari direla estaltzeko asmazioa besterik.

–Horiek guztiak non ikasi dituzu?

–Hantxe! Ikasiz eta argi ibiliz.

–Eskolan ez digute ezer esaten.

–Esango ere ez.

–Hobe neska jaio banintz!

–O! Neskena txarragoa duk. Batzuetan ustel-ustel eginda ibiltzen dituk, saneamendua lehertuta lez.

Etixerakoan eta gaineko egunetan, pitilinari mintzera-inoko ukitu mota guztiak egingo nizkion, baina ez nuen lortzen apur bat gogortzea besterik. Hurrengo igandean Alexek, eguerdian, meza ostekotik etxeranzkoan, Abiletza errekarara irtenda, esan zidan:

–Arratsaldean egingo al diagu?

–Ez, nik ez. Nik ezin dut.

–Ez hadi larritu, mutil, oraindik gaztetxoa ere bahaiz eta. Nahikoa duk niri laguntzea, eta horrela, astiro-astiro, heu ere trebatzen joango haiz.

Baietz esateko jakin-minik ez zitzaidan falta, baina uste dut ezetzik esateko kemenik ezagatik agindu niola arratsaldean «hain ordutan hementxe» egongo nintzela. Bolada batean ekitaldi batzuk bageneramatzan, aste barruan ere geroz maizago, eta behin diost:

–Arratsaldean joango al gaituk kanalera, eguna ere zoragarria baitago?

Kanalean, ez purrustadarik, ez txaplastadarik gabe, egitekoak eginda, hura begi itxiak eguzkiari erakutsiz eta ni haren zakil inguruei azkura eginez, ur gainean igel hila tripaz gora bezala ikusi nuenean, ezin izan nuen ekidin, haga bat eskueran edukitzera, bertan enpalaturik uzteko sentipena. Alderantziz ere izan zitekeela pentsatzen saiatzen nintzen arren, uste dut hartzen ari nintzaion higuinak eragozten zuela neure gorputzean zerbait lor nezan.

Baina mozten banuen, Alexen mendekuak nahi adi-na hondabide zeukan niganako. Ni baino handiago eta askoz gizonduago zegoenez, edonoiz, edozein bazterretan, zafraturik utzi ahal ninduen. Edo bere prestigioaz baliaturik, eskola-lagunen artean kakazturik utzi ahal ninduen, nire hitzak harenaren kontra ez baitzuen fitsik balioko. Amesgaitzean entzerraturik sentitzen hasita nengoen.

Beharbada, sakon sakonean, Alexen lagunik handiena izatearen harrotasuna eta horrek eskola-lagun guztiekiko zemaidan gaintasun bekaiztua izan zitezkeen nire atxikitasunaren eragile nagusiak. Behin, konfesioan zeozer hitz erdika adieraztera menturatu nintzen. Zeozer egin behar, usteltzetik ez bazen, infernutik libra nendin. Abadeak halako putzekin galdetu zidan «zer esan duk?» ezen pentsatu bainuen: «Zerak esango zioke honi guztia, konfesalekua lehertzeko!».

–Alex! Gaur ezin dut –esan nion hurrengoan, eta erantzun zidan:

–Gaur ezin baduk, aste barruan birritan egingo diagu.

–Nire ezina ez da astirik ezarena. Alex, nik ii...

–Baten bati zerbait esan diok!

–Ez, ez!

–Hala bedi, ze, bestela, hire azkena.

–Egia! Ez dut inon ezer esan.

–Konfesoareari ere ez?

–Berton hiltzeko!

Alexek jaki estimatuak ekartzen zizkidan: lukainkak, urdaiazpia, txokolatea, inoiz menbrillo lata osoa ere bai. Gurean baino askoz handiagoa zen ugaritasunean, eta ugazaba-ugazabandreen transigentzia edo inozentzia zela bide, ia edozer harrapatzeko moduak aurkitzen zituen. Dirua ere ematen zidan, nik behar baino gehiago. Haritz marroan gordetzen nuen, etxean gordeleku seguruak eduki arren. Teilape berean «zerga» harekin batera lo egiteko beldur nintzen.

–Aita! Gorozikako eskolara hasi gura dut –esan nuen behin, herri hartako jai batetik bueltan gentozela.

–Hori eginda zegok –onartu zuen aitak, berritasun orori abentura gisan heltzeko beti prest egon ohi zenak.

–Zoratuta al zaudete? –erremuskatu zen ama, gertaera baino ondorioak lehenago ikusten zituena. –Eta zu ere ibili beti umeen buruak asmakeriekin berotzen! –haserre egin zion lazki aitari.

–Zinkunegira jarraitu beharko duk –esan zidan gero bakarrean aitak, obligazioa nire eta etsipena bere gain legokeen makurmenean.

–Etxean ez al duzu zeuk agintzen? –zorroztu nintzen.

Etsipenaren azpitik, txitoak oilo lokaren hegopetik bezala, irribarre iheskorrez hurreratu eta eskua oso sekretu handi bat aitortzeko moduan muturreraturik, erantzun zuen:

–Amarekin ondo konpontzea komeni zaiguk.

Hurrengo astean ez nintzen ausartu Alexi ezetz esaten. Igande iluntzean etxean esan nuen:

–Ni gehiago ez noa eskolara.

–Eskolara gehiago joan ez? –aztoratu zen ama–. Zergatik?

–Ikasi dut nahikoa.

–Ikastea sekula ez duk nahikoa.

–Nik baino gutxiago dakitenak asko dabilta hemen. Zeu bat.

–Ai, txotxo! –amak pisuki–. Ni hire sasoian antzina-tik nengoan neskame, eta aita morroi.

–Neu ere morroi joan naiteke. Amamak beti esaten dit nire moduko mutil bat pozik hartuko lukeela.

–Honek ez ei du gehiago eskolara joan gura –esan zuen amak, aita sukaldera sartu zenean, zeinak bururik itzuli gabe erantzun baitzuen:

–Orduan, pikatxoa eta pala hartu eta Astepera joan beharko da.

Gure aitak, hain lehor eta irribarre gabe, pikatxoi-palak eta Astepe (langile auzo bat) aipatzen zituenean, kontua

larritzat hartu behar zen. Ez nuen tematu. Bistatik alden-
du eta etxe ostean negarrari eman nion. Denbora aurre-
ra zihoan. Alexek batzuetan astean birritan, inoiz hirutan
eginarazten zidan «eragile» lana. Behin esan nion arte:

–Alex! Nik gehiago ez dut hori egin gura.

–Zergatik ez, heuk ere gozaten duk eta?

–Ez dut gozaten. Higuina ematen dit.

–Hik baten bati zerbait esan diok! –neuri paparretik
helduta.

–Nik ez diot inori ezer esan, baina gehiago ez dut
egingo.

–Ondo zegok!

Beste gabe apartatu ginen eta askapen totalaren po-
zak lantzean bide bazter batean saltoak eta garagarrak
eragiten zizkidan, urrats baten dohatasuna buelta oke-
rragoaren erakarle izan ohi delako eskarmentu gabe ora-
indik. Alexekiko harreman sekretu eta intentsoari hartu
nion ez dakit higuina ala beldurra hain zen handia ezen
aspaldi utzita bainengoen neure gorputza ukitzeari, us-
tel nendila ere ardura ez izateraino. Alex, intentziorik
onenez eta pazienteenez, hori ezin dut ukatu, zenbat eta
gehiago saiatzen zen nire gorputzean eklosio txiki bat
gertarazten, hainbat minberago eta inutilago aurkitzen
nintzen. Pare bat aste bakez igaroak izango ziren. Umeek
daukaten erregenerazio ahalmena edo inkontzientzia
babeslea bide, artean ezer izan ez balitz bezalako adiski-
detasun freskoan nenbilen berriro Alexekin.

Batisenekoek bazuten borda bat gure etxeranzko mendi aldean, eta haraino, ardiren batzuk moldatu behar zituela eta, lehenago ere behin baino gehiagotan bezala, ea batera joango ginen esan zidan. Bide batez bainu-kan, lagundu nion. Hura bordara eta ni handik etxera. Borda polita zen benetan, halako bat gurean zergatik ez zegoen aitari beti ekiten niola. Itxita zegoenean ere, sarreran atarte modura zeukan aterpea nahikoa zen nik haren inguruan bizitza paralelo bat antolatzeko, su txikiak eta txitxi-burduntziak barne, neure bakartasun amestian. Sartu ginen eta, oholezko tabikeaz beste aldean, ardiek zapaldu gabeko ira-zorua seinalatuz, Alexek esan zuen:

–Horixe duk geure zeregintxoak egiteko zoko aproposa. Sarritan ez diat probatu, baina egin dudanetan, buff!

–Esan nizun gehiago ez nuela egingo.

–Lelotu egin haiz ala?

–Lelotu edo melotu, ez dut horretan jarraitu gura.

–Gaur bakarrik.

–Ez gaur, ez inoiz! Ulertzeko moduan esan dizut, ezta?

–Ba, neuk ere ulertzeko moduan esango diat. Edo egin edo hemendik ez haiz irtengo!

Mehatxua entzun nueneko, giza formako belztasun batek kanpoko argitasunera bidea ixten zidan.

–Apropos ekarri nauzu, ezta, zerri horrek?

Ira gainean eseri nintzen, belaun-beso-buru, bola bat eginik, eternitate bati aurre egiteko jarreran eta erabakian.

Atea giltzatu eta aldendu egin zen, tarteka «zer? oraindik ere ezetzean?» itauntzera sar-irteten zela. Gaua gainean zen eta nire beldurra, handituz baino gehiago, pentsakizun mota guztiekin katigatuz zihoan, errendizioaren hari puntak agertzen hasi arte.

–Alboan eserita egotekotan bakarrik –amore eman nuen noizbait, ilunetan ezer ez ikusteko itxaropenean.

Alex sartu zen, atea giltzaz itxi zuen, alboan eseri zen. Gero etzan zen eta ez zen saiatu nire burua belaun artetik ateratzen. Haren urrumak eta gordinkeriak entzuten nituela, hurrengoa azkena izango zela banekien. Eta banekien nola izango zen. Bordatik irteeran esan nion:

–Hurrengoa, nahi baduzu, Zabalaundiko kanalean egingo dugu.

Entusiasmoz hartu zuen proposamena. Eta halaxe, berak hain kutuna zuen kanalean eta hain exzitantea zitzaien eran, ur gainean luze, kaiman pozoitua tripaz gora bezala, fineziarik kapritxosoenak egitea ez zitzaidan batere kostatu, asmoaren nagusitasun infinituak gidatzen baininduen. Zirri-robot perfektua izan nintzen. Eta bera, Alex, lehorrean epilepsian bezala agitatzen zena, kanalean bakailao delirante bat bihurtu zen. Arnasa lasaira itzuli zela iruditu zitzaidanean, konporta gagnetik hots egin nion:

–Alex! Hau erraz-erraz jasotzeko moduan dago.

–Oraintxe noak!

Banekien okerreria dilubiano hura irresistiblea izango zela Alexen gogo oraindik hesitu gabearentzat. Etorri zen, jaso zuen, jausi zen. Hots, bultz egin nion.

Gainerakoa uraren inozentzia irensteak egin zuen, konportapetik bistaratu zen esku amesgaiztia barne.

–Horixe da nik nahi nuena –hots egin du Martzelek, eserita gauden mahaitik sukalde erdira jaikiz–. Noiz publikatuko dozu?

–Publikatu?

–Horixe ez al genuen berbatu?

–Historia hau ezin diat publikatu, Martzel!

–Abadetza kenduko lizukete?

–Inork ez lidakek ezer kenduko. Mundu guztiak pentsatuko likek fikzio bat dela. «Abade idazlea», esango liketek.

–Ez du balio. Jendeak Alexen zorigaitzarekin lotu behar du. Lotu behar nau.

–Martzel! Nik ezin diat hire amesgaitzaren barrutik hitz egin. Saiatu nauk arrazoitzen eta hire barrua libratzen. Gehiago ezin diat. Tori historia hau! Jarri, nahi baduk, egiazko izenak, eta egik heuk nahi duana.

Koadernotxo eskuz idatzia, errazionamenduko kartilaren tamainakoa, golkoan gorde zuen, bihotzaren beste aldean. Bihotza ez baita dokumentu garrantzitsuen konfidente segurua. Geroztik, Zinkunegira joan naizenetan, maiz elkar ikusi dugu, beti norbaitzuen artean. Nirekin bakarrean aurkitzea saihesten duela uste dut, eta neu ere ez naiz ahalegintzen. Sekretuaren partaidetzak hortxe

jarraitzen du, eta jarraituko, nik uste, bizi garen artean.
Gero, hor konpon!

GURE AMAMAREN ESNEA

Gure amamak kantinkada esnea egon ohi zen idulkia berak eskuz eginiko tapetez estaltzen zuen, zerratxodun barren eta guzti, etxerik etxe pasatzen zen Karmengo Amaren beste idulki baten ondoan eta parean. Katuek ez harrapatzeko altuera baino zerbait gehiago zen hura. Ama Birjina etxean tokatzen ez zen egunetan ere, amamak idulki huts haraxe begira errezatuko zuen arrosarioa, gure katuak behin txoria miragarriro ehizatu zuen langara begira orduak egiten zituen moduan. Amamari begira egoten nintzen, irudi santuari ala kantinkada esnari ote zion debozio handiagoa. Gastuagatik ez izatera, esnea bi kandelaz piadoski aldamentzea haren gogotik pasatua zela antzeman nuen. Behin galdetu nion:

–Zergatik ez diozu esnari ere kandelatxo ipintzen?

–Jainkoak onetsiko likek –hark erantzun–, berarekin mantentzen gaitik eta.

Ez zen mantenu soila. Gure amamarentzat, esnea sendakinik behinena zen. Edozein gaitz zeukala, «ekarri esne beroa» hots egingo zuen ohetik, harekin dena egi-na zelakoan. Heriotza oheburuan sumatu zuenean, esku

arteko gurutzeaz gainera, haren ardura nagusia zen basokada esnea ez zedila mesanotxe gainean falta.

Gure etxean, esnearen benerezioa ez zegoen hain erritualizatua, baina zirraturik geratu nintzen behin aitarekin, zerbaitegatik etxean esnerik eza gertatu zenean.

–Ez al duk txikito bat edan behar? –galdetu zion taberna-andreak, eta bera erantzun:

–Gaur esnea eroan behar dinat.

«Gaur Gure Jauna eroan behar dinat» esan balu bezala. Taberna-andreak ez zion gehiago ekin, arrazoiaren pisuaz jabeturik. Gaueko basabide ilunetan zehar, laprast egin eta esnea jausteko nolako arriskua zegoen jakinik, amak ardoarekin kontuz ibiltzeko agindu izango zion, baina gure aita, lan egun luzetik bueltan, txikitoari uko egitera tabernan sartzea ez dakioke esleitu amagarako obedientziari. Esnearen miraria izan behar zuen. Inoiz garrafoi ardoa joan izan zitzaion tontorretik beheko errepideraino. Ama ez zen, hartan, gastuaz nahigabetuko, soluzioa eskuan baitzuen:

–Orain, hilabeteen abstentzioa egin beharko duk.

Ogi biribilak ere, deskuidurik txikienean, erraz ihes egingo zion pirritan.

–Kaben la puta nazion! Nori gogoratu zaiok ogi biribilak egitea?

Esnearekin ez zegoen arriskurik. Hura jausten ez uzteko prebentzioak ia genetikoak ziren, ontziak ere ez baitziren seguruegiak. Inoiz gertatzen bazen, ogia muin emanda bezala, esnea jasotzerik ez zegoenez, belaunikatu

eta barka eskatu behar zitzaion. Eta txakurrari edo katuei deitu, etxeko norbaitek probextua izan zedin. Esneko bildotsa erosia izanik, zerbaitegatik etxea esne gabe gelditzeko ezbeharrak gertatu bazen, amak ez zuen dudarik izango bular bata bildotsari emateko, ni bestean zeloeak erretzen utzita.

Handik urteetara, esne banatzen zebiltzan neskak niri politenak iruditzea ez dakit ez ote zen izan neuk, txikitant, behien eta, oro har, abere esnedun guztien errapera izan nuen joera arriskutsuagatik, ala suposatzen zelako neska esneketariak kuriosoena izan behar zutela. Garia edo irin eroria bera ere berreskura zitekeen, den-dena ez arren, baina lurrean barreiatzen zen esneari ez zegoen zerura begiratu eta «agur, Maria!» auzen egitea besterik. Horregatik, neska haiek aratzean eta beratzean hautenak izan behar zuten. Eta dohain horiek sasoiaren berezko edertasuna bereziki liluragarritzen zuten, batez ere gona gorritz janzten baziren. Edo nire pentsakizunak halakoak ziren.

Beharbada, esneketari bidaltzen zuten neska auzoko alabarik braboena izango zen, astoaren edo behorraren bideko bihurrialdi posiblei eta plazako arrisku probablei aurre egiteko. Baina niretzat orduan neska guztiak ziren izaki xarmagarriak, seguruenik, honako desio xarmagarrien jabe zirelako: «Astotxo bat baneuko buztan zuriagaz, Ermura joateko gona gorriagaz». Amodioak huts egin dezake, baina gona gorriak ez.

Erraperako joeradun bakarra ez nintzen. Erbinudeak eta sugeak ere erarik misteriosoenean engainatzen zuten behia, etzanarazi eta gozo-gozo, atsegin intimoa emanaz, esne miragarria edoskitzen ziotenean. Lehen txahaleko behi gaztearekin kontu apartekoa behar zen, bere inespere-entziak suge kolonia osoa ase ez zezan. Behin errapea identifikatuz gero, sugeek ukuiluraino jarraituko zioten, eta handik sukaldera zabalduko, orduko sugeei xoragarri baitzitzaien esne egosia, batez ere, erre puntukoa.

Kezkagarriena ez zen hori, baizik sugereren bat suntu-ondoan lokarturiko ama erdi-berriaren bularrera iritsi zitekeela, haurtxoaren sehaska gainetik pasaturik. Hori guztia, jakina, botere zigortzaile edo puritanoen beldu-rragatik areago, zeren ez baitago atsegin edenikoagorik, biluztasun zabalki etzanean, sugearen narraste leunkiro ondulatuak azalaren alderik gordeenak eta kontrakoe-nak batera ernaraztea baino. Batez ere, gorputza erre puntuko esnez igurtzi izan baduzu.

Esneak gure bizimodu urrian izan zuen balioaz ez nintzen, beharbada, ohartu ere egingo, handik urteetara, ostegun santuko elizkizunaren ondoren, urteko egun bakaretan bakarrik elizaratzen zen gizon batek esan ez balit:

–Sermoi polita egin du berorrek. Ogiarena ondo dago, baina ardoa barik esnea izan balitz, naturalago izango zen.

–Ardoarekin misterioa alaiagoa izan zedin gura izango zuen –erantzun nuen, halako bihurgunea nondik hartu jakin gabe.

–Alai samar zeudelako izango zen, bai.

Deskuidu hura biguntzeko izango zen –pentsatzen nuen gero– mezako partaideei ardoa kentzea, apaizari izan ezik, zeinak, gehienez ere, egunean meza bakarra eman ahal izatea ardoaren dohain bidezkoetan sar baitzitekeen. Apaizak urritzen hasi zirenean, arau mugatzaille hori, ez liskar gabe, nasaituz joan zen. Gure garaian, meza mordoa (nik lau, inoiz bost) jarraian ematen hasita geunden, baraurik eta igandez, arauok ere geroago gaindituz joango ziren baina. Hainbakarren mezatarako, ez zen mirari mihia arintzea. Bakoitzean hiru trago, txikienak izanda ere, hiru trago dira, barauarena jo gabe. Arintzea eta moteltzea ere etorri zen urte batzuk geroago, errepideko alkohol kontroletan eta barau-arauak jada kenduta, putz egitetik edo ondorioetatik libratzeko argumentu santuak erakuts zuenez:

–Zelan etortzea gura duzu zazpi meza emanda?

Ez litzateke zentzugabea susmatzea azken afaria eta ardoa ugaltzearen miraria batera gertatu izana, ebanjelarietako episodioak banatzeko malezia egotzi behar ez balitzaie. Gure eskualdean, anizgarren meza ondoren, sakristauak apalki abertitu zion ofizianteari, hurrengorako prekauzio moduan:

–Jauna! Azkeneko mezaren kargarena izango zen, seguruenik, baina «Jainko bakarra eta trinoa» esan beharrean, «bakarra eta trikornioa» esan du berorrek.

–Hori esan al diat? –marmartu zuen atsekabe handi gabe abadeak.

Baliteke abade hark meza ilararen aitzakia, oharkabean, berak sentitzen zuena esateko baliatu izana, erregimen zale petoa baitzen, nahiz eta koldar samarra.

Baziren, zorionez, bestelakoak ere, hala nola, «bakarra eta trinoa» zegokion guztian, «bakarra eta Trianokoa» kantatzen zuen abade langilea, Bizkaiko Meatzetako auzo baten omenez.

ERLETXEN

Lau apaizgai sasoiko, 23-25 urterekin. Berrio jattetxean askaltzen ari ginela, disimulatzen kostatako inbidiaz begiratzten genion neska zerbitzariaren adierazpen batean josita geratu nintzen. Biharamunean, apaizgintzaren aurreko ordena nagusiak hartzeko ginen: subdiakonotza eta diakonotza. Sakramentu puska ikusezin horiek baino ardura ukigarriagoa ematen zigun jakiteak haiez geroztik ezingo genuela sotanarik sekula gehiago erantzi. Iluntzean, bueltan, koro txiki bana egingo ziguten, zeina ere hil arteko markatzat geratuko zitzaigun.

Berez, apaizgintzako «ordena nagusiak» deritzen horiek (aurretik beste lau txiki, tontsurak markatuak) urtebete lehenago egitekoak ziren, epe baten tartearekin, azken aurreko ikasturtearen amaian. Euren ezaugarri nagusia botoen profesioa eta sotana-janzte iraunkorra ziren. Beraz, azken uda-oporrak sotanaz igaro behar genituen, etxean eta denean, kastitate boto egin berriaren usainez. Gehienak solemnitare horrekin inbestitzeko irrikaz egon ohi ziren, zera bidezkoen baitzen,

hainbeste urte egun horiexek noiz iritsiko egin ondoren. Debotuenak ere nekez disimula zezakeen seminarioa, internatua, behin betiko uzteko gogoia.

Amaitzeko gogo horretan berdin edo beroago ginen bakan batzuei sotana-janzte bueltagabeak, kastitatearen zin irrebokablearekin batera, egundoko... porrot-mina ez dut esango, horretarako ari baikinen, baina bai larritasuna ematen zigun. Nire kasuan, tristura zarratu bat esan nezakeen, zerbait definitiboa, heriotzaraino inplakablea gaineratzen zitzaigunekoa. Nahimen sibilino baten konkurrentziaz, gainera, zeinaren arabera, libreki hautatzera zoazenaren itzulerarik ezingo baituzu hautatu.

Egia esan, nekez gertatuko zait konparagarri izan daitekeen egoerarik, nahiz eta bizitza saiatzen den zulo terminaleko sentipenak eragiten. Abituak ez ei du fraidea egiten. Egiten duela esan nahi du horrek. Sotanarekin, dena aldatuko zen gurekiko, halako automatismoz non, pertsona ezkutaturik, ordezkotza dibinoan leizeratuko baikinen. Transformazioa ez zuen hainbeste eragingo sakramentuaren barne «karakterek» nola sotanaren inponentzia esternoak, betiko, betiko, betiko.

Une hura iristea, beste motibo askorengatik irrikaz geundena, saihestezina zen. Genezakeen bakarra ahalik gehien atzeratzea zen, aurreko ekainean izango zena hurrengo udaberrira aldatzeko baimena lorturik. Apaizgoa bertan behera ez uztekotan, horixe genuen topea, lagun batzuek baliatu genuena. Nik, arrazoi sendotzat, bizileku

menditarra aurkeztu nuen. Nola ibili behar nuen uda guztian, eta gero Gabonetako hamabostaldi negutarrean, estrata eta basabideetan gora eta behera, sotana katigakorra soinean neramala? Bizkarrera jasotzen banuen, zer ikuskizun eman behar nuen, gonei antzeko erremedioa aplikatu ahal zien emakume batekin topo egiten banuen?

Uda lantsuan, bestalde, etxean lagundu beharra zegoen, edo aitzakia horixe eman nuen. Nola egin behar nuen sotanarekin simaurretan, arta-jorran, iratan, gerezi batzen, txerri gobernuan? Edo behia zezenari eraman, auzoko txakur guztiak asaldatuz? Arrazoi egiazkoak ziren, sinesgarriak ere bai, eta eurekin baliatu nintzen, nahiz eta neure kautan ziur nintzen, ohiko erara eginik, etxean prest zeudekeela, desiatzen ere bai, seme sotanduna hartzeko, harrotzeko, inguru guztiaren adoragarri.

Mendian haizea orduan ere beste soinu batekin ibili ohi zenez, aise lortu nuen sotanapeko ordenak atzeratzea, zeren, azken arrazoi bat eranstearren, goizero elizara jaistetik aparte, norik ikusi behar ninduen gure baserri inguru bakartian, amamak izan ezik, sotana batetatik, gordeta zeuzkan gozoki guztiak, mistelak barne, ateratzeko prest zegoenak?

Izango ziren maiseatzaileak, batez ere herri guztiak ikaskide ginela bazekien biotako beste laguna sotanarekin agertu zenean. «Haor, ba! Zer esaten nian nik? Hori ez duk abade egingo». Horrelako esamesek bizkor eta gozo korritzen zuten, lantzean borroka larri batez beste

nobedaderik nekez sortzen zen gizarte batean. Gertatze-koa gertatuko zena ziur nekien neuri, egia esan, kitzikagarrri zitzaidan denen intriga bihurtzea, batez ere, entzuten nuenean herriko nesken desioek esamesen alderantz tiratzen zutela. Loriagarri berau, tentagarri soiltzat hartzen banuen ere, nire gorputzak ez baitzekien zer zen emakumeentzat deigarri izatearen sentipena.

Uda joan zen, Gabonak ere bai gero, seminaria itzultzen ikusi ninduten, batzuek mesfidantzaz, gehienek pozez, bakan batzuek penaz (pentsatu nahi nuen), eta Aste Santuko opor laburren aurretxoan, iritsia zen egun atzeraezina. Egun hartan, azken larunbatean, lau lagunek elkarri esan genion:

–Bihartik aurrera, gure «prakadun» izatea amaitua duk. Zergatik ez diagu egiten paisanozko azken eskapada, despedida modura?

Larunbat arratsaldeko aisia orduak baliatu behar ziren. Iluntzeko elizkizunera huts egin arren, ehundik gora laguneko komunitatean, inork ez zuen faltarik igarriko, afaritan geure tokia betetzen bagenuen. Hemen bai, ze jantokian bakoitzak bere jarleku jakina baitzeukan. Eguerdi ostean, ohiko paseoan abiatu ginen, seminario atzeko ibilbide arauzkoan, Aldundiaren Abeltegitik ezkerrean zoko pinudi jakina helburu. Komunitateko taldexka beltz ugariak, errepidean gora eta behera, astiro, nagiro mugitzen zirenak, atze samarrean edo distraiturik zeuden une batez, sotanak pinupe sastartsu batean gorde eta amenean ezabatu ginen, Txorierriko ipar

mendikatearen barrenetik, Zamudio eta Lezama goienetik zeharkatuz, Larrabetzu parean errepidera jaisteko.

Segi eta segi, nagusi kasualen batekin gurutzatzen ustez at, Erletxera iritsi ginen, askaltzeko ordu eta gale betean. Diruak ondo kontaturik geneuzkan, baina gurekin ez zegoen nire lagun soldadu batzuen gertatzeko arriskurik. Kuarteletik eskapada batean, jan-jan egin eta gero konturatu ziren ez zeukatela behar beste diru. Bakoitzak bere berri jakingo zuen, baina gazte, zoro eta soldadu, beti pentsatzen da kuadrillan izango dela baduenen bat, ezaren soluzioa besterik ez bada ere, batek esan zuen moduan:

–Hau utzi neure kontura. Zuek aire, atzetik tiroka baletoz bezala.

–Besteak non dituk? –galdetzen du taberna-andre susmotxartuak, mahaietan mutil bakarrik ikustean.

–Ez al dituzu ikusi? Joan dira!

–Joan, zelan?

–Zelan joan diren jakin nahi al duzu?

–Bai, jakin baliteke.

–Oraintxe ikusiko duzu. Honelaxe!

Soldaduak hanka-joko deabruzko bati eman zion, emakumea atzean zerrikeriak disparatzen utzita.

Apaizgaiak eta soldaduak gauza askotan antzekoak dira, baina egun hartan bagenuen dirutxoa, estra handi samar bat egiteko beste. Pare bana arrautza eta xerra, patata frijituen tontortxo batekin eta mirari-premia gabeko ardoarekin. Txarrena ere sukulentoago guretzat

Kanaango ezteietakoa baino, barruti diziplinarioaz handiko zabaldi kasik imajinarioen baitan. Mahaian eseri ginen, berriketa intentsoan jardunez.

–Datorren udatik aurrera, nork jakin bakoitza non, geure buruen bigilantzia besterik ez diagu izango.

–Mm! Sotanak edonon seinalatuko gaitik.

–Seinalatu bai, baina sotanak bazekik ibiltzen.

–Hamaika urterekin hasita, nork pentsatu behar zian inoiz amaituko zenik!

–Oraintxe ez zaiguk, ba, askorik falta!

Laurotako bat, teologiako bigarren urtean, diziplina eta, oro har, estatus osoarekiko errebeldia militanterra lerratua zen. Aurretik aro obsesiboki eskrupuloso bat izana zen, eta haren lorratzak oraindik guztiz garbitzeke zituen. Mahaian eseri zenetik, ezin zion zuzen eutsi adei osoz zerbitzatzeko ari zitzaigun neskaren begiradari. Mahaian aurrera, gorputz erdia ukondo gainera okerturik, azpitik gora eta apur bat gorraize plantan begiratzen zuen, solasari ez zegokion irribarre zuntzunez. Iragan estukerien gainditzea kontzienteago egin nahian edo, laster ekarriko zioten flan loka bati begira bezala zegoen.

–Zelan? Gustatu al zaizue platerekoa? –dio neska zerbitzariak.

–Begira zenbat sobratu den. –Platerak, katuaren miha pasaturik lez.

–Postrerik nahi al duzue?

–Zer eska genezake?

–Flanak oraintxe egin berri daude.

–Ekarri eurak.

Lagunen jarrerak eta aurpegierak obserbatzeko arre-
ta handiegirik ez neukan. Jatetxea eta jabeak ezagutzen
nituen. Erletxeko elizan behin baino gehiagotan izana
nintzen meza-kantari, neure oporretako irteerarik do-
hatsuenetakoan. Gainera, laurotatik euskaraz zekiten
bietako bat neu izanik, zerbitzariarekin solastun nagusia
nintzen. Bere niganako begirada ez preferenteari, baizik
zegokionari, bidezko da neuk ere era berean erantzutea.
Baina aukera okasional hari ezin nion joaten utzi neure
begirada kargatu gabe oraindik desioa sintetizatzen ez
zekien intentsitatez. Halako punturaino ezen, gaztaro
guztia espiritu horretan joan zelarik eta joan beharko
zuelarik, susmatzen bainuen betirako inpresioa gelditu
behar zitzaidala emakumeekiko harremanaren atalik
gozoena solasa zela. Non, gainera, nahi bezain poliga-
moa izan baitzaitezke. Eta pentsatzen nuen, besteak ere
pentsatzen ariko ziren moduan:

–Laster honelakoak erreskadan etorriko zaizkiguk
konfesalekura, eta beharbada, abadetxera.

Zerbitzaria flanen bila joan zenean, «azkenengo egu-
na da eta, azkenengo eguna da eta, azkenengo eguna da
eta goazen guztiok...nora?» ahopean kantatzen hasiak gi-
nela (ardotxoak ez zuen urdail sakramentalik bereizten),
ez nuen askorik susmatzen ezusterik handiena, mortal
aurrekoa, neskaren hurrengo bueltan etorriko zela.

–Zu Etxanokoa zara, ezta?

–Bai.
–Torreburukoa?
–Baita.
–Torreburuko Xabier?
–Berbera. Baina zu ez zara Etxanokoa.
–Izan nintzen urte batzuetan. Eskolan elkarrekin ibili ginen.
–Etxanon?
–Hantxe, Señorita Natirekin. Ni orduan Epaltzen bizi nintzen, amamarenean.
–Zu ez zara izango... (aibadios, bera ote duk?).
–Gotzone Solarte.
–Maribelekin ibiltzen zen Gotzone hura zu al zara?
–Berbera.
–Holakorik!
–Ez al daukat antzik?
–Orain bai, baina zelan pentsatuko nuen, ba...
–Apaizgai jarraitzen duzu?
–Bai. Laurok gara apaizgaiak.
–Honezkero, aurrera samar joango zara.
–Azkenetan, esan daiteke. Uda honetantxe egingo gara abade.
–Bai? Zu Etxanon, ezta?
–Jakina! Bakoitza bere herrian.
–A, ba, joango naiz meza berrira.
–Eskerrik asko gaurdanik!
Plater txikian neukan flan beilegi eta salda gorri-beltz islakorrera josita gelditu nintzen. Lagunak ez ziren mutik

esaten ausartzen, nire erreakzio durdituari nondik heldu ez zekitela. Bizpahiru segundo trinkoren ondoren, burua jaso nuen, esateko:

–Gogoan al daukazue harako behin kontatu nizuena, zelan mutikotan, komentura joan aurretik, neskato batekin, nobioaldi afantsu baten ondoren, zeremonia guztiekin ezkondu nintzen, eztei-bidaia eta guzti? Izatez, bi bikote gintuan. Ba, horixe duk nire andrea!

–Baaai?? –denek batera.

–Hago pozik \neg –darrai batek– salatu ez haugulako. Ezkondata egotea abadetzarako eragozpen fulminantea dela badakik.

–Umetako kontuak –gaineratu nuen arintze tonuan, umeen kontuak umekeriatzat hartzeko topiko zuztar bakora jorik, eurak ez balira lez markarik betikoena uzten dutenak.

–Heure andrea izan eta ez duk ezagutu?

–Zelan ezagutuko nian, komentuan sartu nintzenetik ez badut ikusi?

–Berak ezagutu hau.

–Taberna-andreak esango zioan, hemen bazekitek nor naizen eta.

–Ez al diok ezer aipatu behar?

–Aipatu zer?

–Ea gogoratzen den hi bere....

–Zoratuta al hago?

Zerbitzaria berriz etorri zenean, besteek begiekin jan behar zuten bitartean, neu naiz orain zuzen begiratzeari eutsi

ezin diona, pentsatzen dudala: «Honek gogoan izango ote dik hura?». Kasu ustez hain insolitoaren aurrean, nire esklamazio batzuen eta lagunen ezuste hunkitu baino ikusgarago baten ondoren, solasa saihesten saiatu nintzen, barre egingo zidaten beldurragatik baino gehiago, banekielako nire sentimenduei ezin zietela eskaini arabera emoziorik. Ez dago gauza zapuzgarriagorik, norberetzat bonbazo bat izan dena besteengan globo ximel bat bihurtzen ikustea baino.

Erletxen ez nion galdetu, baina handik mende erdira egokitu zitzaidan ikustea, eta ausartu nintzen galdetzen. Eta baietz. Gogoratzen zela. Bere familian ere kontatu izan zuela. Gauza politak ere gertatzen dira munduan. Eta luzeak ere bai, 75 urte baitira gure ezkontza txikia (eta klandestino!) gertatu zela. Oskua! Hamabost urte daramatzat diamantezko ezteietan!

GAZTA BATEN AMODIOA

Izango gazta iraunkorrak, baina nekez hura bezalako-rik, nik bera baino berak ni jaso ninduen Gorbeia-ko tontorrera. Eta ez zen saiatu goitik behera pirritatzen. «Bengoetxeko artzainak gazta bat ekarri du zuretzat. Hurrengo bisitan eroango dizugu», jartzen zuen gutunean, non, ondorengo esaldian, «oilo xxxxxxxx hasi dira berriro erruten» irakurriz, burua apurtzen baikenuen. «Zer arraio ote duk hemen ezabatu duten hori?». Hurrengo bisitan argituko zen, ez artean gutxi kostata, inork ezin batzuen suposatu «oilo» ezdeus batzuek zer kalifikatzai-le susmagarri ekar zezaketen.

–A! «Oilo gorriak» izango duk hori –esan zidan amak.

Gutuneko «gorri» guztiak zakarki ezabaturik zeuden, espetxeko zuzendari arduratsuaren, alias «Orangutanaren», eskutik. Badaezpada, platanorik ez ekartzeko abisua pasatua genien bisitei.

Eskerrak aurretik abisatzeaz arduratu nintzen gazta hura ez ekartzeko, penagarria izango baitzen sarrera-kontrollean puska zezaten. Puskatuko zuten! «Eduki hortxe gordeta, laster etxean bertan jango dut eta», abisatu nuen

erantzuneko gutunean. «Laster» hura asko luzatu zen. Gaztak urteetan itxaron behar izan zuen hartzailearen etxeratzea. Hantxe zegoen bueltan oso-osorik, denborak txikitua, esaerak batzuetan zuzen dioenez, zaharra-go eta gogorrako. Egia esan, gaztaren geroratze hura kartzeleroek puska zezaten beldurra baino gehiago izan zen artzainaren alabak egina izan zelako irudipena. Irudipen gratuitua, beharbada, baina alderantzizko suposizioa konprobatu ezinak sinesgarritasun gozoari eusteko balio izan zuen urteetan.

Igaro ziren hauek ere, eta askatasunaren lehen zurrumbilo gainezkatuan, jaitoki batera jarraitu nion kuadrillari. Preso ohi baten «munduratzea» babesteko, denek izan ohi duten joera bihotz-zabalean, Bengoetxeko artzainaren alabak ere lagundu nahi izan zidan dantzan. Distantzia batera solasik ugariena loratzen trebea nintzena, urteetan alferrik desiatutako aurpegi bat arnasa barruan aurkitzeak zeharo deslektu ninduen, eta gaztarena aipatu nion, bitxikeria kasual bat bezala.

–Gurean bazegon zuen etxeko gazta bat, urteetan gordea.

Ez zegoen «heuk egina» esan beharrik, are gutxiago izan beharrik, baina gaztak, bat-batean, kasuaren xehe-tasunak azaldu nizkionean, dimentsio miragarriak hartu zituen.

–Hala gertatu denez gero, gazta hori elkarrekin estreinatzea polita luken.

–Edarra egongo duk zatitzeko!

–Orain bazeuden erreminta onak.

–Hortzak ere behar dituk gero!

Gonbitari ukorik egin ez zionez gero, preso ohi berria ez minberatzearren izango zela pentsatu nuen lehenik. Gero sinetsiz joan nintzen bera ere zerbait hunkitu zela, eta hitzak hitzari bultza, udan haren etxeko artaldea bazkatu ohi zen Gorbealara txango bat egitea pentsatu genuen.

–Maleta neuk eroango diat biontzat.

–Neuk ere zerbait eroan beharko dinat.

–Hik hankak ekarri, askatzeko premia izango duk eta.

–Gazta eroaten ez al didan utziko?

–Erreminta ere heuk ekarri orduan.

Gorbeian, Arrabako landatik tontorrerantz, aurreratzen edo gurutzatzen ditugun-gaituzten txangolariak sortzez aurreko ezagun gisan agurtzen ditut-naute, zerbait zehazgabe baina jagikorrean elkarkide. Egiriñauko estugunean, San Inazio haitzekoaren baseliza ñimiñoa, abadeaz eta kalizaz besterik nekez hartzen duena. Akolitoa ere bai, txikia bada. Haren ondotik pasaeran, sentimendu-uhol bat datorkit goitik behera, errekaren noranzkoan, ohiko behetik gorakoaren alderantziz. Arnaskada luzea eta etenkatua eragiten dizuten horietakoa, urpe luzetik azaleratu ahala aihoztua bezala, sugea bailitzan. Azaltzen hasteko burutapenik ere ez dut izan, azken igoaldi irripen eta luzeari heltzear garelako baino gehiago, hain oroitzapen urrunak, apaizgaitako oporretan Gorbealara etortzen

ginenekoak, hain daudelako euren goroldio trinkoan eroso gorderik ezen lastima bailitzateke induskatzen hastea.

Gorbeiako tontor harrigarrero borobilkaran eta lurbelean, haizeak behin eta berriro eraitsia birjasotzen zergatik tematu ziren ulertzea kostatzen, baina hunkitzen zaituen gurutze eskergaren oinetan, begi bata Arabako lautadan pausatzen da, eta bestea Arratiako haitzetan puskatzen. Presarik gabe, egunero ez baitago honaino igotzerik. Baina gorputzera geroz itsastenago doan haitzetxoak inspiraturik, Bulna hatsantuak, hala baitu izena, igoera txit irripeko lehen hitzak jaulki ditu:

–Bazkaria behean egin beharko diagu.

Nik izan nezakeen eta berari ezetz esatea kostako zitzaiola sumatzen zuen asmoari aurrea hartu guran, seguruenik.

–Baina gazta berton erdibituko dinagu, eztun?
–proposatu dut, erantzuteko astirik ematerako motxila arakatzen hasiz.

–Ibil hinteke kontuz. Hemendik behera eskapatzen badik, kartzelaraino ez zaik geratuko.

–Jarraituko zionat, ez dun norabide gozoa baina.

–Beste hainbeste denbora egin behar baduk, samur egongo duk bueltan!

–Ene gaztatxo! –musukatzen dut, Bulna bailitzan. Pentsamendua igarri egin didala uste dut—. Eskerrak ez huen harako biderik ikasi!

Abereak zatitzeko ahotza nahikoa ez balitz, zizela ere ekarri dut. Mendian ez dela mailurik behar, baina alua!,

harriak gazta baino lehenago apurtzen dira, gurutzearen oinarri hormigoizkoaren kontra kank eta kank hasi naitzenean, lau dobleko ezpain-zapia azpian ipinita. Gaztak apatxa bezalako azala dauka, ilun ernegatua, non aihotzak salto egiten baitu, begiraino iritsi guran. «Geldi, zezenko, puntzeta gura ez baduk!». Eta zizela erakusten diot. Hamaikagarren harria hausterako, aihotza bazihoan erdirantz, baina gaztak nahiago izan du alborantz lehertu erraiak erakutsi baino. Lehertu eta saltatu, demonio alaenak. Badu zerbait irreduktiblea bihotzean.

–Honek emango liken betondokoa! –esanez, lurretik jaso, garbitu eta Bulnaren eskuan jarri dut txatala–. Lehen ere, beharbada, esku honexek egina izango baitzen –ausartu naiz eransten.

Eta zapladatxoak ematen, ea ondorengo historia guztia hasierako intentzio baten garapena izateko bikaintasunetik ulertu ote daitekeen.

–Honi gustua hartzen denboratxoa beharko dugula uste diat –esan du Bulnak, txatal zartatu batzuei ahoan bueltak eman ondoren.

–Arrabako landarantz jaitsiko gaitun.

Berak baseliza gaineko pago zabal bat begiz joa zuen, baina aitzakia gabe onartu du nire eragozpena.

–Haitza eserleku mendekatia dun.

Arroan behera sortzen eta berehala kaskontzen den erreka proposatu diot, zeinara, bitarteko pagadi orbeltsuen pisuan, oroitzapen bakegaitz batek tiratu baitit, gazte sundea baino krimen kutsua dakarrena.

–Hementxe ibiltzen gintunan arrankaritan –diot la-
bur bezain ezaxola airean, isilean daramadan lotsak ez
dezan hartu lotsagarrikeriaren eitea.

Neure nerabezaro amai-hurrenean, gero Afrika-
ra misiolari joango zen arratiar abade baten ardura-
pean, Gorbeia joan ginen dozena bateko taldea, as-
tebeterako. Nire liluramenak gainez egin zuen, hankak
hotzaren hotzez barruan edukitzeko gauza ez nintzen
ur haietan, arrankariak erreskadan harrapatzeko mira-
rian aurkitu nintzenean. Gorozikako tuneletik urratu-
rik itzultzen nintzen, arrankari bat, dozena erdi ezkailu
eta beste dozena bat karramarroz, sare eta guzti joanda.
Gure aitaren fantasian, balentria handia zen arrankari
enperatriza bere dontzeila ezkailu eta ministro karrama-
rroekin erreskatatu izana, erreka sastrakatsu hartatik.

Gorbeian, berriz, hara bi egunerako arrainarekin itzu-
li ginela Arrabako Lekandape etxolara, bidean baldekada
nagi hari begirik ezin kendu niola. Neure trebetasuna lagu-
nei kutsatu nielakoaz harrotzear nintzela, ahapeka korri-
tuz zihoan sekretua nire belarrira ere heldu zen. Norbai-
tek erreka goienean hautsen bat bota zuela! «Seminarioan
janarekin nahasten diguten bromuroa!», esan zuen batek.
«Shhh!», beste batek. Egiaztatzen ez gezurtatzen inoiz
ahalegindu ez nintzen esamesa, gero kartzelan ere berdin
jarraituko zuena. Pozoi kontuan nahiago dut ezjakite iru-
dipentsuan bizi, jakintza terminalean baino.

Hauek guztiak Bulnari azaltzea baino lan handiagoa
da gure gazta basaltikoa txikitzea eta dastatzea. Saiatzea,

behintzat. Behin hortzik sartu ezina disimulatuz, behin haginarte birrineztatuan mihia lodituz, gozamen planta zailak egiten ditut, mm-mm, aldizka Bulnaren begietara zuzen begira. Bera ere baietz planta seguruenik zailagoz erantzuten saiatzen da. Zorion-uneak dira niretzat, hunkitzen bainau sentitzeak nola forma besterik gelditu ez zaion zapore joan bat bilakatu den hain sentimendu deslaien bat-bateko biltzaile. Eta zoragarriago dena, konposizio sentimental berrien abiarazle, zeintzuen ederrak ez baitu huts egingo, bai gehituz joango, errealityaren konfrontaziora behartzen ez duten bitartean.

ENEPERI

–Ordurik?

–Hiri zer ardura dik?

Goizeko hirurak Bakioko Eneperin entzun nituela ziur nago. Hiru ala lau danda izan ziren eztabaida beroa, ia alkoholikoa zebilen, etxea ez dela barkua zioten bi gazteren artean, haien kulunkatik baietz zirudien baina. Batak «dan-dan-dan izan duk» bazioen, besteak «dan-dan-dan-dan izan duk» tematzen zuen.

–Zelan izango zuan dan-dan-dan-dan, dan-dan-dan jo badu?

–Heuk jo dituk ala?

–Jo banitu lez.

–Hik dan-dan-dan jo eta nire belarriek, batek eta biek, dan-dan-dan-dan entzun?

–Hik laugarrenean intentzioa entzungo huen.

Liskarrerantz makur amilgarria zeraman eztabaidak kanpo interbentzioaren beharra kantatzen zuen, eta horixe gertatu zen, albotik iradoki zietenean ea zergatik ez zioten erlojuari begiratzen. Orduan bi liskartiek, shock kebratuak transformaturik bezala, elkarrekin uztarri

egin zuten, besoak sorbaldatik sorbaldara, auzia eurek euretara konpontzekoa zela aldarrika, elkarri muturrak apurtze-zoriraino odol-berotu izanaz ahazturik, beharbada sen basikoen argitasun deitu gabereren batek abertitu zielako, elkarri zerbait apurtzeko, elkarren sostengua behar zutela.

Besteok erlojuari begiratu genion. Azkenean, nahi ezta ere, denok sentitzen gara hutsen betetzailerik, norbere larrurik jokatzen ez denean, eta horrexegatik dakit zer ordu zen, goizeko hirurak edo laurak. Berehala abiatu ez ginenaz gainera, handik Berrizeraino, etorri egin behar zen. Baneki etzanda edo lo-plantan zenbat ordu egin dudan, banekike orain zer ordu den, baina nago txoriteria hori, gauari egunerantz luzatzen uzten ez dion inpertinentzia koral hori, kantuan hasi denetik honakoa artekoa baino luzeago izan dela. Gutxienez, hamaikak izan behar lukete, baita hamabiak hogeit gutxiago ere, bitxiki ondo aparkaturiko BMW baten leihoan sudurra itsatsirik begiratu dudanean.

Halako kotxe-marka izateko, ez zait iruditu nire Skoda-rena baino fidagarriago. Beharbada, horrelaxe orekatuko dute konkurrentzia, lehenago ere, matxismoaren abangoardian, «hik andre ederra? nik ahuntz pare!» ihardetsi ohi zen moduan, beti ere ahaltuen eskala bereizteko. Bi txikienek bular nekatuei (zimel duei, garbi esanda) tiratzen zieten bitartean, amaren oinetako behatz nagusi bana xurgatzen zuten hurrengo handienek, lau urteko bikiek. Hauek estimatuko

zuketan ahuntzaren erro bat txandaka, elkarri ez ematearren, elkar jan zezaten. «Txiki! Balio izatekotan, hori sabelean egitekoa zuan». Abertentzia singularrean eman dut, suposatu beharko baita elkar jatea batak bestea jatea izango zela, ez biek biak.

Hobe izango dut historia horretatik ez jarraitu.

TIRO EGIN ZIDATEK

Umetan, gaiztoa izan liteke, mundua gaiztakeriak gobernatzen duenik jakin gabe. Penagarria da gizakiok ez bihurtzea zuhaitz (alderantziz ez luke mereziko), ukitzeko ahalik gabe elkarrekin hitz egin ahal genezan. Ez naiz arrazista, baina nahiago dut zuriekin ez tratatu. Banentorren autopistan gauez eta... dranba! «Dios! Tiro egin zidatek! Ez nauk, ba, terrorista!». Aurrera noa, suposamena onartu nahi ezta. Noizbait, derrigor geratu behar izan dut. Gurpil baten lehertzea izan da. «Hau maspildu duk, baina behintzat azkeneraino borrokatu gaituk». Aurrera beti! Buelta eginda bada ere, aurrera!

–Orduan, zer itxaropen daukak bizitzan?

–Bat eta handia. Amaituko dela.

–Hori segurantza ez al duk?

–Eskerrak!

Gizakia animalia bezala asko interesatzen zait. Pertsona bezala, ez hainbeste. Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil.

ESKARGAKO TXAKURRAK

Eskargako mendatean gora noala, txakur bat aurrez dator errepidean behera, erdiko marrari atxikia. Ez dirudi apartatzeko asmorik dakarrenik. Atzo autoz jo nuena baino handiagoa da. Haiek emakumearen garra-siak, bera zapaldu banu bezala! «Sentitzen dut, andere! Txakurratik, ez zugatik». Gaurko hau handiegia ere bada. Badaezpada, abiadura geldotzen dut, geratzen naiz, eta berak, aluak, apatx egin du. Goitik behera begiratzen didanez gero, ez naiz ausartu autotik irteten. Turutaren mehatxu-gama guztiari eman diot, baina ez du ulertu baztertu behar duenik.

Txakurra ez da, noski, autopetik pasatzeko modukoa. Esertzean, triangelu angeluzuzenaren jarrera milenarioa hartu ez balu, txahala esango nuen, honengan berezkoa baita apartatzen ez jakitea. Edo tokirik okerreanean sartzea, teilatuan, adibidez, goragoko teilatutik jausita. Nire txakurrak ez dirudi alusiorik harrapatu duenik. Diotsot:

–Hik ez baduk, neuk ere ez diat presarik.

Uste dut badakidala nondik izorratuko dudan. Txakur batek ezin du txizarik egin gabe egon, aurrean ikusten

baditu gurpilak, geldian ere biraka imajinatzen dituenak. Bitxi da, baina ulertzekoa. Ustez eremua markatzeko, autoaren parte posibleen artean, beti gurpilera jasoko dizu hanka, badakielako gurpil hark seinalea urrunera eramango duela, han beste kolega baten atxikimendua jasotzeko.

Artegatzen hasita nago, bai gizakumeon, bai txakur-
rren aldetik, lehen kasua izan daitekeen kinka honetan. Ezin dut onartu geratzeko agindu didan arrazoi berak orain mugi nazan, pazientziaren ontzia hustu arte, behintzat. Baldin animalia gainetik pasatzeko odol geroz beroagoak behartzen ez banau, oraintxe sentitzen hasi naizen moduan. Autoa arrankaturik, astiro-astiro hurre-
ratzen natzaio, eta aurpegia biratu du, arbuioz nik uste.

Eskarmentu gogoangarri bat emateko moduan jotzera noala, goiko bihurgunean beste txakur bat ager-
tu da, txikia, pixka bat albokera, eta erdi-erditik bera ere. Txakur handia txikiaren bila abiatu da, gorantz, isats kulunkariaren azpian uzki santua erakutsiz. San-
tua eta lurrintsua ez dira bateragaitzak. Ia belarri gabeko burutzarraren ostean gordeta daraman mutur zapalak honelakoxe enkontruren batean moztua izan behar du. Inor ezin da mutur horrekin jaio.

Oraintxe ez dakit nire kolpea ekidin nahiak ala kide txikiaren xarmak mugiarazi duen. Lehenengoak proba-
bleago dirudi, gorantz bazterretik baitoa, errespetuaren seinale. Horixe uste nuen, bi txakurrak, hain handi-txi-
kiak elkarrekiko, jolasean korapilatzekeo bildu diren arte,

errepidearen erdi-erdian berriro, nire autoaren hur-
biltzeak ezertan distraitzen ez dituela. Ez dakit batak
bestea irentsia ez duen ere, txikia ez baita inondik ageri.

Geratu egin naiz, ez prekauzioagatik, ikuskizunaga-
tik baizik. «Tabernak itxita eta txakurrak bide erdian,
hau mundu modua jarri zaiguna». Presarik ez dudanez
gero, natura bakarti eta serial honek eskaintzen didan
antzezpen prehumanoaz lasai gozatzea pentsatu dut.
Motorra itzungi dudanean, txakur txikia txinparta be-
zala irten da txakur handitik, pinudiko pistan barrura.
Pare bat segundora, apur bat erreflexu atzeratuz, nahiz
eta bere tamainak pentsaraz zezakeen baino bizkorrago,
handia ere ezkutatu da txikiaren atzetik, eszenatik alde
egiteko erarik kaballeroenean.

Orain libreki jarrai dezaket mendatean gora, eta ha-
laxe nindoake, autoa ere libreki, bere kabuz, baso pista-
rantz sartu ez balitz. Eta berehala geratu, arrasta-maki-
nak utzitako zanga handien aurrean. Mendate hori gora
eta behera hainbestetan iraganik, martxan ganoraz be-
giztatzeko astirik inoiz hartzen ez nuen bidezabal hau
idealizaturik neukan, bertan itzal hostotsuak eta bihur-
gune suabeak irudikatzen nituela. Izan ere, daramagun
bideak beti dauka hustasunen bat, alborantz utzi ditu-
gun bideek betetzen dutena. Horrexegatik da bidea ibi-
liago eta asegaitzago.

Autotik irten naizenean, txakurren marmarioa
dantzut, baina eurak ez ditut ikusten. Presentzia erdi-
zko horrek, besoak atzeraka, burua gorantz eta paparra

aurrerantz atera dizkit, arnasa-planta askatuan. Txakur handia bueltan dator, zeinaren begien marroia kolore bero guztien nahastura iruditu baitzait. Pieza txikia jan ondoren, handiagoaren bila dator, gizalegean galdetuz: «Zerbait galdu al zaik?».

Arriskuaren sentimenduak eskuak hankartera jaitsi arazi dizkit, brageta ixten ari naizelakoa egiteko, txakurrek hain egintza bakun eta jareinean egiten dutena buka berri banu bezala. Gorputzaren zokondo intimoak miatzen hain zaleak izan arren, txiza egitean, txakurrek inoiz ez dute bertara begiratzen. Badirudi huraxe ezkutatzeke jasotzen dutela hanka. Guk alderantziz jokutzen. Aurrekoari ez begiratzeagatik, edo begiratzen digula ez ikusteagatik, kapaz gara begiak geure bragetan josteko.

Txizagintzaren azken fasea bakarrik erakutsi diot, nekez izango bainuke denak sekuentzia kontzientean kateatzeko patxadarik, horrelako patari baten zaintzapean. Ez dakit brageta zabaltzen ari naizela ulertu duelako, edo lagun bakarreko autoak baso bazterra bilatzeaz harritu delako, geratu egin da. Kasik nahiago dut benetako arrazoirik ez jakitea, neu ere harritzen bainaiz txakur txikiaren lorratzik ez ikusteaz. Txakurrei ez zaiela atzerik eman behar gogoratu dut; eta aurpegi eman ez, presarik ez zaiela erakutsi behar. Arauak aplikatzen dihardut, baina ez dakit autoan sartzerik lortuko dudana, eta lortuta ere, estratatik irten ahalko naizen.

Leihoko kristala apur bat jaisten du nire esku ezkerak. Honek ere zerbait aportatu nahi. Eskuinak jarlekuaren

mugigailuari eman dio, eta gorputzak koska bat atzerago sakatu. Azkenean, hemen denak apuntatzen baitira erretira garailearen aintzara, txakur handiak errepedearen erdia berriro okupatu aurretik, autoari atzerantz irrintzi luze bat atera eta banoa Eskargan gora, iraganari pare bat arrastada eta estrata desliluratu bat utzita.

Mendate gaineko etxean, susmotxartu nau nola ez den ageri ia beti egon ohi zen txakurra, txakurtxoa. Sarritan bidea gurutzatzen bera eta, inoiz, erdi-erdian etzanda. Zirkulazioa gehitzeak ernegatu zuen eta etxe-ataria eta errepede-hegala banatzeko marra egitera mugatu zen. Lo-plantan ondo zaindutako marra bera, autorik ez sartzeko baino gehiago, etxeakoak errepidetik jagoteko, mehatxatuz: «Etxe honetan istripurik nahi duenak neure gainetik pasatu beharko du».

Goranzko ibilgailuak, bereaz beste aldekoak, kontatu egiten zituela uste dut. Ia isatsa zapaltzen pasatzen zitzaizkion beheranzkoei, ostera, jaramonik ez zien egiten, berak ere haraindia bakarrik aintzat hartzen bailuen. Antartidaraino joanik, pinguinoen fidelitasunaz txunditurik itzuli zirenak ikusi izan ditut dardaran, heriotzaren ertzean lo zegien etxe-mintsu hari begira.

Hamahiru bihurgune beherago, bidera irten zaidan txakur txiki bera izango zela pentsatu dut mendate gainean falta dena. Badakit emea zela, erroz gora etzanda maiz ikustetik. Eurek ni ezagutzen nautela segurtatu ezin dudan arren, ni ziur naiz txakur emeak ondo ezagutzen ditudala, eta ez dut esplikaziorik emango.

ZENONEN PARADOXA

Gure aita fantasiosoa harro zebilen nire nota onak denei kontatzen, lehen kurtsoko uda oporretan etxeratu nintzenean. Lehen urtea Zornotzako karmeldarretan egin nuen eta «hamar hamarren mutikoa» esaten zidaten. Bigarren urtean seminariora aldatu ninduten, eta han kalbario bat hasi zen. Etxanoko tabernan, gizon multzo batean, batek esan zion aitari, ni tartean nintzela:

–Honek laster aurrea hartu behar dik jakiturian.

–Ez diat uste –gure aitak–. Honek oraindik, nire parera heltzeko, garunak gordintxo zeuzkak.

–Ikusiko duk beste urtebete eginda datorrenean.

–Ezta! –gure aitak–. Urtebetean, neu ere aurrera joanda egongo nauk.

–Hurrengoan orduan! –beste gizon batek.

–Ez duzue ulertzen –gure aitak fanfarroi–. Honek nik beste ezin dik inoiz jakin, ze berau nire parera iristen den bitartean, neu ere gehiago ikasita egongo nauk. Handik berriro nire parera heltzen denerako, ni aurrerago berriro, eta horrela inoiz ezin naik harrapatu.

–Heuk zer diok, mutiko? –galdetu zidaten.

Nik ez nuen aitaren arrazoiketa ondo-ondo jarraitzen, baina esan nuen, aitari begira:

–Eta zu pasatzeko beste aurreratzen badut?

–Hori seguruen! –jendeak barreka, eta aitak ere barreka:

–Nik «harrapatu» esan diat, ez «pasatu».

Gure aita irrikaz egoten zen beti bere fantasiak antzeko kasuren batera aplikatzeko. Adibidez, Otxandioko «Hamalau» zeritzona. Gizona bazihoan mendirik mendi, munduari itzuli bat eman behar ziola eta. Hartan, erbi bat ikusi zuen albotik tximistan pasatzen, eta gizon bat atzetik lasterka, hanka bakarrean.

–Zergatik hator horrela hanka-bakarrean? –galdetu zuen Hamalauk, eta lasterkariak erantzun:

–Erbia harrapatzeko, biekin pasatu egiten baitut.

Sinesten nuen, etxeko animaliekin hamaikatan saiatua bainintzen, nahiz eta esperimentuan inoiz arrakastarik ez lortu. Txakurraren atzera-aurrerak jakinak dira. Behin pasako zaizu, behin pasako duzu, baina parean joaten alferrik tematuko zara. Behiei ere ez zitzaien gustatzen alboan joaterik, juliskeria edo iruditzen zitzaielako.

Bagenuen txerri bat, txakurraren antzera jarraitzen zuena, baina lasaiago eta zentratuago. Atzetik jarraitzen uzten zuen, ukituz bazen, hobe. Gustura barrabana, txerrien azkura-estasian! Aurrea hartzen banion, hur-hurretik zerraidan, abarka orpoak jan guran. Zenbat eta zaharrago eta apurtuago eurok, hainbat gogotsuago bera, eta setatiago ostikaden kontra. Baina alboan joaterik inondik

ere ez zuen onartzen, ezta azkura truke ere, zer transbertsal oro antihigienikoa bailitzan.

Beharbada, asimetriaren bat gelditu izango zitzaion, txerrikume zela, etxeko mutikoon esperimentu eutsiezi-netako bat, gurasoen absentzian, hura mozkortzea izaten baitzen. Gehiegi ezin zitzaion eman, botilan beherakada igar ez zedin, baina berehala alaitzen zen alua, azioa errepikatzen laguntzeko edo. Txerrikume transformatuak ikuskizun elektrizantea garatzen zuen, etengabe sortzaillea, beti ateratzen baitzuen deribazio berriren bat.

Haurrok fantasiatsuak ginela, baina uste dut txerrikume hark irudimen eszenikoan inimizazio eminentea paratu zigula. Ez zen harritzekoa haren txerri-afaria ere normala baino alaiago gertatzea, edo geuri, behintzat, hala iruditzea, elkarri esaten geniola:

–Gaur txerri-hiltzaileak a zelako anporra harrapatu behar duen.

–Kostako zaiok gure amarekin.

–Amak ez zekik ezer.

–Jakin zer?

–Ez al haiz gogoratzen txerrikumea zelan mozkortzen genuen?

–Lekutako kontua!

–Afariaren azkenean esango didak. Nik uste diat txerri hau alkoholikoa zela.

Urte batzuk joanak ziren nire karreran, eta hara non aurkitzen dudan, filosofiaren historian, Zenonen paradoxa. Joño! Bihozkada batek zur eta lur utzi ninduen.

–Gure aitak horixe esaten zian barren!

Gure aitak ez zekien Zenonen paradoxa formulatzen ari zenik. Handik urteetara, berak baino gehiago ote nekien eztabaida fantasiatsu eta ugarietako batean, greziar famatuaren izena eta teoria aipatu nizekion, eta deskojonnatu egin zen.

–Hori ere ikasi al duk? Horretarako ez zegoan hiru mila urte lehenago jaio beharrik.

TXAKURRA ETA BEHIAK

Txakurrari kriskitinak ipini arte ez nuen bakerik eman, ezta gero kendu arte ere. Leku batzuetara, auzoko neskatoa ispiluan zelatatzera, adibidez, txakurra isilik eramatea komeni zen. Etxean uzten ahalegindu arren, ez zegoen segurtatzerik atzetik jarraituko ez zuenik. «Madarikatua! Zertan hator hona? Ez al diat esan etxean egoteko? Geldi hor! Eta isilik!».

–Norbait al dabil hor? –neskatoaren buruak, leihotik kanpora.

–Ez! Pasatzen ari nindunan –erantzungo nuen, asun artean ezkutatzeko astirik izan ez bazen.

–Hortik nora pasatu behar duk?

Eskerrak haren buruan ere beharrezko ondoriorik ateratzeko garapenik ez zegoen, nirean aitzakia ganorazkorik moldatzeko ez bezala.

Arratsalderoko lana, behiak zaindu. Txakurra, obedientzia inaziotarrak eskertuko zukeen bozkarioz, tximistan hurbildu da nire txistura. Bagoaz norantz joko zuten suposatzen dudan behien atzetik, pinudian barrura, non abereak areago sartzen baitira hazka egitera eta iratzean

euliak astintzera, hango belar mingotsa bazkatzera baino. Pinupean ibili besterik egiten ez dutenez, haien norakoa lehenengoan asmatu ezik, behiak galtzeko arriskua berehalakoa da. Ikara horrexekin noa, txakurraren alde guztietaranzko zolitasuna lagun. «Amaren esanik ez egitearren!».

Aitormen beranta, beti bezala, ez hainbeste amaren ongura mindu izanaren damuz, okerraren ondorio posibleen beldurrez baizik. Umezaroko gertagai beldurgarria ez da pasatzen, sarritan, eszenifikazio soil bat izatetik. Baina hori gero jakiten da. Beharbada, egundoko errieta bi ahotsetara entzun duen mutiko abaildua bistatik joan denean, gurasoak barrez lehertuko dira, edo irribarrean atseginduko, edo soilik, aurreko solas ezdeusera itzuliko. Eszenifikazio hori, nagusitan, posibilitate txar guztiak batera irudikatzeko ahalmena izan daiteke. Beldur zen okerretako bat benetan gertatu zaionak beti izango du beste oker guztiak zorioneko prekauzioagatik ekidin dituelako gailentasuna. Alferreko beldurretan sufritu duela deduzitzea ergeltasunaren aitortza ozenegia bailitzateke.

Behirik inon ageri ez izatea baino larriago zen kontrako norabidean ez ote gindoazen zalantza. Orduan ez dago lau norabide kardinalak arin korritzea besterik. Baina noraino, hain luzeak badira? Hauetariko ezeinetan lorratzik aurkitu ez baduzu, has zaitezke okerrena pentsatzen, nahiz eta gero, beharbada, haserre eszenifikatua besterik izango ez den. Nire ume-talentuan oraindik ez zen existitzen figura hori.

Iratzean zenbat arinago, txirrindola manillak hainbat gehiago trabatuz, pinudiaz handiko zelai garbira irten garenean, hor dantzut neure umetako soinurik alaiena, galdutzako behien txilin hotsa. Oraingoan, norabide kardinalen metodoa efikaza izan da. Txakurrak, aurpegira adi-adi, bidea ixten dit, bai baitaki, honelako susto ondo amaituen ondoren, nik berari pare bat musu emango eta berak niri belarriak miaztuko dizkidala, nahiz berak aurpegia nahiago izan. Eta lurrean garagarra, behiak berriro galdu arte.

Pinudira sartzean, hodei burumotz bat salbu, oskarbi utzi duguna, dagoeneko guztiz estalirik eta aurpegi haserrez ageri da, burua aurkitu bailuen. Txilinaz fidatzeari laxokeria iritzita, zelaiaren ertzetik, aldapa irripe eta luzearen hasieratik beheratxoago, behi liderra ikusi dudanean, «Ruby» eta biok lurrean iraulka oldartu gara. Izen hori aitak txakurrari apropos ipini ziola uste dut, nire ahoskera kirrimarradunak egiten zion graziagatik, ggrruby, ggrruby. Jolas arriskutsuaren mugan beti, biok ere hortzak erabiltzen baititugu, batzuetan kontroletik at. Lehenengoz belarritik hozka egin nionean, ikaraturik hanka egin zuen, txilioka gizajoa, hartutako minagatik baino gehiago, haren burutxoak ez zuelako inondik itxaroten hozka egingo nionik. Gero uste dut gustatu egin zitzaiola, hala berak ere hortzak libreago erabiltzeko aitzakia zeukalako.

Iratzean korapilo ezin egonkor, ezin askatuan pirritatzen garela, bat-batean, argitasun zaurigarria eta

danbarrada durdigarria gertatu dira. Txakurra, suak harturik bezala, iratzean desagertu da. Zer izan den kargutzerako, zutitzen ere hasterako, euria truxuka ari du, txingorrarekin nahastean. Iraperik irape, katean lehertu den oinaztuak harrapa ez nazan, pinudian babestera jo dut, trumonadan arbolapea arriskutsuago izan daitekeela entzuna izan arren. Pinurik adartsuenak ezin dio urari eutsi, txingorra apur bat mehatzen badu ere. Txakurra-ri larri deitu diot, berehala dator, zahagitxo iruntzitua bezala, eta pinu kontrari neure hanka artera kikildu da. Lagungarri izango nuelakoan, haren dardaran, izuaren gorputza ukitu nuen, ipuin ustean entzuna nuen munduaren azkena huraxe izango ote zen. Atertuko zuela pentsatzeko adorerik ez neukan.

–Eta behiak? Ai, Rubytxo! Oraintxe gureak egin due-
la uste diat.

Ekaitzaren biolentzia ez dantzut, baina negarrez na-
goela uste dut. Gaua da edo gautu egin du; beharbada,
gehiago ez du argituko. Erlojuari igartzen apenas nekiela,
denboraren kontzeptua beste ipuin bat besterik ez zen
nire buruan. Gero jakingo nuen, ume batentzat, egun
bat bizitza osoa izan daitekeela eta ordu laurden bat,
eternitatea. Txakurra ondoan ez zegoela konturatzean,
ez nintzela larriagotu ikusteak lasaitu egin ninduen. Ge-
hiago norantz ikaraturik ez neukala esan nahi zuen. Ha-
ren larrua ere, laguna abandonatzeko, leialtasuna baino
grina bitalagoren batek jo izango zuen.

Bat-batean, gau osoa honela igaro beharra izan nezakeela pentsatzeak («honela» baino gehiago, «gau osoa»), beldurraren dardara eta bustiaren hotzikara paralizatu egin zizkidan, salbabide bakarra zen mugimena anulaturik. «Ama!». Negarrik ere ez dator. Oinaztuaren argialdi bizi eta zarratuetan, gerizen multzoak baino ez dakutsat, denak isekaz eta mehatxuz.

–Kokotxo bat lez hilko haiz! Bestela, geuk jango haugu.

Pinuaren kontrara tente nengoena, belaunek euren kontura amore emanik, eserita aurkitu naiz. Lurra jotzean, ipurdiak trumoiaren dardara nabaritu du. Jaus-teko gauza izan banaiz, ez nago immobilizaturik. Horrelakorik ez nuen pentsatu, baina gorputzak bere kontura erabaki zuen mugitzea. «Noan arin, koko bihurtu aurretik! Eta behiak?».

Ia kilometro bat bazen basotik etxera. Adin hartan (sei urte), distantzia amaigabea. Oinaztuen laguntzaz aurkitu nuen pista istiltsua, batzuetan belaunetarainoko lakua. Euren argitasunera jarraitu nuen ilunpe likidoa zeharkatzen, urrats bakoitza basatzen ehorztetik libratuz. Laburtzeko, diodan amamarenean argi hil-urran bat hautemateak ozenki negar egiteko adorea eman zidala. Hango olio gorri lodizko kriseilu linbotarrak kea gehiago zabaltzen zuen argia baino. Amamaren sukalde partetik zotin isilean pasatzen ahalegindu nintzen, neure miseria ez salatzearren, eta geure etxea hur nabari nuelako.

Hemengo argi biziagoa ikusi nuenean (gurean petrolio purgatoriotarra gastatzen zen), erabat askatu zen nire

negarra, ez entzuna izan zedin, ekaitz persistente hartan ezinezkoa berau, baizik kontentzio guztiak desaktibatuz zirelako. Baita, bide batez –beharbada, batez ere–, etxekoen aurrera husturik iritsi guran, baliente plantan alegia, gaua kanpoan pasatu behar izateak ez zidakeela ardura izango agertuz. Txakurra bidera irten zitzaidan. Abandonatu ez banindu baino samurrago besarkatu nuen, haren gorputzari zerion pozezko dardara nire bat-bateko bipiltasun heroikoak barka-eske loriostzat ulertu baitzuen. «Zelan heldu haiz, Ruby? Behiak etxean al zeudek?».

Behiak ukuiluan zeuden, bai, etxera sartu aurretik, konprobatzeko izan nuen ez dakit gailentasun ala larritasunaren arabera. Sukaldera sartzean, ez nuen aurpegi kezkaturik hauteman, bila irteteko motiborik eman ez bide zuen eguraldi mota baten konstantzia baizik.

–Zelan ez diok igarri ekaitzari? –galdetu zuen aitak, burlaize fingituan, neuk uste.

–Ni behien arretan ibiltzen naiz! –erantzun nuen gotor, neure inesperientzia mendrea balentriara jasoz.

Askoz okerrago buka zitekeen larritasun haren oroitzapenak zertarako balioko lidake orain, baldin aspalditasun haren oraintasun hauxe ez balitz nire nortasun zati gabearen grazia edo zama mantentzen duena? Alegia, baldin oroimena ez balitz, bitarteko zulo beltz posible guztiak penetratuz, denbora luzearen muturrak kontzientzia bakar bihurtzen dituen?

GERIZA

Txoriak ez dit beti adar beretik kantatzen. Metro batzuk luzeago, geriza neure norabidean doa. Ez dakit geriza aurreratzen zaidan, ala eguzkia badoakidan. Horretan, etorbide sakon eta zuzenean, espaloi beretik, emakume bat neuganantz dator, bakarrik dator, gerizarik ez dakar aurrean. Aitzakia gabe begiratu ahal diot, behar diot, elkar ez jotzeko. Hurreratu ahala, irudia zehaztuz dator. Batzuetan, ezuste hunkigarria, aurreikuspenen gainetiko edertasuna izaten da. Gehienetan, abiapuntuko irudi orokorki ederraren azpitik zehazten da. Dezepzioak maiz ekarri dit hasperena. «Hobe albora begira pasatu banintz!». Oraingoan zer egingo dut?

Pentsakizunotan ari nintzela, emakumea igaroa da. Zailantza baten ondoren, atzera begiratzen ausartu naiz eta haren geriza neure oinetan aurkitzen dut, hura neugana lotu nahirik, baina, azkenean, geriza ere joan da, aurpegi-rik erakutsi gabe. Zoriontsu izateko, arrazoi askok bat egin behar dute. Zorigabe izateko, bakarra da nahikoa. Maitasunaren destinoa dezepzioa izatea ez da hain ez-bidezko, pentsatzen bada gizakidea maitatzea, litekeen maitagarriena delako baino gehiago, dagoen maitagarri bakarra izateari dagokiola.

HÄNDEL

Seminarioko Schola Cantorum-etik datorkit Häendelen «Alleluia». Halako pieza bat egin zuenak ez dakit zertarako segi zezakeen gero nahitaez txarragoak izan behar zutenak egiten. Esplikazio bakarria dateke artista sortzeko bakarrik dela gai, ez sortuaz gozatzeko. Horrek bakarrik esplika dezake, halaber, zergatik sortzen den hainbeste gauza txar, ez bada hurrengo ahalegina behartzeko, beharbada jeniala izango dena. Nik neuk «Alleluia» hura ohartuki sortu izan banu, aurrerantzean olagarroen arrantzari ekin izango nion, hainbeste beso eta hain itsaskorrak dauzkan piztia zuloatik ateratzean, itsasoari potroak erauzten dizkiodala sentitzearren.

Häendelen musika beti iruditu zait unibertso bat espantsio konfiatuan. Doinua adarkatzen da, adarrak hostotzen. Ahotsetik ahotsera entregatzen zaitu, tresnatik tresnara jauzi etengabeaen zoaz, hankak trenbideko errailetan banaturik bezala; edo Parisko geltokian batzen ala banatzen ari den ez dakizun erraileria kontaezinaren gainean bezala. Azkenean, errailetatik goraturik, airean sentitzen zara, inprobisatzen alegia. Esan

nahi baita Häendeli ihes egin diozula, hots, unibertso-
tik at zaudela, zeinari itzuli eta diotsozun: «Handia izango
haiz, baina bola bat hi ere».

Batzuek diote unibertsoa plano delako. Nigatik iza-
tea dauka oboidea edo artazia. Galileo hil zen egunean
Newton jaio izatetik atera daitekeen ondorio zientifiko
bakarra da Aristotelesekin ere ez dagoela fidatzerik, ze-
ren emakumeak gizonak baino hagin gutxiago daukela
uste bazuen, bi aldiz ezkondua izanik, pentsa gai meta-
fisikoetan zer ikusiko zuen.

–Dominus exercituum regnat.

–Gaur umoreko dirudizu, Amuriza! –entzuten diot
patio gaineko eskudeletik begira zegoen kartzeleroari.

–Halaxe nago, bai, ihesean noa eta.

–Ihesean? Ihes? –oihu egin du, hitz madarikatuak az-
toraturik.

–Unibertso-
tik ihesean!

–A! Hortik heuk nahi duana.

Sinonimo kartzelarioak: «Arrastatu, jaurti, bota, amil-
du, ehortzi, usteldu, ito, lurperatu...». Ez, ez! Hil ez! Su-
fritzen jarraitu behar da.

BACH ETA

Händelen espantsioaren kontrastez, Bachen musikak ordena intentsorantz datorren unibertsoa dirudi. Honen «Toccatà eta fuga» hura,



unibertsoaren muga, itzulera aldarrikatzen eta zentrorantzko oldar amorrotuan irudikatzen dut beti. Tontorrik gorenean, «la-sol-la-sol-la» oihu mordentea jaurti, eta aldasbeheran irauli, «sol-fa-mi-re-do». Geldiune bat, oktaba bat beheragoko gailurrean beste oihu bat, eta berriro beherantz, tarteka gorantzko kosketan pausatuz, jaitsiera ez dadin suizida izan. Beti behera eaginean, harik eta, arrapala suzesiboen barrenean, fugari bizkar luze amaigabea emango dion zelai geldiezina jo arte. Ihes egin behar da! Iheslari guztiak ziztuan, gehituz, gurutzatuz, kontzentratuz doaz, mendi bizkarrari jarraituz. Maldetarantzko okertze txikiak berriro gailurrera atxikitze dira. Zentrorantz

itsuan goaz, gorantz, gatoz, beherantz. Inork ez du une supremotik, beherengotik, kanpora geratu nahi.

Nik, azken metroetan, eurt egin dut disimuluan (disonantzia bat esango dute), ez baitut hain sentsazio zoragarriok errepikatzeko aukerarik galdu nahi, ezta, bide batez, aitzakioso zebilen bati zuloraino sakatzeko ere, izorrai! Betiko, e! Loriauko ninduke organorako toccata eta fuga hori bi bertasio (behintzat) orkrestraletan entzun ahal izateak, bata Lisztena (barka, Berlioz!), bere orkestra guztiarekin, bestea Stravinskirena, metal hutsezkoa. Tamalgarri da bi zentauro musikalok gozamen hori gizaldi eternaleri ez aurreratu izana. Beharbada, egina izango dute, eta nik jakin ez. Ezetza bada, ezingo ditut larderiatu, eurenganako mirespen gehiegizkoz seguruenik, inondik ertz hobegarririk ez zeukan original bat ukitzeko temeritatea airean utzi zutelako. Bego iradokizuna, itxaroterik bada musikari handiak ez direla denak hilak izango.

Antonin Dvoraken hura:




Egunen batez, gure herri zaharraren zaharrez ia sorrera gabe honetatik urrundu behar izan zuten guztiak munduko bazter eta denboraren geruza guztietatik sorterrira itzultzeko motibo handiren bat gerta baledi, orduan martxa horixe mundializatuko nuke satellite po-

tente batetik, itsasoz eta lehorrez datozen bide guztien gainera. Haranetik datozen ilarei horizontetik erantzungo genieke:



begiratzaille. Bat-batean, etena gertatzen da, zirraran suspentserik posible bada, zaldia horizontean, ez dakit harantz ala honantz, ezkutatzen eta berriro agertzen de-
nean.



Egia da irudikapen horrek zirrara ederragotu egiten didala, baina ez, sarritan, zorte emankorra lagun, melodiaren beraren gainean muntatzea lortzen dudanean adina, neu zaldi, neu horizonte. Ez dit ardura Mozarten pertsona apur bat zoraldatzat aurkez dezaten, miserian hil zela jakiteak penatzen banau ere. Haren inspirazioak zorabiltzen nau, eta zorte hori ez zuen berak ere izan, beharbada. Luzaroago bizi izateak ez ziokeen gaitz hori handitu besterik egingo. Eskerrak gazte hil zen, bestela ez baitzuen ezer egingarririk utziko.

BRAHMS

Lezaundietako haitzulo deskomunalean gaude.



Bertan bizi da, haitzean markak egiten hasi baino askoz lehenagotik, zibilizazio oso bat. Gure geneen sen gisan bakarrik gelditzen zen memorian, suposatze azarna edo estrabagantzia izan dugu ezen pertsekuzio esterminatzaile batetik ihesi babestu ginela lurraren golkorik sakonenean. Kanpoaldeak jada bareturik egon behar duela jorik, merezi luke berriro argiaren edertasunera irten gaitezen. Abiatzea erabaki dugu, haitzuloaren bi aldeetako hormetan isioturik dauden zuzien artetik, atzekoek azkenak jaso ahala aurrera pasatuz:



Bagoaz pasagune estuetan, denboraren izaera longitudinalala errepresentatuz, eta ez dakit zergatik dakusadan

beti elefante bat martxa-buru, animalia hori sekula ez baita harpetarra izan, irten gaitzen animatzera sartu ez bada. Bere mole on puskaren kontraste nabarmenagorik pentsatzea zaila den tronpa enpagosoarekin aurreranzko seinaleak egiten dizkigu. Beharbada, melodia horri itsatsirik datorkidan errepresentazioa ez da Brahmsen sinfonien inpresio abismala besterik izango, non, baxuen magma trinkoaren gainean, masa musikalak mugida orogenikoen antzera mugitzen baitira, euren kontudentzia presa gabea, goraguneak eta beheraguneak efektu sekundario bezala eraginez.

BOZKARIOAREN ODA

Oizko tontorrean gaude, ilargiak itxaron ez digun orduetan, motxila bizkarrean, zahatoa eskuan, egunaren zabalerako ikuspen handiosaren zain. Zulagaitz zirudien gaua amore ematen hasia da hegal batetik, itsas aldetik. Ostean, andere egunsentia itzartzen ari da, nagiak ateratzen, garbitzen, apaintzen, zutitzen, bere mandatari eguzkiari agintzea erabaki arte: «Ager hadi heu. Ni berton etzango nauk bihar arte». Hori guztia leun-leun, zabal-zabal gertatzen ari dela, argituz doan horizonteaz handik, berau ere denerantz zabalduz eta egunari gorantz sakatuz. Entzuten da:



Oiz tontorretik, hasieran oinetan genuela zirudien argizko eta soinuazko agerraldiak astiro-astiro inguratzen eta gaina hartzen digu, buruei gorantz tiratuz zeruko urdinean nabigatzera. Orain, Wagnerren aurpegi formako

hodei gorrixka beltzez erremataturiko batetik entzuten da:



Ez naiz edertasunaren itsuegia izango, urteak joan zaidan honen eskura neukan esperientzia berritzen. Ez daiteke izan bigarrenetan defraudaturik gelditzeko beldurragatik, zeren denbora joanari pilatzen zaion nostalgiaz sentimena bizitu egiten baitu. Alferkeria esplikazio arruntegia dela emanik, pentsatu beharko dut edertasuna, esperientzia pertsonala baino gehiago, neure harekiko exhibiziotik itxaroten dudana ederrespena dela. Izan daiteke izaki ulertezina naizela ere. Seguruenik, berau izango da guztiaren esplikazio. Bozkarioaren Odak salbatu nau.



Ez dut aurkitzen melodia hau errepresenta dezakeen giza egoerarik. Ea arrazoitzeko gauza naizen.

Eboluzioa denbora musikalera transformatzeko baino oharrezinago dela dirudi. Baina naturaren bat-bateko mugimenduak biolentoak dira, katastrofeak. Katastrofeak guretzat, noski. Naturari, bost. Ezin dut melodia hori asoziatu lurrikara batekin, itsasoaren portu-irenste batekin, eztanda espazial batekin.

BERLIOZ

Halako zerbait izango zen Berliozen «Sinfonia fantastikoa» erosi nuena. Bilboko plaza eliptikoan zegoen musika-etxe batean beti geratzen nintzen ikusmiran. Egun hartan, disko berriren bat erosi arte ez zidan bakerik eman nahi poltsikoan urduri zebilen dirutxoak. Zein erosi erabaki ezinik, har-utzian eta ikus-usainduan niharduen. Etxe horietan, ez dakit egiaz dagoelako ala neuk emititzen dudalako hartu ohi dudan musika-usain guztiz identifikatuak exzitate egiten nau. Berliozen «Sinfonia fantastikoa» hauteman nuen.

Pentsa nire ezagutza musikalen maila, egilea ez ezagutzeaz gainera, abizen txakila iruditu zitzaidan, higuina hartua nion «pardiez» espainolaren antzetik edo. Non goa ote zen, ez nion austriar, errusiar, italiar, ezein europarren usainik hartzen. Berlioz! Gaztelaniak eta frantsek bortxatzeko hain grina aihertsua duten euskal abizen bat, «Berriotz», adibidez, izan zitekeela pentsatzeak ez zidan sinpatiarik gehitu. Obraren izenburua gustatu zitzaidan: «Sinfonia fantastikoa». Pentsatu nuen: «Bere sorlan bati horrelako izena ipintzeko atrebentzia daukanak norbait izan behar dik».

Diskoaren kontrazalean (oraindik ez zegon CD-rik), frantsesa zela jakin nuen. Ez zen, beraz, ez austriar, ez aleman, ez poloniar, ez errusiar, ez nafar, ez... Haren soslai biografiko eta artistikoaren erreseina luzea ere gus-tatu zitzaidan. Baina hori horretarako idazten da, ezta? Pentsatu izango nuen: «Karajanek zuzendua izateko, ez duk edonor izango». Izena bai. Izen kontudentea zeukan: Hektor. Hektor Berlioz. Beharbada, Philippe Berlioz izatera, jaramonik ere ez nion egingo.

Erosi nuen. Diskoak liburuekiko abantaila handia dauka. Gehienik, ordubete gal dezakezu. Horrenbeste, txizalarriari eusten ere maiz egin izan dugu. Iluntzean etxean, disko-jogailua martxan ipini nuen. Hasiera delikatuak, intriganteak hozkatu ninduen. Jarraipeneko erritmo eta melodien segida zirraragarriek atxiki ninduten. Eta bizitzako ordurik txundituenetako baten buruan, durditurik amaitu nuen, zutitu eta egongelan atzera eta aurrera, neure buru agitatuari errepikatuz: «Zer izan duk hau!». Musika entzunaldi batek ez nau sekula halako inpaktu totalean menperatu izango. Zoria, oraingoan, eskura etorriko zitzaidala amesten igaro nuen umezaroko hegazti fantastikoa izan zen. Sarritan, pentsatu gabeko bideen ez ezik, kontrara predeterminatuen jarraipen sentitzen gara, paper-fabrika bateko tximinia luzeetatik, norabide harrigarriro ezberdinetan ateratzen diren ke-txorroak baikin, haizeari esanez: «Segi hik ere heure popari, gauza bahaiz».

Musikaren usain sartua kafe egin-berriaren usain sarkorrarekin nahastu denean, bigarren botila irekitzeko premia ezabatu egin da. Kanpoko bero galdak setiaturiko sukalde ilun, izerkor, bonbilla ñimiño batek argituan, aipatu melodien pentagramak begien aurretik desfilatzen zaizkit, behin tira luzean, behin multzo nahasian. Honela irakurrita, munduko gauzarik errazenak iruditzen zaizkit:



Sinpleagorik! Beltzen segida bat, kortxea bakan batek edo bik apaindua, oktaba erdiren barruan. Hori al duk Bozkarioaren Odaren mirari guztia? Botilan otzan-otzan zegoena sabelean apartzen ari ez balitz, lotsatu egingo nintzateke, magoaren sarrerako proba gezurrezkoari neu bakarrik txaloka aurkitu nintzenean bezala, gero berdin lotsagarri geratzeko, egiazkoak badaezpada ez txalotzeagatik. Musikari harrigarritzat daudenen aldra horrek guztiak ez inork ez du lortuko jenialtasunik, nire buruaren kaxkartasunaz defraudatuko nauenik, hain zer sinpleekin hainbeste hunkitzeko xumetasunean jausi naizelako.

Badakit xumetasun mota horixe izan ohi dela maitatuena. «Gizakume gardena, xaloa, oso-osokoa zen». Batek bere baitan, bera zuzenki aditua den gai bakar edo bakanez beste guztietan sentitzen duen ahultasun intimo

berbera aurreko batengan islaturik errekonozitzea atsegin handia da. Azken batez, maitasunak hartzen dituen norabideak zeinahi direla, ezin dut neure burua maitatzetik libratu. Ba al dakizue zer? Ez diot bizitzari bat ere gorrotorik, arte horretarako egokierarik, ez gaitasunik eman ez didalako, zeren, onenean ere, hain gauza sinpleak egitekotan, ez baitzuen ezertan hasterik merezi. Tamal bakarra da beranduegi ohartu naizela.

PADRE

Gure herrian abadeei «jauna» eta fraideei «aita» esateko ohituratik gentozen, baina «aita» gehi izen bat beti ere. Aita Luzio, Aita Fidel eta horrela. Abadeei Don Luzio edo Don Fidel bezala. Seminarioan denak «padre!»-ka entzun nituenean, erdaldunak estrabagan-teak iruditu zitzaizkidan.

–¡Padre! ¿Puedo cerrar la ventana?

–¡No! ¡Hay que curtirse!

–«Hay que cortarse» esan al du?

Ni, oraindik, irenduko ote gintuzten kezkatik guztiz libratzeke nengoen.

–¡Curtirse!

–Zer duk hori?

–Leihotik datorren zeozer izango duk.

–¡Padre! ¿Podemos sentarnos?

–Cuando yo lo diga.

–¡Padre! ¿Me da permiso para...?

–¡No hay permiso!

–¡Pero si no he dicho para qué!

–¡He dicho que no hay permiso!

Kasik poztu egin nintzen euskaraz egiten ez uzteaz,

munduan neure aitarentzat bakarrik sentitzen nuen hitz hura edonori deitzetik eta, batez ere, halako hizpide arraroetan erabiltzetik libratzearren.

ALON ETA AGATE

Hogei urterekin, mutila komentutik alde egin berri zen. Fraidetzarako erabakia utzi zuen, baina ez, antza, zintzotasuna. Jainkoari erakutsi behar zion ez zuela alde egin nahikeriagatik, baizik Hura, maiuskulaz idatzi beharrekoa, era emankorragoan eta maitekorragoan zerbitzatzeko.

Noizbait, erromeriara hasten ere ausartu behar zuela pentsatzen hasi zen. Igande arratsaldeko arrosarioan mutil bakarra izan ondoren, kanpoko lagunak babes esperimentatuak tiraturik, eta batez ere bere irrika gordeak bultzaturik, horixe egin zuen: erromeria estreinatu.

Mutila lotsaizun aurreratu bat ezin menperatuz zebilen, esamesen beldur. «Begira gure fraide motxa!». Gauza askoren beldur zen, baina batez ere, lehen dantza-eskean, guztien aurrean, kalabazak hartzearen beldur. Erromeriaren hasierako dantza solteetan parte hartu zuen, begi guztiak gainean zituela sentituz, baina dantza lotuaren modulazio kilikorrak hasi zirenean, arnasestu apropos handituan, bazterrean esertzea erabaki zuen.

–Buf! Lehen egunerako nahiko pasada izan duk hau!

Plaza bazterreko harrian eserita emango zuen arinegi zihuan denbora, neska dantzarietara begira, ukondoak izterretan eta eskuak belaun artera baturik, eroso estaltzarren gorde nahi zuena igartzeko beldur zen hura. Lantzean neska ongura bat, auzoko edo ahaide, adeiz hurbiltzen zitzaion.

–Hik ez al duk plazara irten behar?

–Gerotxoago –erantzuten zuen—. Jakin ere ez baitakit ondo-ondo.

–Eserita ez duk ikasiko.

–Begiratzeari ez al deritzozu polita? –galdetu zuen, hitanoan ez sartzeko deferentziari balaku asmo guztiz zehar eta ia oharkabea erantsiz.

–Horrela ez duk sekula ikasiko.

–Ikasten badut, ez al didazu kalabazarik emango?

–Heure burua bezalakoa!

Neska barreka aldendu zen plazan utzitako neska-lagunaren besoetara, gustuko mutil parean dantza eske etorriko zitzaien unean prestatzera. Bat-batean, plazaren beste aldean, abadetxearen eta sakristau-etxearen artean jarleku egiten zuen horman, neska bat hauteman zuen bere antzera eserita, bakarrik, luzaro. Eta pentsatu zuen neska hura hala zegoela, ezein mutilek ez ziolako dantzarik eskatzen. Pentsamendu horrek argitasun salbatzaile bat ekarri zion, bihozkada baten forman.

–Horrexek ez zidak emango kalabazarik!

Mutila, dantza-zelaia gaingiroki ikusmiratzeko planta indiferentean, aipatu neskarenganantz zihoala ikusi zutenean, espektazio kiribil bat abiatu zen plazan, dantzari

bikoteen buruak erakarri zituen. Mutila jarri zen apalki bazterreko neskaren aurrean eta galdetu zion:

–Dantzalditxo bat egingo al dugu?

Neska sustoaren gainean zutitu zen, pentsatu zuen berak.

–Jakina! Zelan ez, ba?

–Asmatu diat! –pentsatu zuen—. Salbatu nauk.

Begi guztien plazan, emakume baten besarte, ia besoan luzera osoko bitartearekin bazen ere, estreinatu zuenean, zirrara ala urduritasuna zen ez zekien dardara mingots bat oldartu zitzaion, neska baten inozentzia hain arrazoi aitorezinez baliatu zuelako.

–Izan ere, zerri samar jokatu huen gero! –jauki nion aire minduan, hura kontatu zidanean.

–Norbere burua salbatzea ez duk zerrikeria –erantzun zuen—, baldin bestearen jakinera iristen ez bada.

Dantzaren mugimenduak aurreratu ahala, gogoan naituz joan zitzaion, nonbait, marjinatu baten ustekabea iruditu zitzaiona zindotasun adeitsutik ere uler zitekeela pentsatuz. Eta batez ere, beldurrak eta distantziak iradoki ziotena baino askoz politago aurkitu zuelako. Edo, beharbada, halako edo bestelako itxuren gorabeheran ez dagoen neska-usain orokor eta sarkor bat nabaritu zuelako, zeina ez baita, sarritan, ikusmenak nahasitako lurrin ezberdinen konposizioa besterik.

Izena ere noizbait deklaratzeko komeniko den Alonnek, geroago Agate zela jakingo zuenaren begietan bere burua hain txiki ikusi unada bakan eta laburretan, ez

zuen sumatu, neskaren aldetik, gutxi ustearen inolako zantzurik, aitzitik hizkera nortasunezko eta etorkorra baizik. Beharbada, ahotsaren gozotasunak, zolitasun puntu batek minduak, beste dohain guztiak inpregnatu zituen.

Seguruenik, neskaren patxada harmonios harexek eragingo zuen, mutilak emergentziazko flotagailua begiztatua zuen tokian, edertasuna azaltzen hastea. Nahiz eta tentuz pentsatu nahi izan zuen hutsetik hara ukitzen zuen lehen neskarengandik ezin zela atera ondorio fidagarriarik. Are gutxiago bere turbazio amestian. Bai aurkitu zuen gutxieneko baretasun bat aitormen handios bat jaulkitzeko, esperientziaren zein sinpletasunaren erakusle izan zitekeena.

–Zeu zara berarekin dantzatzen naizen lehen neska.

–Polita duk hori! –ihardetsi zuen neskak, lau eta motz.

Alonek itxaron zezakeen erreakzio esplizituago bat.

–Zergatik neu, hain zuzen? –Edo: –Ez huen, ba, lehendik pentsatuta edukiko!

Horrelakoak, gutxi gorabehera, nola saihestu preparaturik zegoen, hala nola:

–Neu lez eserita ikusi zaitut eta pentsatu dut hori ez zela plazan egoteko modua. –Edo: –Leku itxiegitik nator ni, horrelako gauzak pentsatuta ekartzeko.

Agatek ez zuen «polita duk hori» beste luzabiderik eman. Erretorika handietan ikasia zen Aloni erantzun bat gogoratu zitzaion, xumearen xumez ia sinpletasun berdin ederra gertatu zena:

–Polita ez dakit, baina egia da.

Egia berez justifikatzen delako ingenuitate oraindik pitzatu gabean bizi zen. Zorionez, arrazoi bakun eta laburrez garatzea hain zaila zen solasa musika-piezaren amaiak erabaki zuen. Eta Alonek bere gonbit bidezkoa –ba al zatoz tabernara?– maltzurki saihestu zuen, suposatuz neskak ez zuela onartuko. Bazuen aurreko baietz ederra ezetz batek hondatzera ez arriskatzeko adina sen, nahiz eta ezetzak ez zeukan izan beharrik bere pertsonari esleitzekoa. Gizarte txiki hura, edo hobeto esanda, orokortasun gotorraren pusketa kasik galdu hura, oraindik urrun zegoen neska prestuak tabernan begi onez ikustetik. Jada tabernan, Alonek barraren kontrara bermatu zuen mugimenduak baino urduritasunak eragina zion arnasestua.

–Ikusten zer ederto atondu haizen? –animatu zuten lagun batzuek–. Hurrengoan benetan gozatzeko hasiko haiz.

–Zenbat behatz zapaldu dizkiok? –beste batzuek, adar-soinuan.

Limonadaz bigunduriko ardo zantar hura amaitu zue-nean, dantzara itzultzeko gogoia bezalakoa nabaritu zuen, kemena ere izan zitekeena. Bihotzak neska jakin batengana tiratu zion. Gehiegi begiratzen ez zen ausartu, baina bazekien hantxe zebilela, lehenago elizako korutik eta al-daretik sobera obserbatua eta bere era inposiblean desiatua ere zuena. Eta orain hara non, handiegia izan beharrik ez zeukan zortea lagun, neska harekin dantzaldi bat

egiteko zorian zegoen. Plazara erdi zeharka hurreratzean, ordea, Agaterekin topo egin zuen berriz, eta honek esan:

–Nahi al duk beste dantzalditxo bat egin dezagun?

–Nahi bai, baina nire oinak heuk jagon beharko ditun.

–Abarketek ez diate minik egiten.

–Ez behin eta birritakoagatik.

–Ez gaituk hain hur ere ibili –irribarrea zehartu zuen neskak, zer distantzia nasaian dantzatu ziren imintzioa eginez.

Neskaren toa xarmatzen hartzen zuen Aloni berak noka egitea gogorregi egiten zitzaion, baina berriro haren trataerari zuka jarraitzea ere fraidekoiegi gerta zitekeela pentsatuz, badaezpada itaundu zuen:

–Neuk ere hika egitea ez dun txartzat hartuko, eztun?

Irribarrea ironiaren ertzeraino luzatzen ikusi ahalko zuen, neskak erantzun balu:

–Ez duk, ba, lekaimea naizenik pentsatuko! Edo:

–Irtengo ahal haiz zuzendari espiritualaren golkotik!

Hori entzutera, bazitekeen mutila gogorturik gelditzea, baina ez. Sinpletasun onbera hauxe besterik ez zuen erantzun Agatek:

–Zelan hartuko diat txartzat neure moduan berba egitea?

Artean, soinulariaren belarriak iristen zen edonondik ekarritako piezetako bat aurrera zihoala, Alonek, egoeraz jauntzen ari zela oker pentsarazteko moduan jaulki zuen:

–Orain ez dinat esan beharrik heu haizela bigarren dantzaldia berarekin egiten dudan neska.

–Horixe ere polita izan duk! –erantzun zuen berriz ere laburki Agatek.

Ez dago baztertzerik «fraidegaia» plaza bazterrean eserita ikusteak neska eser arazi ez zuenik ere, jarrera solidario baten erakuspenak eszena berriak ekar zitzan gogoz, edo soilik, intuizioz. Ez dago baztertzerik, umetan herri-eskola berean ibiliak zirenez gero, aldare inguruan nerabetzen eta gaztetzen ikusia zuen mutil ukiezin hura oraintxe eskueran imajinatu izana, ez ezer iraunkorrerako maleziaz, «fraidegai» baten estreinaldia esperimentatzeko senez baizik. Beharbada, ez zuen ezer apartekorik pentsatu.

Alonen hasberritasun burtzoroak suposatu zuen «emergentziazko flotagailua» ere ez dago baztertzerik, nahiz eta dagoeneko, bigarren dantzaldiaren amairantz, egoera natural samartzat hartzen hasteko moduen zegoen. Azkenean, Alonek mareatzeraino dantzatu behar izan zuen batekin eta bestearekin, berak konfiantza hartu zuelako baino gehiago, plazako beste neskegan mutilarenganako ongura jobial bat zabaldu zelako, «fraidegaiari» mundua zapaltzen laguntzeko. Hartan, berak betidanik tentazio ezkutuan amesturiko neska batek, aurrerago huts egin zuen Angelinak, ez nahi bezain arin, bai itxaron baino era dotoreagoan, jaulki zion:

–Geuk ere dantzalditxo bat egin beharko diagu, ba!

Alonek berak ere aurrerago Agaterengan suposatu zuen susto berdina sentitu zuen, oraingoan benetakoa. «Nigatik bai» ahul batekin besoak zabaldu zituen, ez

espresioari, ez tonuari araberako markarik ezartzen auzartu gabe. Transfixioa baino minberago birakatu zen, dantzaldi harexen irudikapen retrospectiboan trumilkatu zitzaizkion sentipen utopiko guztiak txertatu ezinik kontaktu egiazkoan.

Historiak era sinplean garatu ziren. Handik hogei-ta zazpi urtera, ospakizun handi baten barruko beste dantzaldi batean gogoratu zion Alonek esaldia Angelinari.

–A, bai? Horrela esan al nian? –galdetu zuen Angelinak, eta berak erantzun:

–Hainbeste urtetara, berbak zehatz gordetzea zaila dun, baina nik halaxe ulertu ninan. –Eta atrebentzia erabakitzeko segundo baten buruan: –Edo halaxe ulertu gura izan ninan –erantsi zuen keinu errenditu bat eginenez.

–Hara! Hara! –ahopetu zuen Angelinak, gauza asko batera ulertu izanaren tonuan.

Alonek bazekien deklarazio atzeratu hark ez zeramala losentxa baten gozoa besterik, bat ere kostu gabea, urteen joanak eta ezein konpromisoren ezinak liberatua zuena antsiatik, baina ez atseginetik. Eta Angelinaren oroimen ez hain zehatzetik, Alonek nahiago izan zuen suposatu erreserba femeninoaren lausengu bat, hau ere bat ere kostu gabea.

Delako ospakizun handia Alonen eta Agateren zilar-ezteiak izan ziren, nora Angelina ere gonbidatua izan baitzen Agateren lehengusu baten emazte gisan.

–Eta zelan «zertu» zineten elkarrekin? –Angelinak Aloni.

–Zertu zer?

–Elkarrekin hasi, esan nahi diat.

–Ba, halaxe! –Alonek—. Tirrin-tarran hasi eta gaur arte.

Alonek zilar-eztei egunean maiz eman behar izan zituen argitasun mota horiek, denek nahi izaten baitute norbere kasuaren mirari gordea besteen analogietan handitzen ikusi. Agatek berak ere, ez maizegi, bai inoiz, galdetzen zion:

–Zer ikusi huen niregan?

–Aingeru jagole bat, bazterrean eseria –Alonek erantzun.

Gozotasun sakonago eta pertsonalagoak ere erantzun izango zituen, noski, baina harreman osasuntsua elkarre-kiko egian datzala aldarrikatzekeo diskurtsoak zabaldu zirenean ere, inoiz ez zuen izan tentaziorik Agatereki-ko lehen dantzaldia zein pentsakizunek eragin zuen ai-tortzeko inpertinentzia amorosorik.

Historia hau beste anonimo askotariko bat gehia-gotzat geldituko zen, baldin, sekretuaren jabetzari esker, Agate eta Alonen ezagutzak eta tratuak neure bizitzari ere aura amoroso bat erantsi ez baliote. Agate, berak zergatik ez zekiela, geroz maitagarriago egin zitzaidan. Eta Aloni esan ahal nion:

–Zerri bat izaten hasi hintzen, baina maitasuna me-rezi izaten amaitu huen.

TXILINERROTA

Ohe gainean luze, zabal, biluz, beldur naiz buruaren abiada kontrolatzeko gelditze-ahaleginak gorputza ez ote duen bizituko. Gogozko jarduerak nahi gabe aurkiarazi zidan metodoaren arabera, gehienetan bertsoak mentalki kantatuz egiten nuena, oraingoan errezitatzen hasi naiz, kontzentrazioa eta loa batzen diren erpinerantz. Ipuin hau hain zuten gogoko umeeek, irakasleek, entzuten zuten guztiek, ezen pentsatu bainuen: «Zergatik ez diat bikoetan errimatzen eta neurtzen?». Eta arrakasta izan zuen, lo hartzeko, behintzat.

Bazan txakur polit bat, txiki baltzarana
bartzarrak usnatzeko grazia zeukana.

Zaunka egiten eban txilin baten gisan
errotan bizi zan da Txilinerrota zan.

Behin han abiatu zan basoan gorantza
mendia esploratu gura eban, antza.

Txori bat entzun eban kantu arraroan
hain kantu tristea ze negarrez zegoan

Txilinerrotak zugatz azpitik dinotso:
“Zeri negar egiten deutzazu, txoritxo?”.

Lehen baino minduago dino txori-amak:
“Azeriak jan deustaz txorikume danak”.

Txilinerrotak dino: “Zelan umeak ken?
Azeriak ez daki arbolara igoten”.

Orduan txoritxoa kontetan hasi zan
azeri barrabanak zelan eutsan esan:

“Botaidazu ume bat, goseak nago-ta
ostean egingo dot arbolea bota”.

Ume bat bota deutzat minez habiatik
halan beste umeak salbatzeagaitik.

Orduan azeriak, zantar barrabana!
ha jan eta dinosta: ‘Bota bigarrena!’

Eta halan azeri zantar barrabanak
banan-banan jan deustaz txorikume danak”.

Txilinerrotak dino: “Lasai, txoritxoa!
Neuk harrapatuko dot azeri gaiztoa”.

Txilinerrota arin doa errotara
eta isil-isilik gaztaien gelara.

Hainbeste gaztai mota aurkiturik bertan
ederrena hartuta, bizkor dator bueltan.

Gaztaia itxi eban arbolatik hur-hur
bidearen erdian, usaintsu ta samur.

Gero bera etzun zan bazterrean trabes
egotez lotan baina, hilda balego lez.

Azeria mendian gorantz doa baina
bat-batean hartzen dau gaztaien usaina.

“Hau dok usaina! –dino– erreka ondoan!
Noan barriro beherantz, ea zer dagoan”.

Jatsi eta: “Gaztaia! Hau ustebakoa!”.
Ha zan azeriaren poza ta saltoa!

Jaten hasi zan eta jan eban osoa
esaten eban: “Hau dok bazkari gozoa!

Lehen txorikumak eta gaztaia gainetik
holan ez joat nik jan, jaiio nintzanetik”.

Ase-ase eginda, musturrez aurrera
lo egitera doa bide bazterrera.

Badoa ta zelako ustebakoa ze
Txilinerrota hilda aurkitu dau luze.

Azeriak ezin dau pozean agortu
Txilinerrota bertan ikustean gorpu.

“Hemen Txilinerrota! -inoan aidera-
nire areriorik zorrotzena bera.

Txorikume ta gaztai, hau gero postrea
gure Txilinerrota hilda ikustea!

Orain egingo deusat txiza belarrira
holan bere garaunak garbituko dira”.

Hasten da, ba, egiten txiza belarrira
txakurraren begiak tak zabaltzen dira.

Txakurrak heltzen deutso grausk pitilinetik
azeriak ezin dau aldegin gainetik.

Azeria didarrez: “Ai ene, ai ai ai!”
eta Txilinerrotak: “Gozoa daukak, bai!”.

Azkenean txakurrak, berak jakin zelan
samatik oratu ta bertan ito eban.

Txoritxoa orduan, sagarraren puntan
pozez zoratuta lez hasten da kantetan:

“Aupa, Txilinerrota, txakurtxo kutuna
azerien gosetik askatu gaituna!

Gaurtik izango zara txakur txapelduna
azerien izua, txorien laguna”.

Ipuinak bere kontura amaitu beharke zuen, ni antzi-
natik bainago lo.

OTEIZA ETA

Oteiza haurra (hura ere haurra izan baitzen!) hondartzako zuloan aurkitu zenean, haren puntu izaerak zulo huraxe gozatzeko agindu behar zion, baina zerua ikusi zuen. Espazio mugagabea desiatu zuen, eta hantxe hasi zen haren kalbarioa. Artistak paisaia bat, gorputz bat, ideia bat errepresentatzen du, eta hantxe egon nahi du, hantxe izan nahi du, huraxe izan nahi du. Hots, huraxe ezin izateaz amorratzen da. Arteak ezin du zoriontsu izan. Hots, zorionak ez du arterik behar. Ez dut ukatuko zerurik badenik, sinesten dutenak ez mintzearren, baina balitz, ziur han ez dela arterik izango. Hortik etor daiteke zeruak tristea izan behar duelako susmo gratuitua.

Demagun artistak (bebingoagatik sinetsiko diogu) lortu duela «huraxe» izatea. Nahikoa izan da guk sinestea, beste izan-nahi bat senti zezan. Drogadiktoa bezalakoa da: hartualdi baten eragina amaitu deneko, beste bat behar. Aurrekoak hurrengoa gartsuago desiatzeko baizik ez dio balio izan. Zertarako nahi zuen Arestik poemaginan jarraitu «Nire aitaren etxea»-ren ondoren, edo Oteizak Arantzazuko apostoluen ondoren, edo Häendelek

Alleluiaren ondoren, Jainkoarena egin beharrean, zeina, bere lana buruturik, betiko erretiratu baitzen? Ez dago artistarik, artediktoa baizik. Hilko da pentsatuz –zortea, alde batetik– hasi besterik ez dela egin. Dena falta zaiola. Nahi nuke nire hilarrian irakur lezaten: «Gizajoa! Ezin izan zuen jasan puntu bare bat izaterik».

Bi arte handi daude: batak espaziora zabaldu nahi du, besteak espazioaz harago. Biak infinituak, bigarrena ez baita lehenengoa baino zabalagoa. Biak gauza bera, artistaren errepresentazioan bakarrik bereizten direnak. Erljioa artearen formetariko bat izan daiteke. Puntuak infinituaren grina du, hots, grina infinitua du, hots, grina kontradiktorioa da. Grina artistikoa. Beharbada, sakon-sakonean, espazioak barik denborak arduratzen nau, zeina, baden ala ez den dudazkoa bada ere, ez baita dudarik amaitzen ari dela. Heriotzaren kontzientzia. Biraka-biraka, korapilo gordiar horretantxe harrapatuak gelditzen gara beti, adimen aurreikusle mada-rikatu honengatik. Hilezkortasuna hilkortasunaren ez-kontzientzia litzateke. Animaliak hilezkor dira. Laster, beharbada, neu ere bai. Behingoz, selekzio naturalak lan taxuzkoa egin du.

FRANTZISKA

Auzo errepidearen gain-azpi hedatsuak hartzen dituen Atxa baserrian, dozena erdi behi gorri lerdenekeuren txahal guriak oinetan etzanda dituzte. Intxaurrondo baten berdetasun trinko eta zabalduaren azpian tente, separazio kalkulatuan, elkarri berorik gehitu gabe, isatsek ondokoen euliak uxatzeko moduan. Ganadua nahikara sar-irteteko zabalik dagoen ukuiluan sartzen hasi naizenean, harritu naiz, ala ikaratu?, ilunaren golkotik, zezen pare galantaren buruak agertu direnean. Adar lodiak oraindik bihurtzen hasi gabe, baina linternak baino kartutxoak diruditen begiekin, hartu dudan sustoa justifikatzen ez duten mantsotasunean daude. Ilunpea apur bat argitu zaidanean, lehen baino gehiago harritu naiz askak alpapaz erdi beterik dauzkatela ikustean, norbait gobernuan pasa berri bailitzan.

–Frantziska! Hemen al zabilta?

–Hementxe, pozik beti!

–Orain ere kanpoan?

–Niri kanpoa gustatzen zaidak. Etxe barrurik ez diat gura, gaixorik egoteko ere.

–Behin esan zenidan, ba, zerura etxetik joan gura zenuela.

–Etxaldea ere etxea duk. Ospitaletik eta horrelakoe-tatik esan gura nian.

–Zerura izanez gero, ardura al dio nondik?

–Bai, beharbada. Bidea galduta doanari han ere laster igarriko zaiok.

–Zuk ez daukazu horren arriskurik, santu guztiek ezagutuko zaituzte eta.

–Konforme nauk baztertxo batean egoten uzten baidate.

–Baztertxoan zu, zeruko erregina izendatzea merezi duzun hori?

–Ez, ez! Guztiek ni ikusteko lekua baino gurago diat neuk guztiak ikustekoa.

Une bateko irudipenaren zauskadak irauli didan bi-hotza posiziora berritzuli guran nabil, asketako barroteei eskuzabal heldurik. Laster ohartu naiz belar hornidura jan ahala askaratzeko moduko artifizioarekin preparaturik dagoela, Frantziska urtero, astebeterako, Arantzazura lasai joan zedin.

–Ai, Arantzazu! Zeruan ere ez duk hantxe baino hobeto behar.

–Behiok a zer zure falta hartu behar duten, Frantziska!

–Nik eurona gehiago.

–Ama Birjina iraintzen ez bazaizu, berarekin egotera joan eta ganaduak gogoan.

–Ama Birjinak bazekik hauek ere bereak direna, giza-jook. Horrexegatik zeudek honen eder eta mantso. Ez-tun, Matxalen? –behi bati muturrean igurtzika–. Batzuetan beldurra ere ematen zidatek euren adar handiokin. Nahikoa egiten diate nire moduko andre zahartxo bat ez zapaltzearekin. Ama Birjinak denok maite gaitin, ez-tun, Dionisia? –hurrengo behiaren muturrera pasaturik.

Norbera fededuna ez izateak ez du esan nahi fededun batzuk badirela ez ikustea. Bat, behintzat, ezagutu nuen. Frantziska Atxaneko.

AMA BIRJINA AGERTU

Eva biluziaren pintura sakratua (biluzia eta sakratua bat zirenekoa) argi-argi ikusarazi zidan ilargi hark. Bere mahats-hosto zorioneko eta guzti, artista guztiek halaxe pintatzeko irrika izan zuten, zuzenean ausartzen ez ziren Ama Birjinaren ordezeko bezala. Evak bekatu egingo zuela badakigunez, lasai biluz dezakegu. Baina Ama Birjina irudika dezan nahi dugunez, hostotxoa jarriko diogu, bide batez, mahatsaren apologiarik pasionalena egingez. Pintoreak ez zuen hostoa han ipini beharren zena ezkutatzearren, edo fokurik beroena seinalatzearren, baizik bazekielako ikuslearen begiari gutxien kostako zitzaiola hosto hura erretiratzea.

Horrela, biluztasuna askoz efektiboago gertatzen zen, gero aurkikuntza abangoardistatzat aldarrikatuko zen ikuslearen konplizitatea delakoari mendeetan aurrea harturik. Nahiko pentsaera txotxoloa, bestalde, zeren «irekita» edo ikuslearengan garapen sortzailea izan dezaten uzten diren obrak autorearen ezgaitasun terminalaren erakusle izan baitaitezke. Artista bat eroa izan liteke, baina ez berak hobeki buka dezakeena ikusle ez-jakinagoen pentzudan uzteko bezain eskuzabala.

Beste kontu bat dateke denok nahi genukeen jenio-puntuak, hots, obra bikainek, ikusle eta garai ezberdinetan, aktualizazio ezberdinak eduki ahal izatea, batak Eva eta besteak Ama Birjina, edo bere desioen kimera ikus dezan.

Horiek guztiak hala zirela, ez, agian, pentsaturik, baina bai sentiturik, zuzendari espiritualarekin katramila bitxia izan nuen, esan nionean Ama Birjina agertzen zitzaidala. Berehala igarri nion nire bere ustezko ilusio mistikoa fenomeno arruntera ekarri nahi zuela.

–Zergatik ez zait agertu behar niri? –tematu nion, haien miraria kanonizatu arte, neu baino bidente arruntagoak izandakoen kasuak aduzituz.

Bat-batean, haren konprentzio paternala erabat kizkurtu zen, zehaztu nionean Ama Birjina biluzik agertzen zitzaidala. Orduan zuzendaritza espiritualaren gider guztiak neuk hartu behar izan nituen, haren aurpegi desfiguraturik begiek izuturik alde egin ez zezaten. Beharbada, Ama Birjina barik Eva izango zela; beharbada, hostoa barik eskua izango zela; beharbada... Ez nion ematen, antza, hark tentazio biolento soiltzat jo zuenaren funtsa biguntzeko argudiorik, igartzen bainon pentsatzen zuela zer axola zuen agertua nor zen, axola zuena bestea bazen.

Apur bat bere onera itzuli zenean, eta keinuak beste apur bat menperatzera edo, behintzat, koordinatzera hurbildu zenean, platika murduskatzen hasi zen, eske- ma arrazionalik gabe, haren lanbide espiritualean halako

kasurik nekez izango baitzen aurreikusia. «Jesus, Jesus! Ama Birjina biluzik! Bai inpietate satanikoa! Hau ere ikusi behar!». Begiak ixten egiten zituen ahalegin kontraktiboek zerakusten bera ere biluztasun birjinala, irribarrez eta hostoa eskuan, bistatik kendu ezinik zebilela.

–Nik zer egin nezake, berak hala agertzea erabaki badu?

–Isil hadi, otoi! Ez nian pentsatuko deabruak horren krudela izateko ahala zuenik.

–Ba, halakoan, begiak ixtea ere errespetu falta iruditzen zait.

–Vade retro! Hoa zeruaren barkamenean. Jarraituko diagu beste batean, Jainkoaren graziak indar handiagoa dakarrenean.

PATXI

Sartzera noa. Etxe honetan atea beti zabalik daude, lapur posibleak hobeto ikaratzeko. Bat-batean, karrajutik sukalderako atean, urratsa airean gelditu zait. Munduan bakarrik nagoela barneraturik ez baneuka, garrasi mortala jaurti beharko nukeen, garrasiak ere joanak ez badira. «Patxi! Zer egiten duk hor?» Txakurrak, ugazabaren oinen eta ekonomikaren artean eserita, ohi baino keinu urriagoz begiratu dit, ni ikustearen poza ñabardura txikiegia den eginkizunean okupaturik dagoela adieraziz. Kotoizko oinen gainean, atzeraka urruntzen naiz, hipnotismo egozle batek bultzaturik. Ez dakit inondar egozlea ala tiratzailea den. Atalburuko mailaz ohar-tu gabe, atari estaliko harrizko mahai biribilaren kontra eseri naiz, neu ere sukaldekoaren jarreran makurtua. «Patxi! Zer egiten duk hor, bakarrik nengoela suposatu behar zenean?»

Ez diot ozenki galdetu, ikara pentsakorrez baizik, aurkikuntza tupustegien aurrean, norbere burua galtzetik libratzeko lehen senez. Patxi sukaldeko mahai gainera doblaturik dago, ez dabilela jakin beharko lukeen

telebistara begira lo, lehen ere maiz egiten zuenez. Hamleten eszenatokian armadilo bat agertzea bezala. «Barka, Patxi! Hi ez haiz armadilo bat».

Inoren etxeak zergatik ematen ote zidan halako ikusmina umetan, eta ez txikiagoa handitan? Beharbada, elementu berdintsu baina ezberdinki ordenatuek etxea konfiguratzen zuen intimitaterik primarioena birmoldatzen zidatelako. Bera bainuen, etxea, lehen objektu maitea. Gero aurkituko nuen pentsamendu amorosoak berak eraiki zezakeela objektua. Antzeko kontua ote da, lukainka oso baten joranean hazi ondoren, gero binaka jateko komenentziara iristean, ezin nuela bigarrenik jan, atrakuan ari nintzen kezka gabe? Nobia bat noizbait izateko amets etsian bezala. Gero bi aukera batera etortzean, ikaratu nintzen, bi usoetarik bat joan zedin ezin jasanik. Urteen joanean, gatazka sentimentaletatik ahitu nintzen, baina lukainkarenak hortxe darrai. Ogia zelakoan, txankletak jaten hasi eta hartan jarraitzea nahiago izan zuenak bezala, dezepzioa ez etetearren.

Eta gizona iratzarri aurretik (Patxi izena ukan arren, izan daiteke gizona), gehiago elkar ez ikusteko lekura alde egingo banu? Edo jo eta bertan akabatuko banu, Solobarriko txakur etorgaitzari egin diodan antzera?

—Zer, Bixkor? Abisuren bat dakark? —galdetu diot, ez dakit lagun guran ala laguntasun guran, alboka-alboka inguratuz datorren txakurrari—. Iratzarriko al diagu hire ugazaba? Hori gura duk?

Sukaldera sartzean, artean hain kurioso portatzen ari zen Bixkorren zaunka ulertezinari «Bixkor! Isilik!» agiraka dagoiot, ahapeka baina zorrozki, zaputz iletsua astintzen diodala. Ez gehiegi ere, txilioren batekin dena honda ez dezan. Gizonak lehengo jarreran darrai, lo baino loago, hormaren eta mahaiaren kontrara tenteturiko mukur bat lez, erpinaren erdia txapel okertuak estaltzen diola. Txapelak, inoiz guztia bera balitz bezalako harrotasunez exhibitu ohi den prenda horrek, oraingoan jaitsiguran dirudi sekula ohoratuegi sentitu ez den idulkitik.

–Zer egingo diagu, Bixkor?

Ez neukan galdetu beharrik, lo dagoena iratzartzeak esekita dagoena askatzeak baino pena handiagoa eman-go ez balit.

–Ez, Patxi. Hemen ez hago ondo. Goazen ohera.

Kontuz-kontuz, galtzarbeetatik paparrean bat egini-ko eskuekin heldurik, aulki eta guzti atzeratzen dut. Dagoen beroan, nahikoa fresko dago. Apur bat atzerantz okertu dut, haur-kotxe edo gurpil-aulkia bezalatsu. Gozo-gozo jarraitzen dit, kolorezko baldosa leunen gainean, sukaldeko ateko koskaraino, non ahalik kontuzen jaisten baitut, takadak begiak ireki ez diezazkion. «Maria falta duk, eztuk?». Barrenetik goienera tirada bakarrean doan eskailera irriperra begira, txakurrari xuxurlatzen diot: «Bixkor! Jaso ahalko ote diagu?». Begirik nekez ikusten zaion buru iletsuak ezezko keinu garbia egin du, nahiz eta txakurrik sekula ez dudan ikusi buruarekin ezetz esaten, zalantza ederki adierazten badakite ere.

–Lasai, Patxi. Beste gauza bat egingo diagu. Heuk hain kutun duan baztertxo batera eroango haugu. Lehen ere hamaika biago gozo eginda hagoen mimosapera. Bixkor eta biok mendi-printzeak lez ibiltzen zineten traktore txiki maitean eroango haugu. Egon hementxe apur batean.

Aulkia albokera, sorbalda bata hormaren kontra, besoak eta burua ahalik atzeren jarri dizkiodanean, ohartu naiz kasik ez dagoela sokaz segurtatu beharrik. Aulkira betidanik akoplatua dirudi, betirako esatea augurio txarreko izan ez dadin. Gorantz begira, ahoa apur bat ireki zaio, itoginen batetiko tantak harrapatu nahirik lez. Traktorea bere lekuan dago, ukuiluan. Traktore txikia baino jostailu handia dirudi; bere gorritasun gordina biguntzen hasi gabeko tomatearena bezalakoa.

Bixkorri poza itzuli zaio. Bidaia-usaina hartu du, non-bait. Tartarra ere benetako jostailuarena dauka, txairoa eta ligatua, ez tar batetik bestera nondik pasatu ez dakitela diruditen traktoretzar horiena, nekatuta baino gehiago, gasolioari higuin hartuta. Ate aurrean bada terra-za estali bat, traktorea parera egokitzeko moduko maila eskaintzen duena, non bertara atzez arrimaturik uzten baitut. Gizonak ez du zirkinik egin. Beharbada, ahoa apur bat gehitxoago ireki zaio, baina, itoginik ezean, ez dago ito arriskurik.

–Egoerari gustua hartu diok, e! Goazen polito-polito, minik hartu barik. Zaratarik egin barik. Haurtxoa lo dagoen etxean lapurretan bagenbiltza lez. Bera zentroa izanik –haurtxoa–, beti baztertxoan uzten dutena.

Aulkiak erraz jarraitzen dit karrerapeko terrazoan zehar, eta gizona ere konforme dator gainean, burua nire paparrean pausatuz. Traktorearen dardarak eta zaratak iratzartzen ez badute, deskargatzean ere neuk egin beharko guztia.

–Ea, Patxi! Gora! Hoolaxe!

Bidean txapela jausi zaigu. Bidaian abiatzerako, traktore gainean pertxenta zetorren Bixkor saltoan jaitsi da, haizeari ezertarako astirik eman gabe, eta txapela ahoanda jarraitzen digu.

–Ondo, Bixkor! Hik ekarri horixe, lar estutu barik, garunak zulatu ez dakizkion.

Oso ondo ulertu du, txakur guztiek ulertzen duten moduan, ulertzeko moduan hitz egiten bazaie. Traktore gainean, suabe-suabe eta gorputzari eutsiz, aulkia eta gizona okertu ditudanean, alboz gelditu dira, bat-bat eginak, atzerik harako estalketan lokarturik bezala. Erretiratu nahi ez zuen aulkia kendu dudanean, gizona gehitxoago uzkuritu da, jarrera fetalerantz, zilaren bila neuk uste, zeinak zenbat tiratzen digun ezin izaten baitugu disimulatu itzartasunean ere. Aratinik ipintzen saiatu naiz, baina ez du arteztu gura.

–Lo gogortxoia ez al duk hori, Patxi? Lehen ere ez haiz hi aitzur kirtenaren kontra harri geratu gabea.

Zaku eta manta mordo batekin, gizona kartola baten kontrara finkatutakoan, astiro-astiro, traktorearen lehen abiaduran, aldats handirik ez duen auzo-errepidean lehenik eta baso-pistan gero, bagoaz kontzentrazio

arduratsuan, nahiz eta ez bazterrei ez begiratzeko bezain hieratikoan. Nora goaz? Karkamora. Patxiren terrenoan dagoen txoko-borda ospetsura, zeinaren kontrako zelaietan bai baita harrizko mahai errektangular bat, mimosa batek bertatik eta ereinotzek eta pagoek hurretik zaindua. Bidean, Patxiren beraren behorak azpiko landatik hurre-ratu zaizkigu, eurentzako ogi lehorra dakargulakoan.

–Oraingoan erratu zarete, laztanok, inor zuen ondotik ezer eman barik pasatzen ez zaudete ohituta baina.

Lantzean behin atzerantz begiratzean, Bixkor ugazabari zintzo jarraitzen dakusat, hain plazergarri zaion traktorera saltatzea txapela ahoan ekartzeko eginkizunarekin konpatiblea izan litekeenik pentsatu gabe.

Karkamoko itxituran, ate-sarea zabalik dago, Patxik berak utzita seguruenik, hainbestetan bezala. Laster itzultzeko asmoz beti mahai hartako gerizpe freskora, atzeko iturrian, belauniko, ur zurrutada ozenak eginik. Traktorearen atzea harrizko mahaiaren eta zurezko jarlekuaren altuera erdian gelditu da. Deskarga uste baino errazago doa, bolkete beharrik gabe, eta Bixkorren traba eta guzti, txapelari ahotik jarein gabe ez baitaki nola lagundu.

–Hortxe, gorputza apur bat albokera, buru okertua mahai gainean kakoturiko besartera errenditurik. Inoiz, Mariarekin haserretuta, Karkamon egiten huen biagoan lez, Patxi.

Bixkorri txapela eskatzeko zeinua egin diot, eta eman baino nahiago izan du mahai gainera saltatu eta ugazabaren

buruaren ondoan apatx egin, argazki xelebrerako gertu, makina ekartzea bururatu izan balitzait. Nork pentsatu behar zuen txapel batek burusoil lokartu bat txakur baten ahotik estali nahi izango zuela! Derrigorrean ezingo diot kendu.

–Baina, Bixkor! Gizona zelan utziko diagu buru hutsik, mimosa honetan dabilen beste txoriz?

Ezezko garbia egin du, gauzak ondo ulertu dituela nabarmenduz, baina argudioetara makurtzeko asmo gabe. Ez dut egoerarik bortxatuko, pentsatuz balitekeela, aurrerantzean, nire bizitza soziala animalietara mugatzea. Gainera zer? Elkarrenak dira eta eurak konponduko dira. Karkamo, Oiz mendiaren arroetariko baten zokonean. Traktorea abiatu eta bere zarataren babesean, banoa inguru badaezpadako honetatik.

–Agur, Patxi! Hik, Bixkor, zaindu ugazabaren burua. Eta txapelak hozkia ematen dianean, utzi bere tokian.

Ate-sarea ixteko, azkenengoz atzera begiratu dudanean, Bixkorren ahoan berdela iruditu zait, baina txapela izaten darrai. Traktorea Saiune-n bere tokian utzirik, ez dakit norentzat, etxerantz oinez nator, normaltasunaren oasiaz jabetzeko ahaleginean. Atartean ahalik barruren esertzeak beroa eta argitasun biziagia leuntzen dizkit. Udalatx eta Anboto gotorren arteko delineazio suabera begiratzeak badakit gorputza eta kontzientzia pausatzen lagunduko didala eguneko lan gogor baino gordinagotik, krimen bat edo beste barne.

Batzuetan, jabaltasun handia ematen du, plazer bihurtzeraino, aldaezinak aldaezin darraiela ikusteak, edertasun gorena tautologia izan daitekeela sentiaraziz. «Ni naiz ni» sentitzen duenak zertarako behar du zirkunstantzia pendejo hori? Lehen ere, atarte honetatik ez nau gutxitan salbatu honako hasperenak: «Anboto eta Udalatx hortxe zeudek, behintzat!». Tautologia izugarria, izugarriro asegarria. Hortik edertasunera ñabardura sentimental bat besterik ez dago.

OILOAK ETA TXERRIAK

Oilo bat ezagutzea nahikoa da —diote— espezie guztia ezagutzeko, oilarra barne. Ondo dago geure espezie norbanatuaz harrotzea, baina oiloena generikoa izatea egia balitz, ez genituzke hain ondo bereiziko Bush, Frida, Proust, Thatcher, Kristo, Marilyn, Aresti, Che de Guevara, Santo Tomas, Oteiza, Maradona, Madame Curie, Bixente, eta zu zeu. Ni utz albora!

Batzuetan iruditzen zait beste guztiengan inkarnaturik nagoela. Txerriengan ez da zaila. Ilunetatik neuk irekitako atearen argitasunerantz itsuan oldartu dira, txakurra ere apartatzeraino, aurretik balientearenak egiten ari zen baina. Txerriek errepidea eskrupulu gabe gurutzatu dute, infrakzio kolektiboan.

TXAKURREI DANBA

Ez dakit zergatik eta nora hustu ziren etxeak horrela, txakurrak bakarrik gelditurik, katean lotuta. Ezin nituen haien uluak jasan. Gehienek utzi zidaten askatzen, edo aurkitu nuen askatzeko era bat, euren gogoz kontra bazen ere. Hor dabilta nonbait, eta ibiliko ahal dira bizirik. Batzuek ez zidaten utzi inolako modurik. Katean hil daitezen baino nahiago dut neuk hil eurak. Uste dut badakidala erremedio humanoagoa.

Kristalezko armairu batean, eskopeta galanta eta rifle harro bat daude, erdiko apaletako trofeo erreskadei guardia eginez. Hegaletik hegalerako kartutxera mar-dulak arku inbertituak osatzen ditu, berakatz korden antzera. Askatasunari uko egiteko eskubidea errespeta-tuko niekeen animaliak aurreragoko premia den goseak hil ditzan ezin dut utzi, gero neure kontzientzia jan dezaten.

Barruti bateko dobermanagandik hasi naiz. Eskopeta enkainonatu diodanean, atzera egin beharrean, bere gorputz soberbioki segailaren belztasun distiratsua hesiaren kontra puskatu nahi du. «Hau zer den ez dakik?»

Oraintxe irakatsiko diat». Danba tiratu diot, erditik moztu antzeko belarrien artetik. Ihesari eman dionean, bigarren danbadak atzeko oinen lorratz bitartea aztertu du. Txakurrak ez du aurpegirik bihurtu, harik eta bortxaz baizik kabitzen ez den atarteko mahaipetik eta bitarteko zuhaitz eta loreen babesetik, hagin-zerra zuriak eta oi-ilara gorriak erakusteko modua ikusi duen arte.

–Lana bakez egiten uzten ez badidak, hurrengoan bazekiat hire garunak non dauden. Ez diat onartuko hire azken ulukariak nire garunak desegin ditzan.

Aliketekin hesian irteera bat mozten hasi naizenean, iraun sena baino grina indartsuagoari ezin eutsirik, berriro oldartu zait erasora. Itxaroten nuen eta ez nau distraiturik harrapatu. Bere aurreko hankek hurrengo oinkadan egingo zituzten oinatzetara beste bi danbada jaurti dizkiot, eta ulu larrutuetan urrundu da, oraingoan etxe osterara, bere psikologian haietarako prestatzeke zegoen pitzadurak daramatzala. Hesiaren goitik beherako ebakia alboetarantz zabalduz, alde egin dut, ez aurretik oi-hu egin gabe:

–Irten haiteke mundu zabalera, gure etxerantz izan ezik. Orduan ez huke bigarren aukerarik izango.

Batena egin dugu.

Goazen hurrengora. Hemen, txakurra ez da dobermana, baina bai ferozitatean zorrik ez diona. «Zer? Zelan egingo diagu? Zerbait pentsatu al duk?». Hitz egiteak sumindu egiten du, ni zenbat eta gozotasun handiagoz, bera hainbat goriago. Gosearena baino zerbait gehiago dago hor.

–Nik zerbait pentsatua diat, ba! Hire agonia amaigabea entzuten zoratzeko gogorik ez diat.

Oker ulertu du, nonbait, kateari horzka hasi baita. Zizaila erakutsi diot, haginak apurtzen saia ez dadin. Hori ere oker ulertu du, lepoa moztuko diodalakoan edo. Nire aurpegira saltatzeko kolpean, kateak atzerantz eraitsi du.

–Ez al duk bakerik gura heure onerako ere? Ea honi zer deritzoan.

Eskopetaz metro batera apuntatu diodanean, miraria baino katastrofe instintiboa gertatu da. Txakurra atarteko arku oinaren eta hormaren arteko zokoan multzotu da, intzirika, dardarka. Danbadaren batek belarriko ehun finak lehenago ere zartatu izan dizkio, antza.

–Orain utziko al didak? Baina ni fidatzen ez!

Eskua lepoan jartzean, nork jakin ez ote den alde-rantzizko erreakzioa gertatuko? Abere sakrifikatuak zaitzeko mahai astun eta latza alboz etzan eta zokoaren kontra arrastatu dut, katea zapalduz. Oraintxe konturatu naiz bildots pare larrutua, aukeran usaintzen hasia, sabaitik dingilizka dagoela. Txakurra, mahai horratzat hartzean, lasaitu egin dela dirudi, gordeleku triangularran babesturik, goitik burua erakusteko kemen gabe. Kateari mahaietik toperaino tiratzen diot uluen erruki gabe, eta txakurraren lepoa mahai orriaren kontrara itsatsi da. Katea ahalik laburrenetik moztu nahi diot, inon trabatzeko arriskurik txikiena eroan dezan. Mahai ertzaren azpitik kateari tiratuz, beste aldeko txakurra-

ren burua mahaiaren kontrara topera erakarri dudanean, zizailak, klask, aise egin du bere lana. Kate mozkina –bi begi eta erdi– ber-bertan ezkutatu da, kanpoan erraturik dabilela ohartu den nire mihia bezala. Txakurra apenas ohartu den jada libre denik.

–Ez al duk irten gura? Bildots parez zoruan utziko diat, honezkero goseturik egongo haiz eta.

Txakur honek pasatu izango zituen inbidiak, bildots larrutuak hagatik dingilizka eta bera katean! Badaezpada, arma esku batekin apuntatuz, bestearekin mahaiari erdirantz tiratu diot, txakurra agirian utzirik. Hain hutseraturik behar du patari gaizoak ezen ez baita alde egitera menturatzen, bidea libre ikusi arren. Ez daiteke izan katea etenda duenik ez konturatzea.

–Ez duk irten gura ala ez haiz gauza? Heuk joan behar duk aurretik. Nik ez diat atzetik traiziorik gura.

Atarte hondorantz urruntzen natzaio eta, etxe barrurako ate kontratik, bi eskuekin apuntatzen dut beragana, eskopeta kanoia aluki dilindatuz, itu zehatzaren bila bezala. Oraingoan ulertu du. Gorputza erauzi dioten arima bezain auhenti aldendu da, konparazioetarako, behintzat, existitzea eskertzen den kontzeptu bat –arima– baliatzearen.

BAREA

Oinez ikasi berritan, bareak jaten nituen. Ei nituen. Haiexek harrapatzen, antza, errazen. Ama harritua zen, nola neraman goiz guztia negarrik egin gabe. Beharko, ezpainak mukiz itsatsita gelditu baitziren. Halaxe jakin ei zuten bareak jaten nituela. Hori kontatu zidatenean, jada kaskondua nintzen. Badaezpada, dudarik izan ez zezaten, barea jatea bekatua zela esaten nuen, baina molusku lubrikatzaile hari kariñoa hartua nion.

Gau batez, mortuzko errepide batean, autoaren olio-txibatoa sutzeraino gorritu zen, zero absolutua markatuz. Bare batzuk sartu nizkion eta gehiago ez zen kexatu. Gero otu zitzaidan lubrifikatzaile mekanikotzat balio zuena, beharbada, lubrifikatzaile sentsualtzat ere dohaintsua izan zitekeela. Etzaten zara biluzik baratze bateko freskuran, jartzen duzu barea sabel barrenean, ziletik bilora bitartean, eta gainerakoa berak egingo dizu, bere abiaduran. Hasierako durduzaren ondorioz, kostako zaio desbiltzea eta mugitzen hastea, baina gero, konfiantza hartzen duenean, begiak ixten badituzu, Venus ikusiko duzu.

Bilotza zeharkatzerik gustatzen ez zaionez, kanaltxo bat irekitzen badiozu, mozten alegia, glanderaino korrituko zaitu, bere igo sen handia bide. Emakumea bazara, asmatuko du zerbait. Nonahi eta edozein jarreratan lokartzeko gaixotasuna baduzu –baratzean tente, aitzurraren kontra atsedean hartuz, adibidez–, kirtenean gora, astiro baina seguru, sudurreraino eskalatuko zaitu, bitartean gautu eta egun berria argitu ez badu. Aho erdi irekitik adurretan bazaude, eurt egingo du, goian bere arerioresen bat dagoelakoan. Barea berriro zorura heldu arte, ametsaldi mardula geratzen zaizu, bitartean azak hazi eta estali ez bazaituzte.

Izatez, barearen funtzio erotikoa aspaldikoa da, bestialismoa bekatu fisikoki ere mortala zenean. Barea inork ez baitzuen bestiatzat hartzen, disimulu osoan pasa zitekeen. Bestialismoa, gainera, ez zen bi sexu konbentzionalentzat abantaila berdinekoa. Gizonentzat, behia edo behorra guztiz asekinga izan daitekeen moduan, zenbait enperadorek majo probatu zutenez, pentsa, alderantziz, zezena edo zaldia hartzea zer izan litzatekeen. Eskerrak emakumeentzat txakurtxo eta katutxo politak zeuden, gehi nik ez dakidan hainbat maskota. Barea izan daiteke bat, eta baldin badaiteke, deskubritua izango zuten emakumeek, Kleopatrak, adibidez.

Zuzenago hitz eginda, molusku perennalki fresko honen kasuan, delako aurkikuntza guztiz kasualtzat jo behar da. Hots, bere meritu eksklusibotzat. Pentsa noizko kontua. Lehen gizakia, orbeltzan lo etzana, bareak

iratzartzen zuenekoa. Oraindik ez zeukan garbi gizakia zenetz, eta bareak iztaialdea likintzen zion. Eta bera, lehen gizakia, gustura lokartzen zen berriz.

Hauek guztiak jakin aurretik hartu nion aipatu kariñoa bareari, neure haurtzaroko esperientziatik. Eta bareari «Eskania» deitu nion. «Zertan habil, Eskania? Ezin al dun astiroago ibili?». «Eskanio» ere bai inoiz, bihurtze arraroren bategatik arra zela susmatzen nuenean. «Zer, Eskanio? Neuri eman guran?».

Eta hara gero kamioien marka bat ere, Scania. Mundu guztira zabaldu ote zen nire historia?

HAURRA ALA BIZIKLETA

Ama sabel-handitzen hasi zenetik, osaba mutilzaharra amamaren aurrean galdetzen hasi zitzaidan ea «txotxo» berria ala bizikleta nahi nuen. Bera tratularia izanik, uste dut maltzurkeriaz galdetzen zuela, bazekielako nik bizikleta erantzungo nuela eta amama Jesuska hasiko zela, hots eginez:

–Baina zelan hobetsiko duk bizikleta ume berriaren aurretik?

–Nik bizikleta gura dut! –tematuko nuen. Osabak irribarre mutur-okerra mahaipean zerbait bilatzeko plantan ezkutatuko zuen, eta amamak ekingo zion:

–Hemen ez daukak bizikletan non ibili ere! Eta errepidea hiretzat urrun zegok oraindik.

–Aukeran ez al didazue ipini? –nik.

–Aukeran bai, baina zentzuz eta kristauki hautatzekotan.

–Nire zentzu kristaua bizikleta da –amaitzen nuen beti. Umea banekien etorriko zela.

–Tripan zer daukazu? –galdetu nion batez, amak erantzun zuen:

–Aza lartxo jan izango nian eguerdian.

–Osorik irentsi al dituzu?

Amak burua biratu eta ekonomikaren atetxoa irekiz, garrazki hots egin zuen:

–Suari noiz sartu diok egurra azkenengoz?

Gari-jotzea iritsi zen (oraindik eskuz), eta ohiko eta nire gogoko askari hartan, amaren sabela oso handiturik zegoen. Lurrean apur bat atzerantz esertzen zen. Eta normalean bezain zuzen eta ia saltoan barik, albora eginen zutitzen zela ikusteak pena ematen zidan. Baina bai bizkor oldartu zela kitanaren atzetik botila ardoaren bila, nik neure arnasestuan horixe iragarri nienean. Nire arreba zaharragoaren jukutria bat izan zen, kitanaz mo-zorroturik, botila ardoa emanarazi zidana. Aitaren belarrondoko baten plantarekin ordaindu zuen. Amaren sabela erabat handitu zen, eta azkenean, itxaroten nuena iragarri zidaten:

–Bizikletak hurrengoan izan beharko dik. Orain-goan, umea zetorrek.

–Hori ere Bizkargitik etorriko al da? –itaundu nion amari, osaba soinulariak mendi hartako erromeriatik, ijitoei ostuta, soinu barruan ekarri ninduelako kondaira gogoratuz.

–Ez! Hi apartekoa haiz –losintxatu ninduen amak–. Hire anaiatxoa Paristik etorriko duk, beste guztiak lez.

–Parisen nork utzita?

–Jainkoaren bidali batek.

–Umea ikusita al daukazu?

–Jainkoak emanari ez zaiok begiratu behar.

–Zelakoa den ikusi ere ez?

–Bazekiat zelakoa izango den.

–Eta aitak?

–Aitak nahikoa dik soldata ekartzeaz. Heuri ere «hauxe» gustatzen zaik, eztuk? –galdetu zidan, hatzekin txintxin keinuak eginez.

Hain zoragarri zitzaizkidan txanponen hotsez, edozertatik distraitzen ninduen trikimailuaz, solasa desbidetu guran zebilen. Baita, bide batez, paperezkoak gordetzeko hobeak eta baliotsuagoak zirela deskubritu nuenetik, diruak ohepean pilatzeko neukan grina zelatatu guran ere. Gure amak nekez jaulkiko baitzuen intentzio bakarreko arrazoirik. Orduan susmo besterik ez nuena, handitzean konturatuko nintzen litezkeen arrazoi guztiak detekta zitezkeela gure amaren edozein inflexiotan. Arrazoiak eta intentzioak nahasten ari naiz, baina kasurako berdintsu dela uste dut.

–Eta izena ipinita ekarriko al du? –tentatu nuen hurrengoan.

Hori ere aterea baikenuen aita-amen autu bat entzuetetik.

Etxe aurreko harrizko jarlekuan erreparatu genien eta, aita eta ama astegun batez horrela elkarren ondoan esertzeko, arazo garrantzitsua izan behar zuela pentsaturik, anaia zaharragoa eta biok haiek kanpotik azpian eserita zeuden leihora hurreratu ginen, ukuiluaren barrualdetik.

–Aitabitxiren izena ipini beharko zionagu –aitak.

–Ez duk derrigorra –amak–. Aurrekoekin ez genian horrela egin.

–Asen izen polita dun.

–Asentzio ipini araziko zigutek.

–Berdin zion. Aitabitxi ere inork ez zekin Asentzio denik.

–Ezta Asen denik ere, guztiek «Karnera» deitzen ziotek eta. Gero gure umeari «Asen Karnera» deitzea besterik ez genikek behar.

–Ez luken horren lotsagarri boxeolari handi baten abizena.

–Gure Karnera boxeolari ibilia duk?

–Bera ez, baina ezizenaren titularra bai. Munduko txapelduna baino ez. Primo Carnera.

–Zuek jotzea besterik ez duzue pentsatzen, astakir-tenok!

–Baina Asen izen polita dun, eta egon ere ez zeuden asko.

–Tirok, ba! Izan bedi Asen edo Asentzio, izenak ez dik ogirik jango eta.

Horren eta gehiagoren jakinean urrundu ginen anaiok ukuilutik, isil-isilik eta pozean kabitu ezinik, ume berria, apur bat haztean, nola bizkarrean erabiliko genuen eta zertzuk ekarriko genizkion planak eginez. Nik bederatzi urte, aspaldi kalkulatu nuen haurren nondik norakoa, pentsatzen hasi nintzenetik gizakiena ezin zela hain ezberdina izan, etxean eurekin bizi ginen animalia guztien

praktika maiz obserbatutik. Denborarena ere banekien, aitak tabernara laguntzen uzten zidanetako batean, Ar-tetxeko etxagunari arreta jarri bainion, esaten hasi ze-nean:

–Abereak eta gizakiok zertan gaituk, ba, ezberdinak, sarritan zentzunean ere irabazten digutela izan ezik?

Batak hau, besteak hori, geroago esan zuen:

–Txahala eta haurra zerbaitegatik jaiotzen dituk den-bora berdinerara.

Txahalena sobra ere banekien, haien egunak, behiari zezena eman zitzaionetik bederatzigarren hilera, sukaldeko ispilu txikiaren ondoko egutegi handian egoten baitziren, arrastada nabarmenekin apuntaturik, azpiko zenbakia ere ezabatuz, Kristoren jaiotza-edo tokatzen ez bazen. Bederatzi hilabete ziren, beraz, haurrarenak ere.

Baina, behiaren eta zezenaren kasuan bezala, aita-amen hasiera noiz eta, batez ere, nola izan zen garbi-garbi ez nekienez gero, amaia ezin nuen kalkulatu, baina gari-jotze hartan pentsatu nuen ezin zela urrun egon. Amak, seguruenik, bazekien bagenekielara, baina, badaezpada, ez nuen gehiegi estutu, beharbada, deklaratzera beharturik aurkitzeko abagunearen zain egongo baitzen, nire itzarote geroz beteago haren maratila ez apurtzeagatik.

Seguruenik, amamak eta besteek ere bazekiten bagenekielara, eurek ere izango baitzuten, guk eurak beste, eurek gu obserbatzeko malezia, baina bazirudien itxura

jagon beharrean zeudela, arrazoiren bategatik. Arrazoi horixe zen inondik ere kalkulatu ezin nuena, eta uste dut eurek ere ez zekitela, zeren, jakitera, igarriko baikenien.

Bizikletarekiko dilema maltzurra asmatu zuen osaba bera ere, amamaren ernegurako, elizara joateari antzinatik utzita zegoena, ez zen ausartzen gai hari buruzko isil-ituna hausten, gainerako guztian mihipeko gabea izan arren. Eta eskertu nion, bere bihurrian, niganako onberatasun hura, nahiz eta neu ere saiatzen nintzen harekin bakarrean ahalik gutxien egoten, bera ere deklaratzeko deskuida ez zedin, sarritan esan ohi baitzuen, inpazientziaz:

–Burutxo hori zertarako duk, ba, diskurritzeko ez bada?

Irrikaz nengoen amaren sabela hustu zedin, baina hori gertatuko zela banekienez, eta haurtxoaz gozatze-ko gero ere astia izango nuenez, espektazio zoragarri hura luzatzeko eskatzen nion Ama Birjinari.

–Ai, ene Jainko! –Eta ni Ama Birjina ikusten—. Zergatik egiten dituzu gauza onak hain bateragaitz?

Gero, «nobedadea» presaka iragartzea etorri zen. Eufemismo horrekin adierazten zen haurtxoen jaiotza. Ganaduengatik ere esaten zen, erditze seinaleak ematen hasten zenean: «nobedadea egin zaio». Argi, beraz. Nik banekien (eta horixe nahien), amama Pagaiko amamarengana bidaliko nindutela. Ordubeteko bidea ordu erdian egingo nuen, eta arnasestuka helduko nintzen.

–Beste amamak esan du gurean nobedadea dagoela.

Sei hilabete lehenago, Torreburu Zaharrean jaio zen lehengusuaren «nobedadearekin», anaia zaharragoa eta biok Ibarrurira bidali gintuztenean bezala.

Bazirudien «nobedade» hitzak deabruak zeuzkala, denak arrapaladan hasten baitziren, hitz bakarrez munduaren azpi-izate guztia ulertu balute bezala. Guretzat itzela zen hori, zeren, azalpenik eman behar ez zezaten edo galderarik egin ez genezan, egundoko askariak prestatzen zizkiguten, etxeko gordelekurik urrunenetatik gauzarik gozoenak ekarriz.

–Jan hau! Edan hori! Ekin, mutiltxoak, horrelaxe balianteak izaten jarraitu dezazuen.

Niretzat, erraz baino zoragarriago zen, nekiena isiltzeko balentriagatik, heroi sarigarritzat har nintzaten.

Geroztik urteetara, botila-ardo on baten aurrean nago. Oroimenak gertaeren gazi-gozo esentziala samurrerantz sinplifikatzeko daukan dohainari esker, orduko ardo petrolero haren intentzio guztiak gaurkotzen dira. Oraingo ardoaren kalitatea leun-leun ari da nire burura igotzen, aire bareko planeatze gorakorrean, eta ez buruan harri baldar bat dabilkizun sentipenez.

Urdaiazpi sentsualaren konpainia ere izan daiteke, baina horren kalitatean ez daiteke hainbesteko alderik izan, orduko txerriak hobeak zirela ez bada. Garaiak garai, urdaiazpia oraintxe ere ez dago txarra, otamenetik otamenera, ardo on batek mihi gaineko izartxoak pizten dituenean.

Behin edo behin, Gorozikako amamaren, Maumako osaba Hilarioren, edo Arratiako ahaideen mahai ugarian, jan ahala urdaiazpik liluratzen ninduen, asetzen nintzen «gehiago ezin dut» esan arte, baina ezin izaten nuen ekidin halako tristura bat, gure etxeko urritasunaz konparatzean. Ez hainbeste gurean urdaiazpi aserik inoiz ez zegoelako, baizik geure urdaiazpi maitea zelako.

«Inoiz ez» hori etxean bakarrik uzten nindutenean hautsi ohi zen. Ez zen maiz gertatuko, baina behin edo behin gertatzen zen ama goizetik iluntzera arte derrigor kanporatu beharra. Aita kanpoan lanean, anaia-arreba zaharragoak euren zereginetan, amak bazekien, goiz erdian astoarekin abiatzen zenean, ni pozik geratzeko modua zein zen. Baita zintzo ibiltzeko agindua ez hausteko ere.

–Bazkaririk ez diat ipini. Ebaki urdaiazpia eta jan heuk.

–Askaltzeko ere bai?

–Baita.

–Neuk nahi beste?

–Heuk nahi beste. Baina txakurrari ez eman!

–Ez, ez! Txakurrari talo zati untatuak bakarrik.

Sekula ez nuen baliatu «nahi beste» jateko aukera hura. Urdaiazpi maitea «geurea» zen. Eta «geurea» garrantzitsuago zen «maitea» baino.

GURE AMAREN JOKOA

Gure ama, laurogeita hamahiru urterekin, argitasun osoan hil zen. Laugarren adin guztian (hirugarrena lanean zimeldu zitzaion) bere buruarekin karta jokoan entretenitu zen, egunkaria osorik irakurtzetik (irakurri edo) geratzen zitzaion denboraren osagarri. Harriturik nekusan nola ez zen harentzat denbora-pasa egoki bat bakarrik, adin horretako bakartasunean beste edozein izan zitekeen bezala. Behin baino gehiagotan ihes egingo zion esneak edo erreko zitzaion lapikoa.

Sukaldaritza txiki horri azkenera arte eutsi zion, izatearen korfirmazio bezala. Bere bizitzako ondasunik handiena izana zen esneak ihes egitea ezbehar handia zen, kartengana joan-etorrian, joanean gehiago etorrian baino, tarteka gertatzen zitzaiona, norbait gainean egon ezik. Egunaren argia ahitu arte ekingo zion karte-tan, argindarrik ez gastatzearren, egunkariari heltzen ez bazion. «Baina andre honek zer ikusten dik ilunetan?», pentsatzen nuen. Tentatu ere bai inoiz, «zer dio hor?» disimuluan galdetuz, eta harrigarria, paperean zetorrena zuzen esango zizun.

–Gurean bada bat –kontatzen nuen–, laurogeita hamahiru urterekin, egunkaria betaurreko barik eta ilunetan irakurtzen duena.

–Zuen amak irakurtzen ba al zekik, ba?

–Hori duk, ba, miraria gainditzen duena!

Karta-joko ultramundanoan ziharduela esango nukeen, erpuru eta erakusle mamiak aldizka beheko ezpain hezean bizkor pasatuz, gordelekitik eskapatu-riko «aitaren» keinuak iduri, eman-batu, pilatu-zabaldurik, azkenean, bi multzotan edo mahaietan zabal, jokoaren amaia erabakita ez balu bezala. Bazen logika bat, zeinaren misterioa, inoiz albotik begira, ez oso bere gustura, ezin izan bainuen argitzerik lortu.

–Zer joko mota duzu hori?

–Ez duk ikusten ala?

–Ikusi bai, baina ezin diot antzik hartu.

–Hartuko diok, denborarekin.

Pertsona zahar batengan, bere buruarekin dibertitzeko argitasuna eta lehia bizi-dohainak dirateke, noski, baina batzuetan ezin nuen, neure burua arabera imajinatuz, pentsatzeko abailmenik ekidin: «Horra gure etorkizunik garaileena». Aspaldiko lagun braboa Erruki-etxeko ate alboan eserita aurkitzean, «burua makurtxo daukazu, laguntzarrak!» gupidatu zenari hark erantzun zionean bezala: «Horixe diat, ba, goren!».

–Zelan da joko hori? –galdetzen alferrik, erantzungo baitzuen:

–Begira ez al hago, ba?

–Baina piloak zeren arabera egiten dituzu?

–Ikusita ateratzeko gauza ez bahaiz, esplikatuta gutxiago ulertuko duk.

Gure amarentzat, ebidentzia ikusmenetik zetorren, ikusten ez zena fedea baitzen, hots, ulertzen saiatzetik eximitzen zuena. Bitartean, hots, ikusten denetik ikusten ez denera, «burutazioak» zeuden, pentsamenduaren zilipurdiak esango genukeena. Ekiten banion, ernegatu egingo zen, agiraka hasi arte: «Aldeik hortik, nahastu egiten nauk eta!».

Kontua zen ez zela azalpenik eman behar, zuzenean behintzat. Bakoitzak berak joan behar zuen bizitzako gakoak aurkitzen eta behar ziren argitasunak harra-patzen. Gure ama halako kulturatik zetorren, non galderari erantzun zeharria zegokien beti, ez era moztailean ere, galdetzaileari beste galdera bat egiten uzteko moduan baizik. Bazirudien jakintzak imitazioz korritu behar zuela, edo obserbazioz, gehienik. Malezia zilegi zen, intimoa zen bitartean. Susmoa daukat, gure amarengan, joera hori instintiboago zela kontzientea baino, halako eran non, gero, ikaskuntzari irakaskuntzak prezeditu behar ziola edo hala izatearen komenentzia entzuten hasi zenean, haren senak bere nagusitasun atabikoa gotorturik baitzeukan, goroldioa edo lingirda onartzen duen harkaitzak bezala.

Norbait halako balizko jakintzetara iristen ez bazen, esan zenezakeen ez zitzaiola interesatu. Edo haren arreta beste zer batzuetan pausatu zela, jakinik edonork

daukala trebetasun bat baino gehiago, non bera espezialista baita. Edo ez zuela zenbaitek adinako zorterik izan. Edo ez zela sasoiari gehiegi ahalegindu. Edo, beste gabe, alfer samarra izan zela. Hori argibide konbintzentea zen beti. Zeren, ondo esplikatuz diozuna ulertzeko gauza ez bada, nola asumitu behar duzu ume ergela daukazula?

Gure amaren senek osaturik behar zuten, etxaldean jarraipena lokatzen ari zenean. Hots, oinordekotza zorte baino maldizio bihurtzen ari zenean. Aita nostalgikoak (ernegatuak, garbi esanda) etxean seme ergel bat beharrezkoa zela esaten hasi zirenean. Kale gorriaren mehatxu eta guzti ere, tradizio aldaezinaren haustura-kasu hartantxe ere, gure amak etxaldeari lehenago jareingo ziola uste dut, seme ergel bat desiatuko zuen baino.

Azkenean, bere karta joko bakartiaren sekretua agertu gabe joan zen, eta orain bihotzez eskertzen diot, zeren, afektiboki txit betegarri zaidan ahalegin asmatzaile honekin batera, berak batere uste gabe, neuri ere egoera horren luzapenean (zahartzaroan) ezin hobeto etorriko zaidan dibertsioa jarauntsi baitzidan. Ez dakit asmatuko dudan, baina saiatzen denbora beteko dut.

Nik uste dut kartak zabaltzen hasten zela ezkerretik eskuinera, eta karta bat bi palo berdinen artean, edo, nahiz eta palo ezberdinak izan, bi zenbaki berdinen artean tokatzen bazen, karta biak (ala hirurak?) ezkerre-
ra pilatzen zituela, ea, azkenean, denak pilo bakarrean biltzea lortzen zuen, edo... Uste dut neuk ere ez dudala ulertzen zer esplikatzen ari naizen. Batzuetan, karta ila-

rak mahaitik irten zorian zabaltzen zirenean, arauz ezin zen konbinazioa tranparen batekin laburtzen zuela esango nuke, baina joango naiz apurka-apurka guztia argitzen.

Zenbakiak hizkien aurretik ikasi nituen, haiek baitziren garrantzitsuak, eskailerak ilunetan igo edo jaisteko, oilalokaren inguruan txita guztiek jarraitzen zuten jakiteko eta abar. Hala, irakurtzen baino lehenago ikasi nuen briskan. ulertzea dezente kostata zenbait zenbaki –bia, laua, bosta, seia eta zazpia– zergatik ziren «orbelak» edo tanto gabeak. Ikasi nuen, ikasi behar bazen, eta amaren pazientziak sarritan ezin izaten zion mehatxuari eutsi:

–Isilik ez bahago, kartak sutara botako dizkiat.

–Berriak egingo ditut –pentsatzen nuen nik–, bada-
kit zelakoak diren eta.

Umetan, etxeko guztiei, amari batez ere, burutik eragiten nien ekinka: «Noiz egingo dugu kartetan? Egingo al dugu oraintxe? Bueltatxo bat bakarrik. Orain ez, orain ez... Noiz orduan?». Azkenean, bakearren bazen ere, laguntzen zidaten kartetan, baina inoiz ez niri huskeria bat ez iruditzeke beste. Hortik, nire aurkikuntzarik handiena etorri zen. Karta jokoan erdizka edo apo-saltoka ekiteko baino seta garratzagoa neukanez gero, eta hain ondasun hurbilaz topera nola gozatu pentsaketa etengabean nenbilenez gero, bakarrik jokatzeko sistema asmatu nuen: ezker-eskuinak elkarren kontra.

Pertsona nagusiren batek laguntzea nahiago izango nukeen beti ere, baina baita jabetzen nintzen, gailenki,

asmakuntzak ekarri zidan nagusiekiko gaintasunaz, pentsatzen nuela: «To! Zuek bi, lau, sei edo zortzi lagun behar izaten duzuen, nik bakarrik egiten dut». Kaparradatik libratu izanaz pozik zirudien amak ere hartara animatzen ninduen. Bakar-jokoa askoz ere exigenteagoa zela, hartarako edozein talentuk ez zuela balio eta abar. Aldian-aldian meritu berriak ere aurkituko zizkidan, edo disimuluan lagunduko, harako hartan bezala:

–Zergatik dauzkak kartak ahozpez?

–Zelan edukiko ditut, ba?

–Pilo biak heuk ikustekotan, ahoz gora errazago moldatuko dituk.

–Kartak bistan? Zoratu egin al zarete?

Ez zen guztia zentzugabea. Ezkerrean hiru karta, eskuinean beste hiru. Nahiz eta, bazen arabera, txandan-txandan bi piloak neuk ikusi, ez zen hain erraza beti ahozpez utzi behar zirenen kontua zehatz eroatea. Oraintxe ere, esku-aldatze bizkorretan, ez ahanztea kostatzen bazait, pentsa bost edo sei urterekin. Proba dezagun. Eman kartak, hirunako bi multzotan, ahozpez. Ezkerra hasten bada, lehen bazan, behintzat, eskuin multzoan zer dagoen ez dakit. Hauta botatzeko karta bat ezkerrarekin, utz beste biak ahozpez, ikus eskuinarekin beste hirurak, erantzun kartarik egokienez, erretira baza dagokion eskura, har esku bakoitzak beste karta bana erdiko multzo nagusitik, bota aurreko baza egin duen eskuak, erantzun besteak, hartu, bota, erantzun, baza hona, baza horra, alda eskua... Jarraitzen duzu, ezta? Ba, ni baino gehiago zara.

Baina balio zuen nire bi eskuek elkarren kontra jokatzeko sistemak. Lantzean behin amari galdetzen nion: «Noren alde jokatzeko duzu? Nire ezkeraren ala nire eskuinaren alde?». Amak, kalkulu-planta luzeen ondoren, erabakiko zuen: «Oraingoan, eskuinak irabaziko duela uste diat». Edo: «Nik uste diat ezker hori argiagoa dela». Beti irabazten nion, berak pronostikatu zuenaz beste eskua nagusitzen baitzen, salbuespen errukiorrak salbu. Ama ez nuen gaizkiegi utzi nahi.

Aita-amak batera zeudenean, biek apustu egin zezaten nahi izaten nuen, baina bata nire ezkerre eta besteak nire eskuina hautatzen bazuten, zail egiten zitzaidan, batari irabazteko, besteari arrazoi eman beharra, konturatu ziren arte biek, aita eta ama, nire esku beraren alde jokatzeko komeni zela, hala nik biei batera irabazteko. Biak ezkerren alde? Orduan eskuinak irabaziko zuen, dudarik gabe, eta burla egingo nien: «Ja, ja, jai! Ederra sakatu dizuet bioi bateral».

Anaia-arreba zaharragoen aurrean, ez zitzaidan halako erakustaldirik gustatzen, beti izaten baitzen argi-lapikoren bat, jokoa zapuzten zuena, esanez: «Hori neuk ere egingo nitek, alde bietako jokaldiak norberak pentsatuz gero». Aita auzia diluitzen saiatuko zen: «Ez duk horren sinplea. Pentsatu berorrek egiten dik, baina erabaki eskuek».

Orduantxe ezagutu nuen erregea, txankarekin eta zaldiarekin batera. Txanka oso maitea nuen, hain figura lirainaz gainera, sekula ez bainekusan garbi mutila ala neska

zen. Ni beti neskatzat jotzen ahalegintzen nintzen, eta badaezpada, ez nuen galdetzen. Zaldi gaineko zaldunari ere genero anbigua irizten nion, nahiz eta, kasu horretan, ez nintzen askorik arduratzen, gizakia eta animalia nahasten ziren guztian, beti animaliarengan arretatzen bainintzen.

Erregea bitxi atzematen nuen, izenetik bertatik hasita. «Erregea zer da?» amari edo aitari banaka galdetzen banien, harritzen nintzen bakoitzak zer diferenteak erantzuten zituela beti. Amak «erreginaren senarra» esaten bazuen, aitak «ipuinetatik bizi den grazioso bat» erantzungo zuen. Biak batera zeudela galdetzen banuen, beti aitak erantzungo zuen, honelatsu:

–Erregea duk hire amak, nirekin ezkontzeagatik, azaren orripean utzi zuena.

– Barraskiloa –nik.

–Baita barraskintala ere, baina handiagoan.

–Horrenbesteko azarik ez dago! –nik.

–Han bai. Erregea azpian makurtzen denean, azak ikaragarri hazten dituk.

–Buruan daroan hori zer da? –nik.

–Diadema –amak.

–Bai izen polita! –nik.

–Hori ez duk izena –berriro amak.

–Zer da, ba? –Eta aitak:

–Erditik zerran ebakitako lapiko bat. Eremu haiek, badakik, beroak eta lehorrak dituk, eta parean jausten den euri apurra probextu beharra zegok.

–Hangotar guztiak buruan lapikoa dutela ibiltzen al dira?

–Buruko pentsamenduan bakarrik. Lapikorik ez zego, erregearenaz besterik.

Erregeari apur bat susmagarri eta kontraesankor irizten nion, gure karten zenbakirik handiena izanik, 12, lau tanto besterik ez baitzuen balio. Errege ezpatari lehenengotan pena hartzen nion, gero laztana ere bai. Hura eskuratzen zitzaidanean, ezin nuen halako poz zirrara bat ekidin, okerreanean ere, batekoa edo hirukoa zulotik ateratzeko indarra baitzeukan. Gero, eskolan, eta bizi guztirako, dezepzio ikaragarriak jo ninduen, erregea zeri deitzen zioten jabetzen hasi nintzenean, etxean beti «ama» esan diozunari kanpoan «puta» deitzen diotela deskubritzean bezala.

Karta hura eskuratzean, nire aurpegia transfiguratu egiten zen, zer hartu nuen edonork igartzeko moduan. «Bateko urrea etorri zaik, eztuk?». Lehen urteetan, bateko «tortola» iristen bazen, ezin izaten nion erakusteari eutsi, kontrarioa ikaratuko zelakoan.

–Ala! Begira zer daukadan!

–Baina oraingoan triunfoa ez duk urrea, bastoa baino.

Berdin zion. Bateko urrea bazetorren, beste guztia galtzeak bost axola. Igerilari biluziak ezustean agertu zaion sirenari jarraitzen dion moduan, arropa, hondartza,

etxe, zentzu, dena bertan utzita. Nire lehen dezepzio mortala bateko urrea jan nahi izan zidatenekoa izan zen, nork eta amak, gainera.

–Baina, txotxo! Esan diat, ba, triunfoa ez zela urrea!

–Eta biko bastoarekin bateko urrea jan?

–Triunfoa bastoa duk.

–Eta zer?

–Orain ezer ere ez, azken bazaraino gorde gura izan duk eta.

Erdiko bueltaren batean izan balitz, barkatuko zidakeen, esanez:

–Tirok, ba! Botatako kartarik jasotzerik ez zegok, baina, behingoagatik, jaso eta bota beste bat. Eta hurrengoan kontuzago ibili.

Hurrengoan amak, derrigor planta handiak eginik, urre bat botako zuen, hirukoa, beharbada, nire bateko urrea sirenateria osoa beregandu balu bezalako zoramezez gainera oldar zekion.

Apaizgaia nintzela, udako oporretan, anaia-arrebak euren jolas edo erromerietara joaten zirenean, nire ilusioa, arratsalde erdiko arrosario obligatutik bueltan, auzoko senar-emazte batzuk etortzea izaten zen. Etxe aurreko berriketaldiaren ondoren, non munduko joan-etorriaz jabetzen buru-belarri saiatzen bainintzen, kartaldi luze baten ikusle, inoiz jardule, izaten nintzen. Pena bakarra zen, apalmenetik ez urrun, gehienetan aita-amek galtzen zutela. «Zuei tranpak egiten dizkizute horiek!», amorratuko nintzen gero, susmoa bainuen haiek, arauzko

keinuez gainera, zenbait hitz klabe edo jestu erabiltzen zutela bitarteko solas arinean, bakoitzak eskuan zer karta zeukan besteak aldiro jakiteko. Bakoitzak baino gehiago, emazteak, kartetan zein edozertan ostartea baino argiagoa izanik, sugea engainatzeko bezain mihi gozoa zeukanak.

Haren etorrera, haren sinpatia, haren solas etengabe nobedosoan nire igandeen sedukzio itxarona izaten zen, besteren faltan. Baina irabazi egiten zuten, ia beti. Mintzen nintzen, ez hainbeste zeramaten diruagatik, gurasoak beti galtzaile ikustearen lotsagatik baizik, minus samarrak babilira bezala. Azkenean, gainera, animo gisan entzun behar izaten zuten: «Gaur zortea alde izan dugu, baina beti ez da horrela izaten. Hurrengoan irabaziko duzue». Nik, aurretiazko derrotaz, pentsatzen nuen: «Hurrengoan ere zortea noren alde izango den ez dakigulakoan!».

Dena abantailan hartzeko dontsutasuna zeukan gure aita, haiek joandakoan, ni baretzen saiatuko zen, fruitioz iragartzen zuela: «Hi isilik! Gabonetan mendekatuko gaituk». Gabonetan, aita, anaia zaharra eta hirurok joango ginen haien etxera, goizeko meza ordura arte kartetan ekiteko. Niretzat gau fantastikoa zen hura, han ere begira egon behar nuen arren. Berriro ere, jakina, eurek irabazten zuten, diru mordoa, Gabonetan gehiago jokatzeko ohitura baitzegoen. Bost jokoko partida bakoitzeko hogerleko bana, adibidez. Ume txikia goian negarrez entzun arren, emakumea ez zen mahaitik behingoan bereiziko.

–Umea ito behar zain, Felisa!

–Arnasbideak libratzeko ona duk hori.

Derrigorrean aldentzen zenean ere, umm-umm eta obabatxo batzuk eginik, laster itzuliko zen, arduraz, bere ordezeko sartzen zen koinatuak eta bere senarrak aurretik irabazitako guztiak galduko ez ote zituzten. Gaua amaitzear zela, gure aitaren mendekua ez nekusan inondik, etxera joateko jaiki aurretioan esan zuen arte:

–Aurten zelako barraskiloak irten zaizkin?

–Iaz baino txikitxoagoak, aukeran, baina jateko modukoak. Batzuk probatu gura al dituzue?

–Bai, igual! Ea gure andrea ere animatzen den, behin edo behin.

Garai hartan, gure inguruan, behintzat, barraskiloak etxe hartantxe bakarrik prestatzen ziren, artaz eta gozatsu. Probatzen hasi eta, ipuina hemendik, kontu merkea handik, kazolakada osoa garbitu zen, beste botila bat ardorekin. Etxekoandrea ez zen ausartzen ontzia erretiratzen. «Ederrak egon ditun! Emazte artista daukak», hots egin zion aitak gizonari, kazolako azken orbanak miazkatzeko plantak eginez. Gero, etxeranzko basabide luze eta oraindik ilunean, gure aitak lantzean geraldibatetan, hots egingo zuen garaile:

–Orain zer diozue? Urtean zehar pezeta batzuk irabazten uztea ez al dik merezi honelako barraskilo-janbategi? Eta botila ardoa, gainera!

Jarraituko zuten urtean zehar gurera etortzen, eta inoiz, ama zerbaiterako altxatzen zenean, ez nintzen au-

sartzen «neu sartuko naiz bitartean» eskaintzen, «hi oraindik gaztetxoa haiz honetarako» ez entzutearren, harik eta behin, hamalau urte nituela, auzoko andreak berak iradoki zuen arte:

–Sar dadila mutikoa, laster praka luzeak ere jantzi behar ditu eta.

Haren senarrak ere palutik tiratuko zuen, nire estudiante gangarra kilikatuz:

–Mutikoa? Honek, dagoneko, guk baino hoberik bazekin edozertan.

Amak ere ironia dohatsua izan zuen gaineratzeko: –Tirok, ba! Sartu hadi, hortxe hago begi biak sudur puntan bat eginik eta.

Munduan une zoriontsurik pentsa baliteke, hark ez-tanda loriosa behar zuen. Gero susmatzen nuen amak, batzuetan, alde egiteko aitzakiak beren beregi asmatzen zituela. Batean, ahuntza aldatzea ahaztu zitzaiola, bestean, txitadun oiloa ez zela ageri. Gure ama, txitadun oiloa benetan falta bazen, guardia zibilaren kuarteraraino jotzeko kapaz zen. Bestean, ura ilundu aurretik ekarri behar zela, biharamuneko bakailaoa eta zezina beratzen ipintzeko. Nago itzulera ere ez ote zuen apropos atzeratzen, nire poz hura luzatzearen, ulertu izango nuen nik, auzoak joandakoan, arrazoi gailenagoa aduzitu ez balit:

–Hik jokutzen duanean, gutxiago galtzen diagu.

Hori entzutea sinesteko ere ederra zen, laster beste susmo batek jo ez banindu. Hots, Felisak, bikote kontrarioaren joko guztia zeramanak, hartarako hain trebea

zen disimulu subtilez, guk irabazteko moduan jokatzen zuela, bai hark ere nire poza ikustearren, duda gabe, baina areago, ezin zuelako ekidin niregan etorkizuneko apaiz bat ikusterik. Apaizgai bati gero maldizio bihur zitezkeen maleziak aplikatzea sakrilegio txiki bat iruditzen zitzaion, antza. Edo, soilik, beldur erlijioso orokor bategen eragin bide zion.

Eta orain gozatzen naiz sentituz oroimena dohatsua-go dela errealitatea baino. Errealitate hura dohatsua zen, noski, baina ez nintzen gehiegi ohartzen alderdi horretaz. Orain, oroimenak hantxe kokatzen nau berriz, baina oharmen osoan. Errealitate hura amaitu egiten zen. Arin amaitzen zen. Pena hori gertaeren inherentea zen. Amaituko da! Amaitzen ari da! Amaitu da! Orain ez. Ez dio axola amaitzeak, nahi dudanean itzul bainaiteke.

PREDIKATZEN NUENEAN

Eskolara hasi nintzenetik, komentu, txerritegi, seminario, eliza, espetxe, txiza-kale, kuartel, ukuilu, larru-etxe, komisaria, telebista-plato, lantegi kimiko, txapapote, polizia-gas, mozkor-arnasa, porro-zulo eta gainerako, uste dut usaimenean naizela zaurgarrien. Edo aurrera-tuen. Zerbait zentzumenetatik garunetara pasatu bazait, ez dit balio esateak:

–Ez egin jaramonik buruaren esanari!

–Hori zelan egiten duk? –galdetzen dut.

–Albora begiratuta.

–Hala ere, ezin bada?

–Orduan moztu (burua) eta aurrera. –Era bigunago eta lagunkorragoan: –Ken burutxo hori trabatik.

Zaila hori ere, giza buruak, gehienetan, jenio bikoitz konplementarioa izaten baitu: traban ez dagoenean, behar den lekuan falta. Bi aukera horien bitartekoa ere bazen gure diktadura bukaezinean, predikatu nuenean:

–Batzuek burua apainduriatzat darabiltela dirudi.

–Gutxi al deritzo berorrek? –kargu hartu zidan kris-tau batek irteeran.

–Hori elizan esan behar zenuen, Katxin! –arrazoi eman nion.

–Inork ez entzuteko lekuan? –berak.

–Zuk nirea majo entzun duzu, ba! –nik.

–Deskuidua izan da –berak–. Zorren errepassoan ni-harduen, eta apainduria kontu horrek distraitu egin nau.

–Zorra apainduria bistosoa delako?

–Handia denean bai –Katxinek–. Nireak txikiak dira, baina asko, elizari dizkiodan batzuk barne.

–Eta nik kontaduria galarazi!

–Ez dio ardura –Katxinek–. Ordaintzeko asmorik ez dagoen zorrak kontatzeko, inoiz ez da berandu.

–Banuen susmoa herri honetan alferrik nenbilela predikatzen.

–Total alferrik ere ez, jauna, lo ere egin behar baita nonbait.

–Etxean ez al duzu egiten?

–Ez elizan bezain gustura.

Hurrengo igandean ez zuten lorik egingo, predikatu nuenean:

–Herodesek, Bataiatzailearen burua azpilean ikus-tean, orro egin zuen: «Hau ez duk nik agindu dudana! Nik buru bizia eskatu diat».

–Baina, Jauna! Burua zelan ekarriko genuen bizirik?

–Bizirik eta egosita!

–Honena jada eginda dago, Jauna.

–Ba, topatu beste bat!

Eliztar inkondizional batek txibatazioa pasatu zuen ezen sermoia erregimenaren alegoria enkubritu bat izan zela. Burua apainduriatzat baino gehiago zeukala frogatu zuen, agintari txit zuzenek interpretazio haren oinarriaz galdeturik, erantzun zuenean:

–Elizakada guztiak adi-adi entzun du. Hori erregimenaren kontrako zerbait denean bakarrik gertatzen da.

Gauean oherakoan, buru bat nekusan, dakusket, dakusat, padurako lokatz maila lepoan duela. Kokotsa, buelta guztian, doi-doi biratzen. Ez dakit barrurantz doan ala gorantz datorren. Barrurantz doa, bai, kondemnatuen irlatik ihes eginda. Jazarleak gainean ditu. Pentsakizun mota hauek asko laguntzen didate lokartzen.

HASIERAKO OKERRAK

Maistraren mahaipean

Bost urterekin hasi nintzen Etxanoko eskolara. Horixe zen orduan, 5 edo 6 urte, eskolara hasteko adina. Gure etxea mendi urrunean egonik, seirekin hastea izango zen ohiko, baina bi anaia-arreba zaharragoen arrimuan, amak lehenago bidali ninduen. Herri eskola mistoa eta maistra bakarra. 40-50 ikasle, 5-6 urtetik 14-15 urtera arte. Maistra on-ona zen. Basa talde hura guztia menperatu beharrak desesperazio handia eragin behar zion nahitaez. Mutilek, batez ere. Hauek, 8-10 urtetik gora, astakume bihurtzen ziren. Eta malezia ere ez txikia. Gaiztakeria ere esan daiteke.

Maistrak, bere mahai inguruan, korruan hartzen zuen lezioa, mailaka. Mahai handi bat zeukan, hanken eremua, erdikoa, kanporaino libre zeukana. Beraz, esertzen zenean, maistraren oinetakoak eta bernak kanpotik ere ikusten ziren. Txikia edo txikiena bainintzen, mutil bihurriei ez zitzaien besterik otu ni maistraren mahaipean sarraraztea baino, euren korruari lezioa hartzen ari zen

bitartean. Zertarako? «Ea belaunetatik gora zer ikusten dioan». Orduan maistrak, eta emakumeak, oro har, gonaz janzten ziren. Sartu nintzen, egon nintzen denbora batean, irteteko zeinuak egin zizkidaten, denbora ego-kia iruditu zitzaienean, eta galderaz josi ninduten gero jolasaldian.

–Zer ikusi diok? Nolakoa zeukak? Zer kolore? Zer tamaina?

Ni ez nintzen ezeri begira egon eta egon behar nuenik ere ez nuen pentsatu. Haiek nahi zuten ezertaz ez nintzen jabetu. Soil-soilik, mahaipean egon nintzen, kaktakume bat egon zitekeen bezala, irteteko agindu arte. Inolako informazio «interesgarririk» ez bainuen atera, entzun behar izan nituen epelak. Eta hartu ere bai.

–Hi haiz tontolapikoa! Lo egon haiz ala, artaburu?

Eta esan ahala, astinduak eta kokotekoak. Eskerrak anaia eta arreba zaharragoak nituen defendatzeko! Bel-durra zen bat, baina gehiago ezin ulertua zer gertatu zen han. Urte bat edo beste beharko nituen konturatzen hasteko.

Komentura

Apaiz karrerako lehen kurtsoa, 11 urterekin, Zornotzako karmeldarretan egin nuen. Han ere hasiera okerra izan zen. Nire haurtzaroko ametsetako bat zaldi gainean ibiltzea zen. Noizean behin, auzoko behor batekin, Zugaztietako errotara bidaltzen ninduten. Behorrari ez

nion fidagarri irizten eta ez nintzen ausartzen gainera igotzen. Komentura sartu aurretxoan, azken aukera izango zela pentsaturik, halako estrata-bide sakon batean gora pentsatu nuen:

–Hementxe ezingo naik nahita ere bota.

Palatu batean kokaturik, igo nintzaion gainera, zorroaren aurrera, eta bagindoazen dotore estrata estuan gora. Ikara puntuan, baina garaile nindoan. Estrata amaitu eta bide zabalera iristean, behorra hasi zen mugimendu gaiztoak egiten eta bota ninduen. Besoa ez nuen apurtu, baina bai trokatu edo zerbaitetan aberiatu. Batu eta lotu egin behar izan zidaten. Eta ondorioz, komentura joatea hamabost egunez atzeratu behar izan zen.

Hori, alde batera, pozgarria izan zen, etxetik alde egin beharra oso tristea baitzen niretzat. Baina komentura iristean, uste ez nuen zerbait gertatu zen. Ehun mutikotatik gorako komunitate osoaren begiak nire gainean zebiltzan, oraindik besoa ere guztiz sendatzeke. Galderak handik, zirikadak hortik, mutikoak han ere mutiko, hots, abusurako prest. Ez guztiak, noski, baina komunitate handi batean, beti ziren batzuk, nahikoa eta gehiegi izateko beste. Desiatzen egoten nintzen gaua noiz iritsiko, ohean sartu eta mantapean negar egiteko. Hamabost bat egun behar izan ziren komunitateko «bat gehiago» izatera heltzen. Alegia, anonimo ezkutu bat izaten, horixe baitzen orduko nire izaera beldurtiaren gordelekua.

Seminaria

Bigarren urtean, Derioko seminaria aldatu ninduten. «Enaiz banaiz» liburuan luze kontatua laburtuko dut.

Seminarioan lehen loa egin ondorengo lehen goizean, meditazio, meza eta gainerakoen ondoren, gosarian ohar beldurgarri hau eman zuten:

–Después del desayuno iréis todos con sotana y beca a la parroquia de Derio.

–Oraintxe galdu nauk! –pentsatu nuen—. Nik ez diat bekarik. Non ote duk Etxanoko abadea? Zer esan behar zieat? Berehala bidaliko naitek etxera!

Herriko apaizaren ekimena izan zen ni seminaria aldatzea, fraideen haserre handiz. Komentuko urtea, orduan, 700 pezeta zen. Merkea. Seminarioan, oster, 4.000 pezeta. Gurean ez zegoen hainbeste ordaintzeko modurik. Baina Etxanoko abadeak esan zion amari:

–Zuek lasai! Aurkituko dugu beka bat.

Eta joan eta lehen abisua, «sotana y beca». Gosari ondoren, lotegira igo eta sotana eta abar jantzita, beste guztiak eskaileretan behera abiatu zirenean, komunetan sartu nintzen, baina ezin nuen arterik hartu. Zelan egongo nintzen han eguerdira arte? Eta aurkitzen baninduten? Edo Derioko parrokian nire falta igartzen bazuten? Komunikatu irten nintzenerako, denak joanak ziren.

Zerbait egin behar eta eskaileretan behera hasi nintzen, edozein zokondotan baten batek zaputzetik heldu eta «¿dónde tienes la beca?» galdetuko ote zidan beldurrez. Derioko parrokian txilibitua jo zuten, elizara sartzeko. Eta ni pentsatzen: «Oraintxe, elizako atean eskatuko zidatek beka». Sartu ginen eta inork ez zuen ezer eskatzeko plantarik ageri. Sermoia egin zuenak ere ez zuen beka konturik aipatu. «Mezerdian izango duk» –pentsatzen nuen geroz larriago. Ezta! Orduan, ez zegoen beste aukerarik: «Elizatik irteeran izango duk».

Bagindoazen kanporantz aldran eta sakan, ni ahalik erdiren badaezpada, eta elizako ateko koska gainditzean, nioen: «Hementxe helduko zidatek. ¡A ver, tú! Sacala beca». Eta nik ezer ere ez! «¿Cómo has venido sin beca al seminario?». Seminaria bueltan, inork ez zuen aipatu beka konturik.

Egunak igaro ziren, eta bazirudien agindu hura betetzea ahaztu egin zitzaizkidan. Baina niri ez! Larritasunak hantxe jarraitzen zuen. Behin, pasilloko leiho handi haie-tako baten aurrean, mutiko bat beste bati esaten entzun nuen:

–¡Aiba! ¡Mira dónde está mi beca!

Entzunaz batera, zurtz geratu nintzen. Mutiko hark, non utzita zeukan ahazturik, leihoko barlasaian aurkitutako prenda huraxe zen «beca» zorionekoa, neuk ere lehenengo egunetik soinean neramana. Oihalezko xingola gorri bat, sotana gainetik paparrean «uve» eginda, sorbaldetatik atzerantz, alde bietara jausten zena. Eliza-

rako eta okasio handietarako uniformearen osagai hurraxe besterik ez zen, seminarioko lehen gosaritik, biziguztiko larrialdirik handienetakoa pasarazi zidana. Politemia madarikatua!

Lehen destinoa

Abade eginda, nire lehen destinoa Gizaburuaga izan zen. 1965eko irailaren 7an hartu nuen kargua. Biharamunean, iraileko Andra Maria, Gizaburuagako zaindaria, eta herriko jaiak. Bazen neska-mutil talde bat meza nagusian kantatzeko prestatzen ari zena. Bezperan neu ere entseguan sartu nintzen, biharamunean neu izango bainintzen meza emailea.

Elizaren atze aldean bazen harmonium txiki bat, eta harexen inguruan denok. Gazte haientzat nobedade handia zen abade berriarekin lehen aldiz elkartzea, eta niretzat ere berdin. Baina orduan elizan errespetu handia zen nagusi, eta hitzak, neurtuak.

Nik harmoniuma zerbait baino gehiago jotzen nuen. Elizako kantei laguntzeko beste bai, eta horretan ari ginen. Tarte batean, «hau holan» eta «bestea halan», erromeri doinu bat jotzen hasi nintzen, tibiribirin, tibiribirin, tibiribirin tibirin. Taldearen erreakzioa, batez ere neska batzuen, harridurazkoa, ia espantuzkoa izan zela konturatu nintzen. Egoera nola-hala leundu nahirik, esan nuen:

—Herriko jaiak ere badira eta Ama Birjinak eskertuko du alaitasun apur bat.

Mutil batzuek barre egin zuten, baina neska batzuen aurpegiak ez ziren gozotzen. Neuk ere pentsatu nuen kontuz ibili behar nuela. Gerora, konfiantza hartu ahala, barre ere egiten genuen pasadizo hartaz, baina une hartan, atzera-kolpe bat izan zen niretzat.

Oker handiagoa konfesioetan izan nuen. Aurretik, neure lehenengo konfesioa kontatuko dut. Zeberioko nire ikaskide baten «meza berria» zen. Lagun batzuk bezperatik batu ginen haren etxean, denok apaiz egin berri. Poza, emozioa eta gaztetasuna gainez, ia gau osoa solasean eman genuen. Biharamunean, igandeko hamarretan, aipatu «meza berria» izango zen. Herri bateko gertakari erlijioso handienetakoa. Eliza mukuru betean, ordua baino lehenago, konfesio ilara luzeak egin ziren. Herriko parrokoak eskatu zigun apaiz berriok ere laguntzeko konfesioetan.

Lehen aldia zen konfesatokian sartzen nintzena. Beste askoren artean, konfesante femenino batek aitortu zituen bekatu hutsaletatik eta ahotsaren koloretik, hirurogei bat urteko emakumea iruditu zitzaidan. Niretzat orduan, «amama» bat. Eta entzun nuenetik, halako bati zegozkion aholkuak eta penitentzia ematen saiatu nintzen.

Konfesioa amaitzean, neska batek nire begien pareko pasilloa ahalik astiroen zeharkatu zuen, sei bat zentimetroko takoiaren gainean ipurmasailei garbosa eraginez. Egin bide nion iraina itzultzearen, duda gabe. Neuk, behintzat, horrelaxe ulertu nuen erakustaldia. Huraxe izango zen abagune bat non berriro ohartu bainintzen

nire baitan nortasun asko bizi zirela. Bat lotsaz hiltzear zen bitartean, beste batzuek asko estimatu zuten detaile. Eta ikuskizuna. Lehen esperientzia izateko, nahiko erreakzio konstruktiboa izan nuen, erabaki bainuen, aurrerantzean, arimek bakarrik hitz egingo niela. Adin gabeko gorputzei.

Gatozen orain Gizaburuagara. Konfesaleku guztiek bezala, hemengoek ere bazuten sareta itxi samar bat emakumeen aldetik. Eta segurtasun handiagorako, zurezko sareta oihal gorrixka sendo batekin forraturik zegoen barruko aldetik. Niri oso biolento egiten zitzaidan berbetan jardun beharra eta aholkuak eman beharra norekin ari nintzen ez nekiela. Banakako konfesioaren zentzuez handietako bat lez jotzen nuen arau hura. Hala, forru haren barreneko angelu baten erpina apurtxo bat askatu nuen, aurrean belaunikatzen zenaren aurpegia une batean ikusteko lain.

Gizaburuagako elizaren garbitasunaz Mariaren Alaben kofradiako neska batzuk arduratzen ziren. Eta txundituta geratu nintzen han aurkitu nuen garbitasunaz. Konfesalekuak ere eurek garbitzen zituzten. Eta hara, neure trikimailu ustez ondo disimulatua aplikatu nuen ondorengo igandean, forru hura txintxetaz ondo josita aurkitu nuela.

—Oskua! —hots egin nuen neure kautan, sustoz—. Zer nahi nuela pentsatu ote dute?

Ez nuen ezer esan, lotsaz, eta eurek ere ez zidaten ezer aipatu, beldurrez, seguruenik. Pare bat hilabete nahikoa

izan ziren zer saiakera kokoloa eta alferrekoa egin nuen konturatzeko. Hain herri txikia izanik, laster iritsi nintzen konfesatzera etorri ohi ziren guztiak ahotsetik eta ber-bakeratik ezagutzera. Damutu nintzen, baina berandu.

Santa Barbara

Gizaburuagan urtebete egin eta hurrengo urtean, Amorotoko parrokia ere neuri esleitu zidaten. Bi herri-tako abade nintzen, beraz. Amorotoren kargua hartu berri, Santa Barbara eguna. Amorotoko elizaldearen ia gainean, bada tontor bat, bertan Santa Barbararen basiliza dagoena. Meza jendetsua izaten zen, tradizio handikoa. Meza ondoren, baselizaren ingurutik, zeremonia garrantzitsua zen herriko lurren bedeinkapena.

Meza amaitzean, irten ginen kanpora, ni mezako jantzita, eta egin nuen bedeinkapena. Ondoren, jantzi liturgikoak euren tokian utzi eta kanpora irten nintzen, eta jendea bertan, baselizaren aterpean. Ni sotanadun oraindik. Hau eta hori eta beste, solas alaian, emakume batek diost:

–Gure alderantz ez du berorrek bedeinkapenik bota.

–Ez? –ikaratu nintzen—. Zeozer txarto egin al dut?

Kontua zen bedeinkapena lau aldetarantz egitea zela ohitura eta nik hirutara egin nuela. Urte asko dira eta ez daukat gogoan argi, baina uste dut Odiaga auzokoa izan zela kexatu zena.

–Ba, jantziko naiz berriro eta egingo dugu bedeinkapen laukoitza, behar den moduan –esan nien.

–Ez, ez, ez! –erantzun zuen jendeak–. Jainkoak badauki berori berria dela hemen eta onartuko du bedeinkapena, osoa izan balitz lez.

Ba, bai. Berria nintzen, baina ez nintzen lasai gelditu, erritu edo ohitura mota horiek oso sensibleak izaten baitira. Jarraitu nuen berriketa luzean, inork ez zuen ezer txarrera hartu, neu ere lasaitu nintzen apur bat, eta ausartu nintzen ironia bat honela jaurtitzen:

–Ba, begira! Egin den moduan uztera konformatu zaretenez gero, gauza bat egingo dugu. Urtean zehar, auzo horretako laboreak eta uztak beste auzoetakoak baino kaskarragoak izan direla ikusten bada, elizatik konpentsatzea proposatuko dut.

–Hori okerrago oraindik –lehengo emakumeak–, eliza ere geuk ordaintzen dugu eta.

Autuak aire umoretsuan jarraitu zuen. Amoroton, neure jakinean, inor ez zitzaidan muzindu nobatada harengatik. Hurrengo urtean, bedeinkapena behar bezala egin nuen, baina ez ondoren galdetu gabe:

–Zer? Iazko uztetan igarri al zenuten alderik batetik bestera?

Berriz ere ironiak eta arrazoi umorezkoak aurrera, baina gertakari hura nire gogoan geratu zen, betiko. Geroztik pentsatu izan dut bedeinkapena lau aldeetara egiteko ohituraren jatorriak auzoekin baino lotura handiagoa eduki zezakeela lau puntu kardinalekin.

Amoroton nabilenez gero, bazen batzorde bat, elizako ondasunen administrazioa zeroana. Uste dut –ez nago guztiz ziur– gizonek bakarrik osatzen zutela batzordea. Ezin dut ahaztu nola behin proposatu zidaten «herriak kotxe bat erostea abadeari». Hunkitu ninduen benetan proposamenak, baina ezetza argudiatzen saiatu nintzen. Ni ondo nenbilela neure motorrarekin eta hainbesteko gasturik ezin niola eragin Amorotoko parrokiari. Motor hura ere Gizaburuagako Iruartzako familiak oparitua izan nuen. «Hauxe dok dana goitik behera etortzea!», pentsatzen nuen.

Arrazoi horiek egiazkoak ziren, eta amorotarren borondatea ere bai. Baina nire barruan bazen beste arrazoi pisutsu bat, esan nahi ez nuena. Denbora gutxiren buruan, neure burua kartzelan ikusten nuen, eta halaxe gertatu zen. Hain zuzen, ezkontza bat ofiziatu ondoren, Amorotoko elizatik irteeran izan zen nire lehenengo atxilotzea, herri guztiaren aurrean, «Enaiz banaiz» liburuaren atal batean kontatzen denez.

MONAGILLOEKIN IGELDORA

Egun seinalatua Amorothon niretzat. Beharbada, beste amorotar batzuentzat ere bai. Monagilloekin eskurtsio bat antolatu nuen Igeldora, euren ekarpena saritzeko. Zortzi bat mutiko izango ziren. Karlosek bazuen mikrobus bat lez erabiltzen zuen DKW bat, eta hantxe. Esan beharrik ez dago zer egun-pasa zoragarria izan zen mutikoentzat, eta baita nagusiontzat ere.

Bueltan, bagatoz iluntzean etxerantz, eta Mutriku eta Ondarroaren muga egiten duen mendatetxoan, Venecia jaitokiaren azpian, guardia zibilaren kontrola. Begiratzen dute barrura, ikusten dituzte umeak, ikusten dute Karlos, ikusten naute ni, eta jarraitzeko euren furgoiari Ondarroako kuartelera.

—Eraman ni, baina utzi, mesedez —erregutu nien—, umeak joan daitezten euren txoferrarekin.

Ezetz! Jarraitzeko eurei. Eta han niri: «Usted acompañenos adentro». Ondarroako kuartelean sartzea ez zen inoiz gozoa, baina are gutxiago garai haietan. Nik umeen eta etxekoen ardura ere baneukan. Ikaraturik eurak ere, zer egin behar zuten han, euren abadea kuartelean zela?

–Zaindu eta ahalegindu umeak trankil edukitzen, badakit egingo duzun baina –esan nion Karlosi.

Ez dakit zenbat denbora izango zen, baina ordubetetik gora, ziur. Galderak handik, galderak hortik, eta ni ... Zelan egongo nintzen, ba, guardia zibilaren kuartel batean? Tarteka umeak aipatzen nizkien, uzteko etxera joaten, eta eurek:

–¡Déjese de niños y responda a lo que se le pregunta!

Halako batean, «puede usted marcharse». Hura arnasaldia, DKWean sartu eta denok etxerantz hartu genuenean! Umeak ikaraturik. Karlos tenple handikoa zen, baina hura ere kezkatu, suposatzen dut, eta ni pentsatzen: «Oraingoan erdibidean geratu dana hurrengoan oso dok». Amorotora ailegatu eta han jakiten dugu Melitón Manzanas hil zutela.

MOJA JOAN EZ ZEN BAT

Nire lehenengo urtean, Gizaburuagako abadea bakarrik nintzenean, sarritan joaten nintzen Amorotora, hango abadeak konfesioetan laguntzera deiturik. Amoroto herri handiagoa zen eta Gizaburuagan baino askoz konfesio gehiago izaten zen. Halako konfesio batean, neska batek, bere ustezko bekatuen zerrenda amaiturik, jarraitu zuen:

–Orain, jauna, ondo baderitzo, kontsulta bat egin nahi nioke. Moja joateko pentsamenduetan nabil eta eskertuko nuke berorren iritzia entzutea.

Bat-batean, zer erantzun ez nekiela geratu nintzen. «Ba, hara, zer esango dizut, ba» eta horrelako denboraren betegarri batzuen ondoren, oso argi gogoratzen dut zer esan nion, hitz berdinekin ez bada ere.

–Ba, begira. Eskertzen dut nireganako zure konfiantza, baina nik ez zaitut ezagutzen, eta une honetan zure irudirik ere ezin dut ikusi. Badakizu konfesioa ez dela denboran asko luzatzekoa, ze begira zelako ilara dagoen atzean zain. Hala ere, laburki esateko, baten batek erabaki horretara bultzatuta bazabiltza, abaderen batek edo familiak edo beste elementuren batek, jakizu

zeure benetako nahia izan behar duela, eta ez inorena. Desengainuren bat edo izan duzulako bada, are gutxiago fidatu behar zara erabakiaz. Azkenik, moja-bizitza kristau-bizitza baino gorago dagoela uste duzulako bada, hori ere ez da horrela. Barruan zein kanpoan, kristautasuna maila berdinekoa da. Dena dela, hemen ezin dugu hizketa hau luzatu, eta lasaiago eta sakonago berba jardun nahi bazenu, Gizaburuagako abadetxean edo nahi duzun lekuan, pozik hartuko dut zurekin hitzordu bat, diskreziorik handiengan.

Hartan amaitu zen konfesioa. Inork ez zidan eskatu hitzordurik. Baina banekien Amorototik inor ez zela moja joan. Eta hara hurrengo urtean neu nintzela abadea Amorotokoa ere. Beste herri guztietan lez, bazen han «Mariaren alabak» izeneko kofradia, neskena edo emakume ezkongeeana. Hauekin berbaldietan edo herri osoaren elizkizunetan, pentsatzen nuen:

–Hementxe egon behar dik, ba, mojatzarako kontsulta egin zidana.

Ez zitzaidan inor etorri «neu izan nintzen» esanez. Handik urteetara ere, bertsolari lez edo beste era bateko ekitaldiren batean, Amoroton izan naizenetan, gauza bera zetorkidan beti burura. «Hementxe egon behar dik, ba!». Eta oraindik ere halaxe jarraitzen dut. Eskertuko nuke ezagutzea, bizi bada, konfesio-sekretua erabat gordeko dudala promestuz. Biziko dela ere probablea da, ze, konfesioan esan zituen gauzetatik, ia seguru nago ni baino gazteagoa zela. Orain ere jarraitu behar luke izaten.

LEKAIMEEN HILEKOA

Umorerik baneuka, esparatrapentseena egingo nuke. Lekaimen eta lekaideen bi monasterio ziren, lurpebide batek lotuak, argi mundutarrak minik ez egiteko, batetik bestera igarotzeko premia ez hain maizko, baina bai al-dian behin baino maizago. Kontua da lekaime haiengan, zentzumenen kontrako hil-biziko borrokan, ikus-entzumenak ia guztiz inutiltzen zirela. Orduan, baldin elkar ukitzeen debeku inexorableak ukimena gauzen hoztasunera mugatzen bazuen, eta dastamenak areago ekin behar bazion defentsan hango janari klaseekin, usaimena zen erremedio gabe garatzen zena. Eta baldin ikusmena bakarrik galtzeak beste zentzumenen zorroztea badakar, batez ere ukimenarena, pentsa organismoak lauren galera nolako proportzioan konpentsatu nahi izango duen geratu zaion bakarrean.

Lekaime haien usaimena hainbeste zorroztu zen ezen obulazioa garbi-garbi usaintzen baitzuten, besteok ezer sumatzen ez genuen lekuan. Baina informazio faltagatik edo sinplifikazioagatik, fenomeno horrekiko prebentzioa hilekora korritu zuten.

Laster argitu zen lekaime haiena, ezjakintasuna bari-rik, hilekoaren eragin beldurgarriari buruzko informazio gehiegizkoa zela. Zeren: halako egoerango emakumeak eginiko odolkiak eta lukainkak hondatzen baziren; haren eskuak ukituriko loreak zimeltzen baziren; hark jetzi-tako behiaren errapea galtzen bazen; hark eliz hobietan isioturiko kandlekin azpiko hilak egonezintzen baziren; meza-emailearen sagarapeneko formulak nahasten baziren, ogia odol eta ardoa gorputz bihurtuz; hark lagunduriko jaioberriek rakitismoa batzen bazuten; hark jasoriko arrautzak txita desesperatuek ezin zulatzeraino oskol-gogortzen baziren; hark beztituriko hilen begiak betiraun guztirako zabalik geratzen baziren; azkenik, esparatrapenseen bibliotekan aurkituko nuen zerrenda amaigabea laburtzeko, hark egun horietan menturaz bidalitako gutunen hartzaileek insomnioaren gaitza harrapatzen bazuten, pentsa nolako aberia gertatuko zen hiru botoz bakarrik babesten ziren lekaimetxoek gogo bigunean.

Usaimen dela bereziki garatuari, dela beste zentzumen motelduei kendutako indarrari esker, lekaime baten hilekoa jaisten zenean, komunitate osoa hain aztoraturik ibiltzen zen usain haren mingostasun haluzinogenoari ihesbiderik ezin aurkituz ezen ama prioreak esparatrapuaren erremedioa ezarri baitzuen, zerbait berdin efektiboa eta estetikoagoa asmatu bitartean. Batek bere gorputzean nobedadea sumatzen zueneko, kandela bat piztu behar zuen elizaren albo-kaperako Ama Birjina Harlabaingoaren aurrean.

Izaera orokorraren barruan, intimitatea gorde nahi zutenek ezkutuan burutzeko moduan jarrita zegoen egintza: kandela piztea. Horrek komunitate osoaren sudurrak berehala esparatrapuz ixtea ekarriko zuen, harik eta kandela hura, kontzientzia zintzoz jokatu izango zuela suposatzen zen pazientearen ekimen berdin ezkutuz, behin betiko itzalirik agertu arte. Komunitatearen sudurrak itxiarazteko, kandela bakarra nahikoa izan arren, paziente bat baino gehiago batera gertatzen zirenean, bakoitzak berea beti piztu behar zuen, gar kopuruaren arabera, bai aztoramen orokorraren intentsitateaz jabetzeko, bai komunitatearen unean uneko barne mugida neurtzeko.

Komunitatea handitu ahala, kandelen itzalarateak laburtuz joan ziren, azkenean, piztutasun etengabea ezarri zen arte. Orduan, esparatrapuen erabilera koiunturala arau iraunkor bihurtu zen. Esan gabe doa arnasa ahotik hartu beharrak haien biziera bestela ere exigenteari mortifikazio handia eransten ziola, Jainko asegaitzarentzat atsegina, baina gorputzarentzat nahiko kaltegarria. Eginbeharra errazteko, sudur-kaputxa praktikoak egin zituztenean, jatorrizko elementuagatik normaldua zen «esparatrapense» izenari eustea erabaki zuten, espirituaren zabaldirik desatxikienetan ere, nostalgia autoritatearen hurrengo arau-emailea dela berretsiz.

Bat-batean, zapla lehenengoz aurkeztu zaidan galderari zer erantzun ez dakidala geratu naiz. Behiek ez al zeukaten hilekorik? Dedukzio oso arrazionalerik, ezetz

esango nuke, sekula ez bainuen hartarako seinale argirik susmatu, ia neure haurtzaro eta gaztaro guztia behien errape artean iraganik. Hori ere ez da, noski, arrazoi sendoegia, mutilok nesken eme-legeez (eta eurak ere suposatzen dut gure ar-legeez) ez baikinena jabetu sarritan beranduegi izan arte; ez gutxitan, erremedioa berandu izan arte. Baina behiena larriagoa zen, biluzik zebiltzanez gainera, edonon ukitzea zilegi eta, batzuetan, obligazio baikenuen. Eta eurek ere konfiantza osoz uzten baitzuten, nahiz eta gureekin kontuzago ibili behar zen, ez pudoreagatik, goseagatik baizik.

Artean txiki samarra nintzela, eta ikusten nuen zer berri oro gertaera handien seinaletzat jotzeko grina neukala, bigantxa baten alu-ahoan lohi bat zintzilik hauteman nuen. Arnasestuan joan nintzen aitari esatera, batzuk gizon artean esateko hobeak zirelako sen lanbroari jarraituz:

– Aita! Gure bigantxak txahala egin behar du.

–Txahala egiteko, tripa mehegia zeukak horrek.

Horrelaxe saihestu nahi izan zuen aitak nire irudikapena, ustez biribilki. Ordu batzuetan mirariaren zain jarraitu nuen, harik eta beste seinale mota oso ezberdin batzuek ikuspen hura –txahala jaio zen– oroimenean kokatu zuten arte.

Entziklopedian begiratu dut, eta behien hilekoaz ez dio ezer. Seguruenik, ez zuten izan ere egingo. Ez! Ez zuten. Nola izango zuten, ba? Galdera hau zergatik egin dudan ez dakit, baina, orduan, zezenak zer egiten zuen?

Masturbatu egiten zen, makarra autentikoa bezala. Kostatu zitzaidan konturatzea, ukuilutik halako ohol-hotsak zetozenean, aitak zergatik esaten zuen, batzuetan barrre-eztulez:

–Gure zezena bazihoak orain ere askan gora.

Eta beste batzuetan, ukuilurantz biraoka:

–Orain ere bahoak askan gora, madarikatu hori?

Aita aska zaharra konpontzen gogaituta egoteak baino gehiago intrigatzen ninduen «orain ere» horrek, behin, ikustea gertatu zitzaidan arte.

Zaila ere ez zen gertatzea, saiaturik baitzen langintzan. Kate laburregiak ez zion uzten aurreko hankak askaraino jasotzen, baina, astrapala galanten ondoren, bizkarra noria erara arkitu zuen, eta atze guztiarekin aurrera-kolpe txit zentratuak ematen zituela, zirriztada zurixka bi-zi-bizirik ikusi nituen bere paparra jotzen eta tanta likinetan jausten. Gero, gorputza ahalik luzeen eta bizkarra ahalik zokonen ipintzen zuela, askako lasto hondakinak airean joango ziren haren ikaragarritzko putzekin. Ordu-rako, kapitulu hartara iritsia bainintzen, hots egin nion:

–A, barrabana! Hik ere badakik horretan, e!

Sen batek agindu zidan aitari ez niola kontatu behar nobedadearen berri. Bai hurrengo astean eskola-lagun bati, ni baino zaharragoa bera. Bazekiela erakusteko azalpen batzuen errematetzat esan zuen:

–Animaliengandik asko ikasten duk.

Urte batzuk behar izan nituen ulertzeko zer esan nahi izan zuen.

GARI JOTZEKO MAKINAK

Bidezkoa zen nire pentsakizunak nire adinaren araberakoak izatea, biak baitziren sasoi hartakoak non gari jotzeko makina txundigarri haiek mendiko baserrietaraino iristen hasi baitziren. Trena, urrundik, zomorrotxiki bat bezala pasatzen ikusten nuenarentzat, makina haien eta inguruko mugida guztiaren etorrera, eta gero sorroan, gari-metetatik eta etxetik ahalik hurren zegoen zelaian, atzera-aurrera jendetsu hura guztia nire lehenengo zirku mundiala izan zen, liluramenean beste ezein hurreratuko ez zitzaiona, ez hura lehenengoa izan zelako, baizik pentsaezina zelako.

Estratez beste errepiderik ez zegoen parajera halako aparatuak iristea irudimenean ere gertatu ez zelarik (eta bai gertatzen zirela harrigarriak nire irudimenean!), gari jotzeko makina geure auzora zetorrela entzun nuenean, eskolan zabaltzen ziren inkongruentzietako bat gehiago izango zela pentsatu nuen. Gari jotzeko makina etorri zetorren, ordea. Egun hartan, eskolara huts obligatua zen. Neuk ere kolaboratu behar nuen halako konkurrentzia promesten zen egintza batean.

Makina bi zatitan zetorren. Motordun gurdia idi-uztarri batek zekarren. Aldapa irripeetan, pare bat idi-uztarri ere bai. Beste idi-uztarri batek eultzi-makina zekarren, eta hirugarren gurdiak uhal, toldo, erreminta eta akzesorio guztiak. Gure auzoa goian egonik, eta gari jotzeak ahalik bizkorren egitekoak izanik, aidarik eta maldiziorik ez zen falta izaten estrata zaharretan gora, inoiz ikusiak ez nituen gizon klaseen artean. Motor-gurdia Bizkargi mendirantz, mendebalderantz kolokatu zuten. Eultzi-makina Oizerantz, ekialderantz. Eta bitartean hainbat metro luzeko uhal transmisore izugarriak. Artean ikusiak nituen uhalik handienak uztarri-hedeak ziren.

Konposizio guztia osaturik ikusi nuenean, zur gel-ditu nintzen, tren hark norantz mugitu behar ote zuen, ez bainuen kontzibitzen artifizio hura guztia inora ez joateko jar zitekeenik. Abiarazi zuten, eta haren tar-tar gorgarriari ernegatu antza hartu nion. Beharbada, bezperako etxeetan, ez zuen behar adina gari jan izango, edo harri-koskorak eman izango zizkioten.

Behintzat, hari jana zerbitzatu nahian, bat-bateko eromena sortu zen denean. Hauts-ahotz-izerdizko lainoaren gaineratik, zirrin-zarran, negar edo marru egi-ten zuten eskutadei eguzkiak ere makinaren ahorantz sakatzen zien. Batzuek garia metetatik hurreratu behar zuten, beste batzuek eskutada joak erretiratu behar zituzten, beste batzuek eskutadok mandiora jaso behar zituzten. Batzuek gari-alea jaso behar zuten, norbaitek

ahotza ere urrundu behar zuen. Pare bat lagunek maki-nara apur bat aldasbeheran zegoen mahai luzera eskutadak banan-banan jaso behar zituzten. Beste pare bat lagunek, mahaiaren alde banatan, eskutadak prest-prest ipiniko zituzten. Eta katearen azkeneko biek, gari-jotzaile propioki esatekoek, eskutadak eultzi-makinan sartu eta bina kolpetan joko zituzten.

Zirrin-zarran, zirrin-zarran, bizpahiru segundoz behin, eskutada muskilduak demonio ihestunak bezala aireratzen ziren atzerantz. Niretzat eultzi-makinaren ahoan zeuden azken bi haiexek ziren pertsonaia misteriotsuak, hein berean heroikoak eta beldurgarriak. Aurpegia, sudur gainetik kokospera, zapi koadrozko urdin-ilun batekin estalirik, lepoa beste zapi zakarrago batekin inguraturik, txapela edo txanoa bekainetaraino sarturik, begiak bakarrik geratzen zitzaizkien libre, ika-ragarri. Begirik ederrenak ere euren ingurutik isolatzean gelditu ohi diren moduan: argi-hilobi.

Nire lana iturriko ura ekartzea eta zerbitzea zen. Lantzean behin, zahatoa pasatzea ere bazenez, mugida tropikal hartako kate-maila guztiak obserbatzeko pribilegioa ez nuen alferrik galdu, batez ere «ku-klux-klanak» iruditzen zitzaizkidan bi haiek. Izen hori zerbait misteriotsu bezala entzuna nuen, urruntasunak izugarria txundigarri bihurtzeko daukan dohainetik, eta pentsatu nuen: «Hauexek izango dituk». Gero, ku-klux-klanen irudia oso bestelakoa zela ikasiko nuen, euren jantzi eta txano zuri-zorrotzekin, baina niretzat orduan nahikoa

zen hurretik inoiz ikusterik lortu ezin nuen kukuarekin zerikusi enigmatikoren bat edukitzea.

Haiek, gari-jotzaileek, ez zuten pitxarrik, ez zahatorik hartzen. Ezin zen martxarik eten. Ingurukoengana hurreratzen nintzenean, nire begiak mozorro-buru haie-tantxe zeuden. Batean iruditzen zitzaidan munstroa ase ezinik zebiltzala, bestean, munstroaren tripak heriosu-har ateratzen. Denboratik denborara, txandatu egiten ziren. Lan itogarria zen, antza. Atsedean hartzen zutenean, euren ontziak eta euren horniak zeuzkaten. Behin edo behin, «hi, mutiko! ekark pitxerkada ur hori» agintzen zidatenean, ikusmin beldurtiz hurreratuko nintzen. Mozorro gabe ere, aurpegi mamuzko haiek ezagutzerik ez zegoen, eguzkiak eta hautsak, begi libreak ez ezik, larru osoa harrapatzen baitzien.

Gehienez, sasoiko mutil, euren burua goragokotzat zeukaten. Bazekiten auzoko arrapalada kasik apokalip-tiko hura euren besoetan zegoena. Atsedean txandetan, aurpegiari freskatu bat eman eta trago asegaitz batzuk eginik (zahatoa beldurgarriro zimeltzen zuten), galtzu-ja-sotzen abiatzeko ere izaten zuten borondatea, hartan ziharduen neskaren baten edo batzuen atzetik. Ni horrek apur bat larritu egiten ninduen, batzuetan tardatu egiten baitzuten mandio ilunetik irteten, batez ere, nire lehen-gusina kutun bat tartean bazen.

—Artetxe non zegok? —hots egin zuen makinaren uga-zaba zirudienak, txanda-aldatzea agintzera zihoanean.

–Mandiora joan da lehentxoago –esaten ausartu nintzen, inork ez baitzuen erantzuten.

–Mandiora? Jausiko ahal duk zulo batetik! –orro egin zuen gizonak, eguzkiari eskua bitartean jarrita.

–Mandioetan gozo jausteko zuloak izaten dituk –marmartu zuen osaba Garrok, makinaren zaratarra, neuk ez bestek apenas entzungo zuena.

Mandiotik azpiko gurdikada hirustara saltatzen gozatzen nuenaz oroitu nintzen, nahiz eta harritzen nintzen osabak horregatik esateaz. Gurean, gariak eskuz jo ziren urteetan, makina ekartzea merezi izateko beste uzta ez baitzen izaten. Eskuz nahiz makinaz, auzolan gogorra eta lasterra, beroa eta hautseztatua izaten zen, baina bai zoragarria, umeontzat, iluntzeko otordua, sarritan erromerian luzatzen zena.

Umeak pozik ibiltzea mundua ondo joatearen berdintzat jotzeko prest nengokeen, nagusien munduak erremedio zaila zeukala susmatzen hasita egon izan ez banintz. Susmoaren berrespen argiak urte batzuk beharko zituen. Bitartean, inauterietan, gari-jotzaile mozo-rrrotzen ginen beti, arrakasta handiz. Harik eta garia gure inguruetatik ezabatu zen arte, ia amen batean. Entzun balu bezala: «Aire! Otia dator, berton geratzeko!».

PIKATXOIAZ ETA PALAZ

Zornotzako karmeldarren komentuan lehen eternitate egin nuen. Urtebete zer zela uste zuten haiek, hamar urteko ume batentzat? Etxerako bezpera gaua beste eternitate loezin bat izan zen. Hobe luzeagoa izan baltz, halako poz intentsorik ez baitago izaki txiki baten golkoan errepikatzerik.

Ohean ezin naiz egon. Komun itxian saltoka dihardut. Berriz ohera. Surikaten antzera burua jaso eta beste ehun lagunak lo ote dauden begiraturik, atzera komunera nator. Den-dena isiltasunik handienez, oin puntak airean. Diziplinarentzat ez dago azken gaurik. Egun bateko atzerapenaz zigortu nazaten besterik ez diat behar! Kontentzio ahalegin bortitzak pozari leher sentsazioa damaio. Zornotzako parrokiako kanpaiak, daun-daun-daun. Oraindik hirurak bakarrik.

Urte amaigabea zehar, noiztenka egina nuen, leiho debekatuetatik, iluntzero ezin nuena: beheko errepi-dean, Kalbarioa izeneko etxe tartean, aita lanetik etxerantz oinez pasatzen ikusi. Ez hainbeste beragatik, baidzik ziurtatzeko, birkonprobatzeko, baietz; etxeranzko

norabidea bazela; gizon hura ordubetean iritsiko zela nik eternitate bat itxaron beharko nuen Torreburura. Gizon hura edo antzekoren bat, distantzia hartara eta nire urduritasun lapurrean, zaila baitzen identitatea segurtatzea. Inoiz lau aita ikusi nituen pasatzen, hurrenez hurren. Horixe duk... horixe duk...

Bigarren urtean, herriko abadeak nola eta zergatik ez nekiela aldatu ninduen Derioko seminario urrunean ere, noizbait iritsi zen oporretan etxeratzeko eguna. Bezpera-gau hark aurreko urtekoaren intentsitatea gainditu egingo zuen, ez gehiago ezin zen pozean, baizik askoz larriagoa izan zen urte baten nasaikuntzan. Aurreko urtearen konparazioa hain hur edukirik gogoan, orduantxe hasi nintzen sentimenduen fatalitatea susmatzen. Esan nahi baita, pozaren gailur gaindiezina azkar jotzen den bitartean, okerrean beti dagoela okerragoaren beldur justifikatua. Badakit manipulazio bat izan daitekeela oroimenarena, zeinak poz joanen gailurrak iragan oro hobe izateraino handitzen baititu, eta nahigabeak ezin handiagotzat aurkezten. Ez dakit. Nik neure oroimena-ekin bizi behar dut, eta ez hari buruzko teoriekin.

Hirugarren urtean, etxeratze borobila izan zen, zorion absolutua esan nezakeena. Nire poz gaitasuna, osoki ez ezik, inondiko kezka gabe osatzen zen. Aurreko urteetan, bazen poz hura zauritzen zuen mehatxu larri bat: itzulera. Hirugarrenean, hamalau urte estreina-berrien uxtertasun borazean, nire golkoa bol-bol zebilen. Gauetan, berrogei astakumeko logela korritu baten leihotik, autoen argi

ustez amodiozkoek frekuentatzen zuten Santo Domin-
gora begira, Bilbo ostentzen zuen horizonte hartara be-
gira, erabakia hartua zuen ikaskide zaharrago baten plan
zoragarriak bekaitz adurtiz entzuten nituen, baita haren
balentriaren miresmenez ere. Galderak multiplikatzen ni-
tuen, erantzunen batean neuretzako moduko irtenbide-
ren bat agertuko ote zen.

–Etxean ba al zekitek?

–Azkenengo bisitan, amari eta arrebari jakinarazi
nieran.

–Zer esan ziaten?

–Zer esango ziaten, ba? Etxekoa ez nauk ala?

–Zuen aitak zer esango dik?

–Gure aitak nahikoa zeukak, Arratiako lehen tran-
bian Bilboko portura iritsi eta azkenengoan itzultzeaz.
Beharbada, poztu egingo duk, etxean lagundu nezakeela
eta.

–Seminarioko nagusiei esan al diek?

–Oporren azkenerantz, etxetik gutun bat bidaliko
diat, gehiago ez natorrela esanez.

–Zergatik ez joan aurretik?

–Estudianteen bizimodua oporretan ez dut hain
txarra izaten. Itzultzeko asmo barik noala jakitean,
etxean kapaz dituk norabait derrepente apendiz bidal
nazaten.

–Beldurrik ez al dik ematen seminarioa horrela uzteak?

–Beldurra, zerena? Bokazioa librea dela ez al diate
esaten?

–Herrian «malcura» deitzen hasten bazaizkik...

–Nekatuko dituk. Orain urte bi, gure herriko Arbi-
zu eta Sarrio ere horrelaxe etxeratu zituan, eta han ze-
biltzak biak pintxo-pintxo, euren nobiekin.

–Heuk ere laster topatuko duk baten bat, zerri ho-
rrek!

–Lehenengo, begiratu egin beharko diagu, amerikar
gaztaren usain hau apur bat joan arte, behintzat.

–Hik daukak suertea!

–Heuk ere bai, gura baduk.

–Nik ez diat, hire moduan, futboleant jokatzen.

–Eta zer? Zerbaitetan asmatuko duk.

–Ni bizi nazen parajeant?

–Baita bazterrigoan ere. Leloa haiz ala?

Nire lagunaren zientzia, argitasunari baino gehiago,
beldurrik ezari zegokiola uste dut. Haren erabakia os-
karbi zen, hodeirik ikusteko gauza ez zelako. Beldurrik
ez duenari nahikoa zaizkio ezaguera arruntaren arra-
zoiak. Ni trabaturik nenbilen neure buruan edo burue-
tan. Azkenean, hala ere, lortu nuen erabakia: hurrengo
udako oportetan seminarioari agur esango nion.

Orain kontua zen etxean noiz eta nola esan. Uda ba-
zihoan aurrera, baina ni lasai. Bihar esango diat. Zapatu
iluntzean esango diat. Domekan esango diat. Uda er-
dian, abuztuaren batetik hamalaura, «udako hamabos-
taldia» eragiten ziguten. Ez genion antzik ematen zer-
tarako balio zezakeen, oportaldia erditik puskatzeko ez
bazen, baina susmatzen genuen horixe izan zitekeela

helburua: aldiune luzeegiak susta zezakeen laxokeria edo gehiegizko urruntzea eragotzi.

Hamabostaldi horrexen ondoren esango diat, agintzen nion neure buruari, beste norbait bailitzan. Abuztua bazihoan amaituz, eta: Nori esango zioat lehenen? Anaiari, beharbada. Ez. Amamari. Ez, osabari. Amari esango zioat. Zergatik ez aitari berari, Autzaganeke tabernatik etxerantz alai gatozen batean? Azkenean, anaia bati esan nion, apur batean inori ez esateko eskatuz. Hark berehala jo zuen amagana: «Zertan zabilta egunero mezatara bidaltzen gehiago seminaria ez doan bat?».

Eguerdietan, amak eta biok bakarrik bazkaltzen genuen, aita eta senide zaharragoak lanean, txikia amamarenean, txakurra mahaipean, oilarra atarian. Indaba gorria eta urdaia, ia eguerdiroko menua. Ama eta biok aurrez aurre, mahaiaren alde banatan.

–Honi ere esan beharko zioat, ba –neure artean, eta berak bat-batean:

–Gehiago ez hoala seminaria, orduan!

–Nork esan dizu hori?

–Txori batek.

–Hobe luke txori horrek hegoak moztu balitzaizkio.

–Txoriek ez diate hegoetatik berba egiten.

– Lepotik, orduan.

–Ondo zegok. Moztuko zioat, baina kontua bestea duk.

–Nik ez dut seminaria itzuli gura –erdi negarrez.

–Orain arteko guztia alferrik egin al diagu, orduan?

Galdera airean, burua platerean, taloarekin urdaia zehatzen jarraitu nuen. Amak ez zion lar ekin. Ezin dut esan nolako aurpegikera zeukan, haserre, nahigabez ala pasoan. Begiratu banio, beharbada, nasaitu egingo nintzen, seriotasun teatrala besterik ez zela igartzean, baina nik ez nekusan neure barruko korapiloa besterik. Gauean, afaritan, aitak eguneko pasadizoak ohiko umorean kontatzen ziharduela, amak esan zuen:

–Dena ez da kontu alai gurean.

–Zer pasatzen da, ba? –aitak.

–Mutikoak ez ei du gehiago seminaria itzuli gura.

–Orduan, pikatxoa eta pala hartu eta Astepera joan beharko da.

Mehatxu hori lehen ere entzuna nuen, eskolara jarraitu nahi ezta ibili nintzen bolada larri batean. Astepe Zornotzako langile-auzo bat zen, lan arrastatuen entzutea zeukana, gure aitaren burueran, behintzat. Pikatxoa eta pala beste ezertarako baliorik edo borondaterik ez zeukatenen destino dorpetzat jotzen ziren. Ia gaueroko menua zen hartan, porru-pataten gainetik talo-esnea jaten niharduela, nire barruko korapiloa beldurgarriro handitzen, hodeia trumoi bihurtzean bezala. Aitaren aurpegira begiratzeko akordurik izan banu, beharbada, konturatu nintzen hain zalea zen konparazio esageratuetako bat besterik ez zela izan. Beharbada, benetan sentitu izango zuen semea, ez nahitaez abade, baizik pertsonaia bat bilaka zedin harrotasuna zapuztea. Beharbada...

Adin txikietan «beharbada» asko gelditzen dira airean, tximeleta bihurtzen urteak beharko dituzten ninfak bezala. Hauek iristen dira xedera, baina tximeletek ez dute kapulu-bizitzaren oroitzapenik gordetzen.

Hurrengo egunetan, inork ez zioen ezer. Neuk ere ez. Goizero mezatarara joaten jarraitu nuen, irailaren azken astea aurrera zihoan, ama maletaginan hasi zen, inork ez zuen galdetu «ezetzean jarraitzen al duk?», neu ere ez nintzen ausartu jarkitzen «ez al nuen esan gehiago ez nindoala seminaria?», eta San Migel bigarren goizean, maleta handia bizkarrean, txikia eskuan, burua golkoan, mendian behera abiatu nintzen, txakurra erromadaren kontratik etxera bidali ondoren, esanez: «Itzuliko nauk, Ruby, noiz ez zekiat baina».

Zer gertatu izango zen etxean, ezetzari eusteko adorerik izan banu? Ezer ere ez, seguruenik, orain pentsaturik. Pena hartu izango zuten; igande batzuetako lotsaria ere bai, abadegai bedeinkatua aldare ingurutik bere adinekoen aldra arruntera jaitsita ikustean. Aitaren umorea ez zen horregatik higituko eta amaren bizimodua ez zen estuago izango. Baina haurren eta nerabeen buruan, orduan, orain, beti, helduen egiazko posizioa nekez izaten da doiki hautemana. Denak jarraitu izango zuen lehenean, neure barruko korapiloak izan ezik, zapuzturik lehenik, etsita gero, susperturik azkenez.

Handik urteetara, urte askotara, honelako komentarioak kontuz egin behar ziren gure ama zahartuaren aurrean. Maiz gogoratu izan zioten elizan lau ume

«bakarrik» ekarri izanaren zorra ordaindu ahalko zuela seme bat abade eginda. Hainbeste kostaturiko diru ordainez! Azkenean, semearen seminarioko ondoezen errudun ere bera izan zela entzutea bakarrik behar zuen. Horixe iruditu zitzaidan, behin aurpegiera minduz galdetu zidanean: «Ez al hintzen, ba, heuk nahita ibili?». Aurrerantzean, saiatu nintzen haren aurrean ez kontatzen seminarioko penarik, pozak baizik, hauek ere izan baitziren, ez gutxi. Handiena hasitako lanak amaitzea, hamahiru urteren buruan.

Bestalde, sentimenduen analisiari baino bizibidearen ertzei gehiago begiratzera beharturik aurkitu zen gerran eta gerraoste amaigabe hartan, seme bat abade egitea bizitzarekiko errebantxa on bat izan zitekeen gure amarentzat. Azkenik, eta ez, beharbada, indarrik txikienez, ezin zuen ulertu nola nik halako irritsa izan nezakeen jaiotetxera itzultzeko, bera handik alde egiteko desiatzen zegoenean. Gure amarentzat, mendi hartan ez zegoen poesiarik.

BARIETATEAK

Mitin sutsu batetik bueltan, gorantz nentorren mendateko bihurgunean, horizonte gainera saltatu zidan ilargi beteak. Zapalduko ninduelakoan, saihestu gura izan nuen. Egunetan hartaz oroitzeke bizi izanik, bat-batean jabetu nintzen zer alienaturik nenbilen. Horixe dateke gaurko nire kasua, lehen partea kenduta. Txakurra badoa berriz, ehun eta zazpigarren hurbilkuntza egin eta gero. Ez dizkiot kontatu, baina behin kapritxoa izan nuen, eta ehun eta sei izan ziren. Garai hartan egia bazen aurrera gindoazela, gaurko mugimenduak ez daitezke gutxiago izan.

–Era berean, afalondoan, kaliza guren hau bere esku santu eta gurgarrietan harturik...

Ez! Afal aurrean, gauez, behiak jezteko kantin hotsa entzuten zuteneko, katuak, errapea garbitzeko lehen esne zirriztaden pozean, ukuilurantz abiatzen ziren, isatsak tente-tente eta santua bistan, Txit Santuaren aurrelari lihoazkeen ziriolak irudi. Azken sakramentuak emanik, abadeak:

–Orain trankil hiltzeko moduan zagoz, Bentur.

–Bai, gariak ereinda baneuzka.

–Hori askotxo eskatzea ez al litzateke, Bentur? –abadeak.

–Orduan hil nadila arratsaldean. Bazkaldu eta gero.

Honen goian, honen urtsua nola izan zitekeen beti harritu ninduen Oizko iturrira heldu naizenean, gehiago harritzen nau ikusteak nola gure txakurrak neurri binarioan edaten duen ura, lehen ternarioan ohi zuena. Auzia ez da, kalean bila zoazela, «Fotos en una hora», auzia ez da, diot, autoa zein kaletan utzi duzun, kalea non dagoen baizik. Errodamentuetan almondigak eta barrabiletan krocketak.

–Aita! –biologikoa barik bestea—. Uste dut homosexuala naizela.

–Neskak ere gustatuko zaizkik baina! –konfesoreak.

–Bai. Lesbianoa ere banaiz.

–Zer?

–Lesbia!

–Zer duk hori?

–Mutilene.

–A! Besterik?

–Heteroa ere banaiz, jauna.

–Joño! Besterik?

–(H)alterofiloa.

–Hatxez ala hatxe barik?

–Eguraldiaren arabera.

–Ondo! Besterik?

–Bestiala.

–Hori ere bai? Hirutasunaren misterioa txiki utzi behar duk hik!

Apaiz ohientzat arrisku handia zen. Lehen edozer galdetzeko eskubidea adeitzat hartzen zigutena gero inperinentziatzat har zitekeen, non bizi zara, nongoa zara, ezkonduta?, umerik? Erantzunak, bestalde, ez zitzaizkidan askorik axola. Idaztea gutxiago kostatzen zait kopiatzea baino, atzamar potolookin disketea atera ezinez. Gustatzen zait mezu piloa jasotzea, emaileko barra urdina, astiro, luzatuz, noiz osatuko gozatzen, guztiak, supr-supr-supr, zaborrera botatzeko. Banan-banan, hori ere gozamen xehatua, luzatua izan dadin. Batzuetan, erakutsi beharra daukat balientea naizela, hots, balientea izan naitekeela.

–Zelan?

–Zenbat berbatan erantzutea gura duk?

–Ba, adibidez, hirutan.

–Ondo esan beharko.

–Bitan?

–Ondo edo.

–Bakarrean?

–Txarto.

–Eta zergatik ez ondo?

–Hori beste itaun bat duk. –Bitartean, autorik ezin arrankatu goizean—. Motorra hotz zegok, antza.

–Zelan berotzea gura duk, ate biak zabalik direla badiharduk?

Maite dut elurra abiatzetik zuritu bitarteko berdexka berunkara hori, kolorgetasuna baino koloreen logura bezalakoa. Parke eolikoan, dorreak lerroan daude. Hego handiak, bare-bare itzulika, horizontea jotzean, ba-doazela dirudi, baina beti datoz bueltan. Gurpilak plano batean, ibilbidea bestean, horrela ezin abantzatu. Belea nola izutuko da, txorimaloa bere ama dela uste badu? Jarriozu barby bat!

Maite dut munduari begiratzea, ezer ulertzeko asmo gabe, nola ostrukak, lepoa luze-luze, aditu planta nabarian, buruaren luzeraz baliaturik, tresna elektrikoen katalogoa begiztatzen duen. Txakur-zaunka gabe, gauak erorkor dirudi. Kotxeko retrovisorea albokoaren loa obserbatzeko moduan orientatu dut. Atzetik etor daitezkeenak ez zaizkit interesatzen. Maitale, plankide, stopgile... Ez dakit gauak nondik erasoko didan, baina hondoraino barnatu nahi dut.

Geldi, izarrak! Ezabatu guztiak, bat izan ezik. Ilargia agertzen bada, hiltzera tiratuko diona.

ITSASOARI MEN

Kasketaldi batean inprobisatutako artifizio batekin, Lekeitioko Garraitz uharteari itzuli osoa eman ondoren –ez dakit igeri!–, pozik nago, biolentoki pozik, gehiago ez dudalako izango itsas balentriengatik zoratu beharrik. Orain, ezaba bedi, nahi badu, horizontearen marra.

–Beste barik? Promes bat egin didak! –orro dagi itsasoak.

–Bete dut! Itzulia zirkuluaren kanpotik izan da. Zintzo eta ezeri ukitu barik.

–Ez al huen agindu, bizirik amaitzen bahuen, beste gurari bat beteko hidala?

–Ni ez noa gehiago ur handietara! –ausartu naiz itsasoari kontra egiten.

–Gurari erraza duk, ordea! Atsegina ere izan daitekeena, hogeita bost graduko tenperatura kitzikagarri honetan.

–Zer egin behar dut?

–Etzan hadi ur mehean, biluzik, goranzko olatuak gorputz osoa estaltzeko eta beheranzkoak ez guztiz eskapatzeko moduan. Burua zerbaiten gainera libratu.

–Badut flotagailu bat, bigun-biguna.

–Ipini bera burkotzat, eta zabaldu besoak gurutzean, olatu laztankorrek galtzarbeetan pal-pal jotzeko moduan.

Esandako moduan etzan naiz, uhartearen eta eskuineko haitzen artetik horizonte harrigarriro hurbilera, ia zapaltzailera begira, ezabatuko den beldur naizen irudi femeninoa, itsasoaren aurpegia, oroimenean itsatsi guran ahalik zehazkien. Olatu epelen goranzko fereken eta beheranzko freskuren intermitentziak zentzumen guztien atsegin batua antolatu nahi duela dirudi. Begiak itxirik, ubarroi ilara baten hegada bezalakoa ere neure parean nabari dut.

Berriro irekirik, Gioconda-ren aurpegi borobilkoia aurkitu dut. Aldi batera, sfumato sakonerantz atzeratuz, Nefertiti erreginaren elegantzia luzatua aurreratu da, zeinaren adats-ontzia esne-kaikua iruditu zitzaidan beti, esne maitea. Lasterrera, ganduaren nagitasunean, Ingresen «Bainu turkoa» agertu da, eme biluz mardulen artean urtzen neu, ai!, ez, hobe dut bakarra, «Odaliska handia», gorrotoaren minetik ere ezingo lukeena bere eskaintza edenikoa ematu. Orain, Maneten «Folies-Bergère taberna»-ko Suzon, neure eskola-laguna izan zitekeena. Horizontetik honago iruditu zait, non beraganako maitasun eutsiezinak ezin baitu eragotzi errukia nagusitu dakidan. «Gaur ez, baina hurrengo batean, nahi bahu, beste inor ez dagoen munduan».

Horizonteko irudien segidak ur hondoko proiektore batetik bezala berritzen darrai. Susmatzen hasia naiz itsasoaren gurariak zer bide egin nahi dezakeen, Campen-yren «Lukrezia hila» agertu zaidanean, bere harriak heriotza ere desiragarri egin zuena. Gauguinek emakume tahitiar bi eseri dizkit albo banatan, soilik begira dezaten, ahal badute senti dezaten, euren kostaraino iristen den gesal kilikari honek bueltan nolako zoramena dakarren. Botticelliren «Udaberri»-ko Venusak eguzkia motelara-razi du, Munchen «Madonna» bistaratu arte, beltzean atzituriko zurtasun aztoragarria.

Eskerrak baretzen nauen Rafaelloren «Madonna kardantxilodunak», non txoriñoak eta bi haur biluzek eskotean pedestalduriko aurpegi bilduari beronen biluztasun ezkutuan estasiatzeko bidea damaioten. Barka, Maria, Josepe arotzaren arrosa moztu gabe hori, baina nik pentsakizun dohatsu hauexekin maitatu zintudan, benetan.

Ai, Frida Khaloren «Bizkarrezur hautsia», zeinaren aurpegi oinazetuak daragien nahigabeak ezin baitu eragotzi pasioaldi bat imajinatzerik. Beorlegiren «Emakumea Hondarrabian», irudi bigunki iradoki baten osotasuntzat, norbere sentimenduko edozein aurpegi onartzen duena, edertasun inexistenteak barne. Orain, Rubensen «Hiru Grazia» biluzetariko edozein, non frogatzen baita irritsa piz dezakeela berdin mamiak, nola haragiak. Ramon Barreiroren «Neska bizkarrez», non edertasuna, atzetik, osokiago baita iradokitzaille, eta inolako akatsik ez.

Elisabeta Siraniren «Porzia hanka bat zauritzen», non labana beldurgarriak areago diotsun: «Begira izter gozatsu hau, aurpegi eta eskote tristeki ederren berme erogarri». Nire eskuek ere gorputz harkorra zauritu guran dihardute, olatu maratzen erritmora. Oin bertikaletan zaplatatxo nabaritzean, hondarrera zabaltzen dira ahurrez gora, eta urak alde egindakoan, izterretatik paparreraino ferekatzen naute.

Ene itsaso oraintsu hain beldurgarri hori! Zer gurari modu da nigan burutu nahi duzuna? Han baitager Dürerren «Eva biluza», alborantz begiratzen duena, begi desirosek lotsa gabe begira diezaioten. Orain Vanessa Bell-en «Bainua», ur epelaren bulkada ile-kopetan biguntzen duena. Berriz ere Berorlegiren «Emakumea Hondarribian», handik pasatu ziren bisitari eder guztien liluragarri. Eta Barreiroren «Neska bizkarrez», aurrez ikustea desiatzeko nahikunde oro inhibitzen duena. Murilloren «Sortzez garbia»-k darraio, seminarioko liburuen orriak berarekin markatzen nituena, airean goranzko flotazioan, zerura alde egingo ote zuen (ez! mesedez!) beldurrez.

Hurrengoa ia neure jaioterritik dazagut: «Bordeleko neska esneketaria» (Goya), desioz ala bortxaz plazara doan ez dakizuna, ikusten ez den asto baten gainean. Eta nik azpi-zorte horixe zeukan astotxo ikusi nahi! Astiro-astiro, horizontiaz oso handik, gorantz datoz Tizianoren «Maitasun sakratua» eta «Maitasun profanoa». Jantzia eta biluza. Oi, itsaso deliragarri! Nigatik,

bietako edozein. Jantzia biluz nezake, biluza jantz nezake. Orain, ahal bazenu (eskerrik asko!), Giorgioneren «Judith faszinantea», hanka biluz batekin zapaltzen duen buru moztua norberea izan ledin nahikundeia sortzen duena. Irudiak pasatzen, pasatzen ari dira, eta azkenak, beti, Frida eta Emakumea Hondarribian. Madonna, Judith, Porzia, Odaliska, Nefertiti... Mortala! Gioconda ukiezinak, at-lurtarrak, keinu egin dit, bular bat erakustera bailihoan. Bazuenik ere ez zitzaidan inoiz otu, denak haren irribarreak liluratzen ziren bitartean, ni haren eskuekin obsesionaturik bainenbilen. Ene ama! Ez dut pentsatu nahi Henry Millerrek nola kontatuko zukeen gertatzen ari zaidan hau, ez, o, bai. Nire zerritasun harroa ez nuke nahi irits ledin artea zerritzeraino. Bainua, Sortzez garbia, Maitasun profanoa, Eva, Suzon, Neska bizkarrez, Madonna...Eurek irazeki nahi izan banaute, zer egin behar nuen? Emakumea Hondarribian, Neska esneketaria, berriro Frida, Nefertiti, Judith, Hondarribia, Frida, Barreiro...

–Hau nahi al zenuen, itsaso gazi-lizun horrek?

–Ondo hago?

–Buf! Ez nago definigarri.

–Arrain hila dirudik.

–Gorantz ala beherantz zoaz, itsaso beti ezberdin?

–Beherantz tokatzen duk.

–Eskerrak, zati batean ez bainago tentetzeko moduan!

–Sei ordu barru itzul nadinean, jaikita egongo ahal haiz.

–Beldurgarria zinela koan, maitagarria zara.

- Irlaren ekuatorean ez huen hori esaten.
- Behingoarekin nahikoa izango da, ezta?
- Heuk jakingo duk.
- Badakit! Elkar maitatzera bortxaturik gaude. Baina hainbeste ere ez, mesedez!

OLETAKO ANIMALIAK

Txakur desorientatua bezala, usaimenarekin lehian, pare bat kilometro erdi oharkabeen eginik, Oletako zabaldira iritsi naiz. Errepidea eskuin gorantz, ibaia ezker zelaiaren barrenean, auzo gunea aurrez ageri da, non hiru jatetxeek, lehengo modu-moduan, bidegurutze hirukoitzari, angelu banatatik, guardia inkondizionala dagoiten. Errepidearen gainean, gasolindegia gorritasunak autoritate osoz estaltzen ditu azpiko lau auto beltz eta lur-garraioko bi kamioi beilegi. Estaliek ere autoritatearekin kopulazio lasaian dirudite, mangerak depositura dituztela. Mugimendua bakarrik falta da. Umetan amestu ohi nuen kopulazio eternoa, esperientzia desiatua hain arin amaitzearen dezepziora iritsi aurretik.

Behi txaroles batek moztu dit inguruaren obserbazioa. Neu konturatzerako, bere txahal ez jaio-zaharra erdi hankapean dakarrela, munan hur-hurretik jarraitzen dit, bere adar irekietako batekin ia ukituz. Ez batak ez besteak ez dute ageri bidegorri hondartsua zapaltzeko gogorik. Ez dakit zerk jo nauen lehenago, ezusteak ala sustoak, hain bolumen hurbilaz ohartu naizenean.

Lehenengo ihes-kolpe instintiboari eutsirik, nahiago izan dut, sen guztien aurka, konfiantza eta lasaitasuna erakutsi. Esku batekin, pozik onartzen dituen azkurak bekokian eginez, eta bestearekin, ostera ezkutatu den umeari hurbiltzeko keinu laztankorrek luzatuz, bihotzak diost norbaitekin hitz egiteko ordua dela.

–Nor falta duzue? Ugazaba? Ugazabandrea? Behar-bada, etxeko mutiko buru-beroa, behi-zaintza bere asmazioekin konektatzen zueneko, zuek zeuen ibilera galduei ematen zenietena? Ez dirudizue alferrik galduta, baina ez zeundeten askatasun osorako prestaturik. Ni halabeharrak majo ekandu nau biziera berrira. Zuek ez daukazue halabeharraren noziorik, ezta? Ondo dago. Izan gaitezen lagun, baina afektiboaz beste lotura barik.

–Txotxo! –diotsot errape azpitik bistaratzen ausartu den txahal-burutxo oraindik balantzariari–. Etorriko al hintzateke morroi nire etxera, hotelera? Katurik ere ez diat platerak miazkatzeko, ez txakurrik, aurpegia garbitzeko. Miradore eliptikoan ipiniko haut, olatu esnetsuei begira adurtu hadin. Ez, ez! Etortzekotan, ama gabe. Esnea jiratuko diagu nonondik hiretzako beste, eta erpururik ez zaik faltako errotzat.

Bidean aurrera abiatu naizenean, bitxiena ez da, zekortxoak beste aldea saltoan harrapaturik, ama-umeek albo banatatik jarraitzen didatela, apur bat atzeragotik eskoltatuz, baizik dozena bateko zaldi-aldra –heldu, gazte, ume– ibai kontratik lerroan aitzinatzen dela trosta solemnean, exhibizio hipikoan bezala. Nire paretik hoge

bat metrora, nire alderantz kurbatu dira. Bueltan-buel-
tan, aurea hartzera bezala datoz, lepo txit tenteak beste-
rantz simetrian okertuz, kontrako begitik bakarrrik ikusi
behar banindute lez. Kurbaduraren muturra nire alde-
rantz errenditu denean, buruak alderantziz biratu dira,
ez denak batera, estudiantuta bezalako segida uniformean
baizik, ohartu gabe lehengo kontrako begia orain erakoa
dela, nahiz eta ezkerra izaten jarraitu.

Zaldien argitasun proberbialak pentsarazi dit beste
begitikitsuak ez ote diren. Hori ere, guztiengan, estu-
diaturik bezala gertatzea balitzateke aski bitxitasun. Me-
tro gutxitara, aurretik alborantz baterian kokatu zaiz-
kidanean, oraingoan buruak zuzen eta zerbait ospatu
nahirik bezalako aurpegiekin, horra non hautematen
dudan, errepide aldetik, beste aldra xeheago baina uga-
ri bat, adosturik bezalako desordenan, nahiz eta neu-
gananzko intentzio argian. Ardi-ahuntzen nahasteak ez
nau hainbeste harritu, nola tartean, kide natural beza-
la, txerriak ere, kolore guztietakoak, harmonia osoan
datozen. Ez eurongatik arraro, noski, abere agortezin
hori beti ikusi baitut edozein lagunartetan txertatzeko
prest, behien hankapean, behor artean, artaldean, ahun-
ztaldean, katuekin, txakurrekin, oiloekin... Uzten zaion
edonon, sukaldeko mahaiepa barne. Txerria izango da,
nik ezagutu dudan hemisferioan, animaliarik sozialena,
nondik esplikatzen ahal baita zergatik den hain naturala
gizakiak izatea haren antzik handiena. Nahiz eta alderdi
hori ez izan harentzat lar ohoragarri.

Aldra eskuin aldetik hurreratu zaidanean, ahateak eta pelikanoak ere hauteman ditut tartean, euren ipurdiak zuzen ekarri ezinik. Indioilar mordo bat, paumaren faltan denak pilo-piloan. Orein dispertso batzuk (bat herrena), eta dozena bat txakur, alboak eta atzealdea zaintzen, elkarren buztanpeak ere zaintzen aldizkatasun infaliblean, euren ofizio indiskretua ahaztu ezinda. Izango dira, hainbeste zango eta belarriren artean, oraindik identifikatu ez ditudan espezie gehiago ere.

Zelai ez guztiz lauan, goiko samaldaren informaltasun alaia nabarmenki kontrajartzen zaio beheko zaldi lerroaren txukuntasun ordenatuari, baina bi fronteen hurbiltzea hain sinkronikoa da ezen zail egiten baitzait kontraste entseatua ez dela pentsatzea, zertarako ezin igartzeak artekatzen nauena.

Eraso garbien aurrean, senak laster erabakitzen dit zer egin, sarritan oker. Baina beti inferioritate babesgarrian tratatu dituzun izaki batzuek adimena zuzenki interpelatzen duen koadroa aurkezten dizutenean, ez dut aurkitzen erreakziorik, atzera begiratzeaz besterik. Ez, noski, zerbait interesgarria ikusi nahian, aurrekoaren ikuspenetik libratzeko baizik. Horixe egin dut, ustez zuhurbide bakar gisan, baina oker orain ere, aurreko nire urduritasuna zauskada bihurtu baita, atzealde guztia animaliaz itxirik aurkitu dudanean. Hain fronte suabe ki kurbatuan aitzinatuz datoz nigana non pankarta bat baizik ez baita falta, igartzea zail ez den mezu honekin: «Gizateriarik ez bada, ordezkaria zertarako?».

Zorionez, eraso asmoz baino ikusminez datozela dirudi. Bost metroko radioan, zirkuluerdia neu ardatz naizenaren inguruan doi-doiki trazatuz, gelditu egin dira, abereek jartzen dakiten begirada hutsalki finko eta kolektibo horrekin, objektu ezagun bati zirkunstantzia ezezagunean erreparatu diotenean. Neuri ere hain objektu ezezagun egin zaizkit eurak ezen, animalien aurrean sekula ez bezala, zer egin ez jakite totalen aurkitzen bainaiz. Hainbestean non inakzioak areago larritzen bainau, zer egin ez jakitea egoeraren zerbait jakitea babilizateke. Mihiak nire erabakitik at hasi nahi du hizketan, eta hasiko denez gero, ez daukat disuaditzen saiatzeko ahalmenik. Neure ahotsa dantzut soilik, nitaz beste.

–Zer? Inoiz ez al duzue ikusi hego gabeko bipedorik? (Esaten hasiko eta hau pitokeria!). Hori jakinik, aterkiarekin etorriko ninduan. (Nondik jarraitu behar dut orain?) Trago bat behar diat. Berehala itzuliko nauk, Lekeitio ber-bertan zegok eta.

Animalien korru erdi geroz gizenagoak bidegorria, erditik pasatzeko libre nekusana eta euren hankek jator errespetatzen zutena, buruekin itxi du, hegal banatako lepoak elkarrengana biratu direnean, «zer zihok horrek?» keinuka.

–Tragoa ez al da aski arrazoi –hots egiten diet–, zeuek uragatik elkar hilko zenuketenean? Ondo zegok! Aurrea, orduan, lehen ere zuen agindu barik abiatu nauk eta.

Bira erdiz, arteko posiziora itzuli naizenean, beheko zaldi-lerro kasik doktoralaren eta goiko ahuntz-ardi-txerri

gehi gainerakoen nahaste karnabaleraren tokian, beste zirkulu erdi gizen eta trinko bat agertu zait, neure ardatzetik bost metrora halaber, doi-doiki taxutua. Erdi gehi erdi berdin oso, harrapaturik nago. Zirkuluaren erradio amaigabeek immobilizaturiko ardatz transfixo bat nintzateke, erdian ebakidura bat ez banekusa, bidegorria, hain zuzen, miragarriri libre datzana. Ez dakit irtenbidearen eskaintza den, ala iheserako intzitzio bat, saiakeran xehatu nazaten.

Aurreko lerro itxuraz ez hain ferozen atzetik, arantzezko koroia bat altxatzen dela esango nuke, perspektiba iruzurtiak lineara bortxatzen dituen adarrak dirrela ez baneki. Ikusi dudan errege koroarik sinesgarriena osatzen dut, berandutxo baina. Goren arkutzat, idi-adar deskomunalak nabari dira. Euren izaera jasankorrek azken lerroa eskatzen duen arren, perspektiba berriz ere biziosoak aurrenera jaurtitzen ditu. Natura jakintsuaren efektuak eta potroak!

Potroena pentsatu baitez, hor ageri da, aurrerantz, bidegorria zapaltzen ausartu den tipo bakarra: zezen gorri kalpartsu bat, pepinoak bezalako adarrekin, bekokiaren planoan eurok, eta meloiak bezalako barrabilekin. Bere zangoen pausakera faraonikoak, kasik inbalidoraino lentoak, gorputz irmotik independentea dirudi. Baina horrek eta bere aurpegi kaotikoak ikaratzen nauten baino gehiago deskontzertatzen nau ikusteak zirkulua ixten den une exaktoan gelditu dela, aurreneko lerroan, zerbait perfektua osatu duen kontzientziaz baino areago,

bere aurrean duen giza txotxongiloari toreroen ipurdi estua ezin aurkituz. «Zer ideia dakark, Moxo, buru horretan litekeena bada?». Ez dirudi iraintzat hartu duenik, nahiz eta kliskatzen dituen muskuiluak bezalako begiak, buruarekiko proportzio barregarrikoak. Santxok On Kixoteren errotei egingo ziekeen bezala begiratzen dit, gorroto gabe, baina inongo irrits gabe.

Inguruetako animaliarik ezberdinenak helbide guztietatik hurbiltzen eta pilatzen ari beharrean, affluentzia ibai aldetik bakarrik gizentzen banekusa, Noeren Ontzia bertan atrakatu dela pentsatuko nuke. Ez dakit atseginez ala atsekabez, orain ez bainago historia zaharrekin hunkitzeko bezain umore gabe, nahiz eta bai, agian, zaharregiekin. Badirudi animalioak, euren ez-kontzientzian, badutela prekontzientzia bezalako bat, zeinagatik bai baitakite kontzientziadun bakarrarengana arrimatzeak euren ez-kontzientziari kontzientzia indirekto bat damaiola. Atsegintzen dira niregan euren kontzientzia sentitzeaz, horrela mirari epikureo gorena lorturik ezen kontzientziaren onura posible guztiak baliatzen dituztela, kontzientziaren arazo guztiak saihestuz. Emaiek bertatik, irrazionalak zirela baina! Badakit arrazoiketa bihurria dela, kasik zentzugabeki filosofikoa, baina nire inguruan antolatu den geometria deliragarri honi ez diot beste zuztarrik aurkitzen.

–Zer nahi edo behar duzue, mistikaren umezurtzok? Badakit zirkulu inpresionante hori egiten duzuela besterik egiten ez dakizuelako. Zail egiten zait pentsatzea

jakinez gainera estutzen nauzuela irtenbide nuloan, nahiz eta txakurrek usteko duten euren meritua dela, eta txerriei fitsik ez axola nor nori noren zer.

Animalien presentzia inguratzaileak baino gehiago durduzaten nau euren isiltasun dibinoak. Ez txilin, ez joare, inork ez du agertu nahi naturak hainbeste kostata irakatsi dien apurra. Artalde mardul bat ondotik pasatzen ari bazaizu, isil-isilik, ukitzen, ointxoan dza-dza besterik entzuten ez dela, ihesari emango zenioke, patetikotzat sentituko ez bazenu inork erasotzeko asmorik, ez ahalmenik ez dakarren abere indefentso batzuegatik izutzea. Baina badirudi isiltasun batzuk Oteizaren hutsuneko mailukadak baino durdigarriago direla.

Zorionez, ez daukat ihesean saiatzeko aukerarik, bira guztia berrikusirik, zirkulua hain baita jarraitua non begirada bakarra baitirudi guztiak. Beste zereginik ez lukeen helikoptero batek suposatzen dut lurtean inkrustaturiko begi handi bat lekuskeela, nini ziztrin batekin, neu kasu honetan.

Proba dezadan beste metodo bat, itsasotik urruntzean, beti aldean daramadana: korneta atonala, launa desakorde tonaleko serie laukoitza jotzeko diseinatua. Estri-dentzia birziklaezinen tarratada bat, fragmentu bat izan zitekeena, musika halako uneraino eboluzionatu zenean non esan baitzuten:

—Ongi! Heldu gaitun gaizkiago egiterik ez dagoen punturaino.

Aitortza larrutuegia iruditurik, era literarioan aldarrikatzea pentsatu zuten:

–Hainbeste aurreratu ginen ezen, itzuli beharra gertatu zenean, bidea ezabatua baitzen.

Kornetaldiaren aurretik, beti ere, preludio eszenikoa bezalako saiakera leunago bat abiarazi ohi dut, zeinak huts egin baleza, musikara joko dudan, B plan bortitzagora bezala. Animalia bakarren edo saldo txikien aurrean, efektu segurua izan ohi zuenak ez dakit balio izango duen honen kontzentrazio atipikoaren aurrean. Eszena da galtzei eta galtzapekoei oinetakoen gainera erortzen uztea eta goi soinekoak, kasuon alkandora eta motxila, gerriaren altuera nibelatuan lotzea, zila bistan utzirik, eta belaunak zabaltzen ahaleginduz, oinak galtzetan gatibu daudela. Elipse tente bat sortzen saiatu behar da, parteen edo «aldekoen» esekitasuna hondo hutsean ondo nabarmentzeko moduan.

Txakurrik lagunena, beti hur-hurretik jarraitzeko irrikaz neukana, berehala uxatuko zait. Nire umetako porrot esplikaezinetako bat, hain zuzen, izan zen ezin izan nuela lortu «Txurtxil» zeritzon gure txakurtxo berdexka behin ere ingura zekidan, baso bazterrean galtzak askatu eta neure zereginera makurtzen nintzenean. Ez zegoen ez dakit nola kalkulatuta hartzen zuen distantzia batetik hurbilarazterik, galtzarik ez nuela zikinduko garrantizaturik ere. Ea orain zer gertatzen den, bai baitirudi ikusleria inguratzailea sorpresaren baten zain dagoela. Biluztasunak erdizkoa bakarrik izan behar du, gerritik beherakoa. Gerritik gorakoak ez du balio. Badirudi animaliek goitik ez dutela ezer itxaroten. Biluztasun osoak

ere apenas inpresionatzen dituen. Lar koherentea iruditzen bide zaie, baldin diferentziarik atzematen ez dutelako ez bada.

Jarri naiz esandako erarik arauzkoenean, eta abelburuen masa zirkularrean uhin bat bezalakoa hauteman dut, bira guztira uniformeki hedatua, zeina berdin izan bailiteke nigatik, edo muturretatik ziztuan pasatu zaien eulitzar ikusezin bategatik, honek zirkulu osoa markatzea arraroa da baina. Seguruenik, eulitzarrak joa izan den mutur lerdetsuak albokada ezkertari bat egin izango zuen, eta mugimendua, hurrenez hurren, buelta osoan transmititu. Elementu likidoen batasunak naturalki daragiena solido bizidunetan alarmak egin dezake, diferentzia paradoxikoz ezen uhin likidoa ahulduz urruntzen den bitartean, alarma batek handituz joateko adurra daukala, animalion buruetan argiro islatu den bezala.

Mutur bakarra kolpatu duena eulitzarra izango zen, uhinaren transmisioa askoz lentoagoa izan baita intsektu txistukarien ustezko pasaera baino. Bere gelditasun lasaira itzulia den buru-zirkulua apenas immutatzen duen nire preludeak. Berez afektatuago behar luketela suposatzen zen txakurrek ere ez dirudi ezer arrarorik hauteman dutenik. Denok ote gaude erdi eraginda? Masaren babesean hobeto distraitzen dira, antza.

–Zer, lagunak? Ezer ez balitz lez? Ez nago, ba, postura erosoegian! Ez etorri nigana ekitera zuen bilkura arraroan premonizio kezkarriak edo seinale prodigiosoak irakurri behar ditudala, ze gauza horiek ulertzekorik neu

bakarrik geratzen bainaiz zuen gainetik. Misterioen ar-
dura antzina galdu nuen zuen inozentziaren alde. Txarto
esan zein ondo esan, espresio berdina? Ea honi zer de-
ritzozuen.

Atera dut korneta, kanpotik zuria eta barrutik horia,
bietatik distiratsua, eguzkiak orain bezala ematen dio-
nean. Egun lainotsuan koloreek alde egiten diote, zu-
rezkoa bailitzan. Animalia guztiek begiratzen didate ma-
gia baten zain bezala. Ez dut uste Stravinskyren solo bat
itxaron dezaketenik. Hasiko al nauk? Matrailak haizatu
ditut, bakoitzean apo bana kukuturik bezala, paparra
hanpatu dut, zahagia bailitzan, banoa indar osoz putz
egitera, inor ez da izutu, magiaren zain, eta hor doaz
desakorde tonalak. Neuk eraginak direla ez baneki, mu-
sikaren kolikoa direla esango nuke. Mugitu dira, bai, su
zirkular bati erditik haizeak eraso balio bezala. Mugi-
menduak ez dirudi hain biolentoa, elkar oztopatzen bai-
tute. Animalion garun amoralak ez da eboluzionatu elkar
zapaltzeari gustu hartzeraino. Bilkura osatu den bezain
jaiton barreiatu da, nahiz eta era naturalagoan. Ez da-
kit arnasa sakon bat hartzen saiatzeko besteko motiboa
izan den. Bideari jarraituko diot, eta hor konpon. No-
ranzkoa martxan erabakiko dut, jakinik noranahi izan
daitekeela.

AITONA, JAINKOA NON?

Aldizka ur azalera irten beharra duten arrainek bezala, ondarrutarrek kantua behar zuten ez itotzeko. Kantua, arnasaz gainera, gogo-jardunbide oparoa zen. Artean, Lebegerie-ren diskoa («Gu gara Euskadiko», «Bakearen urzoa»...) zirkuito klandestino guztietan zebilen. «Ez dok amairu» taldea («Ez dut nahi», «Gazte gera gazte», «Zenbat gara», «Eta poeta»...) abiada furiosoan zebilen. Atahualpa Yupanki («Un día pregunté yo»...), Brassens, Bertolt Brecht... Zerrenda amaigabea eta beroa.

Atahualparen kanta horren itzulpen libre bat egina nuen, gero, idazkia galdurik, buruz gorde nuena. Aspaldiko urteetan kantatu gabea izan arren, uste dut lortu dudala ondo berritzea, bakardade absolutuaren indis-trakzio unibertsal honek lagundurik. Espetxea.

Leloa:

Behin baten galdetu bainun:

“Aitona, Jainkoa nun?”.

Aitonak triste erantzun:

“Jainkorik bai al inun?”.

Ahapaldiak:

Aitatxo galdua daukak
umezurtz gaixo horrek.
Lehengo gerra zikin hartan
hil zian bala batek.

Hire anaiak harturik
aitak utzi fusila
tiro bat egiterako
erori zuan hila.

Aitatxo galdua daukak
anaia ere berdin.
Handitzean jakingo duk
nola bildu haiekin.

Geroztik hire amatxo
urtua duk negarrez.
Galdeiok orain berari
Jainkorik bai ala ez.

LEHEN PORROTA, BETIKO

Kostatu behar zait kontatzea. Porrota beti da porrot, eta lehena beti da lehen. Baina gogorrena bestea da. Betiko! Nerabezaroaren sarreran gertatu zenak jarraitzen baitu nire izatea esplikatzen zahartzaro aurreratuan ere.

Hamaika urterekin komentura sartu nintzenean, eguneko ordurik gehienak isilik egin behar ziren. Ez zen zaila pentsaketa transzendentean nabigatzea, non orain interneten baino hobeto orientatzen bainintzen. Jainkoa neurrigabea zenez, neurri gabeko zerbitzua eskaini behar zitzaion. Baina hori esentzialki ezinezko zenez, gure neurritasuna toperaino luzatzen ahalegindu behar zen, beti ere koska bat harago iristen tematuz, lorpen infinitua ezin bazen, presioa, behintzat, mugagabea izan zedin. Gauza jakina da hurrek eta nerabeek era absolutuan hartzen dituztela idealak, hartzeari ematen badiote. Nire kasuan, baietz dirudi.

—Eta zuk, ene Jainko —esaten nion—, badakizu benetan saiatu nintzena, zure onarpenaren seinaleztat lebitazioa ere sentitzeraino, nahiz eta ez dakidan grabitazioaren etenak zergatik izan behar duen grabitazioa bera baino duinago.

Infernu eta halako betiraun makabroekin ere izutzen gintuzten, baina neuk, egia esan, lantzean irudimenezko dardara batzuez harago, ez nuen beldurrik barneratu, seguruenik, neure burua inoiz ez nuelako ikusi infernugai. Hori bai! Oporretan sutsuki jarkitzen nintzaion aitari, infernua dibertsiotzat hartzen zuenean.

–Ikusiko duzu, zeu bertara zoazenean, betiko!

–Hori gura diat, ba! Betiko! –aitak handioski.

–Kondenatuta?

–Ezereza baino hobea izango duk zerbait izan.

–Asko dakizu zuk ezereza zer den! –nik gainki.

–Nik jakin ez? Heuk ere bai, seminarioan indizioa hartuta ez bahentor. Lokartzetik itzartzera, zeren gainean iristen haiz?

–Ezeren gainean ere ez.

–Haor, ba! Horixe duk ezereza.

–Ez duzu esango ezereza zerbait dela, ezta?

–Orduan, zelan itzartzen haiz?

–Eta zuk zergatik diozu infernua gurago duzula ezereza baino?

–Nik bakarrik gura diat zerbait izan, infernuan, zeruan edo dena delako lekuan.

Neure eginahal guztian, ez nuen lortu aita inoiz benetan mintza zedin Jainkoaz. Edo solasa aldatzen zuen, edo gaia fantasiara lerratzen.

–Eta zuk, ene Jainko, badakizu benetan nenbilena, hamahiru urterekin mortura alde egin nuenean.

Aspalditik nerabilen buruera Jainkoarekin aurrez aurre aurkitzekoa, egin ahal nion eskaintzarik gorenean. San Joan Bataiatzailea matxinsaltoekin elikatzen ei zen mortuan. Udako opor haietan 13 urte nituen. Behizain nenbilenean eta beste bakar ordu guztietan, setati saiatzen nintzen jaki hura –matxinsaltoak– jaten ikasten. Hasieran ematen zidan atzerakada, goragalea, gosearekin gaintitzen saiatzen nintzen. Ogiarekin edo artoarekin askaltzeko neraman txokolate ontza –zakarra baina txokolatea– txakurrari ematen nion. Honek jan nahi ez bazuen, gehienetan gertatzen zenez, sasitzara jaurtikoenuen. Eta txokolate ordeztan, matxinsaltoekin egiten nuen otartekoa. Behin edo behin izan nuen arrakasta, baina ez gozamina. Gose eta guzti ere, neure aurpegi zeinu desfiguratuarekin txakurra izutzeraino iristen nintzen. Hain uzkurturik urruntzen zen gizajoa, isatsa hanka artean zeramala!

Hemengo matxinsaltoak txikiak ziren mortukoaren aldean. Beraz, marisorginak eta sugandilak ere jan behar ziren, erbiak ehizatzeke gauza ez banintzen. Dena zehazki prebenitu gura izatea, osteratzen, Jainkoaren probidentziarekiko mesfidantza iraingarria izango zen. Ni zergatik babestu behar ninduen gutxiago, ezer erein ez duten txoriak baino? Prestaketak edo jan-probak ez zihozten era lar fidagarrian, baina pentsatzen nuen, benetako orduan, Jainkoak berak lagunduko zidala. «Eta azken finean –esaten nion neure buruari–, goseak hil behar bada ere, zer?». Hori garantia totala zen.

Amaren gogoia ere, apurka-apurka, prestatzen joan nintzen, soro-lan gogaikarrietan esaten niola:

–Ni laster Bizkargira noa.

–Bizkargira zertara?

–Bakarrik bizitzera.

–Lanari eskapatzearren, edozer asmatuko huke hik.

–Ez da lanari eskapatzearren! –haserretzen nintzen.

–Zer duk, ba?

–Laster ikusiko duzue.

–Zer janda bizi behar duk han?

–Topatuko dut.

–Ez haiz urrun joango.

Bizkargi, neure jatorri mendia. Amaren burlaizeak eta, batez ere, sinesgogorkeriak ernegua ematen zidan, eta jada urguilu kontua ere bazen, Jainkoaganako entregu gogoia adina. Bi motibazioen artean, eguna atzeratuz zeraman beldurra gainditzea zen kontua. Lortua nuen hori ere. Erabakia zen eguna, eta amaren ezkutuan, askari-afaritzat balioko zuen otarteko doblea ere egina zen. Unea argitasun bizi-bizian daukat.

Arratsaldea zen eta behiak uztartu behar ziren. Gana-du mantsoa izanez gero, lagun bakarrak egin zezakeen uztarketa. Bi abereak elkarren ondoan eta parean kokatu, uztarria bi buruen gainean egokitu eta hedeak lotu. Gure behiak ez ziren, ordea, mantsoak. Esan nahi baita gose-puntuan bizi zirela, inguruko beste asko bezala. Orduan, uztartzaileak laguntzailea behar zuen, lehen behiaren burua lotzen zuen bitartean, airean geratzen

zen uztarriaren beste aldeari eusteko, bigarren behiaren burua uztarrian kokatu arte. Une aproposa, pentsatu nuen. Amak ezingo zuen inola ere solte utzi behia, buruan uztarria alboka zuela. Hala, behi eskuina jada loturik, eusten ari nintzen uztarria bertan behera utzirik, esan nion:

–Oraintxe banoa, ez duzu sinetsi gura izan baina.

–Etorriko ahal haiz hona, asmo-ontzi zirin hori!

–Jakingo duzue nire berri.

Eta han utzi nuen ama, uztarritik eta behi ernegatuagandik jarein ezinik. Eta biraoka, ez zen bere bizioa baina. Niri jarraitzen saiatu zen txakurrari atzeranzko agindu irmoak eta amak beretzat ulertzeko moduko mehatxu eskatologikoak jaurti nizkion. «Ni jazartzen ahalegintzen denari damutuko zaio betiraun guztian». Pinudian behera ezabatu nintzen, Autzagana mendatearen ipar aldeko lamia-osinerantz.

Bidaldi bat eginik, eguzkiaren erortze langidoa hautematen zen pinudi gazteko bizkargune batean, hamabost misterioko arrosarioa, bizi guztiko intentsoena, belauniko errezatu nuen, harkosko eta sustraien mina aszetikoki pairatuz. Eguzkia ostendu zenean, bihotza ikara guran taupatzen hasi zen.

–Hauxe da benetako ordua! Hona, Jauna, zure zerbitzari apala! –hots eta otoitz egiten nuen.

Gautu zuenean, bihotzak ez zuen obeditu nahi. Bere ikara-dardarak gorputz osora zabaltzen hasi ziren. Zeruko biziliar guztien azpian, beste hamabost

misterioko arrosario bati ekin nion, hura ere belauniko. Amaitu zenean, eguna gauerdirantz zihoan, uda izanik, berandu iluntzen baitzuen. Oraindik ez nintzen errepi-dea gurutzatzera ere iritsi, eta Bizkargi handik... Beste kontinente batean iruditu zitzaidan. Ene Jainko!

Eta izua bere kabuz jaiki zen eta bere kabuz abiatu zen etxerantz, ezarian, bidea irekiz, paparrerainoko iratzeak ez igartzeko moduan. Jarraitu egin behar izan nion izuari, ilargiak atzean uzten zituen argi tarte burlosoei lantzean begirada iheskor bat bidaliz. Ez dago esan beharrik zer burumakur sartu nintzen etxean, aita-amak, afaldurik, zain zeuden sukaldean.

–Berriro horrelakorik egiten baduk, Bizkargira baino harago joan beharko duk –aitak mehatxu.

–Jainkorik ez al duk topatu? –amak.

Beti alderantziz ohiturik, aitak serio eta amak tentolari hartzen ninduten uneei inoiz ez nuen ikasi zer interpretazio eman. Seguruena isiltasuna zen, burua ia mahaipean, muturra hankartetik altzora zeukan txakur eskertsuari azkura eginez. Tentatzeko baino apalarazteko, amak jarraitu zuen:

–Afalduta etorriko hintzen!

–Nik ez dut afaririk behar.

–Dena ez duk galtzea izan orduan.

Ez zen izan, ez. Eraman nuen otarteko doblea osorik zegoen golkoan, hartaz ez bainintzen gogoratu ere egin. Baina amak puntada hori bota zidanez gero, ezer probatzeke oheratu nintzen, beldurti bezain temati. Goi-

zaldean, nahigabeak edo goseak iratzarririk, balkoira isil-isilik irtenda, jataldi gupidagabea egin nuen bueltan osorik etorritako otarteko parearekin.

–Amak igartzen duenean bi lukainka falta direla! –hots egin nuen neurekiko, gaineko ilargiaren eta azpiko txakur bekaiztuaren erdian–. Egongo ahal haiz isilik!

Porrot hura betiko geratu zitzaidala esan dut, baina ez oroitzapen bezala, baizik izaera bezala. Bai izan daiteke oroitzapena unean bertan izan nuen sentimendua, nerabe peto batena. Esan nahi baita porrota bera baino mingarriago egin zitzaidala gurasoek ez sinetsi izana, gutxienez, nire asmoaren egia. Gero, noski, ezingo nien inolako erantzupenik leporatu, zeren zein gurasori otu behar zitzaion hamahiru urteko nerabe muskil batek benetan joko zuenik halako asmo kimeriko bat burutzera?

AMOROTOKO SERMOI BAT

Bulego umeletik plazara irteteen, airea berri, estreinatatu gabe iruditu zait. Arnasak ere –sakon, luze– jaio berri dirudi. Amоротoko plaza luzanga, atartedun etxe monumentalek eta eliza handiosak lehian tiraturik, albo batetik etxe-lerro kasik itsatsiak mugatzen du, eta bestetik, etxe bakarrak. Eta hiru metro atzeragotik, laukizuzena ixten duen hormak. Hiztegian «paralelogramoa» ikusi dut, baina hitzak ikaratu egin nau.

Plaza honek zenbat sarrera edo irteera dituen (nik beti irteerak kontsideratzen ditut) inoiz ezin izan dut ondo ikasi. Batean sei, bestean zazpi, ametsetan zortzi agertzen zaizkit. Kanpandorrean, sagar landare bat handitzen ari da, kanpai-leiho baten azpiko horman berez ernea. Danda hurbilek ez dute izutzen. Ez dago harrapatzen erraz.

–Landare hori zelan eliminatu pentsatzen hasi behar genuke, hormari kalte handiegia egin aurretik.

Proposamen suabe hori egin zuen sakristauari pena litzatekeela erantzun nion, loratzeko gauza zen ikusi arte.

–Gero garauren bat egin arte izango da –marmartu zen sakristau betiluna.

Eztabaida herri osora zabaldu zen, hain bistan eta toki deigarrian egonik. Batzuen arrazoi mendekatiak:

–Paradisua hondatu zigun sagar bati orain kanpandorra izorratzen utzi behar al diogu?

Beste batzuen arrazoi itxuraren aldekoak:

–Zer esango dute erbestetarrek, eliza sagar-ontzi bihurtuta ikustean?

Gehienen arrazoi sentimentalak gailendu ziren, kantuz eurok:

Dorrean, kanpaipean
aurkitzen da sagartxo bat.
Azpian umetxo bat
sagartxoari begira.

Landare mukizu bategatik hainbesteko aldamioa muntatu beharra lantegi handiegia baitzen, azkenean, hazten utzi zitzaion. Onura nondik hartzen zuen inork ez baitzuen ulertzen, zuztarren batek ur bedeinkatu ontziraino jaistea lortu zuela esaten zuten.

Sagarrondoa loratu zen, ale bat edo beste ere eman zuen, eta handitzen-handitzen, denborarekin, herrian kanpai arraroak entzuten hasi ziren. Harik eta sakristaia senetik irteteraino intrigatuak deskubritu zuen arte sagarrondoa bera zela kanpai-jolea. Haizeak erara eta behar besteko indarrez ematean, landarea kanpai barruan sartzen zen eta mihiari eragiten zion. Danden inolako logikarik ez erregulartasunik ezak ordu arauzkoak ere,

herritarren zentzuak barne, nahasteko arriskua nabaria zenez, landarea erauztea onartu zen.

Kanpandorrera nola eta nor iritsi ez zen erabaki erraza. Soka bat engantxatu eta behetik edo goitik tiratzea horma zati bat arrastatzeko arriskuagatik baztertu zen. Baina zerbait egin behar zen, eta norbait gogoratu zen Donostiako hiru damatxoek kondairaz, non zortzigarren estrofa dioen:

Donostiarrak ekarri dute
Getariatik akerra.
Kanpandorrean ipini dute
Aita Santutzat dutela.
Eta kriskitin, kraskitin...

Metodoa, analogia bigunagoan, Amoroton probatzea onartu zen. Eta hara! Lortu zuten, kanpandorretik esekitako plataforma kurioso baten gainean, akerrak sagarrondoa eroso eta gozo jan zezan.

Esperientzia, hala ere, ezin dut esan donostiarrena bezain positiboa izan zenik, hurrengo udaberrian landarea berriro kimatu baitzen, akerraren adar-puntetik guztiz erauzterik lortu ez zuten zuztarren batetik. Harritzekoa ere ez berau, ur bedeinkatu ontziraino luzatua zela egia bazen. Bigarren landare lirain horixe, edo bakar setati haren pizkunde lorios horixe da orain kontenplazten dudana, kanpandorrera begiratzen dudana guztian. Eguerdietan, batez ere.

Eta hara! Eguerdi batean, ume mordo batek, eskolatik irten berri, edonoiz eta edonon lez inguratu nau txilioka: «Konta ipuin bat! Konta ipuin bat!».

–Zein nahi duzue? «Txilinerrota»? «Polentiño»? «Doistuko sakristaua?».

–Goazen plazara! Hemen ez gagoz ondo –ohartarazi dit neskato batek, urduri puntu nabarian.

–Zergatik ez gagoz hemen ondo? –itauntzen nik, harriturik.

–Maisuak ez digu uzten euskaraz egiten.

–Zer? Zelan?

–Maisuak ez digu uzten euskaraz egiten! –denak batera–. Shh! Hor dago bera.

–Goazen elizara! –agintzen diet.

Umeen aurrean plantatu naizenean, paralizazio automatiko bat ikusi dut.

–Zer gertatu da? –nik.

–Maisuak zigortu egiten gaitu.

–Zergatik?

–Hasten da esaten: –mutiko batek– «¿No os tengo dicho que...?». Biharko ehun bider kopiatu behar dut: «No hablaré más vascuence en la clase ni fuera de la clase durante la tarea escolar».

–Horren luze? Aizu, Alosne! –galdetzen dut–. Hemengo nagusiena zarenez gero, kontaidazu, arren, patxadaz eta ordenan, zelan den historia hori guztia.

–Don Sixtori diskurtsoak gustatzen zaizkio. –Hasten da Alosne–. Behin hasi zen esaten guk egiten dugun

hizkuntza lar primitiboa dela. Eta geu ere halakoxeak izango garela. Gaztelaniaren handitasunera zabaltzen ez bagara, geure gurasoak bezain ezjakinak eta bazterkumeak izaten jarraituko dugula.

–Así que, en adelante –hasi zen arbelean idazten Don Sixto maisua– queda terminantemente prohibido hablar en vascuence, en clase o fuera de la clase, durante todo el horario escolar, bajo castigo severo, aunque variable según el caso, y con la recomendación casi imperativa de extender dicho comportamiento hasta el ámbito familiar.

–Testua –amaitzen du Alosnek– maiuskula handi eta argietan kopiarazi zigun, panfleto moduko orri berezi batean.

Arratsaldean, eskola orduen amaieran, Don Sixtori eskolako ate aurrea itxaron nion. Hainbeste urteren ondoren, ez nago guztiz ziur, baina uste dut Valladolidekoa zela. Gaztelakoa, behintzat. Solaskide eta «kolega» moduan hartu ninduen, beti bezala, esanez:

–Pozten naiz berori ikusteaz! Herrian biok baikara bakarrak, kultura maila batean hitz egin ahal dugunak. Herri hau kultura unibertsalera jaso behar dugu.

–Burutapen ustez bikain horiek guztiak ondo dagoz, baina aurreragoko auzi bat bada hemen –jarki nintzaion–, nire belarri harritueta nahi baino beranduago heldu dena. Egia balitz, jakina.

–Zer da berorrek egiaztatu nahi lukeena?

–Orritxo demonio honetan dioena ezagutzen al duzu? “Así que, en adelante queda terminantemente prohibido hablar en vascuence...»

–A, o! Ariketa interesgarria! Ikasleak adi ibiltzeko aurkitu dudan metodorik efektiboena.

–Metodoak ez nau hainbeste beldurtzen, edukiak baizik. Amorotoko umeez, euren herrian, euren eskolan, euren artean, euskaraz egiteak zigorra merezi al du?

–Ez dira zigorrak, bizkorgarriak baizik. Zigor pedagogikoak, nolabait.

–Bizkorgarria al da ehun bider kopiatu beharra: “No hablaré más en vascuence en clase ni fuera de la clase durante la tarea escolar?”.

–Idazketa praktika dezaten. Ume hauek aitzurra bezala maneiatzeko dute idazluma.

–Hori herri guztiaren kontrako iraina iruditzen zait. Gure umeez zergatik ez dute euren artean euskaraz egin behar, beti egin duten moduan?

–Berori bezalako kultura-gizon batek hori sentitzen al du benetan?

–Nik ba al dakizu zer sentitzen dudan? Kulturaren sasi-jantzian, erregimenaren agente berantiar bat besterik ez zarela. Gerraosteko metodo genozidak, mai-su-maistrek eurek ere dagoeneko baztertuak dituztenak, zuk ezarri behar al dituzu berriz Amoroton, errespetuz eta mahai onez hartu zaituen herri batean?

–Jakin behar luke berorrek Franco bizi dela, eta indarrean dagoela erregimen bat.

–Ba, jakizu zeuk ere jarrera eta praktika suntsitzaile horretan jarraitzen baduzu, herri guztiaren aurrean salatuko zaitudala.

Berean jarraitu zuen, lehen baino beroago eta zorrotzago. Neuk ere jarraitu nuen esaten mehatxua beteiko nuela. Umeen gurasoak bildu nituen elizan eta esan nien:

–Jakingo duzue gure maisuarekin darabilgun gatazka, ezta?

–Badakigu, baina guk zer egin ahal dugu, lehen ere zertzuk ikusita gagozen jakinda?

–Ni ez nator zuei ezer eskatzera. Baina umeak zeuenak dira, eta neuk zer egin ahal dudan jakinarazi nahi nizuen.

–Kontuz horiekin! Maisu bategatik ez genuke geure abadea galdu nahi.

–Utzidazue zerbait proposatzen –erregutu nien—. Bada sasoia autoritate garrantzitsu batez inbestituak izan garenok aurpegia jartzeko arrazoi batzuen alde. Eta zuek ere hasteko merezi dituzuen berba batzuk entzuten.

Mehatxua bete nuen. Igandeko mezako sermoian, Don Sixto maisuaren jokaera salatu nuen. Mezaren jarraipen kasik naturala zen tabernako lagunartean sartu nintzenean, gizon batek erdi ahopean esan zidan:

–Gaurko moduko gauzak esaten baditu, laster da berori ere barruan.

–Ez naiz, ba, ezer arrazoi gaberik esaten ahalegindu.

–Honezkero berorrek ondo jakingo duenez, hemen arrazoia mingarriago da gezur biribila baino.

–Noizbait hasi behar genuen jendearen gogoari hitzak ipintzen.

Astelehenean, beti bezala, eskolara joan nintzenean, maisua sugedorriak janda bezala zegoen. Ohiki hitz jarioan hasten zena, begiratu ere ez zidan egin. Ume batzuk, egoeraz zerbait jabetzen zirenak, leiho handien kanpoaldetik adi-adi jarri ziren.

–Ulertzen dut zure haserrea –hasi nintzen–, baina zeuk azaldu beharko duzu haserre horren tamaina.

–Nola ausartu da berori ni salatzen herri guztiaren aurrean, elizaren inpunitatean?

–Abertitu nizun, sasoiz eta sarri, zer egiteko gertu nengoen, zeure praktika zapaltzailean jarraitzen bazenuen. Badirudi ez sinestea hobetsi zenuela.

–Ziur al dago berorrek irabaziko duela?

–Nire ziurtasun bakarra da kartzelan amaituko dudala, zu baino arerio beldurgarriagoen eraginez. Pentsa dezakezunez, perspektiba horrekin bizi denari gutxi arduradua dio herri-maisu baten mendekuak.

–Ez al du berorrek pentsatu nik hondatu ahal dudala berori?

–Intentzioa sinesten dut. Ahala, ez hainbeste. Esan dizut nire destinoa iragarrita dagoela. Bitartean, zure eta nire arteko duelu partikular hau ziurrago da nire alde erortzea.

Ez dakit gatazka harengatik izango zen, baina hurrengo kurtsoan, Don Sixto ez zegoen Amoroton. Seguruenik, aldakuntza berak eskatuta.

Hauxe izan zen aurreko eta ondorengo guztia eragin zuen sermoia.

–Kristau herritar eta alberritarrok! Ez nauzue sarri ikusi, eta ez nuke nahi sarri ikusi nazazuen, esan beharrekoa paperetik irakurtzen. Horixe egitea erabaki dut, esan nahi dudana esan barik gelditu ez dadin; esan nahi dudana bakarrik esan dezadan; esan nahi ez dudarik esan ez dezadan; eta esan nahi dudana esan nahi ez nukeen moduan irten ez dakidan. Huskeria txiki bat, erraz konpontzekoa izan zitekeena, zertaraino handitu den antzemateko, gaurko zuen konkurrentzia espektantea ikusi besterik ez dago.

Badira pare bat hilabete, Amoroton, artisten inbidia den herri honetan, historia mingarri, iraingarri, zapalgarri bat abiatu zena. Aurrenengo bankuotan dituzue subjektu pasiboak, eskola-umeak.

Don Sixto maisuak bere solaskide eta «kolega» gisan hartzen ninduen, bere maila intelektuala parteka zezakeen ia bakarra ei bainintzen herrian eta inguruan. Literaturaz, poesiaz, arteez, eta, oro har, kulturako edozein arloz jardutea gustatzen zitzaion, hilerrietako epigrafiak barne. Zelula estoikoa bezalako bat sortu behar ei genuen, Amoroto modernitatera ekarriko zuen eskola sendo bat osatzeko. Hori guztia, zelan ez, erdararen hegemonia totalean. Alegia, herria erdalduntzeko asmo hutsean. Horretarako, gure hizkuntza, euskara, oztopo handi bat besterik ez zen.

Behin eta berriro eraso nion, onez, aurrez, mehatxuz, oratoriatik gogoratzen nituen baliabide guztiekin, ezin zuela jarrera inperial eta jada anakroniko hartan jarraitu, harik eta ekinaren ezinak ohartarazi ninduen arte arantzadun alanbre multzo bat bezalakoa zela hura: eraginago eta gatibuago.

Nire ekintza-planaren lehen urratsa umeen gurasoe-kin batzea izan zen, ondo gogoratuko duzueenez, he-mentxe baitzaudete guztiak. Umeak zeuenak izanik, ez nuen nahi ezer egiterik zuen ezjakinean. Argi zegoen umeengan familiak, eta familiengan herri oso baten iza-tea zigortzen zela, zigorraren mingarriena erantzuteko inpotentziaren sentipena bera zela.

Amorotoko abade lez, salaketa publiko bat neuk egi-
tea proposatu nuen, eta inori ez zitzaion txarto begi-
tandu. Sermoi hau promes huraxe betetzera dator, eta
asistentziatik dirudienez, bazen zerbaiten gogoia, banaka
batzuegan alderantziz izan badaiteke ere.

Ez naiz hasiko eskolatze guztia gaztelania hutsaren
gainean eraikitzea kolpera kuestionatzen, nahiz eta ba-
legokeen zeresana han-hemen sortzen hasiak diren eus-
karazko eskolatzeen mugimendu pozgarriaz. Indarrean
dagoen eredu ezarriaren barruan ere, zer arrazoi dago,
zer eskubide moral edo kultural dago, gaztelaniaren eta
europar hizkuntza guztien aurrekoa den hizkuntza ba-
ten erabilera zigortzeko?

Praktika zapaltzaile hori luzaroan izan zen, bai, bai-
na dagoeneko baztertua dago herri-eskola gehienetan,

guztietan ez esatearen. Amoroton horretan hasi behar al dugu berriro? Nor da maisu bat eskola-umeei euren etxe-hizkuntza, euren herri-hizkuntza bat-batean erauzteko, tumore bat balitz lez?

Baina, kristau maiteok! Alde arrazoizkoak, kulturak, eskubidezkoak albora utzita, gatozen estatu konfesional katoliko honek bere balore oinarritzotzat aldarrikatzen duen kristautasunera. Kristau baten arimak goza lezakeen interbentzio dohatsuena, transformaziorik sublimeena, sakramentuak ez al dira? Hona, ba, mendeetan agindu duen latinaren lekuan, orain, zuen umeak euskaraz bataiatuak direla. Euskaraz konfirmatuak. Euskaraz ezkontzen zarete. Euskaraz hartzen duzue bekatuen barkamena. Euskaraz, azken oliadura. Eta handiena, euskaraz ospatzen dugu Berri Onaren eta Eukaristiaren miraria. Hau da, oraintxe entzuten ari zareten meza santua.

Jainkoak misteriorik handien horiek guztiak euskaraz onartzen baditu, eta Eliza Ama Doneak berak ere euskarari, orain, latinaren duintasun sakramental berdina aitortzen badio, zelan izan daiteke estatu konfesional katoliko baten funtzionarioa den maisu batek gure umeei euren hizkuntza debekatzea, eta inkunplimendua hain zitalki zigortzea?

Kristauok! Euskaldunok euskaldun lez bere mahaiari hartzen gaituen Jainko ahalguztidunak eman deigula argitasuna, eta araberako kemena eta elkartasuna, geure izate mendetsua ahalik duinen defendatzeko. Ez hainbeste mendetsua delako, geurea delako baino.

¡Estimados cristianos! Permitidme, ante el asombro seguramente unánime de toda la concurrencia que hoy abarrota esta iglesia de San Martín de Amoroto, que por una vez, como dolorosa excepción que confirme una noble regla, me decida a cumplir el decreto pastoral de nuestro Obispo monseñor Pablo Gúrpide Beope, hijo de Otxagabia y euskaldun de cuna tan vascoparlante como cualquiera de nosotros, según el cual en toda misa de cualquier rincón de Vizcaya, a la que asista algún fiel, sea turista, cazador o montañero casual, que no entienda el vascuence, el oficiante o predicador deberá ofrecer un resumen en castellano del sermón pronunciado.

En una ocasión tan singular como ésta, no será exactamente un resumen, sino más bien el anuncio y la promesa de que este sermón, íntegra y literalmente traducido, será entregado con reverencia al grupo de personas interesadas o aludidas en él, que han tenido la gentileza cristiana de honrarme hoy con su atenta presencia, a fin de que no tengan que molestarse en verificar informaciones indirectas o directamente confidenciales, cuya veracidad, al final, corre el peligro de basarse en jirones perdidos o lastres acumulados en el camino, a pesar del innegable celo, profesional o voluntario, de los hilos que componen la extensa y laboriosa red de nuestro atento régimen.

Eta, honenbestez, kristau maiteok, ez beti hain maigarriak barne, jarrai dezagun ospakizun salbagarri hau, geure fedearen aitortza lasaigarria berrituz: «Sinesten

dut Jainko bakar, Aita ahalguztidun, zeru-lurren egile,
eta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna... Amen!»

– Jauna zuekin! (posible bada).

– Eta zure espirituarekin! (beharko da eta).

SARASETA HILZORIAN

Sarasetako etxe aurrera heldu naizenean, oinez, motorra bostehun metro beherago utzita, harritu naiz, atarteko bonbilla berez ahul baino indargearen ezker azpian, nola txakur ohiki zangarrak isi-isilik hartu nauen, bere txabolatik burua eta belarri jausiak bakarrik erakutsiz. Badaki, nonbait, etxea zaintzea, une honetan, ugazaba ez molestatzea dela. Emazteak naroa eskailera irripean gora.

–Sentitzen dut, Karmen, zuek beste zail izango da baina.

Logela guztietara ematen duen koltza handi eta ahulki argituan, harritu baino ikaratuago nau, gela ireki bateko oheburuaren albo banatan, bi kandela piztu haute-mateak.

–O! Hil al da?

–Berak eskatu ditu kandelak, bonbilla itzungita.

–Kargutzen da, beraz, zer unetan aurkitzen den.

–Burua argi dauka.

Hurreratu naizenean, oheburuko gurutzea inguratzen duten arrosario gorriei bihiak falta zaizkiela dakusat,

tartekako alanbre xumeen distiratxoetan. Mesanotxe bietako arrosa-sorta zuriei petalo eroriak ageri zaizkie oinetan, zimeltzen hasteko beldurrez. Sarasetako ugazabaren aurpegian, heriotzaren mustuka badabil, baina oraindik ez bide du baretasunaren musua emateko moduan atondu.

–Barka! –diot–. Ez naiz konturatu hemen zeundetenik.

Sarasetako seme-alabak, ohe barrenean, komoda erraldoi baten kontrara pilaturik daude. Seme batek ezkerreko erpurua arriskugarririo sarturik dauka ahoan. Leiho txiki baina sakoneko tapete zuri eta puntilla berdedun baten gainean, beltzetik eliz liburuak diruditenen ondoan, bi zigarro pakete, «Ideales» beilegi hilgarri haie-takoak, kurioso-kurioso, elkarren gainean daude horma kontrara. Euren gainean, aldaretxo batean bezala, intsektu luzanga zangotsu batek gustura dirudi, geldi-geldi, sakrifiziorako prest. Hainbeste zango batera geldi edukitzeko, kontzentrazioa behar dela pentsatu dut.

–Zelan gagoz, Anton? –diotsot eskutik heldurik.

–Badator berori ere?

–Berba sanoa daukazu.

–Horixe bakarrik, jauna. Arnasa falta.

–Etorriko da hori ere.

–Hm! Urrunegi joan da.

–Anton! Ni ez nator hiltzen laguntzera, bizitzen laguntzera baizik.

–Badakit berori zertara datorren. Hasi berorrek gura duenean.

–Ez daukazue irten beharrik –diotset etxekoei–. Denok batera hobeto egongo gara.

–Nik ez daukat ezer lotsagarririk esateko –Sarasetak.

–Badakit, Anton. Zuk ez daukazu ezer esan beharrik. Barkamena jaso bakarrik, nahi bazenu.

–Nahi dut.

–Ego te absolvo a peccatis tuis, in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

Latinez jaulki dut, beren beregi. Sarasetako jaunak zuka egin izan dit aspaldion, hika ere bai bakarrean, umore puntu zelebren hura zekarrenean, baina orain, berorika egiten didala ikusi dudanean, ez zait zuzentzen hasteko unea iruditu. Bai, oster, pentsatu dut, ordainez, latinezko formula gehiago estimatuko zuela, eta azkenean, neu ere gehiago hunkitu naizela uste dut, intentzio zintzoei jarraika goazen guztian bezala.

–Barka, ene Jainko! –pentsatzen dut neure kautan–. Badakizu nik kontu hauetan zenbat sinesten dudan, edo ez dudan, baina honelako une batean, sinesten dutenei atsegina ematea ez ahal didazu faltsukeriatzat gordeko. Emazte Karmenek ohearen beste aldera hurreraturik, «orain hobeto zagoz, aita?» galdetu dio, eskuan musu emanaz. Seme-alaben artetik entzun uste dudan zotina benetakoa izango zen, eusteko ahaleginak sumatzen baititut, aitaren aurrean ez nabarmentzeko, duda gabe.

–Orain hobeto, ezta? –galdetu dio Karmenek berriro.

–Hobeto, baina ondo ez.

–Jarriko zara, medikuak agindutako botikak lanean hasten direnean.

–Bai, Karmen! Botikek alfer-lan asko egin behar izaten dute.

–Egon isilik, aita, berbetan nekatu barik –alaba batek.

–Berba egin gura dut baina! Isilik joatea tristeago ez al litzateke, jauna?

–Bai, Anton! Berba egingo dugu. Nik esan eta zuk entzun. Nahi al duzu fedearen aitortza egin dezagun?

–Berorrek nahi duena, jauna.

–Sinesten duzu...? –formularioaren zati bat.

–Sinesten dut, jauna.

–Sinesten duzu...? –beste zati bat.

– Sinesten dut, jauna.

–Ukatzen duzu deabru madarikatua eta bere...?

–Oraintxe, jauna, ez daukat gogorik inorekin haserre joateko.

–Arrazoia! Bizitzen laguntzera etorri naizela esan ditzut, eta horixe egingo dugu.

–Zelan? –Sarasetak, sinesgogor.

–Gogoan al daukazu zure alaba Ziortzaren ezkontzatik –hortxe dagoz bera eta bere senarra–, zelan alai-alai itzuli ginen Oletatik? Eta Gizaburuagako tabernan, erlojuari begiratzea denbora galtzea zela esanda, zelan seme Goiori agindu zenion ekartzeko traktorea elizaldera, autoan igotzeko baino egun «beteagoa» igaro zenuela eta?

–Ekarri egin zuen!

–Ekarriko ez zuen, ba? Begira zelako irribarretxoa ir-
ten zaizun oraintxe ere. Eta Karmeni lehenengoz etxera
lagundu zenionean, zelako trikimailua asmatu zenuen,
etxe alboko artepean denbora gehitxoago egitearren?

–Hori zelan daki berorrek?

–Ez bertan egonda. Ezta Karmeni entzunda ere.
Zeugandik izango da, beraz.

–A, a, a...

–Estropezu egin eta hanka trokatu, ezta?

–Min ematen zidan.

–Min bai... alde egin beharrak! Eta gero Karmentxo,
mutila barrura sartzeko beldurrez, etxeko botikin guztia
artepera atera –artaziak, bendak eta zapaten betuna po-
madatzat– eta hanka sanoari igurtzika. Gogoratzen zu,
Karmen?

–Dena imintzioa izan zenik ez dut entzun oraintxe
arte –Karmenek.

–A, a, a...

–Ezkontzera zindoazen goizean nondik ibili zinen?
Eztei-bazkarian, protokolo, emozio, argazki, atentzio
eta abar, ganoraz jaterik izango ez ote zen arduraz, Ger-
nikara isilean joan eta Boliña zaharrearantz kilo eta erdiko
txuleta eskatu zenuen, iluntzean «gizon-proba» zeneu-
kala eta. Hori ba al zenekien, Karmen?

–Jesus, umetxoak! Zuek ba al zenekiten hori?

–Karmenek.

–Zeozer entzun izan dugu –dio Ziortza alabak.

–Zelan portatu zen mutila? –nik.

–Ahalegindu zen –Karmenek.

–Ai, Anton, Anton, bixigus al monton! Isiltxo zagoz, e! –nik.

–Horiek denak errepasatzeko, berriro bizi behar da

–Sarasetak.

–Horretantxe gabilta!

–Soldadutzan ere kontu bitxiak dauzkazu zuk

–diotsot, arnasbidea geroz maizago ixten ote zaion beldurrez.

–Hm?

–Gogoan al daukazu komandantearen andreari zelan garbitzen eta orrazten zenion txakur «artista» hura, ile-multzo bat besterik ez zirudiena? Zergatik ote zen garbiketa hura komandantea falta zenean agintzen zizula beti?

–Hm, hm!

–Nahiz eta gero ez zinen gerran hain ondo ibili.

–Hm! Txarrena, gosea.

–Ez beti!

–Hm?

–Intxortako frontean, adibidez.

Jaten hasteko, garbantzukapur bat bigundu zain zeudela, bonbak hasi ziren goitik, eta denak lubakietara. Sarasetak zelai erdiko lapiko hari penaz eta bekaitzez begiratzen zion. Garbantzukapur alferrik galdu behar! Aitaren egin eta tximistan irten zen zelai garbira, lapikoa erreskatzera, atzeko oihuei –«nora hoa zoro hori?»– entzungor eginez. Hartu lapikoa eta bazetorren adurretan, baina

aurrean berriro bonbak jausten hasirik, atzeko pinudian ezkutatu behar izan zuen. A zer garbantzua-asea, berak bakarrik, bonbak jausten ziren bitartean!

–Hm, hm! Bizirik etorri ginen, baina orain... –Sarasetak.

–Orain eskolara egin behar dugu osteratxo bat.

–Ostera gutxi nik, eskolara.

–Baina onuragarriak! Markesaren ortuko madaririk onenak nork jaten zituen? Maistraren sukaldetik bizkotxoak zelan desagertzen ziren? Errotariaren astoa kanpai-sokara nork lotu zuen, herri guztia sutera mobilizatuz? Nork ostu zion abadeari aterkia, gero sermoi barregarriak eragingo zituen?

–Hm, hm, hm...

–Anton! –Esku batekin nirea estutzen uzten diot. Bestea emazteak hartua dio.

–Hm... hmm... hmmm...

–Anton! Nora zoaz? Hasi baino ez gara egin! Sentitzen dut –diotset seme-alabei—. Zuen aita ez dut uste itzuliko denik.

OIZKO ZALDI GORRI HARK

Oiz mendiko zaldi gorri hark bazekien zerbait, bere pikatxoiak bezalako barrabilekin. Autora lasai-lasai hurbiltzen zen, eta norbera autotik irtenez gero, puzka urruntzen zen. Leioa jaitsi nuen, eta Mozarten Requie-ma entzun zuenean, burua barruraino sartu zuen beste aldeko leihotik. Zer? Gustatzen ala? Pendereckirena ipini nion, eta berdin. Sorozabalen «Hileta martxa», eta berdin. Berlioz, Gonzalez Acilu, Puccini, Verdi, Aita Donostia, Brahms, Stravinsky, Dvorák, Britten... Dena ondo. Ea beste hau! Trikitia ipini nion, eta tximistan al-dendu zen, Arraterantz.

ANDOINGO ARRATE

–Ikusgarri dago hauxe! –hots egin nik–. Lehen ere ez zarete ikusi gabeak izango baina.

Edertasunetik aseago daudela gaineratu du etxejau-nak aberastasunetik baino.

–Zer dira argi-multzo horiek? –galdetu dut, apur bat ataritik urrundu naizenean.

–Arratek azalduko dizu –esan du etxeakoandreak–. Besteok goazen ohera, eguzkia azaltzeko ere ez da askorik falta eta.

Afal ondoren, gerezipeco mahaitik, oihan horixka bat erditu berri ageri da, ilargiak areago baitirudi bertatik goratua, hara gaineratua baino. Metro batzuetara, soro-munan, alper-harri bati erreparatu diot eta bertan eseri naiz, zuhaizpetik kanpora ikuspegia libratzearren, eta etxetik apur bat urruntzearren.

–Argitasunik handien hura Tolosa da –dio ahizpa zaharrena uste nuen, baina bigarrena den Arratek–. Argitxu! –hots egin dio atzetik jarraitu digun ahizpa txikiari–. Sar ezan txakur gogaikarri hori ukuiluan, inori ez zion lo egiten utzi behar eta.

Tximini luze baten ke-dorre askoz luzeago eta xumeki inklinatu bati ezinezko iritzi diot, gaua ez baitaigo figura zehatzak bereizteko moduan. Neure emozioa distraitzeko irudikatua izango zen. Izan ere, Arratek damaizkidan azalpenei baino («hura Anoeta, Irura, Villabona, Aduna, Andoain...») adiago nago neure barruko sentipenei, pentsakizun guztiz zehatzen forman datozenei. Errealitate amesgarria existitzen da. Nola pentsatu behar nuen goizaldeko zer ordu den ez dakidan honetan, bazter ezezagun bateko etxe ustekabe bateko alper-harri nekatu batean eserita egon behar nuela bost ahizpetako batekin, neure jaiotetxetik beti ikusia nuen ilargiari mirakulu iritzirik, sekula ikusi ez banu bezala?

Ahizpa txikia txakurra barruratzera bidali izanak artegatu nau, zilegi baitzait ulertzea, amestea, aitzakia bat izan dela bera nirekin bakarrean gelditzeko. Hala balitz, zertan izan behar luke errealitate deseatuak oraintxe badenaren ezberdin? Garbi ikusten (edo ukitzen) dudan konkrezio bakarra alperraren ardatz faltsuaren larako burdinazkoa da, zeina, neskaren aldeko eskuarekin heldurik, behin ferekatzen, behin estutzen baitut, ez jakin bat-batean jo nauen ingrabitare sentazioari eustearren, ala emozio deslaien zurrunbiloak gorputzean nahitaez eragin behar duela iruditzen zaidan dardarizoa gelditzearren. Dardarizoa baino gehiago, zalantza inurrizko bat, zeren, eszena hau objektiboki idilikotzat jotzekoa bada, zergatik ez diote araberako hitzek lagundu behar?

–Gure etxetik edertasun handiak ikusiz hazia naiz, baina honek zirraragarriago dirudi –aitortzen dut laket gogo gehiegizkoz, beharbada.

Gure etxetik baino edertasun zirraragarriagorik inondik hauteman dezakedanik ezingo nuke zintzoki adierazi, neure zuntzadura sentimentala bortxatu gabe, baina esanda dago.

–Daukagunari ez damaiogu garrantzirik –dio berak–, baina, azkenean, edertasunik handiena doakoa izaten da.

Horixe esan eta alperrean eseri da, «zirraragarriago» delakoa egia bihurtzeko bidean jarriz.

–Geu ere uste dut –eransten du– doakotasun horrexen barruan garela ederren.

–Konplikatuegiak ez bagina! –hasperen nik–. Gure garuna oraindik zati arerioetan konfiguraturik dago.

–Eskerrak bihotza ere badugun! –berak.

–Sentimenduetara jotzea nahiago baduzu, eta itxarorik ez didazula ausarkeriatzat hartuko, hauxe da beti irudikatu izan dudana egoera literarioa, non eszenak musu bat eskatuko lukeen.

–Beno! Literatura konpletatzeko bada...

–Eskerrik asko! (Zergatik esan ote diat hori?). Borondatea aski hunkigarri zait.

–Ezkondua al zara?

–Arrate! Sentitzen dut, baina bazenekiela uste nuen. Aitak ez al dizue ezer esan?

–Zer esan behar zigun?

–Apaiza naiz.

–O, barka!

Une bortxatu samar bat igaro ondoren (neure alde-tik areago beretik baino), hizketa lasai eta guztiz berrian jarraitu genuen. Aurretik, sukaldean, Bizkaiko kostaldea ezagutzeko ilusioa zuela adierazi baitzuen, esan nion Gizaburuagako zein Amorotoko abadetxean bazuela, nahi izanez gero, ostatua, eta etortzeko lotsarik gabe, bakarrik, lagunarekin, lagunekin, nahi zuen moduan. Herriarrak ohituta zeudela han denetariko jendea ikusten. Benetan estimatuko nuela hori, euren etxean izandako ostatu eskuzabalaren esker onez. Eskaintza guztiak alferrik izan ziren, handik laster preso aurkitzen bainintzen Zamoran, urte mordo baterako.

Zein izan zen, Andoaingo baserri batean, familia oso bat ezagutzeko motiboa, tartean Arrate izeneko neska? Gizaburuaga eta Amorotoko apaiza nintzela, Markinako Lanbide Eskolan klase batzuk ematen nituen. Udako oporretan, hamasei bat urteko mutil-talde batekin hamar eguneko txango bat antolatu genuen Gipuzkoan zehar. Garaiko azpi-formazioaren metodoetako bat.

Talde «basatia» ez nuke esango, baina bai «basakumea». Ez zen lan erraza izan odol geldiezin haiek giza-lege neurtu baten barruan maneiatzeari. Igeldoko pinudi batean kanpatu ginen, eta hiru egunera bidali gintuzten, han ezin genuela jarraitu eta. Lasarte alderantz hartu genuen, eta mendi zoko baten bila, haran estu batean gora, gero eta estuago, azken baserria zirudienaren ondotik gindoazela, gizon batek hots egin zigun:

–Baina nora zoazte hemendik gora?

Egoera azaldu nion. Apaiza nintzela eta gazte haiekin... Eta abar.

–Arro honetan gora ez daukazue inon toki egokirik mukizapi bat zabaltzeko ere.

Eta gaua gainean! Etxekoandrea ere atera zen. Erruki hartu ziguten, nonbait, eta mandioa eskaini, «gau baterako».

–Bai, bai! –nik, zerua zabaldurik–. Bihar aurkituko dugu bazter egokiren bat.

«Bazter» hura Sorabilla izango zen, hango apaizaren borondate onez.

–Baina gaur non gaude? –galdetu nuen eta etxejau-nak erantzun:

–Andoaingo partean zaudete. Esan beharrik ez da izango baserri batean zaudetela.

–Ez dago, ez, esan beharrik –nik–, baina bai dago eskertu beharra, bihotzez.

–Premian denari laguntzeak ez du behar eskerrik, baina estimatzen da gizalegea –jaulki zuen gizonak suabe-suabe–. Jendea beste mundura eramaten ikasia izango da berori, baina mundu honetan ibiltzen ez zioten asko irakatsi.

Mutil-taldea mandioan kokaturik, familiarekin afaltzera gonbidatu ninduten. Apaiza izatearen kontuak. Mutilekin hitz egin nuen ea zer irizten zioten, eta bai, bai! Haiek ere pozik zaintzaile gabe gelditzeko.

Eta ia hondamena gertatu! Mandioan zigarroak erretzen hasi ziren, eta gutxi falta izan zen etxeak su hartzeko. Dedio! Hura sustoa! Mutilak ere ikaratu ziren, eta gau guztian ez zen entzun mandioan saguzarren hegada besterik. Egoera berriz onera ekarritakoan, ohea ere eskaini zidaten. Ez nuen onartu. Dardara ematen zidan mutilak gau osoan euren kontura uzteak, «ikaratuak» baziren ere. Etxekoekin hizketan jarraitu nuen, bost ahizpa tartean zirela, adinez ilarakoak, adi-adi guztiak. Handik sortu zen aipatu Arraterekin solasa, ilargiaren argipean, noizean mandiora itzuli bat egiten nuela, badaezpada.

Geroztik urte mordo batera, Franco hil aurretikoan etxeratu nintzen Zamorako kartzelatik, 1975ean. Hurrengo urtean, plazarik plaza bertsolari hasirik, Euskal Herri guztira zabaltzen hasteko zortea izan nuen. Saio batean, Sorabillara ere bai. Mitxelenak bertsolariak, bederatzi puntuko motz batean, errima bat behar eta, «sorabildu» aditza asmatu zuenekoa. «Hemen gera bildu / edo sorabildu». Gero, «zorabildu» bezala, aditz esanguratsua iruditu zait beti.

Elizaldea ez zen gehiegi aldatua urteak aurreragoko kanpaldi biktorioso hartatik. Orduan ezagutu nituen Don Benantzio apaiza eta Zilia neskamea falta zirela bakarrik. Inguruak ikusmiratuz, oroimena irabiatuz, lurretik altxaturiko sentimendu samurren behe-lainoak inguratu ninduen. Gozo-gozo, leun-leun, laino guztia gorputzera irazi zen. Oroitzapenen eraso bat izan zen.

Saio ondorengo zurrunbiloan, jada gau erdian, neska baten begiradari erreparatu nion jendarte mugikorretik, sei bat metrora, txosnako bonbilla-arku inbertituen hegalean. Hasi nintzen hurreratzen, bihozkadak arrazoi ote zuen, eta begiradarik ez zuela alboratzen ikusirik, irribarre bat ere abiatu zitzaiola iruditu zitzaidan hurbiletik.

–Zu ez al zara ... hura? –diot.

–Ez dakit zein «hura» esan nahiko duzun.

–Ama Birjina ospetsu baten izena daramana.

–Ama Birjina guztiak ez al dira ospetsuak?

–Zuretzat ospea baino zerbait gehiago izango da... «Arrate».

–Gogoan al duzu? –Irribarrea urduritu zitzaiola iruditu zitzaidan.

–Nola ez, ba? Eta ez dut uste Ama Birjinagatik izango denik.

–Banuen agurtzeko asmoa, baina okupaturik ikusten zintudan, eta aurrea hartu didazu.

–Ez zinen ausartu nire abadetxeko ostatuaz baliatzen.

–Joan ginen Lekeitio aldera, eta preso zeundela esan ziguten.

–«Alperra» bizi al da, harri batek funtzio hori har dezake?

–Gainean eserita egon zinen toki berean darrai.

–Egon «ginen», ezta?

–Bai memoria daukazuna!

–Ez da haritzekoa, gau hari kartzelan hainbeste erre-paso eman ondoren. Ia-ia etxea erre genizuen.

–Ez zen hainbesterako izan. Gure aita beroago baita sua bera baino.

–Txakurrak ere ez zuen gozo hartu ukuiluan itxia izatea.

–Apaiza zinela igarri, nonbait.

–Zuk ez bezala, neuk esan ez banizu. Orain ez naizela ere esan beharko dizut.

–Hara! Bai bitxia horixe!

–Jada ezin dizut abadetxerik eskaini.

«Jada ezin dizut abadetxerik eskaini, pendiente geratu zen musua probatzeko» esatera nindoan, eta esana legoke, barruak sikuan atxiki ez banindu. Hizketan jarraitzen genuen bitartean (gurasoak, ahizpak, bizimoduak, nire berriak, bereak), atzera egite inpultsibo haren zirimolan nenbilen, lehenengotan urduri, baina bai pozez ere, kanporantz igarri ez zedin ahaleginduz. Horrek ez zuen eragotzi lehen bulkadaren (garbi esanda, desioaren) sekuentzia paraleloa honela joan zedin:

–Tragotxo bana hartuko al dugu, kontu batzuk esanez? –nik.

–Ez legoke gaizki. Goazen beste txosnara. Hemen zarata handia dago –berak.

–Txosna guztietan dago zarata handia.

–Jatetxera ondo iruditzen al zaizu? –berak.

–Nahiago, lagunekin-edo loturik ez bazaude.

–Lagunak hor ibiliko dira gero ere.

–Zer moduz gurasoak? –galdetu nuen jatetxeko barran.

–Ama kili-mala dabil aspaldion.

–Eman goraintzi handiak eta berritu eskerrik bihozkorrenak.

–Esango diet. Estimatuco dute.

–Eta ahizpak? Bost zineten, oker ez banaiz.

–Gazteen biak hor dabilta. Zaharrena eta hirugarrena ezkondu ziren.

– Eta bitartekoa? –nik intentzioz.

–Bitartekoa hemen dabil, Ama Birjinaren izen ospetsutik apartatu gabe.

–Pozten naizela besterik ezin dut esan –jaulki nuen benetako karga sentimentalez.

–Neu ere poztu naiz ezagutu nauzulako.

–Hori entzuteak gehiago pozten nau. Beste ahizpak ere agurtuko nituzke.

–Laster agertuko dira nonbaitetik, auto bakarra baitaukagu hirurontzat.

–Neuk eramango zaitut, nahi baduzu, presarik ere ez daukat eta.

–Ez dago gaizki. Horrela, nondik ibili zineten berrikusiko duzu.

Azkenean, ez zen plana burutu. Hark ez zuen hala bereizi nahi ahizpengandik, eta neuk ere ez nuen eman nahi «harrapari» itxurarik. Niretzat, aldeko borondatea aski atsegin izan zen. Baina berehala, egun hari «agur eta beste bat arte» esanda joaten uztea betiko galtzea izan zitekeela pentsaturik, ausartu nintzen esaten:

–Datorren larunbat iluntzean, Lasarteko bazkari batetik bueltan, hemendik pasatzekoa naiz etxerantzean.

Bazeneritzo, tragotxo bat pozik hartuko nuke zurekin, gaur baino astitsuago.

Era horretara planteaturik, koartada guztiak hartuak izatearen segurantzaz sentitzen nuen, konkordantzia guztia gezur baten gainean oinarritzen bazen ere. Lasarten ez neukan ezer, baina hangoa, zerbaitegatik, fidagarri ez bazen, izan zitekeen Hernanin edo Goizuetan. Hurrengo larunbatean ezin zuela bazioen, egun eta herri guztiak neuzkan handik «bide batez» pasatzeko, «zeurekin egon nahi dut» zuzen esan beharrik izan gabe.

–Zer ordutan etorriko zara? –galdetu zuen.

–Gutxienekeo batetik gora, ondoen datorkizunean –esan nuen–. Bazkalondoak eta jaiak badakizu nahi adina luza daitezkeela, baina, beranduenez ere, seiak alderako, egitekoak eginda nagoke. Zazpitan ondo deritzozu?

–Nigatik bai, aitari presazko zerbait otutzen ez bazaio.

–Gauza bat egingo dugu. Ni geldituko naiz jatetxe honetan, bide erdian trago bat egitea beti gustatzen zaidan moduan. Baldin bazaude, ondo, eta bestela, izango da berriz ere beste jaialdiren bat.

Lehenengotan, neure buruari amorrua hartu nion, hitzordua ez nuelako garantia handiagoz finkatu. Laster aurkitu nion egoerari abantaila mardulagoa, zalantzak itzarotea bizitzen baitzuen. Okerrenean ere, atzeratze amesgarri bat baizik ez zen izango. Denbora ez zihoan nahi bezain bizkor, baina, ordainez, bide guztiak zoragarri ziren, amaiera inebitablea baitzuten: «Andabona jatetxean, larunbat arratsaldeko zazpitan».

Horrela esanda, aldarri solemnea zirudiena, neure kautan errepikatzearen poderioz, araberako samurtasunera lerratuz zihoan. Pasatzen nituen inguru fisikoek ere naturak berezkoari eman ez dion lilura hartzen zuten, batez ere, larunbat hartako eguerdi ostean, kostatik Donostiarantz abiatu nintzenean. Normalean ordu eta erdian egitekoa hirutan egingo nuen. Bihurgune zitalak, bazter zikinak, gidari ipurterreak, kontrol gorrotagarriak... Dena zen zoragarri, argi ernegatuak jaurtitzen zituzten gidariak barne. Nire begiak denean pausatzen ziren, dena xeheki ikusmiratzen zuten, helbururantz joate kontzienteak, bertan egongo ote zen zalantzak kitzikaturik, guztia helburuaren beraren porositate xarmagarrian biltzen baitzuen. Berandu iritsi nintzen apropos, bera han ez aurkitzeak sortuko zidan larritasunaren beldurrez.

Andabona jatetxeko aparkaleku landare-hesiz partzelatuan, autotik lurrera baino lainora jaitsi nintzelarik, atariko harmailak igotzen hasi nintzenean (kontatu egin nituen, bederatzi), pentsatu nuen:

—Amodiora iristeko pretentsiorik ez duen hitzordu bat hainbeste koplak eta asmakeria eragiteko gauza bada, zer ote litzateke, destinoak zerbait gehiago gorderik balu?

Azkenean, misterio eta duda-muda guztiak presentzia zehatz eta txit mugatu batera bildu dira. Hortxe dago bera, barra kontran egunkaria irakurtzen. Kaixo eta kaixo eta:

- Barka pixka bat atzeratu izana.
- Neu ere ez naiz iritsi zahar. Zer moduz bazkalondoa?
- Zoragarri! –Horretan ez dut gezurrik esan, adierazpen errealegia atera ote zaidan beldur ez banintz.
- Lasarten ez dakit inoiz gelditu naizen –berak.
- Badu non gelditu, ibaia zikin samar doa baina. (Zer zerikusi ote zeukak batak bestearekin?).
- Nahi al duzu zerbait? –berak.
- Trago bat elkarrekin hartzeko ez al ginen berbatu? –nik.
- Tragoa baino gehiago, «elkarrekin», ezta? –berak.
- Zehaztapen polita izan da horixe! –xarmatu naiz–. Zure ahotik entzunda, batez ere. Tonika bat, mesedez, pare bat txorrotada ginebraz –diotsot zerbitzari neskari, ondoren Arrateri gaineratuz: –Freskatzeko eta pitin bat bizitzeko. Lanak amaitutakoan, alai puntu bat sartu ohi zait beti. Zure lanak oraindik amaitzeko egongo dira, beharbada.
- Amak beranduegi ez itzultzeko eskatu dit, ondo ere ez baitabil gajoa. Ahizpa gazteek lagunarteko afaria zuten, eta eurek utzi naute hemen.
- Azalduko nintzen fidantza handiegia ez al zen hori?
- Apaiz ohi baten hitzak sinesgarri behar luke, ezta?
- Pozten naiz zure usteaz. Gehiago pozten naiz hemen gaudelako, eta eskertzen dut denbora bat hartu duzulako.
- Gure ama gauerdirantz larritzen hasten da, alabaren bat etxean ez badago.

- Nahi duzunean eramango zaitut.
- Ez hain azkar ere. Gauerdia urruti dago oraindik.
- Txango bat egiteko astia izan genezake, beraz?
- Nik ez ditut parajeak askorik bereizten. Oso aldrebesa naiz horretan.
- Aiatik Oriorakoa ezagutzen al duzu?
- Ez dut uste inoiz pasatu naizenik.
- Ba, horixe egin genezake, gero Donostiatik zein Azpeiti aldetik itzuliz, iruditzen bazaizu.
- Ibilera handiegiak ez al dira izango zuretzat, lehenagoz gainera?
- Ni ohituta nago ibiltzen. Egotea da kostatzen zaidana.

Autoan goazela, ezin diot gehiegi begiratu. Zehar-begirada nahitaez azkarregietan, alkandora zuri-urdin nasaiak airosten dion erlantz deigarrian, kanaltxoaren iragarpena ageri da doi-doi. Atearen kontratik pitin bat neuganantz biratzen direla, bihurgunea baino doi bat gorago bistaratzen diren belaunak abiaduren palankarantz pausatzen zaizkio. Behin edo behin, eskuinerantzko aldaketetan, nire eskuak nahitaez bere belauna ukitu behar du. Ez dirudi axola dionik, ukitze mekanikoa iritzita edo. Ez da, ba, nire kasua. Diodazen eta diozen hitz gutietan, duela hamar urteko pasartearen besterik ez dantzut.

–Hauxe da beti irudikatu izan dudana egoera literarioa, non eszenak musu bat eskatuko lukeen –nik.

–Literatura konpletatzeko bada –berak–, utziko nizuke.

Azken bi hitzok, batez ere. Lasai mintzo da, auzo-lagunak bagina bezala. Ni adei harroxkoan esplaiatzen naiz, berak nik baino hobeto ezagutu behar lituzkeen eremuak azaltzen. Bere harana denaren, edo bere etxetik bistan dauden mendateen edertasuna laudatzea bera atsegintzeko era bat iruditzen zait. Ez dihardut ohartuki, baina badihardut.

–Etxetik beti ikusi dudan horizontez beste aldean ikuskizun hau egon behar zuenik ez dut inoiz pentsatu.

Aia gainean hori esan duenean, zirrara bat nabaritu dut, zeina ez baitakit edertasunak batzuetan maite duen sinpletasun estremoari dagokion, ala sinpletasun orotan ikusi nahi dudan edertasun totala den. Bietara naiz irabazle.

Hizkera lasaiaz gainera, bere baretasun aire orokorrak atzitzen nau, kanpotik igar ez dadin saiatzten naizen nire irrikaren aldean, kasik indolentzia emango lukeena, zeina ez baitut uste (ez dut uste nahi) jarrera kalkulatu denik. Tonu berdintsuan esan du «kartzelako patioa tristea izango zen», nola geroago, «paraje ederrak dira hauek». Galdetzen dizkit gauzak (neuk ere bai berari) kartzelaz, apaizgoaz, haurtzaroaz, baina konprentzio alardetik gabe. Ez zait gustatzen ni sakonki konprentzen saia daitezen, ez hainbeste horrek gero araberako ordaina eska dezakeelako, baizik sentimenduen intentsitatea markatzen duen gune nuklear hura intrusio batek irabia dezakeelako.

–Zure izenaren jatorria den Arrate ere han dago ton-tor lerroaren azkenean, txiki-txiki.

Ez du galdetu zein tontor, baina zaila da beste gabe identifika dezan, neuk ere, bere orientazio urriaren airtortzan fidaturik, jakinean baino airera jaurti baitut. Bai esan du «ez naiz inoiz bertan izan». Nire konplazentzia gogoak iradoki didana –«hurrengoan haraxe joan gaitetze»– berehala moztu dit biziraun senak, amodio kontuetan sarritan oker gidatzen duenak. Pentsatu dut:

–Hobe da bigarren egunik lotzen ez saiatu, ustez ondo doan lehenengoa nola amaituko den jakin gabe.

Egia esan, ez zen ondo amaitu, amaitu egin baitzen. Gauerdia baino lehentxoago, bere etxe azpian, autoa urduri samar maniobratu dut txakurraren haserreagatik. Azken hitzak honela joan dira:

–Alperrak hor al darrai?

–Gereziondo beraren azpian.

–Merezi izan du musua hamar urtez atzeratzea.

–Pozten naiz, hori uste baduzu.

–Sentitzen areago, uste baino.

–Hori ere poztekoa da.

–Jarraituko dut inguru hauetan saioak izaten.

–Neu ere saia naiteke urrutiago joaten.

–Utziko al didazu, beraz, duela hamar urte airean geratu zen musua ematen?

–Ez al dugu emantzat utzi Orioko hondartzan?

–Errepikak ez du originala ezabatzen.

–Orain ezingo luke izan apaiz-musua.

–Bai izango luke apaiz-marka. «Sacerdos in aeternum».

–Pena da gauza onak amaitzea.

–Baina ona ondo amaitzea. Tori!

–Tira! Literatura konpletatzeko bada...

Bada mende erditik gora kontatzen ari naizena gertatu zela. Gertatu edo. Badakit zati handi bat erreal dela. Badakit zati bat fikzioa dela. Baina oroimenak dena nahastu dit. Polita da oroimenak gauza berriak asmatzea. Azken batez, ni oroimenarekin bizi naiz, ez gertaerekin. Eta orain, idaztean, errealitate bakar eta oso bat sentitzen dut. Hain osotasun erreal nola guztia bailitzan fikzio zoragarri bat. Nola ez dut, ba, idazten jarraituko?

MISTERIOAREN MIRARIA

Miraririk handiena neure Otoio hoteleko terrazan gertatu da, eguerdian. Gauza harrigarria berau, mirariak ilusentian ikusten ohiturik baikeunden, ez argi, ez ilun. Edo gehienik egusentian, baina azkar, argiaren gehitzeak ilusioa ezaba ez zezan. Nirea eguerdi-eguerdian izan da. Lerro soil bat agertu zait, eguzkiaren islaren arabera bakarrik ikusgai. Posizioak uzten du hurbiltzen eta urruntzen, islaren lerrotik ez irtetekotan. Pitin bat alboraturik, dena itzultzen da terrazoaren gris ilunera.

Lorraz bat dirudi, agian ubera bat. Distantzia batera makurturik, kate distiratsua da, gurpila galdutako mini-quad baten kate arrastatua iduri. Zutik hurbiltzean, junturak tarte handiangoekin banatzen direla eta tarteak hutsune totalak direla ageri da, halako eran non aleak guztiz bereiz baitaude, lerro posizioaz beste batasun gabe. Horrela ikusiz, eta katea ezin izanik, aleek petalo txikiak dirudite; angelu leunduzko karratutxoak.

Ez baitakit horrelako petalorik baden, diodan korola laukoitz ñimiñoak direla, hain lerroan eta hain doitasun uniformearekin banaturik non baitirudi pintzel saltari bat

igaro dela, lerro suabeki kurboan silueta bat trazatuz. Korola ñimiñoen zilar-koloretik, txanpon ilara bat ere pentsa liteke (gerriko numismatiko bat), euren biribiltasun osorik ezak irudipena deuseztatuko ez balu.

Lerroari jarraituz, harritu naiz bihotz handi baten silueta osatu denean, Matxu Pitxuko zelaian zeruaren marrazki alegoriko bat bezala. Berehala ohartu naiz miraria bikoizten dela, ikustean marrazkiaren behe-erpina ez dela gerri mehe bat besterik (bi lerroren gurutzatze bat), non aldaka-joko ezin sentzualago bat zabaltzen baita, arrain-isatsera errenditzen dena. Haragi marduleko sirena bat ikusten ari naiz, zeinaren bihotz-sorbaldak iruditu zaizkidanak bular oparo eta zorarazleen marko bihurtu baitira.

Bularrek ez dute aparteko markarik ez titibururik, baina nabaria da euren presentzia, berdin besoena, oinarrizko siluetak ezin baitu beste zentzurik izan. Sirena biluz baten aurrean nago, aratinik etzana bera. Niri emakumeak jantzita gustatzen zaizkit, baina biluzik ere begiratzen diet. Norena da nire terrazan jostatu den pintzel enigmatikoa? Neure lagun Beorlegiz oroitu naiz, bere ferozitate surrealistik biguntasun baikorragora jaisten zenean, baina ez. Haren baikortasuna ez da iristen gizakiari arrainaren errematea esleitzeraino.

Jon Gorriti bururatu zait gero, nire lagun txorizalea, baina ezta. Hura ez litzateke gai arrain bat marrazteko, hegatsak hego bihurtu gabe. Fauvismoaren koloreak eta kubismoaren geometriak hornigarri exzitanteak lirateke,

zirriborro minimal honen xarma prehistorikoa aduleratuko ez balute, kontuan izanik terrazako figurak aipatu horiena baino kurbotasun beteagoa, karnalagoa ageriduela, eta bere edertasuna lerro baten jarraipenik sinpleena izatean datzala.

«Vitrubioaren gizaseme»-ra joko nuke, terrazakoa gizalaba ez balitz. Detaile konpongarria berau, Leonardoren marrazkia lar zientifikoa ez balitz. Rubens sentsualari lar haragitsu deritzot. Goyaren marrazkiek badute zantzu kezkarri bat, eta orain ez nago alararako. Botticelliren mardultasuna lar nakaratu iruditzen zait. Tizianoren zirriborrotzat pasa liteke, baina Giorgioneren «Venus lokartua» hautatu dut, zeinaren gozotasun kitzikagarria egilearen bizitzaren misterioan galtzen baita. Horixe baita marrazki elemental, prehumano honen izate inponentea: misterioaren miraria.

Putian gorian dorian! Misterioa eta miraria eztandan disparatu dira, susmatu dudanean, mortalki txunditurik onartu behar izan dudanean, fenomenoaren eduki guztia ez dela besterik bare soil baten iragaitza baizik. Lerro bakarrean, lepotik hasi eta gorputzaren goi-erdiaren alde batean zehar, gerritik behe-erdiaren beste aldera jarraituz, arrain-isats perfektua osatu du, eta bueltan dator kontrako bide simetrikoa eginez. Berriro gerrian gurutzaturik, lepoko abiapuntuaz bat egin du. Deskribatzen baino kalkulatzen ari naiz, jakinik nahitaez geldituko direla inkongruentzia handiak, misterio edo mirari guztietan bezala.

Arteko miragarritasun guztia osatzeko (ala gainditzeko?), ikaratu naiz ikustean fenomeno hiltzen dela tragedia bikoitz baten ezustean. Bare gaixoa bere lorratzaren azken petaloak doi-doi markatuz iritsi da lepoaren gurutzera, eta lirdinga guztia ahiturik, hortxe gelditu da idor, burua marrazteko aurrera ezin eginez. Mika batek erreparatu dio, eta moko puntan darama gosaritzat, miraria terrazan utzirik, nondik ateratzen baita mirari bat izan daitekeela egia, nahiz edukia falta. Izan daitekeen bezala argia ere, bere iturburua aspaldi itzalia izanik.

Nola liteke molusku ezdeus baten, labain eginda jausteko beldurragatik ez balitz, lasai zapalduko nukeen muki-jarioitsu baten noraezak eta eguzki hiltzailearen azpiko bere angustiak hain figura sublimea eta sentsuala marraztea, lorratzaren huts-beteak zehaztasun exaktoan kateatuz?

Gauzak eratu behar dira zoritxarra saihesteko moduan, baina behin zoritxarra abiatuz gero, azkeneraino eroan beharra dago, bareak egin ez duen moduan. Kontuz! Maitasunean dena eskatzea bezalakorik ez dago, ezer gabe gelditzeko. Munduan neu bakarrik gelditzea zoritxartzat hartu behar al dut? Maitasunean zer da dena eta ezer ez? Erantzuten saiatzen naiz, baina soluziorik ez zait interesatzen.

Pentsaketa bakarrik behar dut. Zerbait, zernahi, pentsatzen ez ahazteko. Horretarako, ahalik hitz gehien eta zehatzenak behar ditut, eta ikaraturik nabil alderantzizko arrapalan ez ote noan, hitzak joaten ari baitzaizkit, haize-orbelak iduri.

Behinola errima-jokoak bezala, orain hitz eta ideia jokoak burutzen ditut. Adibidez: «bikain». Eta darrait: on, eder, bitxi, galant, majo, polit, ganorazko, dotore, dezente, zoragarri, jaukal, mortal, itzel, sublime, ikusgarri, esplendido, lorios, eszelente, itxurazko, mundial, xarmant, egundoko, dibino, bapo, apart, puntako, genial, izugarri, balios, fenomenal, bana-banako, magnifiko, txitezko, sekulako, ideal, aparteko, berdingabe, primerako, hauta, berebiziko, bitore, eskisito, paregabe, terrible, aho-zuloko, markako, ikaragarri, ezin-hobe, alimaleko, zerutar, ohidalango, super, harrigarri, alazoko, berealdiko... Eta berariaz aipatu ezik, agian errazen ahazten den... «kristorena».

Edo adibidez: «berezi». Eta darrait: bereiz, singular, bakar, original, ohigabe, partikular, bakan, espezial, ezohiko, espezifiko, bana-banako, eksklusibo, propio, norbereki, pertsonal, pekuliar, berdingabe, kurioso, bestelako, diferente, nabarmen, tipiko, seinalatu, atipiko, arraro, exotiko, eszentriko, ezberdin, estrabagante, berariazko, dibertso, estrainio, aukerako, eszepzional, karakteristiko, aparteko...

Beldurturik nenbilen kontua ez ote zen mugatuko, astiro baino bizkorrago, gama guztia «bikain» edo «berezi» izatera. Orain nire izua beste bat da: hitz biziraule hauexek ere (bikain, berezi), dena eurekin adieraztera biziatu ginen adjektibo oro-esaleok, ez ote diren gandu bihurtuko, zentzuez totalen. Baliteke materialki ez ezabatzea, hots, soinu soilean irautea. Milioika hots ezberdinezko oihan

unibertsala hizkuntza partikular bat ezin osatuz gelditzea bezala. Hustu zaizkit edukiak. Galdu ditut ideien loturak. Joan zait pentsamena. Ezabatu da nire nia.

Ez nago ziur horrela izango den, eta ez dut probatu ere nahi. Alderantzizko noranzkoan bakarrik saiatuko naiz. Eta ahaleginak, eusteko ez ezik, kontzientzia bi-ziagotzeko balio diezadan, euren izenik ez dakidan gauza guztiei (gehien, gehien, gehienei) izen bana ezartzen dihardut, hura imitatuz zeina sorkariei izena jartzean ohartu baitzen zer egin zuen. Horrela, neure bizi arteko zeregin atsegina segurtatuz gainera, eurekin harreman zuzen eta banakoan bizi naizen gauza guztiek beste hainbestean behartuko naute neure kontzientziaz ohartuki gozatzera. Azkenean badirudi zoriona posible izan dela. Heriotzari eskatzen diodan bakarra da sano hil nadila.